

LITTERAE VASCONICAE

Euskeraren
Iker Atalak

14

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

BILBAO
2014

LABAYRU IKASTEGIKO HIZKUNTZA ARLOAREN ALDIZKARIA

Zuzendaria

ADOLFO AREJITA
Labayru Ikastegiko zuzendaria
Deustuko Unibertsitatea

Idazkaritza burua

SEGUNDO OAR-ARTETA
Labayru Ikastegia

Idazkaritza

ASIER ASTIGARRAGA
Arizmendi ikastola
ENEKO BARRUTIA
Bilboko Hizkuntza Eskola
K. JOSU BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea
IGONE ETXEBARRIA
Labayru Ikastegia
S. GARTZIA TRUJILLO
Elizbarrutiko Teologia eta Pastoraliza Institutua
JABIER KALZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea
ANDER MANTEROLA
Labayru Ikastegia

Edizio-Taiuketa

IKEDER, S. L.

LABAYRU IKASTEGIA

Larrauri 1-A, 5.a
48160 DERIO

Tel.: 944 060 171 - Faxa: 944 060 173

idazkaritza@labayru.org

www.labayru.org

© Artikuluena, autoreak eurak.

© Argitaraldi honena: Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ISSN: 1132-0702

Lege Gordailua: BI-847-94

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.

Silutegia: Gestingraf, S. A. L.

Azala: Bermeo.

HELBURUAK

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak aldizkaria Labayru Ikastegiko Hizkuntza eta Literatura arloko agerkarietako bat da. Hor argitaratzen ditu hizkuntza eta literaturari buruzko ikerketa-lanak, bai gure esparruko bai kanpoko ikerlari eta adituek egindakoak.

Aldizkaria urte birik behin ateratzen da. Aldizkari honetako artikulak, Latindex katalogoan sailkatu eta zerrendatzen dira.

OBJETIVOS

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak es una de las revistas del departamento de Lengua y Literatura Vascas del Instituto Labayru. En ella se publican los trabajos de investigación relacionados con la lengua y literatura, de profesores y estudiosos tanto del ámbito vasco como externos.

La revista tiene periodicidad bianual. Los artículos publicados en esta revista son catalogados e indexados en el catálogo Latindex.

OBJECTIFS

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak est l'une des revues du département de Langue et Littérature basques de l'Institut Labayru. Y sont publiés tous les travaux de recherche portant sur la langue et la littérature que mènent enseignants et spécialistes, tant au Pays basque qu'à l'extérieur.

Sa publication est biannuelle. Les articles publiés dans cette revue sont catalogués et indexés dans le catalogue Latindex.

PURPOSE

Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak is one of the journals of the Department of Basque Language & Literature at the Instituto Labayru. The journal publishes research work concerning the language or literature, by Basque and other lecturers and scholars.

The journal appears twice a year. The articles published in this journal are catalogued and indexed in the Latindex catalogue.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	9
HERRI LITERATURA	
JABIER KALZAKORTA. Neska ontziratuaren eredu berri bat: Garaziko aldaera ..	11
JESÚS ANTONIO CID. Bibliografía de María Goyri (versión preliminar)	51
JABIER KALZAKORTA. Gernikako kopladia, Julio Bareñoren koplá-bilduma ...	65
HIZKUNTZALARITZA	
ADOLFO AREJITA. Bermeoko hizkeraren zenbait berezitasun eta ekarri XX. mendean	127
JOSU M. ZULAIKA. Las fuentes vascas de la <i>Idea dell'Universo</i> de Lorenzo Hervás	167
IDAZLEAK	
SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO. Jean Etxepare, Aldudeko medikua. Euskal modernitatearen brankako irudia (I)	211
MERCEDES ACILLONA. Genaro de Egileor Arostegi en la prensa nacionalista vasca de la II República	251
<i>Irudien argibidea</i>	291

AURKEZPENA

Litterae Vasconicae Euskeraren Iker Atalak aldizkariaren 14. zenbakia literatura, hizkuntza eta prentsa historikoarekin zerikusia duten artikuluek osatzen dute.

Herri literaturako edukiak dituzten artikuluetan, Jabier Kalzakortak *Neska ontziratua* balada-gaiaren aldaera berria dakar, Nafarroa Beherekoa. Testu oso interesgarria da, 15 ahapaldikoa eta aurretik ezagutzen diren beste aldaera batzuk osatzera datorrena.

Horrez gainera, Jabier Kalzakortak berak Julio Bareño gernikarrak batutako ia lauhun dantza-kopla orain arte argitaratugabeak errekuperatu ditu. Bareño gerra aurretik beste hainbat material gehiago batu zuen; baina Gernikako bonbardaketan dena galdu zen, bilduma hau izan ezik.

Jesús Antonio Cidek Maria Goyri zenaren bibliografía jaso du lan honetan: bai Goyrik berak idatzitakoa, argitaratugabea barruan dela; bai hari buruz beste batzuek egindakoa. Izan ere, Cid Menéndez Pidal-Goyri Mintegiko kidea da eta herri literaturako gaietan aditua. Ondo ere ondo jarraitu ditu bai Menéndez Pidalen bai haren emazte Maria Goyriren ikerketa-ibilbideak, azken honenak ezezagunagoak izan arren.

Hizkuntzari buruzko artikuluetan, Adolfo Arejitak Bermeoko hizkerari buruzko lana egin du. Ikerlanak Bermeoko berbetarekin zerikusia duten idazleak, literatura egileak ekarri ditu gogora. Horrez gainera, hango ahozko hizkeraren ezauzgarri linguistikoak jaso ditu, lexikoari eta morfologiari lotuak batez ere.

Hurrengo artikuluan Josu M. Zulaikak Lorenzo Hervásek bere lan entziklopediko ederrean, euskarari dagokion zatia aztertu du, batez ere iturriei erreparatuta, tartean direla Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia eta izenik ematen ez diren beste batzuk.

Sebastian Gartzia Trujilloren artikulua lan luzeago baten lehenengo zatia da. Jean Etxepare *mirikuaren* lana hartu du aztergai, eta haren idatzietan erlijioaren ikuspegiari heldu dio. Artikulu honetan, Jean Etxepareren bizitza eta haren garaiko erlijio-giroa landu ditu batez ere. Etxeparek asko eta asko idatzi zuen, eta gehiena garaiko prentsan argitaratu.

Prentsan parte hartzen aurkituko dugu hurrengo artikuluko aztergai den idazlea ere: Genaro Egileor. Mercedes Acillona ikerlariak lehenago ere aztertu du idazle honen lana, eta aldizkari honetan bertan argitaratu. Oraingoan Bigarren Errepublika garaiko idatziei erreparatuko die, bete-betean sartu baitzen orduko ikuspegi politiko nagusi bien arteko dialektikan.

Litterae Vasconicae
Idazketa Batzordea

NESKA ONTZIRATUAREN EREDU BERRI BAT: GARAZIKO ALDAERA

Jabier Kalzakorta

Euskaltzaina

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Neska ontziratua-ren eredu berri bat: Garaziko aldaera

Euskal testu narratiboen artean euskal balada gai interesgarrienetako bat *Neska ontziratua* da. Artikulugileak, lanean bertan eskaintzen den eskuidatzitik abiatu, hamabost ahapaldiko *Neska ontziratua* baladaren aldaera baxenabartar berri bat transkribatu eta iruzkintzen du. Eskuidatziaren bertsio literala eta gaurkotua emanez testua finkatu eta iruzkintzen du. Baxenabarreko aldaera berria ezagutzen diren A. Xaho, Altzai eta Gotainko aldaerekin ere erkatzen eta iruzkintzen du.

Gako-hitzak: euskal balada, *Neska ontziratua*, Donibane Garazi.

RESUMEN

Una nueva versión de la balada *Neska ontziratua*, o *Marinero raptor*: la de Donibane Garazi

Entre los textos narrativos vascos uno de los tipos de balada más interesante de la baladística vasca es el referente al *Marinero raptor*.

El autor del artículo, a partir de un manuscrito que se reproduce en el trabajo, publica y comenta una versión bajonavarra inédita de quince estrofas. Además de fijar el texto en su transcripción literal y actualizada la comenta y compara con las diferentes versiones euskéricas que ha publicado anteriormente. Como anexo del trabajo ofrece las versiones de A. Chaho, Altzai y Gotaine.

Palabras clave: balada vasca, *Marinero raptor*, Donibane Garazi.

RÉSUMÉ

Une nouvelle version de la ballade *Neska ontziratua*: la variante de Donibane Garazi

Neska ontziratua, littéralement *La demoiselle embarquée*, faire saillie dans les textes narratifs basques comme une des plus intéressants modèles de ballade.

L'auteur de l'article reproduit et commente un manuscrit inédit d'origine bas navarraise qui se compose de quinze strophes. On donne une transcription littérale et actuelle du texte enrichie avec des commentaires éclairants. En outre, l'auteur compare la nouvelle version avec celle d'A. Xaho et les variantes d'Altzai et Gotaine.

Mots clés: ballade basque, *Neska ontziratua*, Donibane Garazi.

SUMMARY

An alternative version of the ballad known as *Neska ontziratua*: the Donibane Garazi variant

Within the Basque narrative, *Neska ontziratua*, literally *The shipped maid*, stands out as an interesting archetypical folk ballad.

We are presented with an original manuscript of the above-mentioned ballad, an unpublished fifteen-stanza version of Lower-Navarrese origin which the author transcribes and comments upon. The document is reproduced word for word; besides, the author provides us with an updated version of the text and explanatory remarks upon it. Furthermore, this new version is compared to A. Xaho's as well as Altzai and Gotaine variants.

Keywords: Basque ballad, *Neska ontziratua*, Donibane Garazi.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2014.03.21.

Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2014.05.20.

*Jesús Antonio Cid maisu onari,
euskal baladak ere maite dituelako*

1. Sarrera

Neska ontziratua balada gaia euskaraz dugun ederrenetako bat da. Doinu pausatu eta erakargarria du, batetik, eta, indar handiko hitzak ditu, bestetik. Gure balada gai hori, gutxi-asko, Europa osoko balada tradizioan zabaldua da. *Neska ontziratua* ren euskarazko ereduak, gure ustez, ez dira merezi duten adinean ezagutuak. Guk azken hamar urte hauetan lau eredu zuberotar argitara ditugu. Xahoren bi eredu, Altxaiko bat eta Gotaineko bat. Oraingo lan honetan Baxenabarreko eredu berri argitaragabe bat transkribatu eta iruzkindu nahi dugu. Gure eredu honen puska edo zenbait motibo ezagutzen genituen batez ere A. Donostiaren kantutegian irakurririk. Oraingo lan hau balada puska horiek osatzera dator.

Lan honetan *Neska ontziratua* balada gaiaren Garaziko eredu argitaragabea eman nahi dugu. XX mende hasieran, Iparraldean, *Neska ontziratua* baladaren ahozko testigantza apurak jaso zituzten R. M. Azkuek eta Aita Donostiak. Azkuek eta A. Donostiak balada eredu aski oso bana bildu bazuten ere –Azkuek Forun eta A. Donostiak Luzaiden–, ordurako balada honen transmisioa, Iparraldeko ahozko tradizioan behintzat, higatuxea zen.

Gure lan honetako asmo nagusia eredu zoragarri bat eskaintzea eta iruzkintzea da. Eredu hori XIX mende bukaerako edo XX mende hasierako dokumentu idatzi batetik jaso dugu. Eredu hori Pierre Duny-Pétré (1914-2005) idazle eta folklorista garzattarraren paperen artean aurkitu dugu. Idazle eta folklore-biltzaile honen bilketa lana Donibane Garazi ingurukoa zenez gero, Garaziko eredutzat hartu dugu geure ale argitaragabea. Jean Etxeparek, Eiheralarrekoa izanik, *Garaziko herria* deizioa erabiltzen zuen mendi Pirineoen oinetan aurkitzen den bailara zoragarri bat izendatzako: Donibane Garazi, Eiheralarre, Esterenzubi, etb. Gure ereduak, geroago ikusiko dugunez, beste leku batzuetako eredu puskatu batzuekin berdintasun handia du.

Gure lan honek, bestalde, ezin ditu inondik eta inora ere, gure ereduaren aberastasun guztiak agortu. Lan honek, ezinbestez, ez ditu euskalki muga eta ezaugarri guztiak aztertuko, ez eta baladaren baliapide, literarioak azalduko. Lan honetako helburu nagusia eredu finkatzea eta beste eredu batzuekin dituen bateratasunak ematea izango da.

2. Ahozko literatura puskak eta baladak

Euskal herri-literaturako generoetako aleak biltzen berandu hasiak gara. Gu biltzen hasi garenerako altxor handi bat galdua izango zen betiko. Bildu ditugun kantu zenbait kantu osoago batzuen pusketak dira, inolako dudarik gabe. Jauregi bateko ate dotore baten harri batek edo bestek ate horren jatorrizko itxura nola-koa zen irudikatzera eramaten gaitu. Lurpean harrizko ate baten giltzarria bakarrik aurkitzen badugu, giltzarria ate bati dagokiola jakin dezakegu; baina harri galduen bat aurkitzen badugu, ate edo leiho edo beste zein lekutakoa den ere ezin dezakegu asmatu askotan. Ene hitzen sendogarri eta erakusgarri ekar dezadan Luis Villasanteren “El euskera, la literatura vasca y la zona de Guernica” artikuluko pasarte bat (L. Villasante: 1966):

La disociación que secularmente ha existido –y que aún hoy perdura– entre el pueblo y los cultos ha sido causa de que la literatura popular vasca de tipo oral nos sea tan mal conocida. Muchas de sus joyas se perdieron para siempre; las viejas generaciones se llevaron consigo su secreto a la tumba.

Hitz hauek 1966 urtean idatziak daude, Gernikako VI mendeurreneko esku-programa batean. Herri-literaturako ahozko genero askoren aleak galduak daudela herri-literaturazale guztiok onartu ohi dugu. Kopla bat edo beste galdua izateak min ematen digu, balada oso bat galdua izateak min handiagoa. Balada baten ahapaldi batek edo bestek nekez eman dezake balada osoago baten irudia. Balada baten ahapaldi bakarrak edo bakarren batzuk mosaiko zoragarri bateko tesela bakanak izan ohi dira. Hona hemen Luis Villasantek artikuluko pasarte argigarri bat:

La literatura y poesía popular vasca es particularmente rica en piezas de subido valor, en contra de lo que a veces se ha afirmado por quienes la desconocían y aun la creían inexistente; pero el hecho se explica por esta disociación a la que hemos aludido. Las clases cultas, formadas en las lenguas oficiales, prestaban escasa atención a la lengua vasca, que era el órgano de expresión del pueblo, y aun estaban con frecuencia incapacitadas para apreciar las formas poéticas en que se expresaba éste.

El romancero vasco –las kopla zarrak– es tal vez la manifestación más alta de la poesía popular. Aún no se ha hecho un estudio acabado de esta peculiaridad poética, que debió de florecer en el país del siglo XVI al XVIII, y de la que han llegado hasta nuestros días, por vía oral, numerosos fragmentos. Este romancero nos

da fe de lo que nuestro pueblo ha sentido y vivido. Hay en este repertorio amoríos, odios, muertes, nacimientos, adulterios, fábulas de animales. El tema religioso ocupa también en él un puesto importante. El Hijo de Dios hecho carne, sus misterios, su nacimiento, la Pasión, la Virgen, la repulsa que José y María reciben en Belén al pedir hospedaje, etc. La peregrinación a Aránzazu ha dado ocasión a algunos de los más bellos y de los más divulgados de estos romances. Para más de un crítico, el romancero vasco constituye la joya de más valor de toda nuestra literatura.

Hitz seinalagarriak dira pasarte honetakoak. Euskal prosaren maitale eta ikerzaile handienetako batek, Axularzalerik handienetako batek, euskal baladen gaineko hitz sutsuak erabiltzen ditu. Euskal baladak euskal literatura osoko bitxirik prezatuena osatzen dutela dio; eta euskal literatura osokoa idazten badu, ahozko zein idatzizko literatura ulertzen dugu, bere osotasun guztizkoan. Gure lan honetan Luis Villasantek dioen balio handiko pieza baten berri eman nahi dugu. Garazi herriko edo Garazi inguruko *Neska ontziratua* baladaren eredu argitaragabe bat transkribatu eta iruzkinduko dugu. Gure eredu aski osoa da. Gure ereduko hamabost ahapaldietan argudioaren haria guztiz ulergarria da. Gure balada tiporen motibo gehienak –eta are guztiak esaten ausartuko ginateke– ikusten ditugu modu zoragarrian emanak. Guk ere, Villasantek bezalaxe, euskal baladen balio estetikoan sinesten dugu. Gure ahozko literaturak duen esparrurik bitxi eta balioetsuenetakoa dela uste dugu. Guk lan honetan eskainiko dugun baladaren zenbait ahapaldi bilduak zituzten Aita Donostiak eta Azkuek. Gure ereduko ahapaldi eza-gutu gabeekin balada tipo edo gaiaren istorioa ederragoa da eta are miragarriagoa.

Luis Villasanteren ideiak besterengan ere aurki ditzakegu. Euskal baladen edertasunaz eta balioaz orain baino lehenenagoko ikertzaileak konturatu ziren, hona Rodney Galloperen aipamen bat (R. Gallop: 1934):

Only one race, and that a small one, the Basques, has so far escaped attention, thanks largely to the difficulty of the language. The Basque ballads may be few in number, but they rank high not only in beauty and vigour, but also for the contribution they bring to the controversies already alluded to.

Euskal balada gaiak gutxi dira baina esan-indar edo edertasun handikoak, ikertzaile ingelesak egoki aitortzen duenez. Euskal balada hauen tradizioa galdu xamarrik zegoen, ordea, orain dela aspaldi ere. Rodney Gallopek *Errege Jan*, *Anderea gorarik*, *Berterretxen khantorea*, *Atharratzeko jauregia*, *Egun bereko alharguntsa* eta *Urtua* baladak ingelesez eman eta iruzkindu ondoren hauxe dio:

Unfortunately these old ballads are dying out. In a few years they will be remembered no more. But the spirit which gave them birth lives on, though diverted into other channels.

Rodney Gallopek ez du “Mariñelaren khantorea” edo *Neska ontziratua* euskal baladen artean izendatzen. Ordurako Iparraldean balada honen ahozko tradizioa

galduxea zen. Balada honen testigantzarik ez zegoen manualik ezagunenetan; ez zegoen Francisque-Michelen *Le Pays Basque* (1857) lanean edo Sallaberryren *Chants populaires du Pays Basque* (1870) kantutegian edo *La tradition au Pays Basque* (1900) liburuan. Gure baladaren lehen transkripzio ia osoa 1921eko *Gure Herria* aldizkariko gehigarri musikal batean agertua zen. Balada gai horren gaineko ikerketa eta balorazioak, ordea, askoz geroago etorriko ziren.

Gure lan hau *Neska ontziratua* gaiaren aldaera zahar argitaragabe bat ematea izango da, ezagutzen genituen puska batzuen eredu osoagoa. Europan barrena ezagutzen den gai edo motibo ezagun baten euskal aldaera zoragarri bat. Ez ditugu lan honetan beste erdal tradizio batzuetako aleekin gureak dituen bateratasunak eta desberdintasunak aztertuko. Beste herrietatik gurera datorkigun gai bat denik ere ez dugu uste. Gure beste balada gai batzuk halaxe datozkigula uste du Rodney Gallopek:

It is hard to know how much credence may be attached to these legends dating from the Reconquest of Spain from the Moors. Now that even the legend of Roland has been shown to be a fiction (with at the most a shallow substratum of truth) devised by the monks of Roncevaux to entertain the pilgrims to Compostella, many would claim that nine ballads out of ten contain no more than a local *rechauffé* of some medieval tale brought originally from the East.

Eman dezagun itsasoko anfora baten puska zenbait aurkitu ditugula. Puska horiekin ezin da anfora oso bat egin. Puska horiek izan ditugu luzaroan, eta, anfora eder baten hondakin diren ber, anfora oso eta guztizko batekin amesten jardun dugu. Halako batean, ordea, aurkitu dugu anfora osoa eta konturatu gara ezagutzen genituen puskak bat datozela anfora osoarekin. Anfora osoa guztiz prezagarria dugu ezagutzen genituen pusketa guztiak zentzuz jazten baititu.

3. Iparraldeko Azkueren neska ontziratua

Azkuek Hegoaldean *Neska ontziratua* balada gaiaren ale oso edo osotzako bat bildu baldin bazuen ere, Iparraldean ale osorik ez zuen bildu. Zehatzago esan: Azkuek “Manuelatxu” deritzan Foruko aldaera zoragarri bat batu zuen. Aldaera honek gure baladari dagozkion gertaera guztiak ditu. Iparraldean egindako bilketetan, ordea, gure baladaren zenbait puska baino ez zituen bildu. Zenbait puska argitaratu arren, beste zenbait argitara gabe utzi zituen. Bere CPV lanean argitaratu zuena hauxe da:

Aldisé batez nindiagoen sala baŕean brodatzen
Jaun gazte bat entzun nian itsasaldetik kantatzen
itsasaldetik kantatzen eta kobla eijerrik emaiten.

Lehen ahapaldi horri gutxi iritzirik testua bere ustez hobetu eta beste bost ahapaldi gehitu zizkion. Hona Azkueren hitzak:

J. Algoñi, carretero recadista (no sé si natural de Laíaine [Zuberoa]), cantó la melodía con sólo la primera estrofa. Las otras cinco, así como algunas correcciones de la primera, son del folclorista. Sala baxean brodatzen decía el original “bordando en la sala baja” por ene etsarian birjosten (neolog.) “bordando en mi sala”. Kobla edxeñak emaiten decía por eresi edxeñen emaiten. Jaun gazte bat entzun nian decía cojamente por Aiton-seme bat auteman nizun “advertí la presencia de un noble galán”.

Ahapaldi hau Azkue Bibliotekako paperetan aurkitzen da. Signatura osoa hauxe da: ABA-RMA-001-0002-001-813 zenbakia. Kantuaren gainean Azkueren eskuz idatzita *Suberera* hitza dator eta azpian *Mariñelaren kanthorea*. Herri mailan “Neska ontziratua” *Mariñelaren kanthorea* bezala ezaguna zen, Zuberoa eta Baxenabarreko ekialdean, guk uste dugunez. Kontu interesgarrietako bat, ordea, beste zerbait da. Kantuaren buruan zehaztasun hau dator: *Var. de 80?*. Zehaztasun hau geroxeago, puntu honetan bertan, aztertuko dugu.

Azkuek beste lehen ahapaldi bat ere bildu zuen baina ez zuen argitara eman. Beste lehen ahapaldi hori Antonio Zavalak argitara eman zuen zehaztasun honekin: “R.M. esku idazkietan azaldua. Ez det uste argitara eman zuenik”. Ahapaldi hori hauxe da:

Ari nintzalarik behin sala batean brodatzen,
aditu nian jaun mariñel bat ari zela koblatzen,
(Aditu nuen jaun mariñel bat) ari zela koblatzen.

Ahapaldi hau osatu gabea da eta parentesi arteko gehigarria gurea da. Ahapaldi hau –A. Zavalak honen berririk ematen ez badu ere, Azkueren eskuidatze-tan argiro agertzen da– Hazparden bildua da. Lehen ahapaldia aurkitu nahi izanez gero, signatura honetan dator: ABA-RMA-001-0001-004-280 zenbakian.

Azkuek bildu zuen hirugarren puska puntu honetan orain argitara emango duguna da. Hona hemen Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako funtsean, ABA-RMA-001-0001-004 signaturan 80 zenbakian datorrena:

Madarika dakiola dendariari besoa
dendariari besoa eta oratzaren (sic) golkoa
arroparen besua

Kantu honen gainean ez du jartzen ez non batua den ez nori batua den. Azkueren zehaztasun bakarra *oratzaren* hitzaren ondoan (sic) bat jarri dugu. Kantu hau garbira eman zuenean honela egiten du beste kuaderno batean. Garbira-ko koaderno horren signatura hauxe dugu: ABA-RMA-005-0015-001 eta kantu zenbakia 974. Kantuaren gainean *humorística* kategoria jartzen du. Hona hemen:

Madarika dakiola dendariari besoa
dendariari besoa eta orratzari (sic) golkoa.

Azkue handiak ahapaldi pusketa hau *Neska ontziratua* baladako madarikazio bat zelako ustea zuen. Zergatik? Puntu honetan bildua dugun lehen ahapaldian *Var de 80?* zehaztasuna jartzen baitu. 80 zenbakia daraman kanta azken hau baita. Azkuek kanta honekin dokumentu bizi bat jaso zuen norbaiten ezpainetatik eta norbait hori nor den ere ez dakigu kasu honetan behintzat, ez baitzuen bere koardernoan berriemailearen izenik jarri. Azkuek bildu zuen ahapaldi pusketa hori mosaiko baten tesela bat dugu, kaltzada oso bateko harri bakarra. Hiru pusketa hauek dira orain ehun urte inguru, XX mende hasieran Azkuek bildu zituenak, gehiagorik ez.

4. Neska ontziratua

Manuel Lekuonak esan ohi zuen herri kanten arima ezin zela inola ere idazle bakar batek plagiatu. Herri kantek duten arnasa eta edertasuna ezin du ezein idazlek bere lumaz sortu. Kanta bat herrian denboran barrena bizi izan bada, aparteko grazia bat du. Herriko sen, arnasa, arima hori herri-herrikoa da eta kantua alderdi guztietatik ateratzen da. Azkuek goragoko puntuan adierazi dugunez, *Neska ontziratua* balada gaiaren ahapaldi bat bildu zuen, Zuberoan. Hona, berriz ere, bildu zuen bezalaxe:

Aldisé batez nindiagoen sala baŕean brodatzen
Jaun gazte bat entzun nian itsasaldetik kantatzen
itsasaldetik kantatzen eta kobla eijerrik emaiten.

Kanta honi jarraipena eman nahirik beste bost sortu eta argitara zituen bere CPV, 57 or. Bildu zuen lehen ahapaldi hau orrazturik bost ahapaldiko segida asmatu zuen. Hona Azkueren sorkaria gure erara tolesturik:

I

Aldixe batez¹ nindiagoelarik ene etsarian birjosten
Aiton-ŕeme bat auteman nizun itsasaldetik kantatzen
itsasaldetik kantatzen eta eresi edxeŕen emaiten.

¹ Testu argitaratua *batek* dator. Huts garbia denez gero, aldatu egin dugu.

II

¿Zer nahi düzü, ereslari zaldün, ene etsarian zük egün?
–Othoi, anddere, nahi nikezü zurekilan mintzo-lagün,
zürekilan mintzo-lagün izan, birjosten ere ikhastün.

III

–Aitonsemeak gezi ta azkonen izan oi zire behórez;
nik eztakizüt geziz birjosten, lan dagit soilik orátzez:
zilhar-arizko eskü-lanttoak, araxko luze mehailez.

IV

–Guduz gaintiko eskü-lanetan ene erhiak tüzü bigun:
itsasegiko txürülaketan hau izan düzü ezagün,
Zilegi bezait zilhar-bihotz baten izaitea birjostun.

V

–Zilhar-bihotzak nihaurek ere badakizkizüt egiten.
Zilhar-urheak ene gogo hau ezтите zoriz bethetzen.
Beste galthapen gabe bazira zoazkit, zaldun, lehen bai lehen.

VI

–Soř bite zapi hortan bihotz bat, nihauren hau biz eredu;
üdako ekhia bezen sutsu da ta eztiaren goxoa du.
Nik besteño bat har birjosteko, zure bihotza indazü.

Azkuek lehen ahapaldia guztiz aldatu ondoren –*sala ba ean* beharrean “etsarian”, *jaun gazte* beharrean “aiton-seme”, etb. bere baitako beste bost ahapaldi sortu zituen. Bost ahapaldi horien itzulpena Cesareo Miangolarrak egin zuen. Azkuek ez dio zuzenki azken bost ahapaldiak bereak direnik, baina nori otu bestela balizko Zuberoako euskara garbi batean holako sorkari bat egitea? Baina gatozen harira. Azkueren mixtifikazio honek zer zerikusi du herri baladarekin? Inolakorik ez. Herri baladak beste aire eta grazia bat du. Guztiz bestelakoa da herri balada. Bigarren ahapaldian kateamendu edo bihurki gisako bat ikusten dugu, baina ez da inondik inora ere gure baladetan aurkitzen dugun modukoa. Herri baladetan, bihurkia emango balitz *zurekilan mintzo-lagün* horren ondoren *zurekilan mintzo-lagün eta* eskatuko luke, gehienetan.

Gure lan honetako Garaziko ereduak, geroago ikusiko dugunez, A. Donostiak bildu zituen pusken osagarria izango da, inongo autorek nekez bere baitarik egin dezakeena. Herriaren arnasa eta jeinua herriarena delako, denena eta ez inongo idazlerena. Eta, era berean, kantu bat urteetan barrena ahotik belarrirako joan-etorri horretan ibili luzea egin duena da, arragoan metal urtua bezala.

5. Aita Donostiaren neska ontziratuaren testigantzak

Goragoko puntuan ikusi dugunez, “Mariñelaren khantore”-aren ezer gutxi bildu zuen Azkuek Iparraldean. Denak ahapaldi bakarrak, bi lehen ahapaldi eta kantu barruko hirugarren bat. Gure kantorearen gaineko Aita Donostiaren bilketa, ordea, aberatsagoa da, ikusiko dugunez.

Aita Donostiak gure baladaren bost eredu bildu zituen. Bi eredu sei eta lau ahapaldikoak dira, aski osoak garai hartan bilduak izateko² eta hiru eredu ahapaldi bakarrekoak. Ahapaldi bakarreko hiru ereduak lehen ahapaldia, hasierakoa dute. Aita Donostiak bildu zuen eredurik osoenak sei ahapaldi ditu. Eredu hau 1919ko “Euskalduna, abeslari” hitzaldikoa da. Eredurik osoen hau non eta nori bildua den ez du jartzen. Eredu honi gure lan honetan A’ deituko diogu. Hona hemen sei ahapaldiko eredia bere sarrera eta guzti:

Ikusten dezute gure erri zarretako karrika ixil-illunetan, benetako jauregi zar bat, arri beltzez egiña, burnizko balkoiaz, eta ate gañian ikurdi edo armarri aundi bat duana? Leyo itzalen atzetik, barnian, neskatxa josten ari da. Bere ama, jauregi-etxeoandrea, estu-xamar da. Alabaren biotzean finkatua ikusten du erriko mutil baten iduria; mutil ona, azkarra, denetarakoa; ala ere ezetza eman dio amak; bere gisakua, aundikitakoa ez da-ta. Neskatxa, giltzez gordetuak, bere pena aizeari ematen du, uxoa baten iduriz, ele zaar au kantatzen:

1

Egun batez ari nintzelarik sala batean brodatzen
entzun nuben mariñel bat itsasuan kantatzen,
itsasuan kantatzen eta bersu ederren emaiten.

2

Broderia utzi eta joaiten naiz amarengana
eian utziren ninduien itsaso bazterrerat,
itsaso bazterrerat eta bersu heien entzuterat.

3

–Mariñela, mariñela, zatoz beraz barnerat,
zatoz, beraz, barnerat eta gurekin afariterat;
gurekin afariterat eta aita-amen mintzatzerat.

² 1921ko *Gure Herria* aldizkarikoa Nehor eta Dufauk argitaratua da. KKK obran agertzen da 133-134 or. GH aldizkarikoa baino osoagoa da. Bi eredu hauek ez dira guztiz berdinak. Aita Zavalak eredu bakartzat ematen du baina bi aldaera dira, gure ustez. Bata osoagoa bestea baino. Bi ereduetan, gainera bi edo hiru ahapaldi falta dira. Neskaren biluztearena eta madarika-zioarena, gure ustez.

4

–Kapitaina, kapitaina, etzaiyiya bekatu,
andere gerri-lerden polit ori behar duziya tronpatu?
Andere gerri-lerden polit ori behar duziya tronpatu?

5

–Mariñela, mariñela, emak untziari bela;
orai hemen atzeman dut desiratzen nubena,
orai hemen atzeman dut desiratzen nubena.

6

Itsasuan ura lodi, zolarik ez du ageri,
ene maitia han dabila arraina bezain igari,
ene maitia han dabila arraina bezain igari.

Bigarren eredu interesgarri bat bildu zuen Saran Lehetxipia deituriko etxean. Sarako etxe horrek gure ahozko literaturan inportantzia handia du, Mayi Ariztia biltzailearen etxea baita. Mayi Ariztia aita Donostiaren laguna izan zen eta bere etxean, Sarako Lehetxipian, hainbat ipuin-kontalari eta kantariren ipuin zein kantutak bildu izan ziren. Guztiz interesgarria da berri-emailea Itsasuko zela jakitea eta ez Sarakoa. Bigarren eredu honi B' deituko diogu.

1

Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen,
itsasotik aditu nuen mariñel bat kantatzen,
mariñel bat kantatzen eta bertsu hauen emaiten.

2

Utirik brodatzia eta joan nintzen amaren ganat
heian utziko ninduenez itsaso bazterrerat
itsaso bazterrerat eta kantuen entzuterat.

3

–Neure alaba, abil, abil, itsaso bazterrerat,
bainan oroit hadi hargatik iluna hurbil dela,
iluna hurbil dela eta etxerat itzultzia.

4

–Mariñela, mariñela emok untziari bela
aspaldian desir nuena jin zautak untzirat bera,
jin zautak zautak untzira bera eta parti gaiten bereala.

Eredu honen argibideak hauek dira: Infor.: *Ana Iturriague, de Itsasu, en Lehe-chipi. Loc. Rec.: Sara. Fecha 8 de febrero de 1917.* Eredu honetako lau ahapaldiek, orain dela ia ehun urte bilduak badira ere, ez dute gure kantaren hari osoaren berri ematen. Gainerako ereduak ahapaldi bakarrekoak dira. Ahapaldi bakarreko ereduak bi dira. Lehenari C' deituko diogu eta bigarrenari D'.

Egun batez ari nintzelarik sala batian brodatzen,
entzun nuen mariñel bat itsasuan kantatzen,
itsasuan kantatzen eta pertsu ederren emaiten.

Ahapaldi hau Luzaideko J. M. Iraburu zerbitzariari etzuna da, 1919ko urriaren 30an. Pertsona berari egun berean bildua da beste sarrera ahapaldi bat ere:

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk,
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Harrigarria da berriemaile berak gai beraren segidarik gabeko bi sarrera diferente ematea. Azken aldaera Leon Elissalde Larresoroko seminarista bati bildua da 1941ko ekainaren 10ean.

Behin ari nitzelarik sala batean brodatzen,
aire eder bat entzun nuen itsasotik kantatzen,
itsasotik kantatzen eta mariñelak kobla emaiten.

Hona ekarri ditugun aita Donostiaren ereduak interesgarriak direla deritzagu arrazoi argi bezain garbi bategatik. Guk hurrengo puntuan eskainiko dugun Donibaneko eredia A. Donostiaren bost eredu hauen osagarri zoragarria delako. Osatze hau askoz argiroago ikusiko dugu, esaterako, lau eta sei ahapaldiko ereduak kontuan hartzen baditugu. Eredu osatuagoan ahapaldi berak –ia aldaketarik gabe– txertaturik ikustean zentzu handiagoa hartuko dute. Tesela galduak mosai-ko osoan txertatzen direnean irudiak indar biziagoa hartzen duen bezala, Garaziko Neska ontziratuaren istorioak testuinguru argiago bat emango die A. Donostiak bildutako eredu hauei.

6. Aita Donostiaren balada puskak baladaren osotasunean

Atal honetan nola txertatuko genituzkeen balada puskak eredu osoago batean ikusiko ditugu grafiko baten bidez. Aita Donostiak bildu zituen balada puska horiek balada osoago baten hondarrak dira, inolaz ere. Etxe aurre baten zenbait harri baino ez. Baladaren ekintza batzuk baino ez dira ematen. Baladaren eskena batzuk ikusten ditugu puska horietan.

1

A'-1 eta B'-1 eta D'-1

8

A'-8

2

A'-2 eta B'-2

9

A'-9 eta B'-9

3

B'-3

10

4

A'-4

11

5

12

6

13

7

14

15

A'-15

7. Donibaneko ereduaren lehen transkripzioa: ezaugarri nagusiak

Puntu honetan Garaziko eredu argitaragabea transkribatuko dugu. Gure eredu bi plama edo orrialdetan eskuz idatzia da. Gure eredu ez dugu kaier batean aurkitu, bi orrialde soltetan baino. Zorionez, gure eskuidatziko letra argiak transkripzioa asko erraztu digu. Gure baladak, bestalde, eskuidatzian ez du inolako izenbururik. Baliteke Azkuek Hazparnerako bildu zuen bezala, *Mariñelaren kantorea* izatea gure kantaren izenburua.

Gure dokumentuko lehen plama edo orrialdean zazpi ahapaldi daude eta bigarrenean zortzi. Ahapaldi bakoitzaren gainean zenbakia dator eta zenbakiaren ondotoxoan frantseseko (–)en ordinalaren marka (uste dugunez, adibide batzuk emateko, *cinquième, sixième, septième* adierazteko *5-en, 6-en, 7-en* zenbakiak ikusten ditugu). Zenbakiaren ondoren, Iparraldeko kaier askototan agertzen den bezala, *couplet* hitza aurkitzen dugu. Lehen orrialdeko zazpigarren ahapaldiaren ondoren, orrialdearen hondarrean, *la suite* frantsesezko azalpena dator. Frantsesezko hitz horrek, jakina, hurrengo orrialdean jarraitzen duela adierazten du. Gure eskuidatziko transkripzioan bestetan ikusi ez dugun ezaugarri batez konturatu gara: transkribatzaileak ia hitz bakoitzaren ondoren puntu bat jartzen du eta zenbaitetan bi puntu. Ezin izan dugu argitu zergatik transkribatzaileak jartzen duen puntu bat ia gehienetan eta bi puntu inoizka. Harrigarria da, bestalde, ez duela inoiz komarik jartzen. Lehen ahapaldia, esaterako, honelaxe dator:

Ier couplet

Behin. batez. ari. ninduzun. salatian. brodazen.

Marignel. bat. entzun. nuen. itsasoan. cantatzen

itsasoan. cantatzen. eta. Pertsu. ederren. emaiten.

Lehen ahapaldian guztira hamazazpi puntu aurkitzen ditugu. Lehen ahapaldi honetako *cantatzen* hitzak izan ezik, hitz guztiek dute aurrean puntu bat. Hasiera batean halaxe transkribatzea pentsatu dugu, baina zertarako? Uste izan dugu puntu horiek guztiak itsugarriak bezain nekagarriak direla; eta are alferrikakoak ere. Eskuidatziaren argazkia emanez gero, ez dugu beharrezkoa ikusi puntu horiek guztiak transkribatzea. Gure transkripzio honetarako ahapaldi bukaerako puntua bakarrik jarriko dugu. Era berean, alferrikakoak iruditu zaizkigu zenbaki guztien aurrean goialdean letra txikiaz –en jartzea, ez baitugu asmatu gure ordenagailuan nola irudikatu dezakegun letra ttipi horiek. Hona, hortaz, gure eskuidatziaren transkripzio zuzena.

1 couplet

Behin batez ari ninduzun salatian brodazen

Marignel bat entzun nuen itsasoan cantatzen

itsasoan cantatzen eta Pertsu ederren emaiten.

2 couplet

Broderia utzi eta juanitzen amaren gana
heya utziren ninduenez itsaso bazterrerra
itsaso bazterrerra eta pertsu heyen aditzera.

3 couplet

Amac erran zautan habil habil ene alaba maitea
Bainan oroithadi iluna dela hourbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

4 couplet

Habil eta erran zacon din dadin gure etcherat
yin dadin gure etchera eta gurekin afaiterat
gurekin afaiterat eta pertsu heyen emaiten.

5 couplet

yincuac dauzuela egunhun untzi capitain gaztea
aitac eta amac igortzen naute yintziten gure etchera
gurekin afaiterat eta bi coblen ihacusterat.

6 couplet

impossible da anderia orai ni harat yitia
sarzaite sala huntan barnerat andere horen pollita
hemen eratcutsiren dautzkitzut coblekilan airia.

7 couplet

Andere horen, pollit hori sartutzen sala barnerat
sartuzen sala barnerat eta lobelarra ukan golcorat
lobelarra ukan golcorat eta locartuzen berehala.

La suite

8 couplet

Capitaina, capitaina es zauzia bekatu
Andere horen pollit hori beharduzia tronpatu
Andere lerden pollit hori behar dutzia tronpatu.

9 couplet

Marignela marignela emoc untzihori bela
aspaldian desir nuena yinzautac orai escura
yinzautac escurat eta nere bi besoen artera.

10 couplet

Lobelarra kendu eta ihizartutzen berehala
norat eremaiten nuzu untzi Capitain gaztea
turna nezazie turna hartu nuzien lekura.

1^{er}. couplet.
Behin batez ari nindujun, solatim, brosdagen,
Marignel, bat, entzun nuen, itsasoan, cantatzen
itsasoan, cantatzen, eta, Pertsu, edarren, emaiten,
2^{er}. couplet.
Broderia, utzi, eta, ^{3^{er}}juanitzen, amaren, gana,
heza, utziren, ninduenez, itsaso, baztererra,
itsaso, baztererra, eta, pertsu, hezen, aditzera
3^{er}. couplet.
Amac, erran, gautan, habil, habil, ene, alaba, maita,
Painan, onthadi, iluna, dela, hurbildia,
iluna, dela, hurbildua, eta, gibelat, itzultzea,
4^{er}. couplet.
Habil, eta, erran, gacan, din dadin gure etcherat,
jin dadin, gure, etchera, eta, gurehin, afaiterat,
gurehin, afaiterat, eta, pertsu, hezen, emaiten,
5^{er}. couplet.
gincua, sauzuela, egunkun, utzi, capituin, gaita,
aita, eta, amac, igartzon, nauite, jintziten, gure, etchera,
gurehin, afaiterat, eta, bi, coblen, ihausterat,
6^{er}. couplet.
impossible, da, anderia, orai, ni, harat gaita,
sarcute, sala, huntan, barnerat, andere, haren, pollita,
hemen, eratutsiren dautzhitzut, cobchilan airia,
7^{er}. couplet.
Andere, haren, pollit, hori, sartutzen, sala, barnerat,
sartuzen, sala, barnerat, eta, lobelarra, uban, galcorat,
lobelarra, uban, galcorat, eta, locartuzen, Berehala,
La, suite:

8^{en} couplet
Capitaina, capitaina, es. gauzia, lekata;
Andere, horen, pollit hori, beharduzia, tronpatu;
Andere, berden, pollit hori, behun, dulzia, tronpatu;

9^{en} couplet.
marignela, marignela, emac, untzi hori, bela,
aspasdian, desir, nuena, ajinzautac, orai escura,
ajinzautac, escurat, eta, nere, bi, bisoen, artera.

10^{en} couplet.
Lakelanna, Kenau, eta, ihizartutuzen berehala
norat, eremaiten, nuzu, untzi, Capitain, gaztea,
turna, nezajie, turna; hartu, nuzien, lekura;

11^{en} couplet.
Impossible, da, Anderia, zure, harat, turmatzia,
Bontz, behun, lekua, zu, hartu zintugun, lecurat,
zu, hartu, zintugun lecurat, eta; zure, ait, amen, porturat.

12^{en} couplet.
Madarica, Balakio, dendariari; besaa,
zeren, baiteraut, egine, ajaiaren, zola, herchihe,
Zaiaren, zola, herchihe, eta, geruntzian; tunkhe.

13^{en} couplet;
Capitaina, capitaina, baduzia, ganibetic,;
Ez, ezdut, ez ganibetic, bainan, ez pata, ongi, chorotich,
hartuzuen esurat, eta sartu, zuen, bihotzetik.

14^{en} couplet:
Ai, Ai, Ai, zer, egine, behaut, hau,
zer egine, behardut arai, nih;
emozu, bi, musu, eta aurticazu, itcasorat.

Itsasorat, eremanen dau, bere, aita, amen, porturat. 15^{en} couplet
Itsasoon, hura, badi, zolarik, ez, du, agueri;
Ene, maitea, hantket, dabila, arraina, bezala, igeri,
Ene, maitea, hantket, dabila, arraina, bezala, igeri;

Neska ontziratua baladaren Garaziko eskuidatzia.

11 couplet

Impossible da anderia zure harat turnatzia
Bortz hehun lekua zu hartu zintugun lecurat
zu hartu zintugun lecurat eta zure ait amen porturat.

12 couplet

madarica balakio dendariari besoa
zeren baiteraut egine zaiaren zola herchiche
zaiaren zola herchiche eta geruntzian tinkiche.

13 couplet

Capitaina capitaina baduzia ganibetic
Ez ezdut ez ganibetic bainan ezpata ongi chorotchic
hartuzuen escurat eta sartu zuen bihotzetik.

14 couplet

Ai ai ai zer egine behaut hau
zer egine behardut orai nik
emozu bi musu eta aurticazu itcasorat
Itsasorat eremanen dau, bere aita amen porturat.

15 couplet

Itsasoan hura lodi zolarik ez du agueri
Ene maitia hantchet dabila arraina bezala igeri
Ene maitea hantchet dabila arraina bezala igeri.

Baladaren transkripzioaren ondoren ez dator inolako zehaztasunik. Zuberoako kaieretan, askotan, *fin* bat aurkitu ohi dugu. Gurean ez dator ezer. Baliteke azken hitzaren eskuin aldera datozen bi marratxoak bukaera adieraztea.

8. Gure baladaren hizkuntza ezaugarriak

Euskal balada askotan hitz eta esapide ihartuak aurkitu ohi ditugu. Gure Garaziko baladan agertzen den hitz zahar bat *anderauren* dugu. *Anderauren* hitza Bizkaiko euskara zaharrean (XVI mende bukaerakoan) RS liburuko hiru esaeratan eta batez ere XIX mendera arteko ekialdeko euskararen dokumentatzen da. Bizkaiko euskararen tradizioa aspaldi bukatua da. XVI mende bukaeran bakarrik aurkitzen baitugu hitz hori. Ekialdeko tradizioa, ordea, XIX mendean bildutako bala-detaraino luzatu da (bakarren bat XX mendean ere, Zaraitzuko “Lesibatxoa”, esaterako).

Hona, esaterako, Bizkaiko XVI mendeko adibideak. RS-210 *Andraurenak etsea lauzatu gino daroa betatu* “La mujer de buen recado, la casa suele henchir hasta el tejado”; RS-317 *Andrahurenac ese husa betatu* “la muger principal la casa vacía hin-

che”; RS-527 *Andrauren essea, garazazal* “La casa de la señora de buê recado acolmada”. Ekialdeko euskararen lehen testigantzak Oihenarten poemetan aurkitzen ditugu. Iparraldeko euskararen batez ere Baxenabarreko eta Zuberoako testuetan aurkitzen dugu. Hitz honen gainean ikus bitez OEHko oharrak. Hitz, dena dela, nekez aurkitzen dugu XX mende hasieran. Hitzaren esangura “dama gaztea” edo “goi mailako dama” da, gehienetan. Hitzaren etimologia argi xamarra da: *and(e)ra-* (<*and(e)re*>)+ *guren*.

Anderauren hitza beste balada batzuetan ere aurkitzen dugu. Azkuek Zaraitzuko Otsagin bildu zuen “Lesibatxoa” gaia duen baladan, ahapaldi bakoitzean *andere aurena* eta *galaia zalduna* protagonistak aipatzen dira. *Uretako semea* baladan hirugarren ahapaldian ere *anderauren* hitza ikusten dugu *erreguinac bere Anderaurenari* esaldian. *Neska ontziratua* baladan, ordea, argitara ditugun Zuberoako aldaera guztietan aurkitzen dugu hitz hau. Xahoren A eredu, XI ahapaldian, *Eskutaria erho heltu/ Emaiten diro ezpata/ Anderaurenak harekila/ Sarthu du bihotzuala*. Xahoren B eredu, IX ahapaldian: *Capitagna capitagna Pharcamentu eske nauçu/ Otho libra eçaçu/ Andere auren hori/ Othoi libra eçaçu andere auren hori*. Altzaiko eredu, eta Gotainekoan ere aurkitzen dugu. Altzaiko eredu, X ahapaldian: *Anderaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera, /hainbestereki jaun kapitaña[k] eman deio ürhesagar[a], [eman deio ürhe sagarra] eta harekin lo-belhar[a]*. Gotaineko eredu, ordea, *anderaurena* apur bat desitxuratu eta “andere Elena” bihurtzen da, herri etimologia bidez. Hona Gotaineko eredu, 14. ahapaldia: *Marinela inosent da phèrèstatsen do espata/ Haign bestenarekin andere Elènac erdiratsen du bihotsa/ Haign bestenarekin andere Elenac erdiratsen du bihotsa*. Adibide hauetan guztietan *andere* hitza eta *anderauren* biak ikusten ditugu balada berean. Kasu bokatihoan (edo deikian) ia beti da *anderea* edo *andere gaztea*. Gure baladan birritan aurkitzen dator dokumentaturik, 7. eta 8. ahapaldietan: *andere horen*. Hitz hau, bestalde, nola transkribatu beharko genuke *anderauren* edo honen aldaera den *andereoren/anderehoren*? Gure ustez bigarren aukeretako bat izan beharko du. Hitzaren erabilera dela eta, gure baladan kontaktetan *andere* eta *anderauren* biak ikusten ditugu. Bestela esan, gure baladan bi aldiz agertzen da, batean deikian, eta, bestean, kontaktetan.

X-ekin/-gaz Y egitura zaharra euskal testurik zaharrenetan aurkitzen dugu. Mitxelena TAV 123.or dakar lehenengoz fenomeno honen berri eta J. A. Lakarrak bi lanetan ematen du egitura zahar honen berri (J. A. Lakarra: 1983, 2008) eta aipamen asko dakartza garai eta euskalki diferentetakoak. Hona Ataungo eske koplak zaharretako bi adibide (I. Baztarrika: 1982):

12.- Piparrarekin espezi
Baionan degu erosi;
nagusi jaunari eskatzen diogu
kopelatzeko lizentzi.

Baimen-kopla honetan *piparrarekin espezi* horrek “piparra eta espezi(a)” esan nahi du. Egitura zahar honetan lehen elementua *-rekin/-gaz* kasuan dator (deitu bedi soziatiboa, komitatiboa, unitiboa) eta bigarren hitza absolutuan edo beste kasu batean. Bigarren hitzaren kasuak, jakina, markatzen du egitura guztiarena. RS 264an, esaterako, *Oguiagaz hura oragaz heroen elikatura* esaerak “Ogia eta ura oren eta eroen elikatura (da)” esan nahi du. Tankera honetako egitura ikusten dugu, esaterako, Ataungo kopladi berean, beste kopla luze honetan:

32.- Bestela gizon ona delarik
jakerea du nagie,
baldin erregek jakiten badu
orren tretaren berrie,
sari batean bialduko lioke
ezpatarekin zaldie.

Kopla honetan ezpatarekin zaldie ez da besterik *ezpata eta zaldie* baino. Egitura zahar hori berori aurkitzen dugu gure Garaziko baladan ere. Seigarren ahapaldiko *hemen erakutsiren dautzkitzut coblekilan airia* delakoak *hemen erakutsiren dautzkitzut kopla eta airia* esaldiaren baliokidea da. Egitura horretan ohargarria da, bestalde, *koblekilan airia* objektu zuzenak *ad sensum* aditza pluralean eskatzen duela: *erakutsiren dautzkitzut*.

Gure Garaziko ereduan adlatibo kasu singularra bi modutara ikusten dugu: *-ra/-rat*. Ez dugu uste batetik bestera inolako zentzu desberdintasunik dagoenik.

9. Gure baladaren estilo ezaugarriak

Puntu honetan gure Garaziko ereduaren zenbait ezaugarri zirriborratuko ditugu. Gure eredia guztizko aberatsa da alderdi guztietan eta aberastasun hori ezin dugu, inola ere, gure iruzkinetan agortu. Zenbait ezaugarri, hala ere, zirriborratuko ditugu.

Gure Garaziko aldaera berri hau aski osoa da: neska ontziratuaren argudio osoa eskaintzen du. Baladaren istorioa gardena da: sarrera-bukaera eta gertaerak garbi azaltzen dira. Elkarriketez gainera, lehen pertsonako zein hirugarren pertsonako narratzaileak ere baditu. Alfa balada zoragarri bat dugu: denboran barrena eta gertaleku desberdinetan barrena garatzen da argudioa.

Neska ontziratuaren euskal eredu guztiak errepikaz osatuak daude. Errepiken artean bihurkiak leku berezia hartu ohi du. Gure Garaziko ereduan errepika arruntak (7, 8, 15 ahapaldiak) eta bihurkiak aurkitzen ditugu. Neska ontziratuaren aldaeretan bihurkia ahapaldi barrukoa izan ohi da eta ez ahapalditik ahapaldirakoa. Gure ereduan ahapaldi batek edo bestek bihurki bikoitza (7 ahapaldia)

ere eskaintzen du. Bihurkia edo Margit Frenk-en zioen *kateamendu* edo “encadenamiento” delakoa gure baladategi osoan bi balada gaitan ikusten dugu ugarien “Neska ontziratatu”-an eta “Pazkoetan den alegerena” balada gaiean (erdaraz “Romance de la amada relegada” J. M. Satrustegik zioenez). Hona hemen zer dioten Satrustegik “Pazkoetan den alegerena” balada gaiko bihurkiaren gainean (J. M. Satrustegi: 1969):

Otro de los datos que descubrimos en esta composición sirve para el estudio de la métrica vasca. Se trata de una fórmula muy primitiva y elemental, que consiste en la repetición sistemática de que el segundo verso se repite, viniendo a ser la arrancada del siguiente pareado; la sola adición de la conjunción copulativa sirve para engarzar con la idea propiamente nueva de la segunda parte. No abundan las composiciones completas de este estilo, en su versión original; pero quedan vestigios evidentes en el Cancionero.

Gure Garaziko aldaeran badira zenbait ezaugarri estilistiko ezagutzen ditugun Iparraldeko balada gehienetan ematen direnak. Gurean, esaterako, amak alabari hika egiten dio; kapitainak marinel onari ere hika; marinel onak kapitainari zuka; kapitainak anderaurenari zein anderaurenak kapitainari zuka; Xahoren A ereduan amak alabari hika, B ereduan, ordea, zuka; B ereduan kapitainak mariñel onari hika; Altzaiko eta Gotaineko ereduetan gure baladaren sistema bera errepikatzen da; hika amak alabari eta kapitainak marinel onari; gainerakoetan zuka.

Kontu hauetatik guztietatik aparte harrigarria da lehen pertsonako narrazioan zukako forma bat edo beste agertzea ia era sistematikoan. *Behin batez ari ninduzun*, baina *entzun nuen* eta *ez*, espero genuen bezala, “entzun nizun”. Xahoren A ereduan, ordea, *ari nündüzün* eta *entzün nizün*. Altzaiko ereduan ere lehen pertsonako narrazioan zukako formak aurkitzen dira.

Kapitainaren eta marinelaren arteko elkarrizketetan errepika bidez ematen dira batoren ere bestearen izenak: *kapitaina*, *kapitaina* eta *mariñela*, *mariñela*. Gure Garaziko baladan ez ezik, Altzaikoan ere berdin-berdin ikusten dugu.

Gure baladaren bukaerak, bestalde, badu mamia, gure ustez. Azkenurreko ahapaldi bukaeran esaten da itsasoak eramango duela gorpua “bere aita-amen porturat”. Anderaurenak kapitainari zoli eskatzen badio ere “turnatzeko”, kapitainak beste asmo batzuk izango ditu. Neskailak bere burua hil ondoren itsasoa bera izango da bostehun legoara gorpua itzuliko duena. Dramatismo handia du ahapaldi honek; eta dramatismoaz gainera literatura unibertsaleko motiborik zaharrenetako bat ere ikusten dugu bertan, Herodotoren *Historia* liburuetan datorren Polikratesen eraztunaren motiboa, hain juxtu. Motibo horren arabera, boomerang efektu batez, bere jatorrira itzultzen da, miragarriri, objektu bat. Herodotoren jatorrizko kontaezan eraztuna itzultzen da, santuen bizitzetako kontaezan giltzak. Gure baladan ere berdin itsasoa izango da gorpua aita-amen portura eramango duena. Gure Herria aldizkariko zein KKK liburuko ereduetan ere berdin

ikusten dugu: itsasoak andere gaztearen gorpua bere amaren itsasertzera eramango du: *Oi Ama anderea, so egizu leihora.../ Zur'alaba gaichoa, uhinak derabila (berriz).*

Gure Garaziko ereduko azken ahapaldiak badu mamia. Gure literaturako beste genero batzuetan ere aurkitzen dugu antzerako irudia eta hitz hoskide berak. Gure lan batean ahapaldi honezaz ari izan bagara ere, oraingo honetan egokiago ikusten dugu iruzkin txiki bat egitea (J. Kalzakorta: 2004). Gure baladako azken ahapaldiak dantza-kopla ezagun batekin kidetasun handia du. Hona ahapaldia:

Itsasoan urak handi,
ez du hondorik agiri,
maitea ikusteagatik
pasako nintzake igeri.

Ahapaldi hau oso ezaguna da Bizkaia-Gipuzkoetan. Motiboa, bestalde, literatura unibertsalekoa dugu. Maitea ikusteagatik itsasoa igeri pasatuko lukeen maitalearena. Hona, esaterako, Duvoisinek bildu zuen (Duvoisin: "Amodioak bainerabila" (J. Duvoisin: 1841) kantaren hirugarren ahapaldia:

Amodioric badudala ez ote zautzu iduri?
Ixasoa pasa nezake zure ondotic igeri,
Oi! hambat cira charmagarri!

Gure kopla honezaz bestetan era jardun gara. Dantza-kopla horren gaineko aipamena George Borrow-ren 1842ko *The Bible in Spain* liburuan XXXVII kapituluaren aurkitzen dugu:

It will, perhaps, here be asked whether the Basques do not possess popular poetry like most other nations, however small and inconsiderable. They have certainly no lack of songs, ballads, and stanzas, but of a character by no means entitled to the appellation of poetry. I have noted down from recitation a considerable portion of what they call their poetry, but the only tolerable specimen of verse which I ever discovered amongst them was the following stanza, which, after all, is not entitled to very high praise:

Ichasoa[n] urac aundi,
Estu ondoric agueri,
Pasaco ninsaqueni andic
Maitea icustea gati.

That is, "The waters of the sea are vast, and their bottom cannot be seen; but over them I will pass, that I may behold my love."

Gure baladako azken ahapaldiak antzekotasun handiak ditu kopla honekin. Gure koplak bi aldaera izan ohi ditu *Itsasoan ura(k) handi* edo *itsasoan ura(k) lodi*, batetik, *ez du ondorik agiri* edo *ez du ondarrik agiri*, bestetik, Borrow-en aldaeran agertzen ez den *igeri* aditza izan ohi da *audi/ agiri/igeri* hitzen hoskide. Gure ba-

ladan, ordea, hitz oskide hauekin beste dimentsio bat hartzen du betiko koplak eza-gunak. Borrow-k dioen *They have certainly no lack of songs, ballads, and stanzas, but of a character by no means entitled to the appellation of poetry* delakoak, hots, “(Euskaldunek) ez dituzte falta, egia esan, kantu, balada eta koplak, baina hain modutakoak non ez diren poesiara heltzen”, ez du zentzu handirik. Seguru gaudere beraren belarrietara ez zela iritsiko Garaziko eredu bezalako baladarik.

10. Donibaneko ereduaren ahapaldiz ahapaldikako iruzkina

Puntu honetan ahapaldiz ahapaldi iruzkinduko ditugu geure Garaziko eredu-ko ahapaldi guztiak. Iruzkina batez ere alderdi bitakoa izango da. Batetik, transkripzioak sortu dizkigun arazoak aipatuko ditugu; bestetik, hitzak, egiturak, eta beste eredu batzuekiko bateratasunak aipatuko ditugu. Ez dugu pentsatzen geure saio honekin, inondik inora ere, testuaren zailtasun eta aberastasun guztiak iruzkinduko ditugunik.

1

Behin batez ari ninduzun salatian brodazen,
Marignel bat entzun nuen itsasoan cantatzen
itsasoan cantatzen eta Pertsu ederren emaiten.

Herri ipuinetako hasiera formula du gure Baxenabarreko ereduak: *behin batez*. Zuberoako *Neska ontziratua* balada ereduetan hasiera *Aldi batez* edo *Aldixe batez* izan ohi da; *Aldi batez* ikusten dugu Gotaineko ereduaren eta *Aldixe batez* Altzaikoan. Kantu narratiboek, beraz, berezkoa dute sarrera formula hau. Ez dago dudarik *salatian* delakoa *sala batian* sintagmaren laburpena dela. Iparraldeko eredu guztietan *brodatu* aditza eta *broderia* hitzak aurkitu ohi ditugu. Ez dugu ahantzi behar frantsesez *broder* dela aditza eta *broderie* substantiboa.

2

Broderia utzi eta juanitzen amaren gana
eya utziren ninduen ez itsaso bazterrera
itsaso bazterrera eta pertsu heyen aditzera.

Transkripzioari gagozkiola, lehen idazkeran *Brodaria* idatzi du transkribatzaileak, eta, gerora, zuzenduz *Broderia*. Era berean, *guanitzen* irakurtzen dugu argiro eta hasierako g- ezabatu ondoren *joi* ikusten dugu. Nola, beraz, transkribatu, *Juanitzen* edo *joinitzen*? Bi aukeretatik lehena dela zentzuzkoena iruditu zaigu. Beste korapilo txiki bat *heja* (edo *heya*) edo *heza* aukeren artekoa izan dugu. Transkripzioaren aldetik, *bazterrera* agertzen da bi aldiz eta ez, uste izatekoa zen bezala, *bazterrera*. Dardarkarien nahasmena gure baladan ere argiro ikusten dugu.

3

Amac erran zautan habil habil ene alaba maitea
Bainan oroihadi iluna dela hourbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

Ahapaldi honek ez du transkripzio arazorik. Beste ahapaldi batzuetan ikusiko dugun bezalaxe, bi eratarata transkribatua ikusiko dugu hitz bera, bata, fonetizismoarekin eta bestea gabe, hots, *hourbildia* eta *hurbildua*. Hitz honetan, bestalde, *hour-/hur-* bi eratarata transkribaturik ikusten dugu. Ahapaldi honetan ikusten dugu lehen aldiz *-rat* adlatiboaren azken *-t* delakoa. Aurreko ahapaldietan ez genuen marka hau.

Ahapaldi hau bat dator bete-betean Itsasuko berriemaileak Aita Donostiari kantatu zion ereduko hirugarren ahapaldiarekin.

4

Habil eta erran zacon din dadin gure etcherat
yin dadin gure etchera eta gurekin afaiterat
gurekin afaiterat eta pertsu heyen emaiten.

Transkripziori gagozkiola, bi modutara ikusten dugu transkribaturik *jin* aditza: “din” eta “jin”. Era berean, adlatiboa bi modutara ikusten dugu *etchera* eta *etcherat*. Hoskidetasunari gagozkiola *etcherat/afaiterat/emaiterat* zen uste izatekoa eta ez *emaiten*.

5

yincuac dauzuela egunhun untzi capitain gaztea
aitac eta amac igortzen naute yintziten gure etchera
gurekin afaiterat eta bi coblen ihacusterat.

Ahapaldi honek ez du transkripzioaren aldetik arazorik sortzen. Euskal baladetan dagoen agur formularik errepikatuenak ikusten dugu aldaera honetan: *Jinkuak dauzuela egun hun, untzi-kapitain gaztea!* Formula hau Xahoren A ereduan ere aurkitzen dugu *-Jinkuak deizüla gai hun jaun ezkütaria! Bizkaiko* ereduetan ere, Foruko eta Derio-Zamudioko ereduetan ere aurkitzen dugu. Formula hori “Lexibatxoa” balada gaietako hainbat eredutan, *Urthubiako alhaba* baladan, etb. Ahapaldi honetako hitzei gagozkiola, *untzi-kapitain*³ hitz konposatua lehenengoz aurkitzen dugu *Neska ontziratua* baladan. Harrigarria da, bestalde, ekialderagoko ezaugarriak ikusten ditugula *egun hun* horretan. Batetik, bokalaren itxiera eta hasierako *h-*, Zuberoako ereduko *gai hun* horretan bezalaxe.

³ Tankera honetako hitzak aurki litezke muga alde bietan. *Untzi-ola* hitz ezagunaren ondoan badira oraindik hitzegietan jaso gabe dauden zenbait hitz. Lekeition, esaterako, *ontzi-errotza* hitza irakatsi zidan Rufo Atxurrrak “calafate” adierazteko. Ikus “Lekeitioko arrantzaleen biziera eta kanten gainean” in *Idatz & Mintz*, 27 zenb., 1997, 24-37 or.

Aditzei gagozkiela, *ihacusterat* horrek *irakusterat/erakusterat* adierazten du, –r–galeraren ondoan –h– sortzen dela. Hurrengo ahapaldian ere *eratcutsiren* ikusiko dugu garbiki.

6

impossible da anderia orai ni harat yitia
sarzaite sala huntan barnerat andere horen pollita
hemen eratcutsiren dautzkitzut coblekilan airia.

Untzi-kapitainaren erantzuna dugu hau. Anderaurena bere jauregian sala batean ari zen brodatzen. Untzi-kapitainak untzi barneko salara sartzeko gonbita egiten dio. *Sala* diogunean, gela apain eta dotorea ulertzen dugu, jauregietan edo untzi handietan egon ohi direnetakoa.

Gure eredu honetan *inposible da (...)* –tea agertzen den egitura beste eredu batzuetan ere aurkitzen dugu. Xahoren B ereduan eta Altzai eta Gotaineko ereduetan.

Harrigarria da *koblekilan airia* egitura. Beste balada batzuetan ere agertzen den X-ekin Y egitura dugu. Ohargarria da, era berean, komuntadura *ad sensum* egina dela, aditza pluralean agertzen baita *erakutsiren dauzkitzut*.

7

Andere horen, pollit hori sartutzen sala barnerat
sartuzen sala barnerat eta lobelarra ukan golcorat
lobelarra ukan golcorat eta locartuzen berehala.

Zuberoako ereduetan lobelharra eta urhe-sagarra ematen dizkiote anderaure-nari. Gehienetan ez dute esaten non jartzen dizkioten, Bizkaiko ereduetan bi bularren artean jartzen diote lobelarra. Gure ereduan golkora ematen diote lobelarra, Zuberoako A ereduan bezalaxe.

8

Capitaina, capitaina es zauzia bekatu
Andere horen pollit hori, beharduzia tronpatu
Andere lerden pollit hori behar dutzia tronpatu.

Aita Donostiak bildu zuen lehen ereduko laugarren ahapaldiaren berdin-berdina dugu hau. Ahapaldi honetan hirugarrenez errepikatzen da *andere horen* hitza, hots, “anderauren” hitz zaharra. Ahapaldi hau marinel onak esana da kapitainari. Marinel on hori kapitainaren kontzientziaren boza dugu.

9

Marignela marignela emoc untzihori bela
Aspaldian desir nuena jinzautac orai escura
Yinzautac escurat eta nere bi besoen artera.

Transkripzioari gagozkiola, nola transkribatu *emac untzihari bela* edo *emoc untzihori* bela? Garbi xamar ikusi dugu *untzihori* horretako –o–, baina zailtxoago *emoc* horretan. A. Donostiaren ereduan ere, bestalde, “emok” aginterako adizkia dator. Nola jarri beharko genuke *untzihori* gaurko erara? *Untzi hor[r]i* edo beste aukeraren bat ote dago? *Untziari* izatekotan, zergatik dator erdi-erdiko –h– hori?

10

Lobelarra kendu eta ihizartutzen berehala
Norat eremaiten nuzu untzi Capitain gaztea
Turna nezazie turna hartu nuzien lekura.

Transkripzioari gagozkiola, *iratzarri/iratzartu* aditza “ihizartu” dugu gure ereduan. Hasierako *ira*–batetik sortua den *ih*– beste aditz batean ere aurkitzen dugu. Bosgarren ahapaldian *erakutsi/irakutsi* aditza *ihacusterat* forman aurkitzen dugu. Aditz honek, ordea, beste arazo bat ere sortzen digu: nola ahoskatuko zen: *ihizar-tu* edo *ihitzartu*? Arazo hau bestetan ere aurkitzen dugu. Era berean, nola transkribatu behar dugu 5. ahapaldiko *dauzuela* aditza: “dauzuela” edo “dautzuela”? Bestela esan, afrikatuak –erdarazko africadas– diren formak –z– hutsez ikusten ditugu idatzirik. Era berean, kontrakoa ere aurkitzen dugu eredu honetan. Zazpigarren ahapaldian *locartuzen* eta *sartutzen* biak aurkitzen ditugu. Zortzigarren ahapaldian *beharduzia* eta *behar dutzia*.

Bizkaiko ereduetan anderea iratzartzen da untziek elkar jotzen dutelako. Arratiako Dimakoak “*untzitxo onek jo abenian itxasua ta mastria*”, Txorierrikoan “*untziak alkar jo*”, Forukoak “*ontziak atxa jotea*”. Gure ahapaldi honetan bestetan agertzen ez den zehaztasun zoragarri bat dator: lobelarra kentzen diotenean iratzartzen da anderaurena.

11

Impossible da anderia zure harat turnatzia
Bortz hehun lekua zu hartu zintugun lecurat
zu hartu zintugun lecurat eta zure ait amen porturat.

Anderaurena bostehun legoa eramaten dute itsasoan barrena bahiturik. Eredu diferentetan ez dira zenbakiak errepikatzen. Zuberoako Altzai eta Gotaineko ereduetan hiru mila legoa, Lapurdikoan hirurehun. Bizkaiko bi eredutan behintzat zenbakia bostehun legoa da. Bizkaiko Foruko ereduan bosteun dira (*bosteun legua bidean*) Zamudio/Deriokoan ere bai (*Aiten d’amaren errira joateko bosteun legoak bear dire/ bosteun legoa olan eiteko*), Dimakoan, ordea, mila.

Baxenabarreko eredu honetan *aitamen portua* aipatzen da ahapaldi honetan zein hamalagarrenean. Ezagutzen ditugun gainerako ereduetan ez da aipatzen porturik.

12

madarica balakio dendariari besoa
zeren baiteraut egine zaiaren zola herchiche
zaiaren zola herchiche eta geruntzian tinkiche.

Neskatilaren madarikazio indartsua dugu hau. Interesgarria da ohartzea Zuberoko eredurik osoenetan madarikazio bikoitza egon ohi dela: neskatilarena eta kapitainarena. Neskatilak madarikazio bat botatzen du dendariaren kontra gona estuegia egin duelako. Behin neskatilak bere burua hil ondoren, kapitainak madarikazioa botatzen du arotzaren kontra ezpataren punta zorrotzegia egin duelako. Neskatilak dendariaren (hots, jostunaren) eskua/orratza madarikatzen du eta kapitainak (h)arotzaren (hots, errementariaren) besoa. Gure ereduan neskatilak dendariaren “besoa” madarikatzen badu zer pentsatua ematen digu, kapitainak madarikatzen baitu harotzaren besoa. Baliteke, beraz, kontaminazio txiki bat egotea eta kontaminazio honek gure ereduan berean ere ahapaldi bat behintzat falta dela salatzea, hau da, kapitainaren madarikazioaren ahapaldia. Hona beste eredu batzuetako madarikazioak modu zehatzago batean. Zuberoko Altzaiko eta Gotaineko ereduetan *madarika dakiola dendariari eskia* dugu. Xahoren A ereduan *madarika dakiola dendariari orratza* eta Xahoren B ereduan *madarika dadila dendariari eskia*. Xahoren B ereduan kapitainaren madarikazioa: *Madarika dakiola harotzari besua/ zeren hain zorrotz egin dian ezpata huni moskua/ ezpata huni moskua eta maitiari phensamentia*. Madarikazio ahapaldi hau Azkuek ere bildu zuen, gorago ikusi dugunez.

Baxenabarreko aldaera honetan gonaren estutasuna goi-behetan dela adierazten da era harrigarri batean, zolan edo barrenean *herchiche* da “estutxo” eta *geruntzean* (hots, gerrian) ere *tinkiche* (hots, tinkotxo). Hitz biak *tinkia* eta *hertsia* antzekoak dira. *Hertsia* hitza gure hegoaldeko “estua” da gure ondoko erdaretan “estrecho” “étroit/-e” eta *tinki* “apretado, prieto”, “juste”, la “jupe être juste”. Kasu bietan -xe tikigarria dugula: *hertsixe* eta *tinkixe*. Ohartzekoa da *zola* hitza gonari dagokiola agertzen dela, azken ahapaldian hitz bera aurkituko dugu itsasoari dagokiola. Zehaztasun zoragarri hauek ez ditugu ikusi ezagutzen ditugun beste aldaeretan.

Gaurko grafiara ekartzean arazoak sortzen dizkigu afrikatu/frikatuak. Bi aldiz agertzen den *herchiche* nola ekarri behar dugu gure grafiara? Bi aukeretatik –hots, *herxixe* edo *hertsixe* aukeretatik– guk bigarrenaren alde jokatu dugu.

13

Capitaina capitaina baduzia ganibetic
Ez ezdut ez ganibetic bainan ezpata ongi chorotchic
Hartzuzen escurat eta sartu zuen bihotzetik.

Transkripzioari gagozkiola, ez du dudarik sortzen ahapaldi honek. Ederra da, dudarik gabe, *xor[r]otxik* adberbio edo adizlagunari ohartzea. *Zorrotzik* adizlaguna

bustirik edo modu markatuan dator: *xor[r]otxik*. Balada honek baditu Bizkaiko ereduekin antzekotasun nabariak. Bizkaiko Zamudio/Dimako aldaeran bezala, gani-beta eskatzen du eta ganibetaren faltan *sablea/ezpata* ematen dio kapitainak. Ezpata eskuetan hartu ondoren bihotzean sartzen du (Foruko ereduan, *sabelean* sartzen du *sablea*) ia eredu guztietan bezala. Zuberoako ereduetan ez dago holako jokorik: *ezpata* eskatu eta *ezpata* sartzen du bihotzean.

14

Ai, Ai, Ai zer egine behaut hau
zer egine behardut orai nik
emozu bi musu eta aurticazu itcasorat
Itsasorat eremanen dau, bere aita amen porturat.

Ahapaldi irregularra dugu bete-betean. Ahapaldi hau beste biren nahasmena ote da? Transkripzioari buruz zalantza bat baino gehiago sortu zaigu. Garbi dago *behaut/behardut* bi modutara transkribatua dagoela. Lehena, laburdura eta guztikoa; bigarrena, forma osoa. Era berean, *itcasorat/itsasorat* ere bi modutara transkribatua ikusten dugu. Beste hitz batzuetan, ordea, zalantza garbiak sortu zaizkigu. Nola irakurri behar da eskuidatziko eman aditz jokotua, *emazu* edo *emozu*? Zenbaitetan ez da erraza antzematea. Ahapaldi honetan berean *orai* hitz garbian, esaterako, ez da garbi ikusten: hasierako o– delakoa eta a– ezinezko batekin nahasteko bidea ematen du. Grafiari gagozkiola, *aurticazu* aditzeko –oz–/–az– bokal eta kontsonante multzo berarekin konparatzeko bidea argigarria ematen bazigun ere, praktikan ez da hain erabakigarria izan. Bederatzigarren ahapaldiko *emoc* garbiagoa ikusten dugu. Bi aldiz agertzen den *egine* delakoa ez al da harrigarria? Nola azaldu, bestalde, *eremanen dau* futuro formaren *dau* laguntzailea? *Eramanen dau* horren subjektua, ordea, ez al du ergatibo batek izan behar, hots, (uh(a)inak) edo itsasoak?

Ahapaldiaren balio poetikoari gagozkiola, zoragarria da. Xahoren ereduetan A ereduan bezalaxe, gorpua itsasora bota baino lehen *bi musu* ematen zaizkio. Xahoren A ereduan *bi potño, pot* “musua” hitzak –ño ttikigarria duela. Bizkaiko ereduetan ere aurkitzen dugu ideia bera: Foruko aldaeran *guzti-guztiok laztan bana* eta Zamudio/Derioko aldaeran *zazpine mosu* ematen dizkiote. Behin uretara jaurti ondoren, itsasoak gorpua gurasoen portura eramango du. Zehaztasun honek, dudarik gabe, dramatismo handia emango dio gure baladari. Zehaztasun hau aurkitzen dugu lehen aldiz 1921ko urtean, gorago jarri dugun bezala, Gure Herria aldizkarian agertu zen ereduan: *Oi ama anderea, so egizu leihora/ zur'alaba gaixoa uhinak darabila/ zur'alaba gaixoa uhinak darabila*. Interesgarria da, behin alaba gurasoen etxetik bostehun legoa urrundu ondoren, uhinak edo itsasoak berriro darabala gurasoen begien aurrera. Baxenabarreko eredu honetan aita-amen portura bidaltzen du itsasoak anderaurena. Aita-amen portuaren aipamena hamaikagarren ahapaldian ere aurkitzen dugu.

15

Itsasoan hura lodi zolarik ez du agueri
Ene maitia hantchet dabila arraina bezala igeri
Ene maitea hanchet dabila arraina bezala igeri.

Transkripzioari gagozkiola, harrigarria egiten zaizkigu hainbat kontu. Harri-garria da *agueri* aditza transkribatzen duen arren, ez transkribatzea *igueri* espero genukeen bezala, bi aldiz *igeri* baino. *Ura* hitza zuberotarrez bezala *hura* ikusten dugu, hasierako *h-* duela. (Ohart bedi lehenago ere *egun hun* ikusi dugula 5. ahapaldian.) Beste zenbait ahapalditan bezala, bi eratara dago: *maitia/maitea* fonetizismoarekin eta gabe.

Baladaren azken ahapaldi hau Aita Donostiaren 1919ko lehen ereduarekin bat dator. Gure ereduko *arraina bezala igeri* konparantza askoz hobeki dator aita Donostiak bildu zuen *arraina bezain igeri* konparantzarekin baino. 1921 urteko GH aldizkariko ereduan *nora aurtiki haurra?* galderari *hortxet itsas-zolara* da ematen den erantzuna. Gure ahapaldi honetan antzeko zerbait esaten da *hortxet* horren antzekoa den *hantxet* dator.

11. Donibaneko balada gaur eguneko grafia-ortografian

Lehen transkripzioa edota transkripzio zuzena egin ondoren, eman dezagun gure eredu gaurko grafia-ortografietan. Kontu honetarako puntu hau baino lehen egin ditugun iruzkin eta konparantzak testua finkatzen eta ulertzen lagunduko digute. Hona hemen:

1

Behin batez ari ninduzun sala [ba]tian brodatzen,
mariñel bat entzun nuen itsasoan kantatzen,
itsasoan kantatzen eta pertsu ederren emaiten.

2

Broderia utzi eta jua nitzen amarengana
heia utziren ninduenz itsaso bazterrera,
itsaso bazterrera eta pertsu heien aditzera.

3

Amak erran zautan: –habil, habil, ene alaba maitea,
bainan oroit hadi iluna dela hurbildia,
iluna dela hurbildua eta gibelerat itzultzea.

4

–Habil eta erran zakon jin dadin gure etxerat,
jin dadin gure etxera eta gurekin afaiterat,
gurekin afaiterat eta pertsu heien emaiten.

5

–Jinkuak dau[t]zuela egun hun, untzi-kapitain gaztea!
Aitak eta amak igortzen naute jintziten gure etxera
gurekin afaiterat eta bi koblen ihakusterat.

6

–Inposible da, anderia, orai ni harat jitia,
sar zaite sala huntan barnerat, andere(h)oren pollita,
hemen erakutsiren dautzkitzut koblekilan airia.

7

Andere(h)oren pollit hori sartu zen sala barnerat,
sartu zen sala barnerat eta, lobelarra ukan golkorat,
lobelarra ukan golkorat eta, lokartu zen berehala.

8

–Kapitaina, kapitaina, ez zauzia bekatu
andere(h)oren pollit hori, behar duzia tronpatu?
Andere lerden, pollit hori behar duzia tronpatu?

9

–Mariñela, mariñela, emok untziari bela!
Aspaldian desir nuena jin zautak orai eskura,
jin zautak eskurat eta, nere bi besoen artera.

10

Lobelarra kendu eta ihizartu zen berehala:
–Norat eremaiten nuzu, untzi-kapitain gaztea?
Turna nezazie, turna, hartu nuzien lekura!

11

–Inposible da, anderia, zure harat turnatzia,
bortzehun lekua zu hartu zintugun lekurat,
zu hartu zintugun lekurat eta zure aita-amen porturat.

12

–Madarika balakio dendariari besoa!
Zeren baiteraut egine zaiaren zola her[t]xixe,
zaiaren zola her[t]xixe eta ger[r]untzian tinkixe.

13

–Kapitaina, kapitaina baduzia ganibetik?
–Ez, ez dut ez ganibetik bainan ezpata ongi xor[r]otxik.
Hartu zuen eskurat eta sartu zuen bihotzetik.

14

–Ai, ai, ai zer egine behaut hau?
Zer egine behardut orai nik?
–Emozu bi musu eta aurtikazu itsasorat,
itsasorat eremanen dau, bere aita-amen porturat.

15

Itsasoan hura lodi, zolarik ez du ageri;
ene maitia hantxet dabila arraina bezala igeri,
ene maitea hantxet dabila arraina bezala igeri.

Puntu honetan eman dugun transkripzioa ez da behin betikoa. Erabaki argi asko izan arren, ez dugu puntu guztietan behar dugun argitasun guztia izan.

12. Eranskina

Gure eranskin honetan guk argitara eman ditugun Iparraldeko Neska ontziratuaren eredu guztiak emango ditugu. Eredu hauek guztiak gaurko grafia-ortografietan emango ditugu. Jatorrizko grafia-ortografiak ikusi nahi dituenak jo beza azkenean aipatzen den iturrietara. Eredu hauek hemen jartzeak Garaziko ereduarekin dituen bateratasunak eta desberdintasunak ikusteko oinarria eskaintzen dugu.

12.1. Xahoren A eredua

Xahoren Aredua deitzen diogu Xahoren eskuidatzian lehenengo datorrelako. Eredu hau Xahoren bigarren eredua baino osoagoa dugu. Xahoren lehen eredu hau Arxüren esku-letraz aurkitzen da jatorrizko dokumentuan.

1

Aldixe batez nenguelarik
Aldi batez ari nündüzün sala baxian brodatzen,
ezkütari bat entzün nizün galeriati khantatzen,
galeriati khantatzen eta kobla ederren emaiten.

2

Aita eta ama elizatik jin zeiztan samürrik,
heia zeren ez nitzan juan mezaren entzütera,
mezaren entzütera eta haien kunpaiñatzera.

3

—Aita eta ama, othoi, othoi pharka zadazie!
Ezkütari bat entzün dizüt galeriati khantatzen,
galeriati khantatzen eta, kobla ederrik emaiten.

4

—Ene alhaba, habilua ezkütari harengana,
erran izakon jin dadila gurekin aiharitera,
gurekin aiharitera eta kobla eder emaitera.

5

—Jinkuak deizüla gai huna, jaun ezkütaria!
Aita[k] eta amak igorten nizie jin ziten aiharitera,
gurekin aiharitera eta, kobla eder emaitera.

6

—Anderia, sar zite untzi hunen barnera,
arratsan juaen gira biak aiharitera,
biak aiharitera eta, kobla eder emaitera.

7

Anderia erho heltü, sarthü da untzin barnera.
Ezkütariak harekila lo-belharra golghora,
lo-belharra gol[h]ora eta belaren desplegatzer.

8

—Thira, marinelak, thira, thira ezazie untzia!
Ene aita-ama gaxuak ene bilha dabilta;
ene bilha dabilta eta, nigarrez so itxasora.

9

—Zure aita eta ama zure bilha dabilteia?
Haietarik hürünxe gira, hirur mila lekhua,
beste ha(i)nbesteren bürüko helturen zira etxera.

10

—Maradika dakiola dendariari orratza!
Zeren hain hertsu egin dien kota hunen gerria;
kota hunen gerria eta, ene bihotzeko pena!

11

—Pheresta, ezkütaria, pheresta zure ezpata!
Kota-gerria thinkegi beitüt larga dezadan jostura;
jostura larga dezadan eta, ene bürüa deskantxa.

12

Ezkütaria erho heltü, emaiten diro ezpata.
Anderaurenak harekila sarthü dü bihotzuala;
bihotzuala sarthü eta, ixuri bere odola.

13

–Maradika dakiola arotzari besua!
Zeren (h)ain zorrotz egin dian ezpata huni moskua,
ezpata huni moskua eta, maitiaren phensamentia!

14

–Aiei, aiei, aiei, aiei! Zer egin behar düt orai nik!
Bi potño eman eta itxasoalat aurthiki;
itxasualat aurthiki eta nihaur jarraiki undoti.

15

–Idek, marinelak, idek idekazie untzia!
Itxasuak ez diro sofri arima desesperatia,
arima desesperatia eta inozentaren odola.

12.2. *Xahoren B eredua*

Bigarren eredu hau lehenetik diferentea da. Bigarren eredu hau ez da Arxü-
ren eskutikakoa.

1

Aldixe batez nenguelarik sala baxian brodatzen,
kapitain entzün dizüt itxason gañen khantatzen,
itxason gañen khantatzen eta kobla ejerrik emaiten.

2

Brodura salan phausa eta juan nintzan amagana.
–Ama, plazer naizia eitzi istant bat galeriala?
Khantari ejer bat entzüten beütüt hari koblen ikhastera.

3

–Bai, ene alhaba, zuaza kapitain haregana,
eia plazer denez jin gaur gurekin aihaitera,
gurekin aihaitera eta, zuri koblen khantatzera.

4

–Kapitaña, hau[r] düzüla zuregana mezia,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitera.
gureki aihaitera eta eni koblen khantatzera.

5

–Anderia, imposible da ene hara jitia,
airia faborable dit eta juan behar aitzina,
airia faborable eta juan behar aitzina.

6

–Anderia, othoi sar zite untzi hunen barnera,
gero biak jun ginteke hekin aihaitera,
hekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

7

Anderia, fasil izana sartü untzin barnera,
kapitañak ere berhala eman ürhe-sagarra,
ürhe-sagarra eta hareki lo-belharra. (bis)

8

—Marinella, marinella! Thira ezak untzia!
aspaldian desir niana jin dük bera eskura,
aspaldian desir niana jin dük bera eskura.

9

–Kapitaña, kapitaña! pharkamentü eske naüzü
Othoi libra ezazü andereauren hori!
Othoi libra ezazü andereauren hori!

10

–Marinella, marinella! Idek ezazü bortha!
Ingoiti ene etxequak ene unduan beitira!
Ingoiti ene etxequak ene unduan beitira!

11

–Hebetik eta zure etxera berrehün lek[h]ua da
eta haibesteren bürían eniala heltüren gira,
eta hainbesteren bürían eniala heltüren gira.

12

–Jauna, pheresta izadazü istant bat zure sabria,
nahi nikezü laxatü mement bat ene zintura,
nahi benüke laxatü istant bat ene zintura.

13

–Maradikatia dela dendariaren eskia!
Zeren hertsiegi egin beitü anderiari zintura,
hertsiegi egin beitü anderiari zintura!

12.3. Altzaiko eredua

Zuberoako Altzaiko aldaera hau da, beharbada, guztien artean bitxi eta diferenteena. Orain arte aurkitutakoetan ahapaldi gehien dituen ere bada. Madarikazioa ere bikoitza dugu.

1

Aldixe batez nindiegularik sala baxian brodatzen,
ma[r]inel bat entzün dizüt itxason gañen k(h)antatzen,
itxason gañen k(h)antatzen eta koplak ejer[r]ik emaiten.

2

Broderia phausa eta juan nintzan amagana,
eia plazer nündianez eitzi ixtan[t] bat galeriala,
k(h)anta bat entzün beitüt hari koblen ikhastera. (bis)

3

–Alhaba, abilua jaun gazte harengana,
eia plazer dianez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen k(h)antatzera. (bis)

4

–Jaun gaztia, haur naizüla ni mezia zu[r]egana,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitara,
gaur gurekin aihaitara eta eni koblen khantatzera. (bis)

5

–Anderia, imposible da gaur ene hara jitia,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina,
adia faborable beitü[t] juan behar dit aitzina.

6

–Hasteko, zük batüzü etxian hi[r]u anaie,
gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.
Gaur ni hara jin balin banendi, haiek hil nindiokeie.

7

–Hori ere hala düzü: nik badit hi[r]ur anaie,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile,
bena haietarik batere ez da emazte ez gizon-e[r]haile.

8

Gehiena dizüt Aita Santu, biger[r]ena Er[r]ege,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipierna kardinale,
biger[r]ena Er[r]ege eta tipierna kardinale.

9

–Anderia, plazer badüzü ixtan[t] bat jin untzin barne[r]a,
gero biak juanen gira gaur ziekin aihaitara,
gaur ziekin aihaitara eta zuri koblen k[h]antatzera. (bis)

10

Andereaurena fazil heltü da sarthü da untzin barnera,
hain[n]bestereki jaun kapitaiña[k] eman deio ürhe-sagar[r]ra,
[eman deio ürhe-sagarra] eta harekin lo-belhar[r]a.

11

–Pharti adi, ma[r]inela, hala ezak untzia,
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a],
o[rai] bulhar[r]ian diat desir nian lili[a].

12

–Kapitaiña, kapitaiña, pharkamentürekilan!
Andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!
andere gaxo hor[r]i, othoi, emozu libertatia!

13

–Ma[r]inela, ma[r]inela, hala ezak, untzi[a]!
Hala ezak untzia edo galdü[r]en dük bizia,
hala ezak untzia edo galdü[r]ren dük bizia.

14

–Ma[r]inela, ma[r]inela, eta zer phentsatzen düzü?
Ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabilzazü,
ingoiti ene aita eta ama ene txerkhan dabilzazü.

15

–Zure aita eta ama zure txerkhan ez dabilza.
Hi[r]u milla lekuatan hebentik hür[r]ün dia,
beste hai[n]beste egin eta gu[r]e etxialako. (bis)

16

Maradika dakiola dendariari e[r]hia!
Zeren hain hertsia egin deion saiaño huni ger[r]ia,
zeren hain hertsia egin deion saiaño huni ger[r]ia!

17

–Mainela, mainela, othoi, phesta ezpata,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia,
eia li[bra] diokedanez saiaño honi ger[r]ia.

18

Ma[r]inela fazil heltü da g[ero] [ph]estatü do ezpata,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza,
hainbesterekin andereaurenak erdi[r]atü dü bihotza.

19

–Maradika balekio a[r]utzari besua!
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua,
zeren hain zor[r]hotz egin deion ezpata huni moskua.

20

–Mainela, ma[r]inela, idoki ezak hebenti untzia!
Ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik,
ez diokek soporta a[r]ima desespe[r]aturik.

12.4. *Gotaineko eredua*

Gotaineko eredua Altzaikoaren antzekoa da, baina ez hain osoa. Eredu hau ere erabat interesgarria dugu.

1

Aldi batez nintzalarik xala baxian brodatzen,
khantari eijer bat entzüten dit huren gañe[n] khantatzen
huren gañen khantatzen eta kobla eijerrik emaiten.

2

Broderia phausa eta juraiten niz amagana,
eia plazer nündinez ützi istan bat galeriala,
khantari eijer bat entzün beüt hari koblen ikhastera.

3

–Alhaba, abilua marinel haregana,
abil eta erran izon jin dadin gurekin aihaitera,
gaur gurekin aihaitera eta, hiri koblen khantatzera.

4

–Jaun gaztia, hau[r] naizüla ni zuri mezützera,
eia plazer düzünez jin gaur gurekin aihaitera,
gaur gurekin aihaitera eta, eni koblen khantatzera.

5

–Inposible da, anderia, gaur zure etxerat jitia,
aria favorable dügü eta jua behar aitzina,
adia favorable dügü eta jua behar aitzina.

6

–Anderia, plazer düzia sarthü u[n]tziaren barniala?
gero algarrekin juaen gira ziekin aihaitera,
gaur ziekin aihaitera eta zuri koblen khantatzera.

7

Anderia fazil sartzen da untziaren barniala,
hañbestènarekin jaun kapitañak eman ürhe-sagarra,
eman ürhe-sagarra eta, harekin lo-belharra.

8

–Marinela, marinela, alha ezak untzia,
zeren nik orai bülharrian diat desiratzen nin бүketa,
desiratzen nin бүketa eta lili arraroz egina.

9

–Kapitaña, Kapitaña, eta zer düzü phentsatzen?
Andere gazte horri emozü othoi libertatia,
andere gazte horri emozü othoi libertatia.

10

–Marinela, marinela, alha ezak untzia!
Nik khanberako nik nahi diat andere xarmagarria
alha ezak untzia edo galdüren dük bizia.

11

–Kapitaña, Kapitaña eta zer düzü phentsatzen?
Ingoitik ene aita eta ama dabilitza ene xerkatzen
Ingoitik ene aita eta ama dabilitza ene xerkatzen.

12

–Zure aita eta ama dabilitza zure xerkhartzen,
hirur mila lekua orai haietarik hürürün gira,
beste haiñbesteren бүrüko haien etxerako gira.

13

Maradika dakiola dendariari eskia!
zeren hañ hertsia egin deron saiño huni gerria,
zeren haiñ hertsia egin deron saiaño huni gerria.

14

Maradika dakiola arotzari eskia!
zeren haiñ zorrotz egin deron ezpata huni moskua
zeren haiñ zorrotz egin deron ezpata huni moskua.

15

–Marinela, plazer badüzü pherestizazút ezpata,
eia larga ahal diokedanez saiaño huni gerria,
larga ahal diokedanez saiaño huni gerria.

Marinela inozent da pherestatzen do ezpata,
haiñbestenarekin andere Elenak erdiratzen dü bihotza,
haiñbestenarekin andere Elenak erdiratzen dü bihotza.

Bibliografia

- AREJITA, Adolfo (1982): "Arantzazure. Erromantze zahar ezezagun bat". *Idatz & Mintz*, 3-4 zenb., 29-31. or.
- ___, (1986): "Neska ontziratua" baladaren eredu barri bat". *Idatz & Mintz*, 13-14 zenb., 14-16. or.
- BAZTARRIKA, Isidor (1982): "Ataungo Santageda kantak". *Jaunaren deia*, 69-97. or.
- BORROW, George (1842): *The bible in Spain*. London & Glasgow: Collins Clear, XXXVII kapitulua.
- DUVOISIN, Jean Pierre (1841): "Des basques et de leur poésie". Album Pyrénéen, Janvier, 1-11. or.
- GALLOP, Rodney (1934): "Basque ballads". *The Cornhill Magazine*, 149. London, 342-352 or.
- HARITSCHELHAR, Jean (2005): "Pierre Duny-Pétre". *Euskera*, 2, 50. liburukia, 1.127-1.130. or.
- KALZAKORTA, Jabier (2003): "Neska ontziratua baladaren eredu zahar-berriak". *Idatz & Mintz*, 36 zenb., 15-47. or.
- ___, (2004): "Una colección antigua de coplas vizcaínas". *Litterae Vasconicae*, 9 zenb., 9-63. or.
- ___, (2011): "Altzaiko 'Brodatzen ari nintzen' baladagai berria". *Idatz & Mintz*, 51 zenb., 27-41. or.
- LAKARRA Joseba A. (1983): "Oharrak zenbait arkaismoz" ASJU, XVII, 41-48. or.
- ___, (2008): "Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de Urthubiako Alhaba". ASJU, XLII-1, 83-100. or.
- ___, (2013): "Neska ontziratua balada gaiaren eredu berri bat: Gotaineko eredua". *Karmel* 283 zenb., 39-62. or.
- SATRUSTEGI, José María (1969): "Romance del amante relegado en la literatura popular vasca". FLV 3, 353-361. or.
- VILLASANTE, Luis (1966): "El euskera, la literatura vasca y la zona de Guernica". *VI Centenario de la Fundación de Guernica*. Madrid, 1-2. or.

BIBLIOGRAFÍA DE MARÍA GOYRI

(versión preliminar)

Jesús Antonio Cid

Fundación Menéndez Pidal
& Universidad Complutense. Madrid

LABURPENA

María Goyriren bibliografia (lehen bertsioa)

María Goyri de Menéndez Pidal (Getxo, 1873 - Madril, 1954) andrearen bibliografia kontestualizatu baten lehen bertsioa dugu honako hau.

Goyriren argitaratugabeko lanen eta beronen zein bere lanaren gaineko argitalpenen berri ematen da.

Gako-hitzak: María Goyri, bibliografia.

RESUMEN

Bibliografía de María Goyri (versión preliminar)

Primera versión de una bibliografía "contextualizada" de María Goyri de Menéndez Pidal (Getxo, 1873 - Madrid, 1954).

Se incluyen referencias de sus trabajos inéditos, y de las publicaciones sobre su figura humana y su obra.

Palabras clave: María Goyri, bibliografía.

RÉSUMÉ

Bibliographie de María Goyri (version préliminaire)

Première version d'une bibliographie contextuelle de María Goyri de Menéndez Pidal (Getxo, 1873 - Madrid, 1954).

On y a compris des références de ses travaux inédites et des publications sur sa figure humaine et son ouvrage.

Mots clés: María Goyri, bibliographie.

SUMMARY

María Goyri's bibliography (preliminary version)

This is a first contextualised bibliography of María Goyri de Menéndez Pidal (Getxo, 1873 – Madrid, 1954).

The present includes information about her unpublished work and publications on Goyri, the woman, and her contribution.

Keywords: María Goyri, bibliography.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2013.11.14.

Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2014.03.14.

La presente Bibliografía procura dar cuenta exacta de los trabajos impresos de María Goyri (Getxo, 1873 - Madrid, 1954), aunque, como se ha señalado muchas veces, la obra publicada por la autora refleja sólo una parte exigua de lo que fue su actividad como pedagoga y como estudiosa de las letras hispánicas.

Doña María trabajó intensamente en dos obras de gran aliento que no llegó a concluir: una edición crítica de *El Conde Lucanor*¹, y una amplia colección de los cuentos y “cuentecillos” que se incluyen en las comedias del Siglo de Oro. Su hija, Jimena Menéndez Pidal, se refiere también a una biografía de la juventud de Lope de Vega, “todavía inédita”. Según la propia Jimena, María Goyri “tenía tal preocupación por lograr obras realmente acabadas que nunca las juzgaba a punto de darlas a la imprenta” (C. Vázquez-Vigo, 1960).

Sin embargo, no hay duda de que su gran obra como filóloga fue la dedicada al Romancero, y en especial a la localización e identificación de versos del romances, utilizados o citados en obras literarias españolas y en otras lenguas. El despojo sistemático de varios miles de obras se plasmó en las innumerables fichas y anotaciones que incorporó al Archivo del Romancero, y que fueron de enorme utilidad para los trabajos de Ramón Menéndez Pidal, Diego Catalán, y todos los que han consultado posteriormente el Archivo (justamente denominado hoy “Archivo Menéndez Pidal-Goyri”), y que rara vez reconocen la deuda. La organización

¹ El proyecto de edición se hallaba avanzado ya en 1902. Según refiere Eugenio Krapf, “Hace tiempo habíamos convenido con el académico don Ramón Menéndez Pidal, tan ventajosamente conocido en el mundo literario, el hacer una definitiva edición crítica de tan precioso libro como lo es *El Conde Lucanor*. Su señora doña María Goyri, doctora en filosofía y letras, había restablecido el texto copiándolo del códice S. 34 de la Biblioteca Nacional y cotejándolo con los otros manuscritos. Pero cuando ya habíamos empezado con la composición, tropezamos con tantas dificultades técnicas que de común acuerdo y bien a nuestro pesar tuvimos que desistir del proyecto por ahora” (*El libro de Patronio o El Conde Lucanor*, 1902, pp. xxiv-xxv). Krapf, editor y librero, especifica que la dificultad real era “lo costoso que resultaría la edición”, y que “sería bajo el punto de vista mercantil una empresa muy problemática, especialmente en los actuales tiempos” (*ibid.*). Se conservan en la Fundación Ramón Menéndez Pidal tres galeradas de esta proyectada edición, y varias cartas de Eugenio Krapf, de entre 1900 y 1902, en donde se evidencia que el abandono del proyecto fue definitivo, y no “por ahora”. Krapf acabó publicando en 1902 su propia edición, no crítica, a partir del códice de Puñonrostro, del que era propietario. María Goyri, sin embargo, siguió trabajando en su edición, y se conserva el borrador de un prólogo, redactado en la década de 1940 (Cf. núm. *6).

del Archivo y la clasificación del Romancero hispánico fueron también, en gran parte, obra suya.

Esta Bibliografía cuenta con precedentes: el primero y más meritorio es la lista incluida por José Caso González en su necrología publicada en *Archivum*, V (1955). De ella derivan, en última instancia, las otras: la de Mercedes Gaibrois de Ballesteros, al final de la edición de su conferencia de 1955 (addenda: “Obras publicadas por Doña María Goyri de Menéndez Pidal”, pp. 41-43), que contiene algunas adiciones; la debida a M^a del Carmen Simón Palmer (*Escritoras españolas del siglo XIX. Manual bio-bibliográfico*. Madrid: Castalia, 1991, pp. 331-333), que es simple e imperfecta copia de la anterior, alterando la ordenación y añadiendo algún desaguisado; y por último, la que se contiene en una amplia nota bibliográfica en el libro de Consuelo Flecha, *Las primeras universitarias en España, 1872-1910*, de 1996 (pp. 206-207), que en lo básico depende también de la de Mercedes Gaibrois. Estos intentos son muy incompletos, y no están exentos de errores. Flecha, por ejemplo, atribuye a María Goyri un trabajo amplio, “La pedagogía en Londres y las escuelas de párvulos”, publicado en los *Anales [de la Institución Libre de Enseñanza, I]*, 1909, que es en realidad obra de María de Maeztu; y las cuatro bibliografías adjudican a María Goyri (en confusión especialmente desafortunada, dada la ulterior evolución del autor real y su obsesiva hostilidad hacia Menéndez Pidal, su familia y escuela) un artículo de Joaquín de Entrambasaguas, “Elegía de Lope de Vega en la muerte de Jerónimo de Villaizán”, publicado en 1935 en la revista *Fénix*, núm. 1 (febrero 1935), pp. 127-145, y no en la *RFE* de ese año según indican los autores.

Las descripciones que siguen se han hecho directamente, con los ejemplares a la vista, salvo tres publicaciones de primera hora sobre pedagogía y feminismo que no me han sido accesibles, y para las que me baso en las indicaciones de J. Caso y C. Flecha. Es seguro que María Goyri publicó en sus primeros años otras colaboraciones sobre feminismo y educación en revistas y enciclopedias (a alguna de estas últimas se refiere Carolina Michaelis en su correspondencia con Menéndez Pidal). Especial interés tendría confirmar y registrar una sección periódica, «Crónicas femeninas», que al parecer María Goyri tuvo a su cargo en la *Revista Popular* de Barcelona.

De gran parte de los trabajos sobre literatura se conservan en la Fundación Ramón Menéndez Pidal los originales manuscritos y los materiales utilizados para su redacción. No es ese el caso de las colaboraciones sobre pedagogía y feminismo, que presumiblemente formaban parte de un archivo distinto, lamentablemente segregado de los fondos de la Fundación y actualmente no accesible.*

* Por un afortunado azar, en el momento de corregir las pruebas de esta Bibliografía se han reintegrado a la Fundación Menéndez Pidal todos los materiales del archivo de María Goyri y Jimena Menéndez Pidal. Ello ha sido posible gracias a la voluntad de Irene Catalán, manifestada poco antes de su muerte (17-XII-2013), y a las gestiones de Sara Catalán y Carmen Brito.

Estos materiales permitirán ampliar considerablemente la información contenida en la presente versión preliminar.



María Goyri en su infancia, madurez y ancianidad.

Esta Bibliografía, en consecuencia, no puede considerarse ni exhaustiva ni, en modo alguno, definitiva. No menos incompleta es, sin duda, la lista de publicaciones sobre María Goyri que incluimos, aunque creemos haber recogido lo más sustancial, y una buena parte de lo insustancial.

Se agradecerá toda información (dirigida a info@fundacionramonmenendez-pidal.org) que permita corregir y enriquecer los datos que ahora consignamos. La nueva información será incorporada en una ulterior revisión de esta Bibliografía.

[J.A.C.]

Publicaciones de María Goyri

- [1] “Lo que piensan las mujeres de su educación. Una información”, *Escuela Moderna*, III (1893), núm. 23, 82-86 [ap. C. Flecha].
- [2] “Crónicas femeninas”, *Revista Popular*, I, 16-XII (1898), y 30-XII (1898) [ap. J. Caso].
- [3] “El próximo Congreso Feminista”, *Boletín de la Institución Libre de Enseñanza*, XXIII (1899), num. 470 (31 mayo), 131-133.
- [4] Reseña a *Count Lucanor; or the Fifty Pleasant Stories of Patronio, written by the Prince Don Juan Manuel, and first done into English by James York M.D., 1868* (London: Gibbings & Company, 1899) [Res. M. Goyri, *RHi*, VI (1899), 240-241].
- [5] Reseña a *El libro de los enxiemplos del Conde Lucanor et de Patronio. Text und Anmerkungen aus dem Nachlasse von Hermann Knust herausgegeben von Adolf Birch-Hirschfeld.* (Leipzig: Dr. Seele & Co., 1900) [Res. M. Goyri, *Romania*, XXIX (1900), 600-602].
- [6] Reseña a HANNSEN, F., “Notas a la versificación de Juan Manuel”, *Anales de la Universidad de Chile*, CIX (1901), 539-563; y a *El libro de Patronio o El Conde Lucanor, compuesto por el Príncipe Don Juan Manuel en los años de 1328-29. Reproducido conforme al texto del códice del Conde de Puñonrostro*, segunda edición reformada, ed. E. Krapf (Vigo: Librería de Eugenio Krapf, 1902) [Res. M. Goyri, *RABM*, VI (1902), vol. VII, núm. 10 (junio-diciembre), 320-321].
- [7] “Romance de la muerte del príncipe don Juan (1497)”, *BHi*, VI (1904), 29-37.
- [8] “Los centros de cultura femenina”, *Unión Ibero-Americana*, XIX (1905), 20-IV, 10 [ap. J. Caso].
- [9] “Romances que deben buscarse en la tradición oral”, *RABM*, X (1906), vol. XV, 374-386; *RABM*, XI (1907), vol. XVI, 24-36.
— Tirada aparte (Madrid: Revista de Archivos, 1907), 30 págs.
— 2ª ed.: *Romances que deben buscarse en la tradición oral*; seguido de: Eduardo Martínez Torner, “Indicaciones prácticas sobre la notación musical de los romances” (Madrid: Centro de Estudios Históricos, 1929), 33 págs.
- [10] *La difunta pleiteada. Estudio de literatura comparativa* (Madrid: Librería V. Suárez, Imprenta Fortanet, 1909), 70 págs.
Incluido en núm. 35, pp. 7-59.
[Res. H. Mérimée, *BHi*, XII (1910), 230-232; J. D. M. Ford, *RR*, I (1910), 440-443; Domingo Bar-nés, *La Lectura*, X (1910), núm. 113, 368-370; [Rodolfo] R[enier], *Giornale Storico della Letteratura Italiana*, LVII (1911), 118-120].

- [11] Luis Vélez de Guevara, *La Serrana de la Vera*, ed. R. Menéndez Pidal y M. Goyri (Madrid: Junta para Ampliación de Estudios - Centro de Estudios Históricos, 1916; «Teatro Antiguo Español. Textos y Estudios, I), 8 + 176 págs.
[Res. E. M[érimée], *BHi*, XVIII (1916), 290-292; J. Gómez Ocerín, *RFE*, IV (1917), 411-414; George T. Northup, *MPh*, XV (1917-1918), 447-448; S. G. Morley, *Hispania*, I (1918), 185-186; H. A. Rennert, *RR*, IX (1919), 238-239].
— Reedición digital, con funciones interactivas, de Jerónimo Reguera (<http://fundacionramonmenendezpidal.org/publicaciones/obras-digitalizadas>).
- [12] “Dos notas para el *Quijote* [1. «Jaboneros»; 2. «Duelos y quebrantos]”, *RFE*, II (1915), 33-40.
- [13] *Fábulas y cuentos en verso*. Selección y notas de M. Goyri; dibujos de Fernando Marco; prólogo [“Advertencia”] de R. Menéndez Pidal (Madrid: Instituto-Escuela, Junta para la Ampliación de Estudios; Tipografía de la Revista de Archivos, 1922; «Biblioteca Literaria del Estudiante», I), 210 págs.
— 2ª ed. (Madrid: Instituto-Escuela, Junta para la Ampliación de Estudios; Tipografía de Archivos, 1933), xv + 235 págs. [incluye un nuevo prólogo de R. Menéndez Pidal].
[Es oportuno recoger la valoración que un especialista y crítico tan riguroso como Daniel Devoto hacía de esta obra en su espléndida *Introducción al estudio de Don Juan Manuel y en particular de El Conde Lucanor. Una bibliografía* (Paris: Ediciones Hispanoamericanas, 1972, p. 186):
“Sin una sola nota, porque no las necesita, esta selección es un prodigio de equilibrio —hasta ahora no superado, y muy difícil de superar— que por la simple presentación de los textos —extraídos varios de ellos de obras teatrales del Siglo de oro o tardías— y por la reiteración de varias fábulas en redacciones diferentes, infunde en el lector (casi diríamos que por ósmosis) la comprensión fácil y amena del género y su historia”].
- [14] “Sobre la nota cervantina ‘Yo seguro que...’”, *RFE*, XII (1925), 178-179.
- [15] “El escritor visto por su mujer. Menéndez Pidal” [Entrevista de E. Giménez Caballero a María Goyri], *La Gaceta Literaria*, I (1927), núm. 24 (15-XII-1927), 1.
- [16] Reseña a DELANO, L. K., “The Relation of Lope de Vega’s Separate Sonnets to those in his *Comedias*”, *Hispania*, X (1927), 307-320 [Res. M. Goyri, *RFE*, XV (1928), 78-79].
- [17] Prólogo a LEÓN, María Teresa, *Cuentos para soñar*, ilustraciones de Rosario Velasco (Burgos: Hijos de Santiago Rodríguez, s. a. [1928]), 111 págs.
— Reimpresión (Logroño: Santillana / Edaf, 2004), 111 págs.
- [18] Reseña a CROCE, B., “Realtà e fantasia nelle memorie di Diego Duque de Estrada”, *Atti della R. Accademia di Scienze Morali e Politiche di Napoli*, LII (1928), 84-108 [Res. M. Goyri, *RFE*, XV (1928), 404-405].
- [19] Reseña a *Fénix. Revista del Tricentenario de Lope de Vega, 1635-1935*, núm. 1 (Madrid, febrero 1935) [Res. M. Goyri, *RFE*, XXII (1935), 198-199].

- [20] “Dos sonetos de Lope de Vega [«Alguno justamente quejas forma», en *Rimas* y en *El Domine Lucas*], *RFE*, XXII (1935), 415-416.
- [21] “El Amor niño en el Romancero”, *Fénix. Revista del Tricentenario de Lope de Vega, 1635-1935*, núm. 6 (diciembre 1935), 665-679.
Incluido en núm. 35, pp. 61-77.
- [22] *Don Juan Manuel y los Cuentos Medievales*, selección y notas de M. Goyri (Madrid: Instituto-Escuela, Junta para Ampliación de Estudios, Tipografía de Archivos, 1936; «Biblioteca Literaria del Estudiante», XXVII), 242 págs.
- [23] “Sobre el ejemplo 47 de *El Conde Lucanor*”, *Correo Erudito*, I (1940), entrega 3, 103-104.
- [24] “Para el Romancero de Lope de Vega [«Sobre unas tajadas rocas / cubiertas de ovas peinadas...»]”, *Correo Erudito*, III (1943), entrega 25-26, 193-195.
- [25] “Para el Romancero de Lope de Vega [Un romance pastoril de Lope de Vega, «Descolorida zagala / a quien tristezas hicieron...»]”, *Mediterráneo*, II (1944), núms. 7-8, 209-215.
— Tirada aparte (con nueva paginación: págs. 1-7).
Incluido en núm. 35, pp. 79-87.
- [26] “Con motivo del reajuste de unas fechas. La muerte de doña Isabel de Urbina”, *NRFH*, III (1949), 378-385.
Incluido en núm. 35, pp. 89-101
- [27] “La Celia de Lope de Vega”, *NRFH*, IV (1950), 347-390.
— Tirada aparte
Incluido en núm. 35, pp. 103-174.
- [28] Reseña a VIQUEIRA BARREIRO, J. M., *El lusitanismo de Lope de Vega y su comedia “El Brasil restituído” Estudio bio-bibliográfico, notas y comentarios* (Coimbra: Univ., 1950) [Res. M. Goyri, *NRFH*, IV (1950), 412-413].
- [29] “La Baronía de Arenós y unas cartas del Conde de Feria [s. XV]”, *Rev. Valenciana de Filología*, I (1951), 249-258.
- [30] “Leones domésticos”, *Clavileño*, II (1951), núm. 9 (mayo-junio), 16-18.
- [31] Reseña a CROCE, A., & E. MELE, “Dos loas famosas y un romance, de Simón Herrero”, *Revista Bibliográfica y Documental*, IV (1950), s. p. (1^ª-4^ª) [Res. M. Goyri, *Filología*, Buenos Aires, III (1951), núm. 2, 151-152].
- [32] “El Duque de Alba en el *Romancero* de Lope de Vega”, *Filología*, Buenos Aires, III (1951), núm. 3, 185-200.
— Tirada aparte
Incluido en núm. 35, pp. 175-194

- [33] “Los romances de Gazul”, *NRFH*, VII (1953), 403-416.
— Tirada aparte
- [34] “El primer milagro de San Vicente Ferrer” [“cuentecillo tradicional”, publicado con nota de A. Zabala, que extracta una carta de María Goyri, y encabeza con él el número de la revista como “homenaje póstumo y entrañable a su recuerdo”], *Revista Valenciana de Filología*, IV (1954), 85-86.
- [35] *De Lope de Vega y del Romancero* (Zaragoza: Librería General, 1953; «Biblioteca del hispanista», I), 196 págs.
Incluye los núms. 10, 21, 25, 26, 27, y 32 de la presente Bibliografía.
[Res. M. Alvar, *RF*, LXVII (1955), 188-189].
- [36] “Don Celso”, cuento [c. 1953] publicado por Javier Sáinz Moreno, en *Tres historias...* (2006) [cf. *infra*], pp. 164-166, incluyendo reproducción facsímil del original ms.²

Trabajos inéditos

- [*1] Edición crítica de *El Conde Lucanor* [Cf. nota 1].
[Numerosos materiales manuscritos, que incluyen transcripción de los manuscritos y varios legajos con borradores y notas de María Goyri y R. Menéndez Pidal, FRMP].
- [*2] Antología comentada de romances de la tradición oral moderna
[Ms. original, FRMP].
- [*3] *Romancero escolar*
[Galeradas, con anotaciones y glosario, FRMP].³
- [*4] Biografía de Lope de Vega.
[Materiales manuscritos muy abundantes, sólo parcialmente utilizados en los trabajos publicados por la autora sobre Lope, FRMP].

² Javier Sáinz cree que se refería a este cuento el borrador de una carta de María Goyri a Arturo Zabala, director de la *Revista Valenciana de Filología*, borrador que Sáinz también reproduce en facsímil. Por lo tanto, los párrafos de María Goyri en donde afirma que se trata de un “cuentecillo tradicional”, y que “No necesita llevar nombre de autor, pues yo no lo soy; lo oí hace mucho tiempo, me hizo gracia y «como me lo contaron te lo cuento», se debían solo al deseo de no firmarlo, dado que el cuento incluiría alusiones veladas a su entorno familiar, que Sáinz intenta desentrañar.

En realidad, la carta de María Goyri no se refiere a “Don Celso” sino a “El primer milagro de San Vicente Ferrer” [núm. 34 de esta Bibliografía], que en efecto es un cuento tradicional y que fue el remitido a la *Revista Valenciana de Filología*. Arturo Zabala alude a la carta que acompañaba el envío y la extracta. “Don Celso”, en cambio, fue escrito en fecha posterior y es un cuento original de María Goyri, como es obvio y como bien advierte Sáinz. En mi opinión, el texto es incompleto. El escrito original aprovecha todo el dorso en blanco de una galerada del *Diccionario* de la Academia Española (práctica habitual en María Goyri), y o bien se ha perdido el resto del original, o Doña María, que escribe en letra muy temblorosa, no llegó a terminarlo. La narración queda inconclusa, y no creo posible asentir a la ingeniosa reconstrucción hermenéutica de Javier Sáinz, según la cual a través del personaje de “Don Celso” María Goyri se retrataría a sí misma y a sus familiares próximos, sin perjuicio de que sea indudable que en este fragmento de cuento existe una sedimentación de experiencias vitales propias.

³ Esta obra, finalmente no publicada, cuya preparación atribuimos a María Goyri, no tiene relación ninguna con otra del mismo título: el *Romancero escolar* de Adolfo Maíllo (Barcelona: Miguel A. Salvatella, 1943), claro exponente de lo que Claude Chauchadis califica como “Romancero y pedagogía en las escuelas franquistas” (*Studia in honorem Michelle Débax*, Toulouse, 2001, 63-82).

Además del testimonio de Jimena Menéndez Pidal, que transcribíamos al principio, contamos con el de J. Caso González: “La obra más importante, empezada en la juventud y elaborada constantemente hasta los últimos momentos, permanece aún inédita. Es una extensa biografía de la juventud del poeta, fundada en los datos que suministran sus propias obras. El cariño que Doña María puso en esta obra nos hace desear una rápida edición de ella, para que llegue a todos muy pronto”. Actualmente, sin embargo, entre los materiales de María Goyri conservados en la FRMP, no existe un original propiamente dicho de esa obra, con un texto dispuesto para la imprenta. Dada la proximidad a María Goyri de quienes proporcionan los informes, es muy posible que haya existido un texto más elaborado que, por desgracia, formaría parte de las mermas que han sufrido lo archivos de la Fundación Ramón Menéndez Pidal en tiempos recientes.

[*5] Colección de cuentos y cuentecillos contenidos en el teatro clásico español.

Materiales manuscritos, donde los cuentos se agrupan en carpetillas separadas según cada uno de los autores teatrales; la colección comprende varios cientos de textos, de los que solo una mínima parte fue incluida en *Fábulas y cuentos en verso*, de 1922 [FRMP].⁴

[*6] Borrador, inacabado, de prólogo a una edición de *El Conde Lucanor* [cuartilla doblada y escrita por ambas partes, FRMP].

Este conato de prólogo hubo de ser escrito en fecha posterior a 1945, pues en él se cita, además de la edición del *Conde Lucanor* de González Palencia (1940), un libro de J. M. Castro y Calvo, que sin duda es *El arte de gobernar en las obras de Don Juan Manuel* (Barcelona: CSIC, 1945). Creo, incluso, que el texto pueda ser de c. 1950, es decir de fechas próximas a la enfermedad que limitó severamente su actividad científica al final de su vida.

Publicamos en anexo este texto, a pesar de ser sólo un esbozo muy preliminar, como último testimonio del interés de María Goyri por una obra a la que dedicó varios años de trabajo. A juzgar por sus reseñas de las ediciones de Knust y Krapf, y el nivel de exigencia en lo textual que se manifiesta en ellas, y a juzgar por sus esmeradas transcripciones de los manuscritos, y los materiales acumulados para el estudio y anotación de la obra, es evidente que la edición crítica completa de *El Conde Lucanor* de María Goyri, lamentablemente nunca publicada, hubiera superado a las entonces existentes, y, en mi opinión, a todas las muchas, infinitas, que han aparecido después.

Publicaciones sobre María Goyri

ÁLVAREZ, Itsaso, “Cuando María Goyri fue a la Universidad”, *El Correo*, edición Bizkaia, 26-II-2013.⁵

⁴ La colección planeada por María Goyri anticipa las de Maxime Chevalier, *Cuentecillos tradicionales en la España del Siglo de Oro* (Madrid: Gredos, 1975), y *Cuentos folklóricos españoles del Siglo de Oro* (Barcelona: Crítica, 1983). Es, sin embargo, mucho más copiosa en los cuentos extraídos de obras dramáticas.

⁵ Corrija un craso, y anacrónico, error: la atribución a María Goyri del trabajo “Aplicación del modelo romancero de análisis a la balada vasca: *Bereterretxen khandoria*”. Ese estudio, publicado en 1994 (aunque redactado varios años antes) en el volumen *De balada y lírica. Actas del Tercer Coloquio Internacional sobre el Romancero* (Madrid: Seminario Menéndez Pidal), II, págs. 305-316, se debe a la autoría colectiva del “Seminario María Goyri” que radicó en la Universidad del País Vasco, Vitoria, en 1980-1983, y del que formaron parte, entre otros, Koldo Biguri, J. Antonio Cid, Gabriel Fraile, Jon Juaristi, Joseba Lakarra, Jabier Ormazábal, María José Querejeta y Blanca Urgell. Aunque el “Seminario María Goyri” no tuvo ninguna dotación ni apoyo institucional, en su corta vida pudo realizar varias encuestas de recogida de versiones de baladas en lengua vasca y romances castellanos en Vizcaya, Álava, Navarra y Burgos, y participó en las actividades del Seminario Menéndez Pidal, de la Universidad Complutense. Se planearon trabajos de cierto aliento, que no tuvieron la deseable continuidad. Los resultados obtenidos y los materiales fueron años después objeto de un parcial, e indebido, uso privado por parte de alguno de los antiguos miembros del Seminario. El nombre de María Goyri dado al Seminario, a propuesta del firmante, era un obvio homenaje a la memoria de quien, casi siempre en la sombra, había contribuido tan decisivamente a la recuperación del patrimonio de la poesía oral narrativa peninsular.

- BERNIS, Elisa, “María Goyri”, *ABC*, 3-II-1952, 5.
- CARABIAS, Josefina, “Una mujer cabal”, *Informaciones*, Madrid, 29-XI-1954.
- CASO GONZÁLEZ, José Miguel, “Doña María Goyri de Menéndez Pidal 1873-1954”, *Arhivum*, Oviedo, V (1955), 205-209.
- ESPÍN, Manuel, *Mujeres en el filo de la navaja* (Málaga: Corona Borealis, 2012). Cap. 3, “María Goyri (1874-1954): La pasión de la erudita”, págs. 83-89.
- FERRER NAVARRO, Manuel, “Pinceladas del momento [María Goyri]”. Comentario radiofónico emitido en una emisora de Valencia. Ferrer Navarro remitió a R. Menéndez Pidal, con carta del 3 de diciembre de 1954, el texto de su comentario (cinco cuartillas mecanografiadas), que se conserva en la FRMP.
- FLECHA GARCÍA, Consuelo, *Las primeras universitarias en España, 1872-1910* (Madrid: Narcea, 1996), 206-207.
- GAIBROIS DE BALLESTEROS, Mercedes, *Homenaje a la memoria de Doña María Goyri de Menéndez Pidal*. Conferencia pronunciada en el Salón del Consejo Superior de Investigaciones Científicas el día 26 de abril de 1955 (Madrid: Dirección General de Relaciones Culturales del Ministerio de Asuntos Exteriores, 1956). Incluye (pp. 39-40) unas “Palabras del Excelentísimo Sr. D. Ramón Menéndez Pidal”. 44 págs.
- JIMÉNEZ LOSANTOS, Federico, “María Goyri. La primera universitaria”, *El Mundo*, 24 mayo de 1998, «Crónica», pág. 20 [Con afirmaciones muy inexactas sobre la adscripción ideológica de M. Goyri y R. Menéndez Pidal].
- MUÑOZ CORTÉS, Manuel, “María Goyri de Menéndez Pidal”, *RFE*, XXXVIII (1954), 457-458.
- ONTAÑÓN, Elvira, “María Goyri (1873-1954)”, *Estudio. Boletín de actividades*, núm. 19, Curso 2012-2013 (junio 2013), 8-13.
- RODRIGO, Antonina, *Mujeres de España. (Las Silenciadas)* (Barcelona, Plaza & Janes, 1978; reedición: Barcelona: Círculo de Lectores, 1988; nuevas eds., con los títulos *Mujeres para la Historia: La España silenciada del siglo XX* (Barcelona: Ediciones Carena, 2002), y *Mujeres olvidadas. Las grandes silenciadas de la Segunda República* (Madrid: La Esfera de los Libros, 2013); págs. 157-188 (en la ed. de 2002).
- SÁINZ MORENO, Javier, *En torno a un cuento anónimo original de María Goyri (1952)* (Madrid: ADANAE, 2006), 34 págs [colofón septiembre 2006, edición de 300 ejemplares].
Incluye: I. “Breve reseña biográfica de María Goyri”; II. “Comentario de texto a «Don Celso», un cuento anónimo original de María Goyri”.

SÁINZ MORENO, Javier, “En torno a un cuento anónimo original de María Goyri (1952)”, en *Tres historias del Colegio «Estudio»* (Madrid: ADANAE, 2006), 147-174 [colofón junio 2007, edición de 100 ejemplares].

Incluye los mismos textos de la publicación anterior.

VÁZQUEZ-VIGO, Carmen, “Mujeres importantes. Doña María Goyri de Menéndez Pidal [Entrevista con Jimena Menéndez Pidal]”, *Blanco y Negro*, núm. 2488 (9 enero 1960), 90-93.

Anexo

(Borrador incompleto del prólogo de María Goyri a una edición de *El Conde Lucanor*)

Con temor emprendo hacer una nueva edición del *Conde Lucanor*. Parece que pesa sobre Don Juan Manuel un castigo de la soberbia aspiración, rara para su tiempo, de que hubiese de sus obras un códice verdadero, dechado que pudiese consultarlo todo el que notase alguna falta en sus escritos.

No debieron estos de despertar gran interés en la Edad Media, pues no sólo se conservan pocos manuscritos (uno sólo general, y cuatro del *Conde Lucanor*, la mayor parte tardíos) sino que tampoco hay citas alusivas. Hasta fines del siglo XVI no merece la honra de ser impreso. Su primer editor, Argote de Molina, se valió de un manuscrito harto mendaz que hubiera hecho sonrojar a Don Juan Manuel. Ese mismo texto se repitió en la edición de 158... [blanco] y sirvió para la de [blanco] y la traducción de [blanco].^{6a}

Al fin tomó a su cargo dar una edición crítica H. Knust, que había reunido todos los elementos necesarios para llevar a cabo su empeño y que se hallaba bien preparado para ello con sus vastos conocimientos de literatura comparada, y ya probado su saber del cuento medieval con su publicación [blanco].^{7b}

Pero el hado hizo que muriese antes de publicar su trabajo, y aunque parecía que dejaba todo completo, faltaba la última mano y al aparecer su edición póstuma comprobamos que distaba mucho de ser correcta.

^{6a} No es sencillo rellenar los blancos dejados por María Goyri. La primera edición de Argote de Molina (de la que existe un ejemplar en la biblioteca Menéndez Pidal-Goyri) es de 1575, pero no existe ninguna reedición en la década de 1580; la única que se hizo es de 1642, y esta es la posiblemente aludida. La edición de Argote está en la base de la de Gayangos, en la B.A.E., de 1860, aunque se sirvió también de los manuscritos, y en la traducción de James York, que María Goyri reseñó en 1899. Más improbable es que se refiera a las traducciones francesas de A. de Puibusque, publicadas en 1851 y 1854.

^{7b} María Goyri alude probablemente a *Dos obras didácticas y dos leyendas* (Madrid: SBE, 1878), o a la edición de Knust de *El libro de los gatos* (1865).

Con todo, quedó como texto definitivo y a él han acudido los editores posteriores. (Juliá?) Gayangos. Krapf.^{8c}

Otras ediciones son fragmentarias, como la que publiqué en la B[iblioteca] L[iteraria del] E[estudiante], con miras a las clases de Literatura de Segunda enseñanza (a pesar del esmero que puse en la corrección del texto, se deslizaron algunos errores). Con el mismo fin la Editorial Ebro ha publicado una selección hecha y anotada por el señor González Palencia, para la que ha tenido presentes las ediciones de Juliá y de Knust. Ha salido con muchos errores de transcripción, que a veces hacen ininteligible el texto.

El sr. Castro anuncia que tiene en preparación las obras completas de Don Juan Manuel. Es de desear que si lleva a cabo su propósito revise los textos, pues los trozos copiados en su libro son incorrectísimos.^{9d}

En vista de todo esto se comprenderá el temor con que inicio esta edición.

He creído necesario ante todo tomar como base el manuscrito más autorizado, aunque no proceda directamente del de Peñafiel. El n^o ... [blanco].^{10e}

Cuantas correcciones introduzca irán señaladas y apoyadas en los otros cuatro manuscritos, de los que señalaré cuantas variantes ofrezcan.

^{8c} Es imposible que Gayangos utilizara la edición de Knust, cuarenta años posterior a la suya. Lo más probable es que María Goyri tuviera previsto caracterizar las ediciones de Juliá, Gayangos y Krapf, no necesariamente en ese orden, y escribiera los nombres de los editores como recordatorio.

^{9d} Se alude a José María Castro y Calvo, editor ciertamente poco riguroso de la obra de Don Juan Manuel, quien además del libro ya mencionado, *El arte de gobernar en las obras de Don Juan Manuel* (Barcelona: CSIC, 1945), había publicado el mismo año una edición de el *Libro de la caza*, y proyectó una edición de la obra completa, de la que salió un primer volumen, editado en colaboración con Martín de Riquer, *Obras, I (Libro del caballero et del escudero; Libro de las armas; Libro enfenido)* (Barcelona: CSIC, 1955).

^{10e} Para María Goyri el mejor texto de *El Conde Lucanor* era el contenido en el Ms. 6376 (*olim* S.34) de la Biblioteca Nacional.

GERNIKAKO KOPLADIA, JULIO BAREÑOREN KOPLA-BILDUMA

Jabier Kalzakorta
Euskaltzaina
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Gernikako kopladia: Julio Bareñoren kopla-bilduma

Julio Bareño (1890-1964) Gernikako folklore biltzailerik garrantzitsuenetako bat izan zen. Beraren ia folklore-bilketa guztia 1937ko bonbardaketan suntsitua izan zen. Laurehun kopla inguruko dantza-kopla bilduma bat, ordea, erre gabe gelditu zen. Artikulugileak bere lanean Julio Bareñoren dantza-kopla saila eta datu bibliografiko zenbait eskaini ditu.

Gako-hitzak: dantza-kopla zahar, Julio Bareño, Gernika.

RESUMEN

Una colección de coplas de baile de Gernika recogida por Julio Bareño

Julio Bareño (1890-1964) fue uno de los recopiladores de folklore más destacados de Gernika (Bizkaia). Gran parte de su trabajo se destruyó en el bombardeo que sufrió la localidad en 1937. Se salvó, sin embargo, una de las mejores y más abundantes colecciones de coplas de baile, unas cuatrocientas estrofas, recogidas en Lumo y alrededores de Gernika, que ha permanecido inédita hasta nuestros días. El autor del artículo la da a conocer y proporciona además unos datos biográficos de Julio Bareño.

Palabras clave: copla de baile tradicional, Julio Bareño, Gernika.

RÉSUMÉ

Une collection de chansons à danser de Gernika recueillie par Julio Bareño

Julio Bareño (1890-1964) fut un des compilateurs de folklore les plus renommés de Gernika (Bizkaia). Une bonne partie de son travail fut détruit pendant le bombardement de la ville en 1937. Cependant, une collection de chansons pour être dansées que n'a pas été éditée jusqu'à présent put être sauvée. Ces sont approximativement quatre cents strophes recueillies à Gernika-Lumo et ses alentours. L'auteur la fait connaître et ajoute des renseignements biographiques de Julio Bareño.

Mots clés: chanson à danser traditionnelle, Julio Bareño, Gernika.

SUMMARY

A collection of Gernika verse-form dance-songs gathered by Julio Bareño

Julio Bareño (1890-1964) was a most renowned folklore compiler from Gernika (Bizkaia). A great deal of the material put together by him was destroyed during the bombing of the Basque town in 1937. Fortunately, though, one of the most beautiful and vastest collections of verse-form songs to be danced was saved from ruin, around four hundred stanzas altogether collected in Lumo and Gernika surroundings which have remained unpublished to this day. The author brings them to light, and in addition, provides biographical data on Julio Bareño.

Keywords: traditional dance-song, Julio Bareño, Gernika.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2014.04.08.

Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2014.05.29.

1. Sarrera

Manuel Lekuona maisuak *Literatura oral euskérica* liburuan euskal dantza-koplak aztertu zituen. Oiartzungo maisuak lekuan lekuko koplak-sail edo multzo ugariei *kopladia* deitu zien. *Zenauriko kopladia* zein beste leku batzuetako kopladien berri eman zuen euskal ahozketasunaren oinarriak markatu zituen liburu gogoangarri hartan. Guk geure lan honetan dantza-kopla sail bat argitara nahi dugu. Dantza-kopla sail horri *Gernikako kopladia* deitu diogu. *Gernikako kopladia* izendatu dugu horako ale guztiak, XX. mende hasieran, Gernikaldean, eta batez ere Lumon, bildu zirelako. Kopla gehienak dantza-koplak dira, dantzarako erromerietan kantatzen ziren koplak. Lan honetan argitara emango ditugun koplen kopurua lauhun alekoa baino gehiagokoa da. Dantza-kopla sail hori aberatsa da kopla kopuruz; eta interesgarria da, era berean, kopla asko beste inongo kopla sailetan aurkitzen ez direlako.

Koplen biltzailea Julio Bareño Atxirika gernikarra izan zen. Dantza-kopla horien zati handi bat Lumon bildu zituen aitona-amonengandik XX. mende hasieran. Dantza-kopla horiek zenbakitu eta 1958-1960 urteetan, bidalketa diferentetan, Antonio Zavalari kartaz bidali zizkion. Kopla edo kanta aleen zerrenda 387koa da. Zerrenda horretatik kanpora dauden beste bilduma txiki batzuk ere emango ditugu lan honetan: Antonio Goitiari, Matxalen Busturiko eta Urkiolako san Antoniori eskainitakoak. Hemen argitaratzen dugun bilduma ez ezik, biltzaile edo bildumatzaila ere interesgarria dela deritzagunez gero, Julio Bareñoren gaineko bizi-zertzelada batzuk ere eskainiko ditugu lan honetan.

Julio Bareñoren dantza-koplen zerrendan dantza-koplez gainera, badira balada puskak eta beste kantu narratibo batzuen puskak ere. Horien gainean ere zerbait esango dugu. Gure artikulu honetan ez dugu dantza-koplen gaineko azterketarik eskainiko. Ezinkizun da kopla askok eta askok duten aberastasuna eta edertasuna lan bakar batean ematea. Oraingoz gure asmo nagusia *Gernikako kopladia* deitu dugun *corpus* baten berri ematea da.

2. Julio Bareño: bizitza zertzelada eta lanak

Julio Bareño izan zen gure lan honetako lauhun kopleen biltzailea. Julio Bareñoren lanen bila Jon Bilbaoren bibliografiara jotzen duen ikertzaileak ez du ezer aurkituko. Julio Bareñoren berri handiena izan zuena Jose Antonio Arana Martija izan zen, baina ez zuen bere bibliografia oparoan bere herrikide eta senideari artikulua eskaini. J. A. Arana Martijaren argitara gabeko bere lanetan –eskutitz eta bere funtseko karpitetan– Julio Bareñoren gaineko berririk interesgarri eta zehatzenak berari zor dizkiogu. Guk atal honetan argitara gabeko argitasun horiek erabiliko ditugu batez ere. Gure berri hauek, jakina, J. Bareñoren gaineko beste lan luze eta sakonago baten oinarri izan litezke.

Julio Eusebio Bareño Atxirika Gernikan jaio zen 1890ko irailaren 26an eta Gernikan bertan hil zen 1964ko apirilaren 23an. Gurasoak Juan Bareño Bereziartu (1853-1930), Gernikakoa, eta Angela Atxirika Ortuzar (1860-1905) izan ziren. Aitararen aldetiko aitita-amamak, Gil Bareño Bareño (1830-1904), Barrikakoa, eta Zezilia Bereziartua Goienetxea (1831-1896), Kortezubikoa. Amaren aldetiko aitita-amamak Tomas Atxirika Guarrotxena (1831-1896) eta Maria Jesus Ortuzar, Axangizkoa.

Julio Bareño Gernikako Atxirika famatu baten iloba zen. Aitona jostun honen gainean hainbat pasadizo kontatzen omen ziren. Julio Bareñok asaba txistulari famatu bat izan zuen, Juan Bautista Bareño, ezagutzen den lehen txistularietakoa 1792ko testigantza baitago. Julio Bareño Banco de Vizcaya-ko zuzendaria izan zen Gernikako eta Zarauzko ordezkarietara. Zenbait lan utzi zituen argitaragabe:

- Costumbrero de la Parroquia de Santa María de Guernica (argitaragabea eta erretorearen eskuetan)
- Historia de la banda de Música de Guernica (argitaragabea)
- Historia del orfeón guerniqués (argitaragabea)

Garai bateko aldizkari eta egunkarietan ere idatzi zuen. Bilboko Euzkadi egunkari nazionalistako herri korrespondentsala izan zen. Herri kronikez gainera folkloreak ere bidali zituen egunkari abertzalera. Euzkadi egunerokoan idazten zenean *Belu* eta *Belumendu* ezizenak erabili ohi zituen.

Gernikako bandakoa izan zen eta organoa jotzen zuen. Parrokiako abesbatza-ko zuzendaria ere izan zen Juan Ojangurenen garaian. Gerra garaian Lapurdiko Getarira joan izan zen eta elizako organoa jotzen zuen. Seber Altuberen lagun handia izan zen eta berarekin batera euskal kanten biltzailea.¹

Horra hitz gutxitan zenbait argibide. Euzkadi osoko orriak aztertzen ibili nintzenez, Gernikatik albisteak bidaltzen zituen *Belu* izengoitidunaren gainean

¹ Berri hauek Bizkaiko Diputazioko Arana Martija fondo edo funtsetik hartu ditut. Signatura hauxe du dokumentuak: ARA-ARTX OO42/008.



1930 inguruan Gernikako lagun talde bat. Ezkerretik hasita hirugarrena Julio Bareño, hurrengoa Seber Altube.

berri gehiago jakin nahirik J.A. Arana-Martijari eskutitz bat idatzi nion. Hona zer erantzun zidan 2004 urteko irailaren 23an:

(...) Eta goazen BELUren argibideetara. Ez dakit zure kabuz edo bateren batek esan dizulako nigana jo duzun. Baina benetan esan behar dizut informatzailerik ezin izango zenuela aurkitu. Gure BELU (BELUMENDU ere sinatzen zuen), Maiteder Bareño Omaetxebarria nire emaztearen osaba zen. Angel Bareño Atxirika-ren alaba da nire seme-alaben ama, eta honen anaia *Julio Bareño Atxirika* zen BELU, Euzkadin idazten zuena, Gernikako kronikak Bilbora bidaliz. Eta niri dagokidanetik anekdota bat: nire jaiotzaren berri eman zuen egunkari horretan, uste dut 1931.eko martxoaren 12an (ni 10ean jaio nintzen). Beraz, BELUri esker agertzen da nire jaiotza egunkari baten, moldezko leturan.

Banco de Vizcayak Gernikan zeukan ordezkariartzako zuzendaria zen Julio Bareño. Baina 1936ko gerra zela eta, ihes egin behar izan zuen Lapurdira, hango Geta-rin hiru urte edo egonaz. Lehendik Seber Altuberen lagunmina zen, baita ere Eusebio Erkiagarena (hau ere banku berean zebilen lanean). Altube Pabera joan zen erbesteratua, eta Getaritik Pabera eta alderantziz gutunak gurutzatzen zituzten. Altube baino lehenago etorri zen Gernikara Bareño, eta gutunekin jarraitzen zuten, gehienak diru arazoekin Altubek akzio batzuk zituen bankuan eta. Azkue-rekin ere izan zituen harremanak Bareñok (ikus. Azkue Bibliotekako artxiboa), eta Antonio Zavalarekin ere, Auspoa bilduman agertzen den bezala. Lehenengo alee-tan agertzen da harreman hau; baina ez daukat une honetan astirik neure bilduman datua aurkitzeko. Erbestetik Gernikara etorrira, lanpostua kenduta zeukan Bareñok, goardazibil bateri emanda. Lanik gabe jubilatua behar izan zuen, Tomas

Bordegarai, Bankuaren zuzendari nagusiak (adiskideak ziren) Zarautzera lanean bidali ondoren. Fondoari [buruz] ezin dizut ezer esan. Bonbardaketan erre zen, nahiz eta orain Euzkadin zerbait inprimaturikoa gorde. Nik baditut Altuberekin gurutzatutako gutun batzuk, eta ez bakarrik erbesteratutako garaian idatziak, baita Altube Argentinara joan zanean (1928) handik hartutakoak. Gutuneriaren kontrola estua zela badakizu, eta gutunetan ez da agertzen iruzkin politikorik.

Julio Bareño jaio zen Gernikan 1890.09.26an eta hil zen 1964.04.23an. Zeozer gehiago nahi ezkerro, eskatzea baino ez daukazu.

Neuri zuzendutako eskutitz honetan hainbat argibide interesgarri datoz, beste inon nekez baino nekezago lor litezkeenak. Datu hauezaz gainera, Euskaltzaindiko artxiboan ere beste berri batzuk badatoz. Josune Olabarriak kontsultatzen utzi dizkigun agirietan, ABA-EUS 603.05. 1921-30 signaturan, 1921 urteko irail-urrietan argitaraturiko artikuluen zerrendak agertzen dira. Hilabete bakoitzean argitaraturiko artikuluen zerrenda dator *Artículos euskéricos de Bareño* izenburupean. Artikuluak noiz argitaratuak diren, artikuluen izenburua eta egunkariaren laburdura dator. Hona hemen, esaterako, diodan dokumentu bat:

Octubre

4	Neure aita	Tarde
5	Bidartia (1)	Pueblo
	Bidartia (2)	Id
9	Napoleonen gauzak	Tarde
11	Iskoa dala-ta	Noti
11	Liburu barria	Nervión
12	Bakotxak berea maite	Gaceta
13	Erantzupen ona	Tarde
14	Bidaztia	Pueblo
15	Eguneroko gauzak	Gaceta
18	Beltzapena	Tarde
18	Iskirimiriak	Nervión
19	...-mitxak ²	Noti
20	Elaiak joan jakuz	Euzkadi
21	Arabitas...	Tarde
21	Ola ederra	Gaceta
22	Motel biak	Pueblo
22	Melillara	Tarde
25	Orri jauskera	Id
26	Landaratxo bat	Noti
27	Arabitar emakumeak	Tarde
28	Sari ederra	Nervión
29	Emakume zeutzat	Tarde
29	Azken orria (1)	Pueblo
31	Azken orria (2)	Id

Guztira 25

² Hitz hau ez da ondo irakurtzen.

Zerrenda horren arauera, ia egunero ateratzen zuen artikulu bat. 1921 urteko urrian, guztira hogeitabost artikulu atera zituen. Artikuluak diogunean, uste dugu zutabe txikiak direla gehienak. 1921ko azaroan, esaterako, beste hogeita bost artikuluren zerrenda dator. Artikulu hauetako zenbait errekortaturik biltzen dira aipatu dugun dokumentuan.

3. Julio Bareño folklorezale

Julio Bareño Euzkadi egunkariko beste korrespontsal abertzale batzuen moduan (Mañariko Errose Bustintza *Mañariko* edo Markinako Elizabete Garmendia *Ete bezala*) folklore biltzailea ere izan zen. Zehatzago esan: idazle eta korrespontsal baino areago folklore biltzailea zela uste dugu. Hona hemen Luis Villasantek (L. Villasante: 1966) dioena Julio Bareño hil ondotxoan:

La zona de Guernica es particularmente rica en todo género de manifestaciones de la poesía y literatura popular: romances, cantares de pandereta, marijeses, refranes, cuentos, fábulas, mitos y leyendas. El guerniqués Julio Bareño, recientemente fallecido, nos ha dejado una valiosa colección, aún inédita, fruto de sus pesquisas y recogidas en dicha zona.

Julio Bareño bere herritarraren aipamena egiten du Luis Villasantek. Gernikako herri folklore biltzailerik handientzat du Julio Bareño. Guk dakigula, Julio Bareñok bertso-paperen biltzailea ez ezik, jendeak buruz ikasitako bertso-paperetako bertsoen biltzailea ere izan zen. Julio Bareñoren altxorrik handiena 1937ko Gernikako bonbardaketan suntsitu zen. Euzkadi egunkarian zein gerra aurreko egunkarrietan argitaratutakoa bakarrik salbatu zen. Berak karta batean aitortzen duenez, ordea, miragarriro, kopla-sail luze bat salbatu zen. Kopla-sail hori da ezagutzen dugun kopla-bildumarik ugariena edo ugarienetakoa. Guztira laurehun kopla baino gehiago baititu. Kopla-sail hori bi lekutan aurki daiteke. Alde batetik, Gipuzkoako Koldo Mitxelena kulturuneko Antonio Zavalaren hondo edo funtsean; eta, bestetik, Bizkaiko Diputazioko Arana-Martija funtsean, Ara-Artx 0057/003 signatura duen dokumentuan. Bizkaiko Aldundiko bigarren funts hau kontsultatzeko orduan eskerrak eman behar dizkiot J. A. Aranaren seme Garikoitz Aranari, aitaren ondarea ene eskuetan jartzeko izan duen prestutasunagatik. Leku bitan aurkitzen dira, beraz, dokumenntuak. Zergatik leku bitan? Julio Bareñok A. Zavalari kopla sail bat edo bertso sorta bat bidaltzen zionean, bidalketaren kopia bat gordetzen zuelako.

Kopla sailaren originalak edo dokumentu jatorrizkoak, beraz, Antonio Zavalaren funtsean daude gorderik, eta kopiak Bizkaiko Diputazioko Arana-Martija funtsean. Kopla hauek bidalketa (edo erderaz berak dioen bezala: *remesa*) diferentetan bidaliak daudenez gero, bidalketa bakoitzari dagokion eskutitzarekin batera aurkitzen dira Antonio Zavalaren funtsean. Julio Bareñoren funtsean, ordea, bidalketa bakoitzaren eskutitz gurutzatuak aurki litezke: Zavalarenak eta Bareño-

renak. Eskutitz gurutzatuak irakurri nahi dituen ikertzaileak, beraz, J. Bareñoren funtsera jo behar du, nahitaez.

Julio Bareñoren Gernikako koplak saila gora handikoa dela deritzagu, XX. mende hasierako pertsona adinduei gerra aurrean bildua baita. Koplasailik ugariena bezain zaharrenetako bat da, dudarik gabe, ia Azkueren bilketa garaikoa.

4. Julio Bareñoren kopladiaren argitarapena

Gure artikulu honetan J. Bareñok bildutako koplak sail guztia argitaratuko dugu. Argitaratu, gainera, berak A. Zavalari erremesa diferenteetan sailkatu eta ordenatu zuen bezalaxe. Era horretara, koplak bakoitzak zenbaki bat eramango du goian. Zenbaki jartze hau ez da gurea, beraz. Koplak saileko koplak bakoitza zenbakitzeak mesedea baino ez digu ekarriko. J. Bareñoren koplak zerrendako azken aleak 387 zenbakia darama. Guk koplak saila argitaratzean kontaduria bera erabili dugu. Zerrenda honetan badira balada pusketak eta beste kantu narratibo batzuen zatia ere. Horiek koplak hartu ez arren, berdin-berdin argitaratuko ditugu. Julio Bareñoren zerrenda honetako koplak gehienak dantza-koplak zaharrak dira, *cantares de pandereta* Luis Villasantek zioen moduan. Dudarik gabe asko eta asko ezagunak dira eta gure *Dantza-koplak zaharrak* liburuan aurki daitezke. Beste asko, ordea, inon ere ez. Koplak ezagunen aldaera askotxo ere badaude, dudarik gabe.

Julio Bareñok A. Zavalari gutun bakoitzean koplak-sorta bat bidaliko dio zenbakiturik. Hona hemen Julio Bareñok bere bidalketetan bidalitako koplak zerrendak eta zerrenden izenburuak. Lehen bidalketa, 1958 urteko urriaren 29an, *Euskal kanta zarren letratuak* izenburupean, 1-201 koplak. Bigarren bidalketa, 1959 urteko otsailaren 11an, *Euskal kanta zarrak* izenburupean, 202-299 koplak, hirugarren bidalketa, 1959ko ekainaren 6an, *Koplak zarrak* izenburupean, 301-344 koplak, laugarren bidalketa, 1959ko ekainaren 26an, *Koplak zaarrak* izenburupean, 345-358 koplak. Bosgarren bidalketa, 1959ko urriaren 9an, 359-387 koplak.

Bost bidalketa hauezaz gainera, guk Julio Bareñoren beste hiru sail ere argitara emango ditugu geure artikulu honetan, Antonio Goitia eta Matxalen Busturikori eskainiak eta Gernikaldeko santa eskeko koplak.

Koplak hauek guztiak ahalik eta modurik fidelenean emango ditugu argitara, jatorrizko ortografia errespetaturik. Aldaketaren bat egiten dugunean, errata garbi bat denean ia beti, oin-oharrean emango dugu aldaketaren zergatia.

5. Julio Bareñoren kartak

Puntu honetan Julio Bareñok koplak sailekin batera bidalitako eskutitzak argitaratuko ditugu. Eskutitzak transkribatzeko orduan ahalik eta erarik fidelenean jokatu dugu.

A. Zavala Auspoa bildumako aleak argitaratzen hasi baino lehen, material bila ibili zen hainbat urtetan. 1956 urteko Euskaltzaindiaren Arantzazuko bileran “Bertso berri billa Euskalerrria zear” hitzaldia egin zuenerako, bertso paper bilduma handia bildua zuen. Eta bilketa horri ez dio utziko bizi den arte guztian. Busgosko Oñan zegoela ere, 1958 eta 1959 datak ikusten ditugu eskutitzetan, material bila jarraitzen zuen jo batera eta jo bestera. A. Zavalak, eskutitz batean argiro aitortzen duenez, material-errekutsua osatzen ari zela Bizkaian aurkitu zuen bertso eta koplá hornitzailearik handiena: Julio Bareño. Eskutitzak ondo ulertzeko bi eskutitz idazleen adin eta egoera ulertzea beharrezkoa da. Antonio Zavala 1958 urtean gazte eta adoretu zegoen, hogeita hamar urte zituen³, eta Julio Bareño zaharturik eta ahuldurik. Julio Bareño gaixo antzean, ahuldurik, zahardadeak etxeikoiturik, etxetik gutxitan ateratzen zen gizon edadetua zen. Antonio Zavala, ordea, 1959 urtean ordenatuko zen euskalzale gazte, kementsua zen⁴. Ohartzekoa da, bestalde, elkar ez zutela ezagutzen. Karta harremana zuten bakarrik. Behin elkar ikusteko hitzordua jarri eta gaizki ulertu batengatik elkar ikusi gabe gelditu ziren. Hona hemen elkar ikuste horren berri ematen duen J. Bareñoren 1959 urteko ekainaren 26ko gutuna:

Muy estimado Padre:

(...) No tuve suerte al paso de los trenes de Bermeo de ayer día de San Pedro, estando de vigilancia en el andén de la estación incluso en el de las 6 de la tarde en el que, según me aseguraron después, pasó Vd acompañado de Irigoyen. Bien es verdad que la aglomeración de viajeros a esa hora fue extraordinaria y aun que por ello y por los pocos minutos de parada que aquí tiene recorrí un poco apresuradamente todas las unidades del convoy, no pude encontrar a Vds. Lo sentí en el alma, máxime teniendo en cuenta que les habré tenido a Vds. completamente a mano y a poquísimos metros de donde yo andaba. Conozco al Sr Alfonso Irigoyen no me habría sido difícil encontrar a Vd si siquiera a él hubiese encontrado.

En fin otra vez será si Dios quiere, pero yo quería a Vd esta pequeña satisfacción.

Elkarren arteko karta gurutzatuak, Zavalaren bakar bat izan ezik, denak dira erdaraz. Antonio Zavala bere ibilbidea abiarazi baino lehen (hots, Auspoa bilduma 1961an argitaratzen hasi baino lehen) erdaraz seguruago sentituko zela uste dugu. Diogunaren adibide garbia da Arantzazuko lehen hitzaldia erdaraz izana.

Julio Bareñoren gutunak atal honetan transkribatzea argigarria da gure dantza-koplen hainbat alderdi hobeto ezagutzeko. Gure Gernikako kopládiko ia laurhun koplá zenbakituak sei bidalketatako koplez osatua da. Hona, beraz, gutun horiek:

³ Julio Bareñoren lehen bidalketa 1958 urteko urrikoa da. Antonio Zavalak hogeitamar urte beteak zituen 1958 urteko urtarrilaren 23an, san Bizente bezperan.

⁴ Antonio Zavala 1928 urteko urtarrilaren 23an jaio zen. Jesusen lagundian 1945 urteko irailaren 14an sartu zen eta 1959 urteko uztailearen 30an ordenatu zen.

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Guernica

Guernica 29 de Octubre de 1958

R.P. Antonio Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre:

Como contestación a su amable carta del 4 de septiembre⁵ tengo mucho gusto en hacerle una primera remesa de “koplak” recogidas casi todas ellas en la antielesia de Luno hace unos 40 años cantadas por personas ya ancianas en aquel entonces con lo cual quiero significarle que todas ellas son antiquísimas, y que fueron malamente escritas por los mismos aldeanos en un viejo cuaderno que no sé cómo se salvó de la quema del 37.

Entre todas estas estrofas las hay de ARIN-ARIN (las más) en compás del 2 por 4; del FANDANGO (compás de 3 por 4) los menos y también alguna que otra en ritmo de zortziko (5 por 8). Las he podido descifrar y ponerlas después en forma entendible. Le incluyo algún ejemplo de la música aunque no sé si ello le interesa.

Me queda aún algo de material, borradores, y no sólo de esta clase de coplas sino también BERSO BERRIAK pero tomadas de viva voz para lo cual estoy molestando aquí a todos los que creo saben o recuerdan algo de estas cosas.

No sé si en todo ello encontrará algo aprovechable aunque espero que sí a pesar de que muchísimas de estas estrofas son casi similares en todo el País.

No me tiene que agradecer nada en absoluto pues es trabajo que encaja perfectamente en mis aficiones de siempre y que, además, me sirve de gran entretenimiento y sedante de mi delicado estado de salud. Como por ello no puedo desplazarme ni siquiera a las aldeas circunvecinas que han sido siempre muy ricas en esto que andamos, he comprometido y escrito a varios amigos, incluso sacerdotes que no dudo me mandarán lo que recojan, y también a los bersolaris hermanos ENBEITA de Mújica, con los que me ha unido siempre una gran amistad.

Pero también yo necesito alguna cosa y le rogaría con toda humildad me tuviera presente, de vez en cuando, en el MEMENTO de sus misas.

Mientras recibo sus noticias con la impresión de esta remesa, le saluda con todo respeto y afecto su s.s.,

Bareño

En otras remesas tendré cuidado de descifrarlos siquiera a los ritmos de Ariñ y Fandango con más facilidad.

⁵ Jatorrizkoan *Septbre*.

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Guernica

24 de Noviembre de 1958

Rdo Padre Antonio Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre:

Adjúntole una nueva pequeña remesa de Berso Berriak y demás recogidos congratulándome de que las “koplás” anteriormente remitidas no hayan sido todo desperdicio como me indica por su carta 4 del cte.

Le incluyo también otra versión de cantos de Navidad que por ser de distinta imprenta tenga, tal vez, algo distinto. Desde luego los pequeños cantos de “Urtebarri” y ERREGÉ no creo traigan los que antes le remití.

Todavía me quedan aquí algunas cosas más: como un medio centenar de “koplás” y distintos “berso-barriak” y espero recibir algunas más que me los han prometido.

Todos los iré mandando según los vaya recibiendo o poniéndolos en limpio.

Me agradecería tener sus noticias para tener la seguridad que también esta remesa la ha recibido.

Un saludo muy afectuoso de s. s.,

Bareño

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Guernica

11 de febrero de 1959

Rdo Padre Antonio de Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre Zabala:

Tengo mucho gusto en hacerle una nueva remesita de “Koplak” y Berso Berriak.

Creo que vamos ya perdiendo, por lo menos, intensidad pero yo rocojo todo lo que puedo, lo copio según me lo cantan o dictan y Vd los irá seleccionando aunque observo también que casi todos los Bersos Berriak proceden de Guipúzcoa y seguramente los tendrá Vd.

De todas maneras espero que aún salga algo (tengo ya algunas promesas) y podré seguir con mi modesta pero entusiasta colaboración.

Le saluda con todo afecto,

Bareño

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Guernica

6 de Junio de 1959

Rdo Padre Antonio de Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre:

Primeramente contesto a su "consulta" relacionada con Don Resurrección.

Dice Don Severo que no es sorprendente que entre sus papeles hubiesen carencia absoluta de "bertso-papelak" pues el Sr Azkue, sobre todo en la época que recorrió estos pueblos y aldeas, solamente se preocupaba [de] la búsqueda de melodías y cantos antiguos para confeccionar y completar su COLECCIÓN DE MIL Y UNO CANTOS VASCOS con la que consiguió un gran triunfo y un primer premio de la Diputación de Vizcaya. Esta obra en sus ocho o diez volúmenes, clasificados en báquicas, de cuna, amorosas, se editó después. Las letrillas de esos cantos que los iba recogiendo, no le merecían demasiado respeto e incluso las modificaba a su gusto y manera (orraztu, como decía él) bien porque no estaban construidas gramaticalmente a sus gustos o maneras o por otra causa cualquiera. Por ello hay que suponer que no le interesaba más que la música haciendo muy poco caso del original de las letrillas.

Le incluyo hoy una pequeña remesa que, gracias a Dios, no ha de ser la última, pues tengo y voy recopilando material para alguna o algunas más. Me han aparecido dos ancianitas de 88 y 89 años que saben algunos bertsos y koplás y las voy ordenando y mecanografiando. Verdaderamente esto de los bertso-berriak no tiene, afortunadamente, fin, por ahora.

Un afectuoso y respetuoso saludo de su afmo amigo,

Bareño

Julio de Bareño
Bernaola 1-2º
Guernica

26 de Junio de 1959

R. P. Antonio de Zabala
Colegio de San Francisco Javier
Facultad de Teología S. I.
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre Zabala:

Recibí el número de EUSKERA con su conferencia dada en Aránzazu que, como puede suponer, la he leído con verdadero gusto e interés. Muchas gracias.

Le incluyo una nueva remesa que, por lo menos, no le falta variedad esperando encuentre entre ella, algo nuevo.

Me agradecería saludarle el día de San Pedro y ya que por tener que cuidarme mucho y evitarme los desplazamientos y molestias, no me atrevo a asistir al concurso de bersolaris de Bermeo como fuera mi deseo, procuraré estar a la mira del paso de los trenes de la tarde Bermeo-Bilbao.

Y mientras sigo preparando otro envío, le saluda con todo afecto y respeto,

Bareño

Julio de Bareño
Guernica

9 de octubre de 1959

R.P. Antonio de Zabala
Oña (Burgos)

Querido P. Zabala:

Con fecha 10 de Septiembre, hice a Vd, acompañada de correspondiente carta, una remesa de 14 folios mecanografiados y tres berso-paperak de escasa importancia, y me extraña que a pesar del tiempo transcurrido, un mes, no haya recibido su acostumbrada carta de acuse de recibo. ¿Se habrá extraviado la remesa?

Adjunto un nuevo pequeño envío de solamente ocho hojas: el menor de todos los enviados.

Y hasta otra, si Dios quiere, le saluda con todo respeto y cariño su amigo,

Bareño

Julio de Bareño
Don Tello 20-2º
Gernica

20 de enero de 1959

Rdo Padre Antonio de Zabala
Oña (Burgos)

Muy estimado Padre:

Ante todo mi más entusiasta felicitación por su triunfo alcanzado en Bilbao con su conferencia que según leo en ANAITASUNA y me comunica mi antiguo y querido amigo Don Severo de Altube que también me transmite sus recuerdos, fue resonante y merecido. Zorionak, bada, eta ekin eta jarrai.

Ahí le va a Vd otra remesita de Berso Berriak y cantos, copiados según me dictaban o cantaban (apenas se encuentra nada escrito) y al final unos Berso Barriak que últimamente ha publicado un joven seminarista de Ereño de unos 18 años; también va el canto de la Magdalena popular de Bermeo con su pequeño historial. Como creo que este canto debe de tener otras estrofas más he escrito y encargado a más de un amigo en aquella villa para que me las encuentren. Allí veremos.

Le incluyo también dos cuadernitos de los que le hablaba en mi primera carta del 29 de Octubre. No se tome la molestia de copiar su contenido sino puede guardarlos para su exposición pues su poseedor el Sr. Altube los cede con mucho gusto. Los guarda pues, y “kitu”.

Espero su acuse de recibo para mi tranquilidad y hasta otra próxima remesa pues me queda material.

Le saluda con todo respeto y afecto su s. s.,

Bareño

Puntu honetan guk transkribatuko ditugun koplei dagozkien Julio Bareñoren eskutitzak bakarrik jarri ditugu. Eskutitz gehiago daude J. Bareñok A. Zavalari bidaliak. Den-denak transkribatzea, ordea, beste era bateko lan bati dagokio.

6. Antonio Goitia Bareñoren funtsean

Guk *Dantza-kopla zaharrak* lana atera genuenean, Antonio Goitiari atal bat eskaini genion liburu-sarreran. Antonio Goitiaren gaineko dokumentu eta artikuluen artean Julio Bareñok *Brisas guerniquesas* aldizkarian argitara eman zuen artikulua berrargitara genuen oso-osoan. Julio Bareñok artikulua horretan Antonio Goitia pertsonaia historikoaren zertzelada batzuk eta bederatzi koplá eman zituen. Bere funtsean, ordea, lan bera dator sarrera txikiagoarekin baina koplá gehiagorekin. Bere funtsean hamalau koplá zerrendaturik ematen ditu. Hamalau koplá horiek zenbakitu eta makinaz idatzita daude azken biak izan ezik. Gure puntu honetan funtsean agertzen den bezala emango ditugu. Hona dokumentua dagoen-dagoenean:

Antonio Bibolinterua
(Antonio de Goitia)

Orain irurogei urte⁶, emen agertzen zan Gernika inguruko erromeri geyenetan⁷ bere biboliñagaz, eta berak asmetan zituzan bertso-kantakin, gazteari dantzan eta barre eragiten. Geyenetan, panderu jotzalle, atsotxu zimel batek laguntzen eieutsan.

Antonio ori bermeotarra ei-zan eta gaztetan mariñeru-edo ibillija. Kantau eta asmetan zituzan “koplak” askotxu izan bear, baña emen ipinten diranak baño ezin batu izan dodaz.

(Lenengo irurok len bialduak dira. Iks. 139-140 eta 141 garr.)

⁶ Jatorrizkoan *urteak*.

⁷ Jatorrizkoan *geyeneran*.

1

Antoniok egin deu
bierra majue,
Bermion itxi ditu
bost ume ta atsue.

2

Antoniok kopla-kopla
dirue boltsara,
amaika neska-mutil
joaten da plaza[ra].

3

Neskatile gonazuri,
eizu dantzan geldi-geldi,
Antonio buruariñek
zu ez zaitu olan ipiñi.

4

Orrako neska orrek
uzkerra bota dau,
Antonio barrabanak
beinguan susmau dau.

5

Mutil orrek
dauko engañue,
uzkerra botateko
katigu kañue.

6

Antonio Goitia
bibolinterue,
sekula andreakin
lo egin bakue.

7

Antonio Goitia
bibolinterue,
lastime andra barik
lo eiten darue.

8

Antoniok ez daki
biboliña joten,
kanta zantar batzukin
jentia engañatzen.

9

Orain korrure sartu dan
amantal berdedun ori
korrutik⁸ urten orduko
enbarkauko da berori.

10

–Antonio, nora zuaz?
–Santa Kruz Bizkargikora,
etorri nai bozu neugaz
polito ibilliko zara.

11

San Koliparko gloriosua,
eixu miserikordije,
biboliñe be busti jat eta
altzaixu eguraldije.

12

Antonio salae,
bibolinterue,
san Koliparkoetan
Artiara due.

13

Antoniok egiñagaitik
mutil gaztetzat burue,
etxian itxita dator
zazpi ume eta atsue.

14

Antonio txoriburuk
kalabazak ostu ditu:
onenak etxian janda
txakarrak saltzen ei ditu.

⁸ Jatorrizkoan *korrituk* dator. Huts garbia delakoan aldatu egin dugu.

15
Amantal zuridun orrek
erregalua egin dau,
Antonio barrabanak
ondotxu begiratu dau.

16
–Antonio, nora zoaz
zeure bibolin orregaz?
–Santa Kruz Bizkargikora,
erdu, maitia, neugaz.

17
Onako neskatillek
dantzarako planta,
airosa botaten deu
ezkerreko anka.

18
Etxera doianian
esangotso amari:
Antoniok bertsoak
atara ostaz neuri.

Julio Bareñok *Brisas guerniquesas* aldizkariko artikuluan bederatzi kopla argitaratu zituen. Bere funtsean, ordea, kopuru bikoitza aurkitzen dugu: hemezortzi. Zerrenda honetako bederatzi kopla ez zituen Julio Bareñok *Brisas Guerniquesas* aldizkariko artikuluan argitaratu. Kopla horiek gure zerrenda honetako 3, 5, 6, 7, 9, 13, 14, 15 eta 16 zenbakidunak dira. Bederatzi kopla horietako zenbait nekez aurkitzen dira argitaratutako lanetan, eta bat edo beste inon ere ez. Kontuan hartzekoa da koplari gordinenak direla argitara eman gabekoak. Eta argitaratutakoetan ez ote zuen apurren bat aldatu? Guk baietz ziurtu dezakegu, gure zerrendako laugarren kopla apurren bat aldaturik argitara zuen eta. Kopla horretako *uzkerria* hitzaren ordez *haizea* ikusten baitugu *Brisas guerniquesas* aldizkariko lanean. Hamargarren kopla desberdin ikusten dugu *Brisas guerniquesas* aldizkarian:

–Antonio, nora zuaz
zure bibolin orregaz?
–Santa Kruz Bizkargikora,
etorri nai bozu neugaz.

7. Matxalen Busturiko Julio Bareñoren funtsean

Dantza-kopla zaharrak gure liburuan Matxalen Busturikori ere atal bat eskaini genion. Atal horretan, ordea, ez genuen Julio Bareñoren lanik erabili. Bere funtsean, ordea, Antonio Goitiari bezala Matxalen Busturikori ere lantxo bat eskaini zion. Matxalen Busturikoren kopla gehienak ezagunak badira ere, urrezko ale desezagun bat edo beste ere aurkitzen dugu. Julio Bareñok Matxalen Busturikori eskaini zion lana polita eta interesgarria da. Guk puntu honetara J. Bareñoren lana oso-osoan ekarriko dugu. Hona hemen:

Matxalen Busturiko (Erronda koplak)

Bere izen-abizenak Magdalena Amunategi zirean eta Busturiko Amunategi-aundi eritxon baserri etxian bizi ei-zan, karlisten lenengo gerraostian beintzat. Nes-

katille polit eta etxure onekoa izan be-ta erromerizalia bere izan bear eban eta adis-kide eta maitale askotxu izan ei-zituzan. Ori olan dala “kopla” eta erronda kante-tan oso erabilia izan zan, eta gaur be “kopla” oneitariko batzuk entzuten dira.

Ara emen nik batu al-izan dodazanak:

1
Matxalen Busturiko,
gaubian-gaubian,
errondian zabiltzez
zure portalian.

“Ai Matxalen, ai Matxalen,
zeure bille nenbillen
orain baño len.”

2
Matxalen Busturikok
amari negarrez,
amantal gorri barik/ barri barik
ezkonduko danentz.

3
Asi beko kaletik
goiko kaleraño,
ez dago ederraurik,
Matxalen, zu baño.

4
Matxalen Busturiko
izan balitz ona,
ez zala etorriko
Busturitik ona.
“Ai Matxalen...”

5
Matxalen Busturikok
lengo gerratien,
ez euken esne asko
bere errapien.

6
Matxalen Busturiko
astien birriten,
Bilbora joaten da
botika gorriten.
“Ai Matxalen...”

7
Buruko pañuelue
polito daukazu,
jayeguna dala
zeuk agiri dozu.
“Ai Matxalen...”

8
Matxalen Busturikok
amari negarrez,
katuek daruelako
talue dandarrez.
“Ai Matxalen, ai Matxalen,
zeure billa nenbillen
orain baño len”.

Zerrenda honi gehitu dakioke beste kopla bat 118 zenbakia daraman orrial-dean aurkitzen dena:

Fermiñek emon deutso
bosteko gorrije:
–Erosixu, Matxalen,
amantal barrije.
Ai Matxalen, ai Matxalen.

Zerrenda honetako zenbait guttiz ezagunak dira: lehen laurak, seigarrena eta zortzigarrena. Bosgarrena, ostera, ez dugu inongo kopladitan aurkitu. Bosgarren koplak honek zahar kutsu handia du, gainera. Aipatzen duen gerratea lehen karlistadetako gerratea dugu. Bosgarren koplak hau gordin bezain indartsua da. Zazpigarren eta azken koplak bakan baino bakanago dokumentatzen dira.

8. San Antonio Urkiolakoaren gainekoak

Julio Bareñoren funtsaren bukaera aldera, gure orrien kontadurian 214 orrialdean, san Antonio Urkiolakoarekin zerikusia duten sei koplak aurkitu ditugu. Sei koplak hauek guttiz ezagunak dira. Azken hirurak gordin samarrak badira ere, sar-tzea erabaki dugu herri koplak izpirituen agergarritzat.

1
Aita san Antoniño
Urkiolakua,
askoren biotzeko
santu debotua.

2
Askok egiten deutso
san Antoniori,
egun batian joan ta
bestian etorri.

Eta beste erritmo bategaz oneek
bere bai:

3
Durangon bazkalduta
Mañarian gora,
aldatz andia dago
san Antoniñora.

4
Mañaritik asita
aldatzian gora,
Txakurzulon jausi naz
ipurdiaz gora.

5
Durangon bazkalduta
Mañarian gora,
sostorra sartu jaten
eperdijen gora.

6
-Zetan joan ziniñen
eperdi zabalik?
-Ez nebalako jakin
sostorrik eguanik.

9. Santa eskeko koplak Julio Bareñoren funtsean

Geure lan honetan J. Bareñok bildutako koplak sorta guztiak argitaratzeko asmoa hartu dugunez gero, puntu honetan transkribatuko ditugunak santa eskeko koplak dira. Hogeita bi koplako sailtxo hau gure lanean transkribatu dugun 1959 urteko urtarrilaren 20an idatzitako karta bidalketa batean aurkitzen da. Eske koplak hauen izenburua Ageda deunaren abestiak dira. Lehen sarrera-bertsoa eta hogeita bi koplak transkribatu ondoren ohartxo bat dakar. Hona hemen oharra:

Ageda deunaren kanta oneek Gernika eta bere inguruan abestuten ziranak dira: leenengo santearen zigor-gogorraren zertxo bat eta “kopla” batzuek gero⁹, zein ondo etorren axe, ugazabari, ezkongei alabatxoari...

Gaur abestuten diranak eztakit nundikoak direan, baña oneen antzik ez bere doñuan ez bere jasean ez dauke.

Goyan ipini dodazan kopla guztiak, orain berrogei urte inguru emengo base-rietan bilduak dira...

Julio Bareñok transkribatzen dituen eske koplak ezagun samarrak dira, batean eta bestean kantatu ohi zirenak. Hogeita bi koplako saila Gernikan 1919 urte inguruan kantatzen zirenak direnez gero badute balioa. Hona hemen:

Bedeinkatua izan daitela
etxe onetako jentia,
pobre ta umilde dabilzanentzat
badabe borondatia.
Santa Martiri maitia
dago errukiz betia,
berak jadetsi daigula danoi
osasuna ta bakia.

1

Alkate jaunakin egon giñan
atzoko arratsaldian,
berak baietza emon euskun
eske ibilteko bakian.

2

Nagosi jauna aurrera
belaunbikotu lurrera,
apal da lotsaz etorri gara,
jauna, bedorren aurrera.

3

Santa Ageda, Ageda,
bijar¹⁰ da santa Ageda,
bijar da santa Ageda eta
gaur aren bezpera¹¹ gaba.

4

Santa Ageda ez da izaten
beti illian-illian,
santa Ageda urtien bein da
bera zezeillen bostian.

5

Eder eleizan¹² altare,
arri landuzko pillare;
Birjiña amaren seme-alabak
etxe onetan dirade.

6

Usua doa otara,
neure begijak¹³ lotara;
oraintxe noa nagusi jauna
berorren koplata.

⁹ Hitz hau transkribatzen zaila da eskuz idatzia baitago.

¹⁰ Jatorrizkoan *bijar*. Guk -y- bokal arteko guztiak bijar, abiye, sabaiyen... Gernikako ahoskerarekin egokiago datorren -j- batera ekarri ditugu.

¹¹ Jatorrizkoan *bespera*.

¹² Jatorrizkoan *eleizan*.

¹³ Jatorrizkoan *begiak*.

7

Eder eleizan¹⁴ liburu,
usuak aren inguru;
etxe onetako txiki-aundiak
paradisuan aingeru¹⁵.

8

Eder soloan goldie,
soñean kapa modie;
etxe onetako nagosi jauna
ondo gizontxu noblie.

9

Oles oles atetan
nor dabil ordu onetan?
Mutiltxu batzuk alkar artuta
santa Ageda kantetan.

10

Okaran txiki, gorri, betie,
aurten da zure urtie;
errialtxu bi emon ezkeru
urte guztiko bakie.

11

Sartzen dituez zugatzak
aretxak eta sagarrak,
andik azpitik ibillitzeko
emaztiak eta senarrak.

12

Errotapian arrije
aren ganien txorije;
eraztun¹⁶ baten sartu leiteke,
Maritxu, zure gerrije.

13

Zure ortuan madari,
adarrak dituz amabi;
etxe onetako alabatxuak
babaloria dirudi.

14

Odei artian izarra,
erreka munen lexarra;
etxe onetako nagosi jaunak
urre gorrizko bizarra.

15

Urregorrizko bizarra eta
urrezurizko samia,
errial bikoz eiña dauko
eleizaraño bidia.

16

Etxe onetako, Marije,
ontxe esangotzut egije,
ainbat lasterren topau egizu
oillo pintoen abije.

17

Ortxe goiko sabaijen
estuen edo nasaijen,
oillotxuen bat egongo dala
arrautzetxuekin abijen.

18

Eraztuntxua letonez,
begijak urre kolorez;
etxe onetako alabatxua
edozeiñentzat egon ez.

¹⁴ Jatorrizkoan *elizan*.

¹⁵ Jatorrizko dokumentuan beste era batera dator, ordena aldatuak: *Etxe onetako txiki aundiak/ eder elizan liburu/ usuak aren inguru/ Paradisuan aingeru*. Jatorrizko ordena aldatuak dagoenez gero, bere oinera ekarri dugu koplá.

¹⁶ Jatorrizkoan *erastun*.

¹⁷ Halaxe dator: *goizian goizetik*. Bizkaiko euskaran *go(i)xian go(i)xetik* ahoskatuko zen.

19

Etxe onetako ugazabak
ederrak dituz alabak,
goizian goizetik¹⁷ jagi biarko deu
arek gura dituzanak.

20

Solomuaren luzia,
aren koipien gozua,
zatirik kentzen ibilli barik
ekarri eizu¹⁸ guztia.

21

Amaseikuak magala zabal
laroegi pezeta¹⁹ ditu,
guri pare bat emonagaitik
irurogetaz gelditu.

22

Etxe onetako andra zabala
leku oneko alaba,
bidien esaten etorri gara
limosnera ona dala.

Kopla sail honetako koplá gehienak ezagunak dira. Beste inon nekez aurkitzen dugun koplá bat edo beste badago; hamaikagarren koplá, esaterako, ez genuen ezagutzen. Beste koplá askok, bestalde, aldaera interesgarriak eskaintzen dituzte.

10. Julio Bareñoren funtseko baladak

Julio Bareñoren funtsean zenbait balada ere aurkitzen ditugu. Balada horiek A. Zavalak bere *Euskal erromantzeak/Romancero vasco* lanean argitara zituen. Balada horietako bi *Lexibatxoá* eta *Aita san Migel Iurretakoa* ditugu. Badira, harrigarria badirudi ere, zenbait balada edo balada puska A. Zavalaren baladategian aurkitzen ez ditugunak. Balada hauek guztiek lan berariazko bat merezi dute, dudarik gabe. Balada hauek Julio Bareñok A. Zavalari bidali zizkion eskutitzetan zein guk hemen argitara emango dugun koplá-zerrendan aurkitzen ditugu. Eskutitzetan bidalitako balada bat *Jesukristoren meza* izenburua duena dugu. Hona hemen:

Aldatza gora-bera,
zelai landa baten,
Jesukristo eguan
mezia esaten.

Milla ta bat aingeru
mezia entzuten,
amabi apostoluak
organua jotén.

Organuen soñue
zabaldu zanién,
Jesusen tromentuak
andijek zirien.

Izarra san Bixente
eguzkia Kristo,
zeure benture ona
zeruetan dago.

¹⁸ Jatorrizkoan *dezu*.

¹⁹ Jatorrizkoan *peseta*.

Zeruko aingeruek
euken disputie,
zeñek kantauro eteban
Jesusen kantie.

Kantan de repike
san Salbador
la Virgen María
Purísima Dor²⁰. (?)

Orain gatozen gure kopla-zerrendara. Julio Bareñoren dantza-kopla zerrendako lehen bederlatzi zenbakietan *Ana Juanixe* baladaren eredu ezezagun bat ikusten dugu. *Ana Juanixe* pertsona izenak beste izen bat hartzen du gure ereduari: *Ana Junisa*. Eredu hau, harrigarria baino harrigarriagoa gertatzen bada ere, ez zuen A. Zavalak bere baladategian sartu. Uste dugunez, eredu hau bere garaian baladen artean sailkatu ez zuenez gero, bere balada bilduman ez zen agertu. Eredu honek, beraz, artikulua honetan ikusiko du lehenengoz argia. Gure eredu berri hau duina dela deritzagu, ezagutzen dugun osoenetakoa, bere hogeita hamalau bertso-lerroekin. Eredu honek bere bereak dituen baliabide estilistiko eta ezaugarriak ditu. Hona hemen:

1
Egun batian banenguan ni
Londresko ziudadian,
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean:
–Bestientzako dirutan eta
zeuretzat truke-trukian.

3
–Eskarrik asko, dama galanta,
eztot armarik aldien.
Neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

4
Motriku erri onien eta
linde eder baten ganien,
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

5
Araxe dator neure anaie
txalupe elegantien.

6
–Neure anaie, ze barri dogu
gure Motriku aldien?
–Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

7
–Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien.
Kapitan, firme arriau bela
Motrikun sartu gozien.

8
Ogetamairu linde damatxuk
Motriku molle ganien.
Batzuk agur, bestiek agur,
esanak joanak aidien.

9
–Ana Junisa, neure laztana,
orain zer asartadu de?
Bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

²⁰ Azken kopla hau datorren-datorrenean transkribatu dugu. Galdera marka J. Bareñorena da.

Balada honetan zenbait hitz eta kontu iruzkingarri daude. Bigarren ahapaldian *Dama galantak preguntau nion* irakurtzen dugu. Esaldi zuzena beste era batera litzateke edo *dama galantari preguntau nion* edo *dama galantak preguntau zidan*. Ahapaldi berean *kuisiak zegan zirean* galdera dator. Zer da delako *kuisiak*? Beste gainerako ereduak aztertuz gero, argi apurren bat etor liteke. Hona zenbait adibide. Zavalaren EE/RV liburuan *gariak zegan zirian* dator Manuel Lekuonak argitaratutako A ereduan. Euzkadi egunkariko V ereduan *pañua zegan dodian* ikusten dogu. IX ereduan *Joieri baten sartu ginala/ joiutxuok zegan zirian*. XIII ereduan *gariak zegan zirian*. Eredu guztietako adibideak errenkadan emanez gero, atzerrian, Londresen, *joiak* edo *oiak* erosten daude. Bi aurkeren artean *joiak* ikusten dugu batez ere (I, IX) Azkueren ereduan, ordea, *oiak* erosten dago. Argi dago *oiak* eta *joiak* hitzak fonetikoki elkarrengandik hurbil daudela. Zein ote da jatorrizkoa? Gure ereduko *kuisiak* guztiz hitz desberdin bat badirudi ere, ohearekin zerikusia du. *Ohe-kuxa* hitza Añibarrok *cuxa de cama* zentzuarekin itzultzen du, ohearen egitura edo arma-zoia da. Gure baladako protagonista ere (*ohe*)*kuisiak* erosten ari dela uste dugu. Beste kontu interesgarri bat *aitagaz aman pozien* egitura dugu. Gure baladako *aitagaz aman pozien* hori *aitagaz amaren pozean* esapidea dugu. *X-ekin/-gaz Y* egitura ahozko testu zahar askotan aurkitzen dugu. Lumoko balada honetan ere beste eredu batzuetako *aitaren eta amaren pozean* egitura berezi, zahar batean aurkitzen dugu: *aitagaz aman pozien*. Bermeoko ereduan *amaren eta aitaren bozian/ amaren eta aitaren bozian eta* dator hirugarren ahapaldian.

A. Zavalak baladatzat ematen du *Ipiñeburu leku altuen* kanta. Kanta hau batez ere Bizkaiko Zeanuri aldean kantatu izan da tradizioz, Ipiñaburu Zeanuriko auzo menditar bat baita. Kanta horretako bi ahapaldi interesgarri agertzen dira gure bilduman, 17, 18 eta 19 zenbakietan:

Atzo goizian flementaduta
gaur naroazu basora,
lagun txarreko egur egiña
batzen Ikesto aldera.

Arantza ondoan jesarri eta
negarra gozo altzora,
abadiaren lapikotxua
etorten jatan gogora.

Abadiaren lapikotxua
txikia baña zintzoa,
ikazkiñaren topiña baltza
andie baña bastoa.

Bart amarretan baladaren Bizkaiko eredu bat ere badator gure zerrendan. 279 zebanbakia daraman alean ahapaldi hau dator:

Bart amarretan dontzella nintzan,
amabietan ezkondu,
ordu bietan, goizekoetan
gelditu nintzan alargun.

Bizkaiko eredu hau ez dator inongo balada bildumatan. A. Zavalak ere ez zuen bere balada-liburuan sartu. Eredu argitaragabe honek, egia esan, ez du ezagutzen diren gainerako eredu guztietatik argi berririk ematen, gainerako eredu guztiak oso antzerakoak baitira. Interesgarria da elkarren segidan agertzen direla *Bart* hitzarekin edo beronen adnominalarekin hasten diren ahapaldiak:

277

Ama gure badozu
etxian bakia,
ekarri biarko dozu
bartko pralletxua.

278

A, bartko pralle orren
soñua jotzia!
Ondo goguan daukat
nik ama neuria.

Balada pusketa dela deritzagu 81 eta 82 zenbakietan agertzen diren ahapaldiak. Bi ahapaldi hauek Arantzazuko balada zikloarekin zerikusia duten kantu narratibo baten bi puska interesgarri ditugu. Hona gure bi zenbakietan agertzen diren pasarteak:

Pastore santu biurtuosua
erdu ona ta entzuixu,
aita semia arotza da ta
aren esana eidazu.

Atzo goizian otzak il deustaz
eun da irurogei pastore,
elorri batek gorde nau neu ze
antxe ilten naz neu bere.

Egin daidala ermitatxu bat
deritxona Arantzazu:
iru lata ta zazpi tellatxu
gania asko dituzu.

Hona aldatu ditugun bi pasarteak Azkueren CPV laneko *Ia dirade ogei urte* kantuen pusketak dira. Hona CPVn agertzen den bezala:

I

Ia dirade irurogei urte
sartu nintzala pastore,
eguno bere eztoz nik izan
otzaz onenbat portune.

II

Mendi onerik I armendira
irureun bat pastore,
jaun zerukoak gorde nau, eze
ilgo nintzan neu bere.

III

Pastore santu benturosoak
geldi zakiguz gaur emen,
geldi zakiguz, kanta dezagun
zer igaro dan Belenen.

IV

Kortesiakin gelditzea en,
ze ezin nengoke luzaro,
ganaduakin mendi altuan
gau txa a pasauta nago.

V

Oi au indriska ta iñetasia!
Oi au gabaren la ia!
Ordu-erdirik luzatu bage
il zan artalde guztia.

VI

Geure ama maite Andra Maria
gure ba i zeuk dakizu:
ordu-erdiko bizi izaterik
seguru iñoiz eztogu.

VII

Zazpi oin luze, iru oin zabal
ze aldo bat apaindua,
antxe sartuta jartzen gaituez;
o a munduko pagua.

VIII

E odi atxu, e odi atxu,
Birjiña bi au-zalea:
aita zeurea arotza da ta
egin daijala esaizu.

IX

Zazpi te a ta iru latatxu
u ean askoko dituz,
egin daijala ermitatxu bat
deritxona Arantzazu.

X

Oñatia ak, oñatia ak,
ea bada gaur dirautsut,
zeuen San Migel Oñatikora
bi itan eratsi nozu,
iruga enez erasten banazu,
kontuan edukiko 'tzut.

A. Zavalak baladatzat dakarren *Atia kox kox* kantua ere badator gure zerrendan, 170-178 zenbakietan. Guk, egia esan, baladatzat nekez hartuko genuke kantu hau. Uste dugu amodiozko kantuaren ezaugarri gehiago eta nabarmenagoak dituela baladarenak baino.

170

Urte barrian saiatu nintzan
dama gazte bat billatzen,
atia kos-kos jo nion baña
ez ziran korresponditzen.

171

Bigarrenian jo nionian,
–Galaya, zer nai zenduke?
–Zerorren borondatia balitz,
zeugaz egotia nai nuke.

172

–Aita guria kanpotik da ta
okasiñoa genduke.
–Ama zuria loak artu arte
atian ondo gerade.

173

–Neure atian axia fresko
otzitu eingo gerade,
zure kapie zabala da ta
biok batungo gintzake.

174

–Gure atiak kurrinkak eta
txakurrak bere salatu,
atian konjurau egingo geunke
txakurra bere ixildu.

175

–Geure txakurra isilduteko
eper bizia biozu,
eper bizia arrapatzeko
mutil mantsoa zara zu.

176

–Dama galanta atxakiosa
atxaki asko daukazuz,
atxaki asko daukazuz baña
zeuk neugaz biarko dozu.

177

–Auxe zubiau pasauta dago
arantzau²¹ neure etxia,
borondatia daukonantzako
an dago bide luzia.
Borondatia ez baldin bozu
Adios, neure maitia.

A. Zavalak baladatzat duen *Perretxikotan nenbilenean* kantuaren bi ahapaldi ere aurkitzen dira 250 eta 251 zenbakietan. Hona bi ahapaldiak:

Perretxikotan nenbillenian
Mendiolako basuan,
dama gazte bat topatu neban
gorosti baten onduan.

Gaztea nintzan, zoroa nintzan
jarri nintzan onduan,
amantaltxue zabaldu eta
artu ninduan altzuan.

Gure kopla-bilduma honetan badira beste kantu batzuk baladatzat jotzen ez ditugunak. 20-21-22 kopletan *Salamankara* kantu ezagunaren hiru ahapaldi datoz. Bestetan dokumentatzen den amodiozko kantu bat ere bai 65-67 zenbakietan. 157-160 zenbakietan lau ahapaldiko kantu bat aurkitzen dugu bestetan inoiz ikusi gabea. 43 zenbakian *Maritxu nora zoaz* kantaren lehen ahapaldia dator.

11. Koplen era bateko eta besteko balioa

Gernikako kopladian hitz zahar zein adizki zaharrak ugari aurki litezke. Guk puntu honetan gutxi batzuen berri emango dugu. Hitz zaharretan gaur egun korritzen ez duten diruen aipamena kopla batean baino gehiagotan aurkitzen dugu. Hamaseikoa eta hogeikoa garai bateko urrezko dobloiak ziren. Hamaseikoa deitzen zen hamasei duro zituelako, laurogei pezeta; hogeikoa, hogeituro zituelako. Hamaseiko gorria eta hogeiko gorria ere deitzen ziren, urre gorrizkoak zirelako. Diru zaharren artean laukoa ere agertzen da gure kopladian. 132 koplari, hogeikoa; 169 koplari *lau lauko* aipatzen dira; 183an hogeikoa; 269 koplari hama-seikoa. Garai bateko hitzak ere aurkitzen dira. 44 koplari *olajaun* hitza aurkitzen

²¹ Jatorrizko *arantzau* honek *harantago* esan nahi du.

dugu. 113 koplan balada eta amodiozko kanta zaharretan inoiz aurkitzen den *amorem* hitza.

Adizkiei gagozkiela, bizkaieuskera literarioan maiz aurkitzen dugun *eroan* aditz jokatuak ohitura adierazteko:

180

Baltza nazela diñue baña
neuri dost ardura gitxi,
ardaua bere baltza da baña
askok daroe erosi.

253

Mendirik mendi lañue,
adarrrik adar usue;
libre dagoan txoriek
edonun kanta darue.

Bi kopla hauetan *eroan* aditza jokaturik aurkitzen dugu ohitura adierazteko. 1.80 koplako *askok daroe erosi* esaldiak *askok erosi ohi dute* adierazten du. Era berean, *edonun kanta darue* horrek *edonun kantatu ohi dute* adierazten du.

Aditzaren forma berezietan, aditz pasibo garbi bat aurkitzen dugu, 86 zenbakian, *kokotien jo bier zara* horretan.

86

Agure zarrantzako
erremedioa,
kokotien jo eta
purgatoriora.
Agure zarra zara
zarra bere zarra,
negue datorrenien
kokotien jo bier zara.

Kopla bera, zenbaitetan, aldaera zahar eta berrian ikusteko aukera dugu. Eman dezagun, kasurako, gure zerrendako 179 zenbakia daraman kopla:

Iru ta iru sei dira eta
beste seirekin amabi,
neskatxa baño naiago nuke
ardaua merke balebil.

Kopla hau beste era batera baina gure ustez modu zaharragoan ikusten dugu geroago 381 zenbakian:

Iru ta iru sei dira eta
beste seirekin amabi,
neskazar baño naiago nuke
ardua merke baledi.

Gure koplako *ardua merke baledi* baldintza zaharra aldatu eta *ardaua merke balebil* bihurtu da. Gure koplá honetan *merke baledi* baldintzan *edin* aditz laguntzailea ikusten dugu. Beste koplá batean *egin* ikusiko dugu balio berean:

Bilbo zarién esaten deutse
Iñudetxu bik alkarri:
–A ze bizitza ona daukagun
luzaro iraun balegi.

Gure kopládia interesgarria da beste alderdi askotatik ere. Zenbaitetan koplá ezagun baten jarraipen koplá guztiz ezezaguna izan ohi da. Hona hemen adibide bakar bat:

59
Ama buruan min dot
ez esan aitari,
gabeko errondiak
ondo galdu nau ni.

60
Errondan nabillelako
esaten dabe dongaro,
errondan ibilli barik
lagunik ezin topau dot.

Hona aldatu dugun 59 zenbakia guztiz ezaguna da. Koplá ezagun horri darraion 60 zenbakidun koplá, osterá, guztiz ezezaguna. Koplá honetako *esaten dabe dongaro* esapidea zaharra dugu.

12. Gernikako kopládikó koplá zerrenda

Puntu honetan gure lanaren ardatza den Gernikako kopládia eskainiko dugu. Ia laurehun ahapaldi jarriko ditugu bata bestearen ondoren. Lehenago esan dugun moduan jatorrizko ordena errespetatuko dugu.

1
Egun batian banenguan ni
Londresko zitudadian,
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.

2
Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean:
–Bestientzako dirutan eta
zeuretzat truke-trukian.

3
Eskarrik asko, dama galanta,
eztot armarik aldien.
Neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.

4
Motriku erri onien eta
linde eder baten ganien,
perla eder bat agertuten da
mille santaren parien.

5

Araxe dator neure anaie²²
txalupe elegantien.

6

–Neure anaie, ze barri dogu
gure Motriku aldien?
–Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.

7

–Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien.
Kapitan, firme arriau bela
Mutrikun sartu goizien.

8

Ogetamairu linde damatxuk,
Motriku molle ganien,
batzuk agur, bestiek agur,
esanak joanak aidien.

9

–Ana Junisa, neure laztana,
orain zer asartadu de?
–Bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.

10

Ederzalea banintzan baña
aspertu nintzan ederrez,
neure gustoa egin nuen da
orain bizi naz dolorez.

11

Biturietik albora dago
erri txiki bat Gamarra;
kakarraldoan bildurregaitik
antxe itxi neban senarra.

12

Andixerikan bialdu dostaz
gorua eta samarra,
egin dayodan arkondaria
luzia eta zabala.

13

Bilbo zarrien esaten deutse
iñudetxu bik alkarri:
–A ze bizitza ona daukagun
luzaro iraun balegi.

14

Neskatillatxu baltzaran txiki
amaren biotzekua,
ezpaziñian neuretzakoa
lagun zakidaz Jaungoikua.

15

Aitari “padre”, amari “madre”,
sagartxuari “manzana”,
kutxilloari “kañabetie”,
amorioari “lztana”.

16

–Neskatillatxu, nongoa zara?
–Jauna, ni Markiñekua.
–Eun duket baño naiago nuke
baziña neure errikoa.

17

Atzo goizian flementaduta
gaur naroazu basora,
lagun txarreko egur egiña
batzen Iketo aldera.

18

Arantza ondoan jesarri eta
negarra gozo altzora,
abadiaren lapikotxua
etorten jatan gogora.

²² Jatorrizkoan bi aldiz agertzen da *anaye*.

JUSKEL-IKATU. ZALAZAN, LAMILATXUAK

1

- 1.- Egun batien nenguan ni
Londresko zuiaoaian
maitientzako jake erosten
denda aberats batian.
- 2.- Dama galantak preguntau nion
kuisiak zegan zirean
bestientzako dirutan-eta
zeuretzat truke-trukian.
- 3.- Eskarrik asko dama galante
eztot armarik aldien
neure armak an itxi dodaz
Mutriku erri onien.
- 4.- Motriku erri onian-eta
linde eder baten ganien.
perla eder bat agertuten da
mille santaren perien.
Araxe dator neure anaye
- 5.- txalupe elegantien.
- 6.- Neure anaye ze barri dogu
gure Motriku aldien
Ana Junisa ezkondu dala
aitagaz aman pozien.
- 7.- Ana Junisa ezin ezkondu
neuk dot firmie aldien
Kapitan firme arriau vela
Mutriku sartu goizien.
- 8.- Ogetamairu linde damatxuk
Motriku molle ganien
batzuk agur, bestiek agur
esanak joanak aidien.
- 9.- Ana Junisa neure lastana
orain zer asartadude
bixerrakin datorrenari
agur eitie da usue.
- 10.- Eder zalia ba-nintzan baña
aspertu nintzan ederrez
neure gustoa egin nuen da
orain bizi naz dolarez.
- 11.- Biturietik albora dago
erri txiki bat Gamarra
kakarraldoan bildurre gaitik
antxe itxi neban senarra.
- 13.- Andixerikan bialdu dostaz
gorua eta samarra
egin daz ~~...~~
arkondara luze-zabala.
- 13.- Bilbo zarran esaten deutse
iifudetxu bik alkarri
a ze bizitza ona daukagun
luzaro irau balagi.
- 14.- Neskatillatxu beltzeran txiki
anaren biotzekua
ezpazifian neuretzakoa
lagun zahidaz jaungoikua.
- 15.- Aitari "padre, ~~anari~~ *anari* ~~anari~~ *anari* ~~anari~~ *anari*
sagaritxuari nanzana
kutzilloari kafabetie
anorioari lastana.
- 16.- Neskatillatxu nungoa zara
jauna ni Marfiketua
eun duket baño nayago nuke
bazifia neure errikoa.
- 17.- Atzo goizian flementaduta
gaur narotzu basora
lagun txarreko egur egifia
batzen Ikesto aldera.
- 18.- Arantzaz ondoan jesarri-eta
negarra gozo altsora
Abadiaren lapikotxua
etortzen yatan gogora.
- 19.- Abadiaren lapikotxua
txikia baña zintzoa
ikaslearen topifia baltza
andie baña bastos.
- 20.- Txikitxutikan aitzak gura-ta
amak praille nenduan nonbratu
estudieak ikasten bere
Salanankara bialdu.
- 21.- Salanankatik neu nentorrela
neban bidien pentsatu
estudiante pikaro baño
oba nebala ezkondu.
- 22.- Ezkondu nintzan, bai ezkondu
neuri bai sarri damtu
praka baltzetan ari zuria
etxat egundo faltatu.
- 23.- Ortik-enetik arantzagotik
dago Bilbora bidie
Barrenkaleko agure batek
salatuko leuku andrie.

Julio Bareñoren orrialde makinatua. Gernikako kopladiko lehen koplá errenkada. Lehen bederati zenbakietan 'Ana Juanixe' balada dator.

19

Abadiaren lapikotxua
txikia baña zintzoa,
ikazkiñaren topiña baltza
andie baña bastoa.

20

Txikitxutikan aitak gurata
amak praille nenduan nonbratu,
estudioak ikasten bere
Salamankara bialdu.

21

Salamankatik neu nentorrela
neban bidien pentsatu,
estudiante pikaro baño
oba nebala ezkondu.

22

Ezkondu nintzan, bai, ezkondu,
neuri, bai, sarri damutu:
praka baltzetan ari zuria
ez jat²³ egundo faltatu.

23

Ortik, emetik, arantzagotik
dago Bilbora bidie,
Barrenkaleko agure batek
salduko leuke andrie.

24

Bart arratsian egin dot ames
amesa dala zoroa,
baserrirako ez dala gauza
jiba daukan atsoa.

25

Seintxu txikerra negarrez dago
ama emoizu titie,
aita ordia trabenan dau te
pikaro jokolarie.

26

Larrosatxuak bost orri ditu,
kabeliñiak amabi;
gure Maritxu gura dabenak
eskatu bere amari.

27

Peruk dirautso Antoneri:
–Artuixu pipie,
azunbre ta erdigaz
beteixu tripie.

28

Kortako burdi zarra
bagendu kotxia,
antxe ibilliko geunke
gure atso motxia.

29

Atsoari kendu notsan
ule mustrekie,
saldute edateko
aguardientie.
Buru motzez gelditu de
gure atso motxie.

30

Peruk dirautso Antoneri:
–Zu, Anton Kortzulu,
kurtzulu izanda
illun eiten dozu.

31

Trabanatik urtenda
kakatan adatin,
arek ez dabe jakin
euskaraz ez latin.

32

Bator asto bategaz
errotako Martin,
arekin atera zituan
bere artoakin.

²³ Jatorrizkoan *etxat*.

33
Etxien euki arren
sarri morokille,
arek egiten jostak
estomauko miñe.

34
Lebatz eta ternera
lukeinka musturre,
arekin egoten naz
trabenan gusture.

35
Trabermeriari dirautso
etxeko patrona,
apari txar bi baño
oba da bat ona.

36
Ezer badao biontzat
ekarrixu ona,
dirurik ezpadau be
emoiguzu dana²⁴.

37
Kurtzulu iminizu
argian metxie,
bestela ezin geinke
billatu etxie.

38
Atsotxu zartxu bat
atzoko gaubien,
dantzan ikusi neban
belaunen ganien.

39
Atsotxu zartxu batek
atzo ta ariñagun,
aurreko beresire
egiteko lagun.

40
Ez dotsat egin eta
ezta gura bere,
ez dotsatele egingo
gaur ez biar bere.

41
Atsoa ta aguria
doaz egurretan,
aiskoria galduta
biak erreiyetan.

42
Atsoa ta agurie
asarre badire,
alkarrenak dire ta/ direnak
konponduko dire.

43
–Maritxu, nora zoaz,
eder, galantori?
–Iturrira, Martola,
nai bozu etorri.

44
–Maritxu, zer daroazu
meriendarako?
–Dozenerdi txorixo
tragoa edateko.

45
Maritxu doanien
Dimara pontxera,
andixek ekarten deu
dotie etxera.

46
Mariluze saladie,
olajaunen alabie,
zeure begira daukazu
korruan jente guztie.

²⁴ Lehen idazkeran *emongu biotza/bietza* idatzi du. Gero eskuz *-zu* bat gehiturik eta *biotza/bietza* ezabaturik *dana* jarri du transkribatzaileak. Transkribatzailearen arauera *emonguzu dana* irakurri beharko litzateke. Guk, ordea, *emoiguzu dana* jarri dugu.

47

Ederra zariela
pentsetan badozu,
ez zara zu ederra
erropia dozu.

48

Ez zariela ederra
txiki eta baltza,
ez dagola niretzat
olako neskatxa.

49

Altu-altuan dago
Edoisen izarra,
Kurtzulu Saraspekok
morruan bizarra.

50

Okan etxetu baten
beraltxu marala,
araxe batzen dala
jente funerala.

51

Urkiola ganeko
paguen azpien,
kukuek egin ditu
amar ume aurten.

52

Kukuek egin eta
txanbillotxak²⁵ jaten,
kukuen fortunie
olan izan da aurten.

53

Altu-altuen dago
san Juan koruen,
neskazarrik ez dala
sartungo zeruen.

54

Orretariko batek
ditu iru nobio,
bat jornaleru eta
bi botikario.
Pobriari despedida
arin eman dio,
orain lebitadunak
lagunduten dio.

55

Ezkondu eta gero
nintzarian bakarrik,
borrajak jaten nituan
orijorik²⁶ barik.

56

Jira²⁷ ta bira ibiltan da
edoi altuen txorie,
neskatilla koloregorri
mutil-engañagarrie²⁸.

57

Marianton Bietio²⁹
mantillapekoa,
zelan engañau dozu
Solaburukoa?

58

Martiñek egiten deu
Iberrien³⁰ zantso,
Mari Lezamerengok
erantzun balijo³¹.

²⁵ Jatorrizkoan *txanbillitxa jaten*.

²⁶ Jatorrizkoan *orijorik*.

²⁷ Jatorrizkoan *Gira*.

²⁸ Jatorrizkoan *mutill* eta ondoren *engañagarrie*.

²⁹ Jatorrizkoan *minuskulaz* dator. Deitura delakoan maiuskulaz jarri dugu.

³⁰ Duda egin dugu hemen. Hasieran *ibbrien* idatzi duela dirudi, gero zuzenduz *iberrien*, -l- ren gainean -e- jarritz. Nola ote da *Iberrien*, maiuskularekin?

³¹ Jatorrizkoan *ba-lijo*.

59

Ama buruan min dot
ez esan aitari,
gabeko errondiak
ondo galdu nau ni.

60

Errondan nabillelako
esaten dabe dongaro,
errondan ibilli barik
lagunik ezin topau dot.

61

Or goian kanpaia da ta
Oizera noa ni,
nogaz ibilli nazan
ez esan amari.

62

Batak bata esanda.
bestiek bestie,
ordu bata terdiak
antxe emon dostie.

63

San Mielak dira ta
ia da negue,
bakarrik dagonentzat
mingotsa ordue.

64

Ederra ta polita
biok leku baten,
ona ta aberatsa
gaitz dira billatzen.

65

Amore bi daukadaz
izen³² batekoak,
batagaz nagonian
bestiak zeloak.

66

Amorezko penie
zer dan dakienak
sarri pasauko ditu
biotzean penak.

67

Amore bat baño bi
obeago dire,
bategaz dagonien
bestie begire.

68

Izango bada bere
prakakin bakarrik,
mutiltxu krabeliñe,
ama, gura dot nik.

69

Dingilliz dago eta
dingilliz dagoa,
ez da Katalintzako
dendari kojoa.

70

Antxiñe esan notzun,
Maria Errosa,
nobioa topetan
ez dala erreza.

71

Neure nobiotxuak
izena³³ dau Batxi;
ona bada artu ta
txarra bada itxi.

72

Zakuen sartu eta
zakuek³⁴ zuloa,
andixek agiri deu
kadera motxoa.

³² Jatorrizkoan *ixen*.

³³ Jatorrizkoan *ixena*.

³⁴ Koplá honetan kasu bietan *sakuen* eta *sakuek*, hitzaren hasiera s- batez dela.

73

Arako zeuk gureta
neuk ez nebanian³⁵,
berba labanik asko
zenduan miñian.

74

Ezkondu nintzarian
sei gona nituzen,
bi prenda zar dire ta
bi saldu nituen.

75

Soñien daukadana
gutziz dala zarra,
barriek egiteko
esperantza txarra.

76

Esaten zeustanian³⁶
koipe-koipe legez,
biziko giñeala
erregiña legez.

77

Masustre koloreko
begitxu baltzakin,
engañatu ninduzum
berba labanakin.

78

Baltzerana naizela
kalien diñue,
ez naz zuri, ederra,
egia diñue.

79

Santiago pasaute
Santana gabien,
mutil bi egon dire
bentana ganien.

80

Mutillek esan eben
urrengo etxien:
–Neska bat ikusigu
atorra utsien.

81

Pastore santu biurtuosua
erdu ona ta entzuixu,
aita semia arotza da ta
aren esana eidazu.
Egin daidala ermitatxu bat
deritxona Arantzazu:
iru lata ta zazpi tellatxu
ganian asko dituzu.

82

Atzo goizian otzak il deustaz
eun da irurogei pastore,
elorri batek gorde nau neu ze
antxe ilten naz neu bere.

83

Atzo etorri nintzan
gaur dot nik urtie,
agur, ugazaba ta
ugazabandrie.

84

Ugazaba³⁷ dalako
neure adiskidie,
arexek emongo dost
soldata obie.

85

Agure zarrak ditu
iru elementu:
mokoa ta gorroa
zekerie³⁸ franku.

³⁵ Jatorrizkoan *enebanien*.

³⁶ Jatorrizkoan *zeustanian*.

³⁷ Aurreko koplán *ugazaba* eta *ugazabandrie* hitzak aurkitzen ditugu. Gure koplá honetan, ordea, *ugezaba*. Guk irizpidea bateraturik *ugazaba* jarri dugu oraingo honetan ere.

³⁸ Jatorrizkoan transkribatzaileak *zikinkeri* ezabatu eta *zekerie* idatzi du eskuz.

86

Agure zarrantzako
erremedioa,
kokotien jo eta
purgatoriora.
Agure zarra zara
zarra bere zarra,
negue datorrenien
kokotien jo bier zara.

87

Agurie zarra ta
atsoa zarrago,
atso pestientzako
joago³⁹ txarrago.

88

Atso bat ekarri dot
atzo Durangotik,
uzkerra⁴⁰ dariola
atzeko zulutik.

89

Ederra da⁴¹ lirioa
zurie dalako,
joan da eguzkie
biar etorteko.

90

Eguzkie joan da
bere amagana,
biar agertuko da
denpora ona bada.

91

Triskilis morrosko, bai,
triskilis morrosko,
eure praka zarretan
ipingirik asko,
ipingi baktxien
bosteun zorri moltso.

92

Ez noa⁴² ezkonduen
pare bat urtien,
artoa ta garie
merketu artien.

93

Urkiola ganeko
paguen azpien,
antxe dago otsoa
neguen erdien.

94

Gaztetxu dibertidu
dabizenegaitik,
zarrak egoten dira
murmuretan beti.

95

Areri⁴³ esaten jake
murmuradoriek,
Jaungoikuak eginde
pobre arlotiek.

96

Dantzan ez dakit baña
banabil erdien,
tuertuek nagosi
itsuen errien.

97

Olgeu gura dabenak
illunabarien,
etorri Zorrontzara
Karmen egunien.

³⁹ Transkribatzaileak lehen idazkeran *trageu txarrago* idatzi du. Gerora, *trageu* ezabatu ondoren *joago* idatzi du eskuz.

⁴⁰ Jatorrizkoan *uskerra*.

⁴¹ Jatorrizkoan *ta* irakurtzen dugu. Koplá honen aldaera guztietan, ordea, *da* adizkia dator.

⁴² Jatorrizkoan *Enoa*.

⁴³ Jatorrizko dokumentuan *Areri* dator.

98

Kotxe ta karromato
litzera⁴⁴ ta burdi,
Fermiñenien dago
ondasune lodi.

99

Fermiñek ta andriek
badabe umerik,
ez dabela emongo
moruek gerrarik.

100

Artajorran joan da
lubarri⁴⁵ barrire,
bedarra jorratute
artoa sasire.

101

Aite ez dau etxien
ama Bilbora da,
erdu arratsaldian
konponduko gara.

102

Atso bat ekarri dot
Mundekan ostute,
bentanan ipiñi dot
uliek orraztute.

103

Edertxue zarien lez⁴⁶
baziñe perfeta,
sarri joko neuskizu
zure atien⁴⁷ kisketa.

103b

Aitite dala txutxulenberde
amama dala masustre,
aitite joan da Bitoriera
amama lepoan artute.

104

Neskatillatxu polita,
ederra dozu kopeta,
zeure soñeko erropa orrek
amar dozena kortxeta.

105

Oraingo mutiltxuek
dauke bentajie,
belarrien atzeko
ule mostrokie.

106

Oraingo mutiltxuek
barritsuek izanik,
ezin esan leijue
gauza bat ixillik.

107

Kamiñuen ondoko
etxe zuri zarra,
antxe zer esan neutsun
gomutetan zara?

108

Salamankara joanda
piperrak dotaz ekarri,
pikantiak ziran da
ez jatezan gustau neuri.

109

Neure maitia, zer dozu?
koloria zuri daukazu,
ostera bere eukiko dozu
metalure edaten bozu.

⁴⁴ Halaxe dator jatorrizkoan. Zer ote da? Uste dugu *litera* hitzetik palatalizazio automatiko bidez sortua izango dela.

⁴⁵ Lehen idazkeran *lur barri* idatzi du; gerora, ezabaturik eskuz *lubarri*.

⁴⁶ Jatorrizko testuan *varielez*.

⁴⁷ Lehen idazketan *aitari* idatzi du; gerora, *aitari* ezabaturik *atien* jarri du eskuz.

110

Euskeraz kantauko dot nik
dana dana dakidan,
ez dala bizi proberik⁴⁸
aberatsaren moduan.

111

Ederregi zara zu
soloan bier eiteko,
aitik⁴⁹ batukozu dotie
kalien pasietako.

112

Markin-Etxebarriko
Mari-Erramona,
kortako astoari
jaten emoiona⁵⁰.

113

Amoremiñez eta
katarro zarrakin,
Txonta Kabrera dago
oian⁵¹ zeloakin.

114

Eun urte onetan
daukodan edadian,
umieri eraiten
ganbela zarrarian.

115

Eguzkie joan da
ia da belue,
neskatille galantak
etxera ordue.

116

Ezkonduten bazara
Lumoko arekin⁵²,
ibilli bearko dozu
pitxer morkoakin.

117

Logure naz da lo eingo neuke,
baneuko ogera lagune⁵³,
badaukot ogera lagune,
baña agure lepomakurre⁵⁴.

118

Diruegaitik baño
bier ez banozu,
zoaz Indietara
an zeiz indianu⁵⁵.

119

Indiek irabazten
errezak ei dire,
zure begi ederrak
gatxagoak dire.

120

Antontxu geure ori
azite⁵⁶ balego,
aitari trabenatik⁵⁷
ardue ekarteko,
amaren mandatuak
ixillik eiteko.

⁴⁸ Halaxe dator *proberik* eta ez *pobrerik*.

⁴⁹ Zer esan nahi du *aitik* honek? Uste dugu *hagaitik* baten laburdura dela.

⁵⁰ Jatorrizko dokumentuan *emoyona*.

⁵¹ Jatorrizkoan *oyan* dator.

⁵² Nola da *Lumokoarekin* edo *Lumoko (h)arekin*? Jatorrizko testuan *Lumoko arekin* dakarrenez gero, errespetatu egin dugu.

⁵³ Lehen idazketan *ogerao lagune* idatzi du transkribatzaileak. Gerora, zuzendurik *ogera lagune*. Bigarren aldiz, ordea, *ogera lagune* jartzen du.

⁵⁴ Jatorrizkoan *lepo-makurre*.

⁵⁵ Eskuz idatzia dago *an zeiz indianu*. Halaxe irakurri dugu arazorik gabe.

⁵⁶ Jatorrizkoan *asite*.

⁵⁷ Jatorrizko dokumentuan *trabenatk* dator.

121
Bilbo baiño gorantzago⁵⁸
Natxixu Goikoa,
morokillaz beteta
mutille majoa.

122
Batak uts emon arren
or dago bestie,
solterue naz eta
oindiño gaztie.

123
Ibilli naz munduan
pentsamentuetan,
ez dot topau zu langorik
galantasunetan.

124
Galanta zariela
pentsetan badozu,
ispillu faltso orrek
engañetan zaitu.

125
Zer dala uste dozu
enamoretie,
sillen jesarri eta
gitarra jotie?

126
Neronek ikusie
neure begiekin,
neskatille galant⁵⁹ bat
mozkor andiekin.

127
Etxera joan eta
Maintontxok amari,
Txomin Erezumena
gustetan jat neuri.

128
Andrie ikusi neban
lengo egunien,
gizonaren prakakin
trabena batien.

129
Anton errementari
buruen kalboa,
arrie dalakoan
urten deu plomoa.

130
Errementari baño
oba da zesteru,
lepo bete palugaz
esku bete diru.

131
Ezkonduten bazara,
arotz-argiñegaz,
artu bearko dozu
erregeliegaz.

132
Amantal sedazkoa
boltsan ogeikoa,
edonun agertuten da
aren aldekoa.

133
Amantal sedazkoa
altzoan⁶⁰ mantxie,
areri be joan jako
aurtengo pasie.

134
A mutil ankaluze,
Begi-arranpalo,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

⁵⁸ Jatorrizkoan *gorantzaui*, forma osoagoa gurea da.

⁵⁹ Jatorrizkoan *galan*.

⁶⁰ Jatorrizko dokumentoan *altsoan*.

135
Maritxu Karduen
ze atso polite,
buruko trapuekin
moñoa ipiñite.

136
Mari Katalin Orosketako
mandazai⁶¹ mutilzalie,
zazpi mutillek egin ei deutse
zazpi telako gonie.

137
Kirruk egon zani
lesibie jotan,
pozutik jardiñera
arin matsa⁶² jaten.

138
Kirruk egon⁶³ biar leuke
gazte artien lotsa,
akordadu⁶⁴ ezker
Olatxuko matsa⁶⁵.

139
Antoniok egin deu
bierra majoa,
Bermion itxi ditu
bost ume ta atsoa.

140
Antoniok kopla-kopla
dirue boltsara,
amaika neska-mutil⁶⁶
joaten da plazara.

141
Neskatilla gonazuri,
eizu dantzan geldi-geldi,
Antonio buruariñek
zu ez zaitu ola⁶⁷ imiñi.

142
Bilbora noa Bilbora,
ezer gustetan bajatzu⁶⁸,
Txomin txikiri gorantzi asko⁶⁹
akordaduten⁷⁰ bajatzu.

143
Oraingo mutiltxuen
dote arrigoa:
burdi-zalditxu zar bat
iru zulokoa⁷¹.

144
Gorengo kamarara
bidie labana,
galdaran sartu jatzu
mutil⁷² barrabana.

144b
Gure seme ederra
Ferrolera doa,
alperren banderie
aldien daroa.

145
Antxiñe baten gaztie nintzen
orain egin naz agure,
andriek eta umiek bere
ez nabe ikusi gure.

⁶¹ Guk hemen *mandazain* espero genuen, baina *mandazai* dator.

⁶² Jatorrizkoan *matsa*.

⁶³ Jatorrizkoan *on* dator.

⁶⁴ Lehen idazkeran *akordatu* idatzi du, gero, zuzendurik *akordadu*.

⁶⁵ Jatorrizkoan *matsa* dator, aurreko koplari bezalaxe.

⁶⁶ Jatorrizkoan *neska-mutil* dator.

⁶⁷ Jatorrizkoan *au orretara* ezabatu ondoren *zu ezaitu ola* idatzi du eskuz.

⁶⁸ Lehen idazkeran *ezer gura badozu* dakar. Lehen idazkerako *gura badozu* ezabatu ondoren *gustetan bajatzu* idatzi du eskuz.

⁶⁹ Lehen idazkeran Txomin txikiri *gorantziek*.

⁷⁰ Ezabaturik dago *akordetan*.

⁷¹ Kopla honetan *dote arrigoa* dator eta *iru zulokoa*. Hoskidetasuna egiteko *zulokoa* jarri dugu.

⁷² Jatorrizko dokumentuan *mutil*.

146

Gure Maritxu joan joan da
ez dot agiri kartarik,
esperantzie luzie da ta
arexek nauka bizirik.

147

Aguretxu zar ori
badago neuretzat,
soloan ipiñiko dot
txori-jabolatzat⁷³.

148

Neuk eroango dotsat
armosu polit bat,
antzarran babak eta
bidegar opil⁷⁴ bat.

149

Sarritan egoten naz
neu bere pentsetan,
ez ete⁷⁵ da alperra
zutunik kantzetan?

150

Orratzaren puntiak
irebazte gitxi,
endemas trabenara
bidie badaki.

151

Edoiatu aterri
illargi betia,
errondan ibilteko
au dot denporia.

152

Gaztia nintzarian
neure kontentua,
kalian ikustia
tanbolinterua.

153

Neskazar birrotxie
tejabanapien,
iñok esan baleio
ezkondu gaitien.

154

Ama zeuriak neuri
bidian topauta,
ez deust agurrik egin
burua birauta.

155

Ama zeuriak neuri
agur ez eiteko,
ze palazio dauko, maitia,
zuri donetako⁷⁶?

156

Palazijo⁷⁷ eder bat
atxaren ganian,
ez jako euririk sartzen
aterri danian.

156b

Begiak barrez-barrez
biotza negarrez,
sarri apartatzen naz
zugandik dolorez.

⁷³ *Txori-jabolatzat* dator. *Txori-jagola* hitzaren aldaera dugu *txori-jabola*.

⁷⁴ Zer ote da *bidegar opil* bat? Uste dugu *bidegarro opil* bat izan behar duela. Koplá honetan beste hegazti bat ere agertzen da: *antzarra*.

⁷⁵ Jatorrizkoan *ez eta da alperra* dator. Zuzenketa, beraz, gurea da.

⁷⁶ Lehen idazkeran *donatzeko* idatzi du, eta, gero, ezabaturik *donetako*.

⁷⁷ Jatorrizko testuan *Palaziyo* irakurtzen dugu.

156c

Pasatzen naizenian
zure atetatik,
negarrak urtetan deust
begi bietatik.

157

Larrosa ta Potxontxu⁷⁸
adiskide dire,
beti egoten dire
alkarri begire.

158

Larrosak egiten deu
altzora⁷⁹ negarra,
Potxontxu biar dula
beretzat senarra.

159

Ez egin Larrosatxu
altzora negarrik,
ez zara geratuko
Potxontxu bagarrik.

160

Larrosa dagonian
buruko miñegaz,
Potxontxu joango jako
txokolatiegaz.

161

Atsotxu zarra birloka
iru agin da bi loka,
onek guztiak olan direla
dantzan dabil alaporka.

162

Kurtzie Santiaren
señaliagaitik,
Nabarrizera noa
kodaiñiagaitik.

163

Andixik nentorrela
bideko etxe baten,
bapo jentie egoan
esne-zopa⁸⁰ jaten.

164

Urruku truku-truku
ez neuri ukutu,
ama kamaran dago
sentiduko gaitu.

165

Sentiduten bagaitu,
zer egingo deusku?
Sarda bat artu eta
lepoa berotu.

166

Abadie, abadie,
kapapien gitarrie,
alan ez da serbiduten
Jaungoikoaren legie.

167

Mariñela naiz eta
ez daukat dirurik;
iru alaba daukodaz
ezkondu gurarik.
Laugarrena semie
prakatxu zarrakin,
konejue dirudi
bere bixerrakin.

168

Matsak⁸¹ orrie berde
Begoñe ganien,
neu bere angoxie,
bai, zorionien.

⁷⁸ Jatorrizkoan *potxontxu* lehen idazkeran eta bigarrean *potxontxu*. Izen propioa delakoan maiuskulaz jarri dugu. Hurrengo kopletan maiuskulaz ikusten dugu: *Potxontxu/Potxontxu*.

⁷⁹ Jatorrizkoan *altsora*.

⁸⁰ Jatorrizkoan *esne-sopa*.

⁸¹ Jatorrizko eskuidatzian *matzak*.

169

Elorrion buzkentza⁸²,
Durangon tronpie,
Mañarien kerijak,
lau laukon librie.

170

Urte barrian saiatu nintzan
dama gazte bat billatzen,
atia kos-kos jo nion baña
ez ziran korresponditzen.

171

Bigarrenian jo nionian,
“galaya, zer nai zenduke?”
Zeroren borondatia balitz,
zeugaz egotia nai nuke.

172

Aita guria kanpotik da ta
okasiñoa⁸³ genduke,
ama zuria loak artu arte
atian ondo gerade.

173

Neure atien axia fresko
otzitu eingo gerade,
zure kapie zabala da ta
biok batungo gintzake.

174

Gure atiak kurrinkak eta
txakurrak bere salatu,
atian konjurau egingo geunke
txakurra bere ixildu.

175

Geure txakurra ixilduteko
eper bizia biozu,
eper bizia arrapatzeko
mutil mantsoa zara zu.

176

Dama galanta atxakiosa
atxaki asko daukazuz,
atxaki asko daukazuz baña
zeuk neugaz biarko dozu.

177

Auxe zubiau pasauta dago
arantzago⁸⁴ neure etxia,
borondatia daukonantzako
an dago bide luzia.

178

Borondatia ez baldin bozu,
adios, neure maitia.

179

Iru ta iru sei dira eta
beste seirekin amabi;
neskatxa baño⁸⁵ naiago nuke
ardaua merke balebil.

179b

Geure Naritxu doien orduen
zaldi urdiñen ganiien,
bosteun kaskabel urregorritzko
zaldiak idun ganiien;
beste ainbeste milla geijago
atzeko petralerien.

180

Baltza nazela⁸⁶ diñue baña
neuri dost ardura gitxi,
ardaua bere baltza da baña
askok daroe erosi.

⁸² Jatorrizkoan *buskentza*.

⁸³ Jatorrizko dokumentuan *okaziñoa*.

⁸⁴ Jatorrizkoan *arantzau*.

⁸⁵ Jatorrizkoan *baña* dator.

⁸⁶ Jatorrizkoan *naizela*.

181

Eder-ederra baño
oba da komune,
ederrak kendu leijo⁸⁷
buruko zentzune.

182

Bier da urtebete
ezkondu nintzala,
egun bat gitxiago
damutu jatela.

183

Amak emon baleustez
amabost ogeiko,
ezkonduko nintzala
udabarrirako.

184

Ezkondu eta gero
illabete barik,
porrusaldia neukan
oriorik⁸⁸ barik.

185

Urkiola ganeko
aixiaran otza,
antxe ikusi neban
pralle burumotza⁸⁹.

186

Ai ene penak,
Jose Aramayo!
Zirritxu bat ein barik
ezin itxi neio.

187

Eurie dala menditik,
Atxarroaren⁹⁰ ganetik,
amak opillak labatik
aitak ardua zagitik.

188

Matusalen⁹¹ be baño
zarrago dok beija,
trabes ipinten dostak
gaur neure begija⁹².

189

Dingilin-dangoa
ez naz ni zoroa⁹³,
Santa Kataliñako
dendari kjoa.

190

Eun duket gorde dodaz
aretx⁹⁴ mardo baten,
beste eun gordetako
beste egun baten.

191

Prakatxu zarrak eta
begijek gorrijek,
ardua edaten jok
errementarijek.

192

Egija da lenengo
biar da osasuna,
baña bigarren beti
onena ondasuna.

⁸⁷ Ezabatu egin du hitz bat. Hitz hori *leilako* dela uste dugu.

⁸⁸ Ez du jartzen *oriorik*.

⁸⁹ Jatorrizkoan *pralle buru-motsa*.

⁹⁰ Jatorrizko testuan minuskulaz.

⁹¹ Jatorrizkoan *Matusalem*.

⁹² Jatorrizko testuan *beya* eta *begija*.

⁹³ Jatorrizkoan *soroa*.

⁹⁴ Jatorrizkoan *areitz*.

193
Arin-arin eiten deu
basoan erbijek,
ez jakoz ikusiten
pausurik erdijek.

194
Gabaz⁹⁵ parrandan eta
goizian logure,
ez zara zu, maitia,
osasunen gure.

195
Udan parrandan eta
neguan eskien,
etxe onetan ez dago
amarik etxien.

196
Aurten aurtengua ta
igaz igazkua,
nekez ezkonduko da
ganorabakua.

197
Jaungoikuak bidaldu
genduzan mundure,
bakotxa biziteko
al dogun modure.

198
Ankak ariñak eta
burue ariñago,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

199
Au da pandero barrija
Durangotik ekarrija,
amar erreal pagaute
dana da urregorrija.

200
Altza zu, txikitxu,
altza zu, maite,
olan ibilli barik
ezkondu zaite.

201
Olan ibilten baaz
mutillen atzien,
amak emongo (de)una⁹⁶
atzeko aldien.

202
Urkiola ganeko
pagoen onduen,
ondo gogoan daukat
zer egin genduen.

203
Urkiola ganien
iru mutil dantzan,
irurak ez eukezan
iru txiki poltsan.

204
Urkiola ganeko
paguen onduen,
amalau neska-mutil
dringilin-dranguen.

205
Asko gura dabenak
dana galtzien dau,
itsuek⁹⁷ letradue
ondo engañau dau⁹⁸.

206
Zornontzan gaba einde
Durangon bazkaldu,
Abadiñora orduko
neure atsoa galdu.

⁹⁵ Lehen idazkeran *Udan parrandan eta* idatzi du transkribatzaileak. *Udan* hitza ezabatu ondoren *gabaz* jarri du eskuz.

⁹⁶ Jatorrizkoan *una* dator.

⁹⁷ Jatorrizkoan *itsuek* dator.

⁹⁸ Koplá honen ondoren ohar bat dator: (ik. 190 g.)

Flautadun: Estrofas 199-200-201 - - - - -

An du pan de ro ba iri je - du ran go th e ka
 iri je - An du pan de ro ba iri je -
 in d be gau ta du ne du u re go iri je
 eu bi ki gu el tra en mai ta o lan i li thi ba rik or kon
 du sai ta - - - - -
 le re pte con la le billa de bot
 le xi en eu ri a ren ga
 in me ro hi de lú a nek e ma ten for tek es ta man so ni
 ni ai ai ai es ta man ko ri ni ai ai ai es ta man ko ri ni

Bertsu erri-erri lot (Gb. 122-126, tantos vers. - - - - -

Gen tu den ho ran zer bai ba nup tu er han den e ta e zer ei e dunt
 li a la ma tu pa ba
 ne re gau to a e gi nu en da o rai ni
 zi nur do ba ren ne re gau to a e gi nu en da o rai ni
 zi nur do ba

Kopla batzuen pentagrama Julio Bareñok berak egina. Lehen bidalketako dokumentua.

207
–Donostiara noa,
zer dozu ekarri nai?
–Ez dot nai ekartia
eramatia bai.

208
Donien egunien
denpora ederrien,
dama bat galdu jaku
geure bidien.

209
Ez da damia galdu
ezpada alden du,
abadien etxien
dago estimedu.

210
–Zure alaba txikiak
nigaitik zer diño?
–Bera gaztia dala
ezkontzeko oindiño.

211
Seme-alaba artian
amairugarrena,
ta uste dot ez zarala
izango azkena.

212
Gure aite egoten da
umore onien,
goxaldien trabenan
aurkitzen danien.

213
Gure ama egoten da
umore txarrien,
gazonaskia utsik
aurkitzen danien.

214
Baserriko mutillan
kontsolagarria,
kolkuan arto zati
ikaragarria.

215
Gauzaeztan⁹⁹ kaxa zartxu
baten goraberan,
neskazar gelditu nintzan
eztegu bezperan¹⁰⁰.

216
Nunai da ondo ikusije
gure Baldomero,
gizonik jatorrena
beria ein ezkeru.

217
Ai, Kosanton, Kosanton,
eu diruzalia,
ilda be ibiliko az
beti diru billa.

218
Eperrak kantetan deu
Matxiene landetan,
neskatille ederrak
Abaituene aldetan.

219
Eperrak kantetan deu
goizean goietan,
ez asko fiatzeko
mutillen izketan.

220
Fiatzen bazarie
mutillen izketan,
jausiko zariela
arri labanetan.

⁹⁹ Jatorrizkoan *gauza eztan*.

¹⁰⁰ Jatorrizkoan *besperan*.

221

Bilbon esaten dabe
ez dago Bilbo lakorik,
txokolatie artzeko
fotagaz bero-berorik.

222

Neure andrie andre ona da
alper-eguna danien,
buruko miña emoten dautso
solora joan bier daunian.

223

Neure andria andra ona da
auzoak alan diñoste,
erositako prezioetan
atzera salduko neuke.

224

Urrutxu trabenako
txakolin zurije,
Albizko neskatillen
kontsolagarrije.

225

Altuan san Kristobal
bajuan Madalenie,
bien bitartien
Urrutxun trabenie.

226

Oraingo neskatillek
zer dabe merezi?
Errekan beratuta
lexiban egozi¹⁰¹.

227

Oneik, bai, dantzarijek
dantzan egiteko,
begira dagonari
barre eragiteko.

228

Adios da banaroia
ontzi barrira soldadu,
ez dot joan gura baña
eroango nabe seguru.

229

Mutiltxu txanbeliñek
nunbaiten badire,
san Juan inguruen
agertuko dire.

230

Nabarniz, Amoroto,
Urkiolamendi,
orretan iruretan
aize otza beti.

231

Arru-arruak dira
azukarilloak,
orretakuak dira
Lekeitiokuak.

232

Neure nobioa
Txori Errikua,
prakak zarrak baña
tirua neikua.

233

Neure nobioak
amasei erralde,
orrexek dauko
okelia debalde.

234

Neure nobioaren ama
asto baten jabe dana,
arexek ekarriko deusku
etxien falta dodana.

¹⁰¹ Jatorrizkoan *egozi*.

235
Nere txiki, nere polit,
nere maite zaitut,
atoz zaldi ganian
eroango zaitut.

236
Txakurra galdu jako
Maiton Mundakari,
señalia aldian dauko
nun topa al baledi.

237
Musturra baltza eta
buztana bellegi,
ogitan jango leuke
kilo bi ta erdi.

238
Nabarriz erri noblie
Ereño baizen obie,
an bertan be sarri oi de
aize otzaren soñue.

239
Atzo nenguan Bilbon
gaur nago¹⁰² Bitorijen,
ure gozue dago
gure iturrijen.

240
Altu-altuen dago
san Martin Foruko,
ez dala mutilzarrik
zeruen sartuko.

241
Agure zar aginloka
iru agin da bi loka,
orrek olan dire baña
dantzan dabil alaporka¹⁰³.

242
*Ahí va la despedida*¹⁰⁴
aditu kontuen,
akabatzer a nua
urrengo puntuen.

243
Ahí va la despedida
bizi-alargune,
bakarrik egon barik
topaizu lagune.

244
Urre kabeliñeta
lerio lorie,
nok euki listerian¹⁰⁵
entalladorie.

245
Tiriki trauki-trauki
malluaren otsa,
nekez ezkonduko da
gure neska motza.

246
Tiriki trauki-trauki
auxe da, bai, lorra,
atso bat euki eta
bera guztiz gorra.

247
Gaba illuna da baña
oindiño ez da berandu,
zigarroa biztutzeko
suen piska¹⁰⁶ bat ekatzu.

248
Antonio Minteiko,
ona dok palie,
taloak erreteko
alaba parie.

¹⁰² Jatorrizko testuan forma laburtuan: *nau*.

¹⁰³ Kopla honen ondoren ohar bat dator: (Var. de la n^o 161)

¹⁰⁴ Guk jarri dugu halaxe. Jatorrizkoan *Ai ba la despedida*.

¹⁰⁵ Zirriboraturik ikusten dugu hitz hau.

¹⁰⁶ Jatorrizko eskuidatzian *pizka* dator.

249

Au dala lapikua,
au dala saldie,
zu etorri ziñien,
ze kosiñerie!

250

Perretxikotan nenbillenian¹⁰⁷
Mendiolako basuan,
dama gazte bat topatu neban
gorosti¹⁰⁸ baten onduan.

251

Gaztea nintzan, zoroa nintzan,
jarri nintzan onduan,
amantaltxue zabaldu eta
artu ninduan altzuan.

252

Mendirik mendi lañue,
adarrik adar usue;
neure maite polite
urrun pasian darue.

253

Mendirik mendi lañue,
adarrik adar usue;
libre dagoan txoriek
edonun kanta darue.

254

Mendirik mendi lañue
txoritxuak ilten;
igazko errentie
ezin pagau aurten.

255

Iru zazpiko dira
ogeta bat lauko,
atsuek alabie
saltzeko ei dauko.

256

Atsuek alabie
saltzen dabeniñen,
bakarrik lo ein bierko deu
oien bazterriñen.

257

Santa Eufemiako zelaijen
laban einda jausi nintzen,
ez neban azurrik ausi
mamiñe malletu baizen.

258

Neure maitie ederregi da
soloan bier eiteko,
emongo dautso aitek dotie
moja santu bat eiteko.

259

Neure maitie, zer dozu?
Kolorie zuri daukazu,
ezpanak koipez beterik
ta ogirik¹⁰⁹ ezin jan dozu.

260

Antzuolan sedia,
Bergaran koipia,
Elorrijon buzkantza,
Durangon koipia.
(Eta olan bere bai)
Elorrijoko buzkantza¹¹⁰
lau libra ta bost ontza.

¹⁰⁷ Jatorrizko dokumentuan *nendillenian* adizkia ikusten dugu.

¹⁰⁸ Jatorrizkoan *gorozti*.

¹⁰⁹ Jatorrizkoan *t'ogirik*.

¹¹⁰ Lehen idazkeran *Elorrijoko buzkantzak* jarri du ergatibo marka *-k* duela. Gerora, ezabatu eta ergatibo markarik gabe utzi du.

261

Erramun paparzabal,
piper saltzallia,
pipiak erre dautso
surraren¹¹¹ puntie.

262

Aitite Makuleko
amamazalie,
pipiak erre dautso
surraren¹¹² puntie.

263

Tretatxu Larrauriko
Landako semia,
Bizkaiko lapur danen
gobernadoria¹¹³.

264

Amak emon baleustaz
amar amaseiko,
ezkonduko nintzake
udabarrirako.

265

Udabarria da ta
masustra-masustra¹¹⁴,
ezkonduka egongo¹¹⁵ nintzan
amak¹¹⁶ emon baleusta.

266

Txikitxutan polita,
gatzetxutan zoro;
mereziduta dodan
paguekin nago.

267

Au nuan nik merezi,
au nuan pagua,
onek ekarriko dau
neure akabua.

268

Txikitxu zara baña
aziko zara oindiño,
aziten ez bazara be
ez zaitudala itxiko.

269

Gaztia nintzarian
denpora batian,
ez nintzan sosegatzen
ezkondu artian.

270

Txikitxu polit erañe,
zeu zariela egiñe;
zure gorputzek dirudi
erretratua egiñe.

271

Txoritxua kaiolara,
estudiantiak eskolara;
Amorotoko mutillak
gaberdijan errondara.

272

Jose Benito salaue,
Ferrolen esamiñaue,
Portugaleteko barran
tranze estuen pasau.

¹¹¹ Jatorrizko testuan *zurra*'ren dator.

¹¹² Jatorrizko dokumentuan koplá honetan eta aurrekoan *zurra*ren dator.

¹¹³ Koplá honen ondoren zehaztasun hau dator: Repetición de la n^o 183 para que los 4 siguientes vayan juntos.

¹¹⁴ Jatorrizko dokumentuan *mazuztra-mazuztra*.

¹¹⁵ Jatorrizko dokumentuan laburdurarekin: *ezkonduka ongo nintzan*.

¹¹⁶ Jatorrizko dokumentuan ergatibo markarik gabe: *ama emon ba-leusta*.

273

Zu zara, Mariñesi,
neuretzat pitxia,
aingeruen artetik
zerutik jatsia.

274

Neskatilla galantak
bi bentaja ditu:
plazan eder-galanta
etxian irritu.

275

Antonio, Antonio,
ez egin negarrik,
“Irikatz” emen dator
besuak zabalik.

276

Neskatilla galanta
eder plazarako,
txiki konponidia
oba etxerako.

277

Ama gure badozu
etxian bakia,
ekarri biarko dozu
bartko¹¹⁷ pralletxua.

278

A, bartko pralle orren
soñua jotzia¹¹⁸!
Ondo goguan daukat
nik, ama neuria.

279

Bart amarretan
dontzella nintzan,
amabietan ezkondu,
ordu bietan, goizekoetan,
gelditu nintzan alargun.

280

Ama neuriak baleki
zelako alabia neukan nik¹¹⁹,
egunez negar da negar
gaubian bere lo gitxi.

281

Neskatille saladie,
altie ta garbosie,
ule zintak orporaño
mosuen kabeliñie.

282

Getariatik ekarri dabe
Larrabetzure akerra,
kanpantorrien ipiñi dabe
Aita Santue bezela.

283

Sarten, burdinzali,
arroba bi ta erdi¹²⁰,
Solaguren¹²¹ ei dagoz
iru barregarri.

284

Bata da Florentina,
bestie Eulali,
orren irugarrena
nun dagon Gergori.

¹¹⁷ Jatorrizko dokumentuan *bart-ko*.

¹¹⁸ Jatorrizkoan *jotsia*.

¹¹⁹ Jatorrizkoan ergatibo markarik gabe: *ni*.

¹²⁰ Jatorrizkoan *t'ardi*.

¹²¹ Jatorrizkoan maiuskulaz.

285
Itxasoan doianian,
ontzijen galdugordian¹²²,
an doianak esaten jok
ni banengo legorrian.

286
Neure nobiotxuen
garriko gorrije,
trabenako atien
sarri ikusije.

287
Itxasoan¹²³ landa berde
mariñeruak ara dire,
neskatillek moja eta
mutillek praille joan dire.

288
Nabarrizen jaio nintzan
Mendatan zati bat azi,
Gernikara etorrite
ni ementxe ondo bizi.

289
Santiago-Santanetan
Morgan etxe baten,
garbantzua egosi dabe
zakutotxu baten¹²⁴.

290
Txankurriko Txankotekok
ez jaukok¹²⁵ dirurik,
iru alaba daukoz
ezkondu gurarik.

291
Laugarren semia
kapota txarrakin,
konejua dirudi
bere bizarrakin¹²⁶.

292
Neskatillek egoten dire
euren artian pentsetan,
zeñek esango ete deutsen
erdu apur baten dantzan.

293
Jaungoikuak emona
au da egarrije,
iparr-aizetxuagaz
eguzki argije.

294
Sikatu ez dakigun
geure eztarrije,
ardau napartxu ona
ekarri, Marije.
Eta ez bildur izan
jokogu garrije.

295
Asi goizian eta
lenengo paitarra,
eta amaietako
txuria ez da txarra.

296
Gero arratsaldian
baltza parra-parra,
eta illuntzerako
upie lako kaka.

¹²² Jatorrizko testuan *galdugorrian*.

¹²³ Kopla honetan eta 285 zenbakia daramanean, bietan, *itxasoan* aurkitzen dugu jatorrizko dokumentuan. Ez dugu *itsasoan* grafiara aldatu.

¹²⁴ Kopla honetan *egosi* eta *sakutotxo* hitzak datoz. Guk *egosi* eta *zakutotxo* bihurtu ditugu.

¹²⁵ Jatorrizkoan *etxaukok*.

¹²⁶ Kopla honen ondoren ohartxo bat dator: Var. de la n° 167.

297

Ai, Petratxu, ez zaitez gorritu,
neskatilla polita zara zu.
Ama datorrenian, nian,
aita datorenia, nian,
etxetik kanpora bialduko zaitu.

298

Amak ezkondu ninduan
amabost urtekin
senarrak zituela
larogei berakin.
Ai neu neskátilla gazte
agura zarrakin¹²⁷!

298

Ixillik egon adi,
neure alaba ori,
gaizki pasatu orain
urte bat edo bi.
Laster ilgo jak eta
biziko az ongi¹²⁸.

301

Baratzeko pikua
iru txorten ditu;
neska mutilzaliak
anak arin ditu.

302

Anak ariñak eta
burua ariñago,
dantzan obeto daki
artajorran baño.

303

Basarritarrak gara gu
ezin giñake ukatu,
baña kaletarrak bezin ongi
soñua jotzen degu (bis).

304

Kalian dagoz bi gauza
neri gustatzen zaidanak:
ardautxu zuri, gozua eta
ogi zuri biguna (bis).

305

Baserrian dagoz bi gauza
kalian ez dagozanak:
txakoliñ gozo-gozua eta
talo zopa¹²⁹ esnetsua.

306

Baserritarra izanagaitik
josten da plantxan badakit,
neure gonatxu perkalezkuak¹³⁰
ez dauko meriñakerik.

307

Txikitxu konponidie
Maritxu trabenerie,
iru kuartillu ta erdigaz¹³¹
eiten deu azunbrie.

308

Iru mille dontzelle,
zazpireun alargun;
Gerniken pasau dira
atzo eta ariñegun.

¹²⁷ Kanta honen aurretik, zenbaki berean, puntuak ikusten ditugu. Kantaren hasiera falta den seinale.

¹²⁸ Ohar bat dakar Julio Bareñok ahapaldi honen behean: Onek bertso bi oneik atzetik eta aurrrtik beste batzuk izan biar dituez.

¹²⁹ Jatorrizko dokumentuan lehenengo *sapa* idatzi du, eta, gero, zuzendurik *sopa*.

¹³⁰ Jatorrizkoan *perhaleskuak*.

¹³¹ Jatorrizkoan *t'erdigaz*.

309

Atzo ta ariñegun,
ariñegun-antxi,
bidien topeu neban
aintxiñeko Patxi.

310

Asi Oletan eta Arapañira¹³²
neskatxak dauke martxie,
kostauko jako Poloniori
soñu joten ikastie.

311

Gizonak biar badau
bere deskantsue,
andrie topau biar deu
zarra ta antzue.

312

Baldin artuten badau
gazte umetsue,
sarriten faltauko deu
beretzat pentsue.

313

Ez dala, baña badala,
solo gunien batana;
alkarren ondotik dabilz
Santiago ta Santana.

314

Txikitxu politori¹³³,
zelan zara bizi?
Joan dan aspaldian
ez zaitut ikusi.

315

Joan dan aspaldian
ikusi ez banozu¹³⁴,
etorri ta laztan bat
emon egidazu.

316

Txikitxu politori¹³⁵,
zeu neure laztana,
katiatu ninduzun
librie nintzana.

317

Libriak libre dire
zeu ta neu katigu,
librie ona dana
guztiok dakigu.

318

Txikitxu polit zara zu
zeuk bere ondo dakizu,
akaso kaballeruen bat¹³⁶
enamoratuko jatzu.

319

Mendi altuen edurre dago
erri-erberan izotza¹³⁷,
neu andixerik¹³⁸ aparte nago
alegre daukat biotza.

320

Lekeitioko kalia
pasau dan lakorik,
lau mutil¹³⁹ ibilli dira
neska bin ondorik.

¹³² Jatorrizko dokumentuan *OLETA* eta *ARAPANĪ* letra maiuskulaz.

¹³³ Jatorrizkoan *Txikitxu polit ori*.

¹³⁴ Jatorrizkoan *ezpanozu*.

¹³⁵ Jatorrizkoan *Txikitxu polit ori*.

¹³⁶ Berez *kaballeruen bat* behar luke, baina jatorrizkoan halaxe datorrenez errespetatu dugu.

¹³⁷ Jatorrizko dokumentuan *izotza*.

¹³⁸ Jatorrizkoan *aldixerik*.

¹³⁹ Jatorrizkoan *mutil*.

321

Lau mutillok euki dabe
gose-egarrije¹⁴⁰,
iru lekuten eben,
bai, gona gorrije¹⁴¹.

322

Zu Joxepa Joakiñe,
ni Joxe Joakin,
izenian ondo gatoz
biok alkarrekin.

323

Kanta, kanta, konpañero¹⁴²,
neurekin batian ondo,
alkarrerri lagun einde
biziko gara obeto.

324

Txibiri Montañeko
txakurre jan dabe,
gaistua izan da ta
ondo egin deutse.

325

Amalau zapatarik
ein dabe juntie,
zeñek ariñau josi
zapata puntie.

326

Ia ba, gaztetzuek,
gorago-berago,
zeuentzat ollaskue
burduntzijen dago.

327

Burduntzijen¹⁴³ dago ta
nok jirau ez dago,
jiratzen dabenantzat
agillando dago.

328

Markin-Etxebarriko
Mari Erramona,
emoterik ez baña
borondate ona.

329

Buruko pañuelue
dotore daukazu,
Karmen eguna dala
zeuk be badakizu.

330

Orra Muruetako
tanbolintterue¹⁴⁴,
neskatille bat dauko
bere gustokue.

331

Bilbora noa Bilbora,
udan ez bada neguen,
ez dala pobrerik bizi
aberatsaren moduen.

332

Aurten etorri dire
agindu barrijek,
ezkondu daitezela
mutilzar guztijek.

333

Ezkontzen ez badire¹⁴⁵
gagozan illien,
errematera doiez
datorren urtien.

¹⁴⁰ Jatorrizko dokumentuan *gose ekarriye* dator.

¹⁴¹ Jatorrizkoan *gona garriye* dator.

¹⁴² Jatorrizkoan *konpañeo*.

¹⁴³ Jatorrizko dokumentuan *burduntsiyen* bi aldiz dator.

¹⁴⁴ Halaxe dator-tt- dituela: *tanbolintterue*. Bustidura markatuko ote du edo errata ote da? Herri euskaran tantolintterue edo -txerue izan liteke, dudarik gabe.

¹⁴⁵ Jatorrizkoan *Ezkontzen ezpadire*.

334
Barregarriak dira
katuen orratzak:
biribillak ondora,
puntara zorrotzak.

335
Zapata zurijakaz
zinta ta ebille,
ez gara¹⁴⁶ gu etorri
mutilzarren bille.

336
Mutiltxu txanboliñe¹⁴⁷
artzien¹⁴⁸ badozu,
astien iru zurre
zeuriak dituzu.

337
Maria Madalena,
Marta ta Mariana,
paitarra ta ogia
goizian da ona.

338
Pazko alegriek etorri dire
joan da garizumie¹⁴⁹,
il dala baña bizirik dago
Birjiñe Amaren Semie.

339
Nere kontseju bier
arkitzen bazara,
neskatxak elejitzen
ez joan plazara.

340
Plazan izanagaitik
neskatxa bapie,
etxian izan leiteke
gobernu bagie.

341
Aitak artajorrara
deitzen nabendien:
–Ama oera noa,
min dot¹⁵⁰ sabelien.

342
Santa Kruz Bizkargiko
giñarra-lorie;
patroien aritoak
indarra doblie.

343
Aitite joan zan Bitorijera
Bitoritik etorrite,
aitite ta amuma
asarratu dire.

344
Aititek amumari
kopetatik tire,
tire eta tire,
konponduko dire.

345
Asiten noia asiten
dana dakitan moduan,
ez dala pobrerik bizi
aberatsaren moduan.

346
Abadiñon, Abadiñon,
Abadiñon san Blasetan,
enbra txiki polit bati
kaderia trokatu jakan.

347
Amoroto, koskorrillo,
Berriatua, fanfarrillo,
Mendexan tremesa poko
Lekeition opilla dago.

¹⁴⁶ Jatorrizkoan *ezkara*.

¹⁴⁷ Koplariak gehienetan *txanbeliñe* agertu ohi da.

¹⁴⁸ Jatorrizkoan *artzien* dator.

¹⁴⁹ Jatorrizko dokumentuan *gariximue* dator.

¹⁵⁰ Jatorrizkoan *min det* dator.

348
Asago¹⁵¹ dago Ferrole
an dago sedie merke,
andixik ekarten ditue
pañuelo fiñak bere.

349
Ama guriak ezkondu teko
neure moduko batekin,
dotie emongo deustela
ollua bost txitarekin.

350
Lena joan da eta
lenaren iraune,
ez jatela gustetan
agure alargune.

351
Altzola goitik dago,
bai, Mendaro baño¹⁵²,
iparra gura leuke
mendebala dago.

352
Errekatxuen dago
jabonadurie,
Patxikon prakak¹⁵³ eta
Kartuxan gonie.

353
Aringa-aringekua¹⁵⁴
itsuen soñue,
laster urratuko
zapata-zorue.

354
Arin-arin eiten dau
soluen erbijek,
utsak egiten ditu
punturik erdijek.

355
Pañuelo festonauek
Irumetarako¹⁵⁵,
ez daukela doterik
etxaguntzarako¹⁵⁶.

356
O mutil txapelpeko¹⁵⁷,
zelan dok izena?
Etxian txitxo¹⁵⁸ eta
kanpoan gizona.

357
Olgeta ta dantza
datoz etxerantza,
dirue gura dabenak
billatzera martxa.

358
Patatie lurre
ta gaztañie zure,
nik okelie gure.

359
Sardiña kargiakin
Santurtzetik gora,
i baño galantaurik
joango dona¹⁵⁹ Bilbora.

¹⁵¹ Gaur egunean *asao/-u* esan ohi da, gehienetan. Forma zaharra, ordea, *asago* da.

¹⁵² Jatorrizkoan *baña*. Argi dago erratu bat dela eta aldaketa gurea da.

¹⁵³ Jatorrizkoan *prakat*, errakuntza argia denez gero, aldatu dugu.

¹⁵⁴ Jatorrizko testuan *aringaringekue* dator.

¹⁵⁵ Halaxe dator jatorrizkoan. Zer da *irumetarako*? Irumeta toponimo bat dugu?

¹⁵⁶ Jatorrizkoan *etxakuntzarako*.

¹⁵⁷ Jatorrizkoan: *Oh mutil txapelpeko*.

¹⁵⁸ Jatorrizkoan *txitxo*, baina erdurik gehienetan *txotxo* izan ohi da.

¹⁵⁹ Jatorrizko testuan *joan gona Bilbo'ra* dator.

360
Sarten da burrunzali¹⁶⁰
arropa bi ta erdi¹⁶¹,
Elantxoben ei dagoz
iru barragarri:
Pepa ta Pepanton
ta Mariñezi.

361
Mari Pandangera
Natxixukoa,
arto beroa jan da
a jauk atsoa!

362
Larrabetzun pasau naz
ariñegun da atzo,
antxe topau nituen
Logure ta Mantso¹⁶².

363
Mutille izanagaitik¹⁶³
baltza ta igerra,
erexek egiten jok
soloan bierra.

364
Amorebietako
bizi-alargune,
ardijek jan ez daien
gure deu lagune.

365
Begijek pentsa-pentsa
kolore gorrije,
munduen askok¹⁶⁴ dauko
zure inbidije.

366
Indijek¹⁶⁵ irabazten
errazak ez dire,
zure begi ederrak
gatxagoak dire.

367
Muxikako jostun batek
Astelarrako etxe baten,
bi praka ta bi alkondara
josi ditu egun baten.

368
Mamixa¹⁶⁶ zarra baña
miñian barrije,
txokolate fiñari
begije argije¹⁶⁷.

368
Maritxu Karduená,
ze atso polite,
bere trapu zarragaz
moñoa ipiñite.

369
Tutulumendi eta
pillarmonikie,
gizonik onrauena¹⁶⁸
santu saltzallie¹⁶⁹.

370
Onako neskatillek
jantzarako planta,
airosa botaten dau
ezkerreko anka.

¹⁶⁰ Jatorrizkoan *burrunzali*.

¹⁶¹ Jatorrizkoan *t'endi*.

¹⁶² Pertsonen ezizenak izan behar dute Logure eta Mantso. Jatorrizko testuan maiuskulaz datoz: *LOGURE* eta *MANTSO*.

¹⁶³ Jatorrizkoan *izanaitik*.

¹⁶⁴ Lehen idazkeran *askon* jarri du eta gero eskuz zuzendu du: *askok*.

¹⁶⁵ Jatorrizkoan *Indiyek*.

¹⁶⁶ Halaxe dator jatorrizkoan. *Mamixa* pertsona izena ote da?

¹⁶⁷ Jatorrizkoan koplá honek 378 zenbakia dakar. Eta hurrengoan 368.

¹⁶⁸ Jatorrizko dokumentuan *onrauena* dator.

¹⁶⁹ Jatorrizko testuan *santu saltsallie*.

371

Etxera doianian
esango dotso¹⁷⁰ amari:
–Antoniok bertsoak
atara dostaz¹⁷¹ neuri.

372

Zeanuri buruko
tanbolinterue,
txindorren anak eta
ollarren burue.

373

Ubideko atsuek
goizien-goizien,
txikerdi aguardite¹⁷²
arnasa batién.

374

Nabarrizen ei dago
morokille merke,
txakur txiki bataitik¹⁷³
topiñie bete.

375

Andixik nentorrela
mendi-etxe baten,
kanpo-jentie topau neban
morokille jaten.

376

Urkiolara joan da
zapatak urratu,
aita san Antoniok
barriek eingo ditu¹⁷⁴.

377

Altuen San Antoniño¹⁷⁵
Abadiñoko lurrien,
askok bisitetan deu
bere egune danien.

379

Ai ene,
oi ene,
zoaz arin-arin
medikuegañe.

380

Urrapitxirri sagar-lorie,
hija de Paule Beruagarria,
gaztañak saltzen eguanian
agoa zabaltzen kana betian.

381

Iru ta iru sei dira eta
beste seirekin amabi,
neskazar baño naiago nuke
ardua merke baledi.

382

Ortixik gora nijuakela
makulu baten gañean,
arantza beltza sartu ziraden
oña aspela gañean.

383

Ai zaizu, zer naizu,
munduan, munduan ere,
biok izango gara gu,
baldin bazera kontentu.

¹⁷⁰ Jatorrizkoan *esangotso*.

¹⁷¹ Jatorrizkoan *atarostaz*.

¹⁷² Halaxe dator *aguardite*.

¹⁷³ Halaxe dator *bategaitik* da forma osoa.

¹⁷⁴ Jatorrizkoan lehen idazkeran *ei-goituz*; gero, azken –z ezabatu egin du transkribatzaileak.

¹⁷⁵ Aurreko koplán *san Antonio* dakar eta oraingoan *san Antoniño*. Bi modu guztiz desberdin koplá jarraituetan.

¹⁷⁶ Jatorrizkoan *naiz* dator, baina geroago *naiz*. Bi adizkiak bateratu ditugu.

¹⁷⁷ Jatorrizkoan *atxakiyetan*.

¹⁷⁸ Jatorrizkoan *barria* dator, hutsa delakoan *barriz* jarri dugu.

384

Ia, Praiskutxu tabernerua,
zu ikustera nator alegratua,
arrautzatxuaz ta kaiku-esneaz
beti da kontentu Praisku guria.

385

Orain jarri naz¹⁷⁶ aprendiz
atxakijetan¹⁷⁷ banozue,
ez naz parauko ni barriz¹⁷⁸.

386

San Blas iraudan urte bi¹⁷⁹
Abadiñora nintzen ni,
denpora txarrak emonda
ez nintzan ondo ibilli.

387

Abadiño-Etxebarriko
neskatille famadie,
noz estrenetako dozu
franelazko erropie?

13. Ondorio bezala

Gure lan honetako helburu nagusia ezagutzen dugun koplá bildumarik aberats eta ederrenetako eskaintzea izan da, Julio Bareñok bildutako saila. Julio Bareñok bildutako sail horri, Manuel Lekuonaren irizpideari jarraiturik, Gernikako koplá deitu diogu.

Gure lan honetako asmo nagusia koplén edizio bat egitea izan da. Bide batez J. Bareñoren bizitza zertzelada batzuk ere eskaini ditugu. Ez dago dudarik, bestalde, J. Bareñoren alderdi biografikoak eta bibliografikoak lan berriazko bat merezi dutela.

Bibliografia

BAREÑO, J. (1961): "Antonio bibolinterua". *Brisas guerniquesas*, 43 zenb., 5-6. or.

KALZAKORTA, J. (2007): *Dantza-koplá zaharrak*. Bilbao, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa.

VILLASANTE, L. (1966): "El euskera, la literatura vasca y la zona de Guernica". *VI centenario de su fundación de Guernica*. Madrid, 1-2 or.

¹⁷⁹ Halaxe dator jatorrizkoan. Koplá hau modurik zabalduenetako batean *San Blas pasau dan urte bi/ Abadiñora nintzen ni/.../* izan ohi da. Badirudi gure ereduán *San Blas irago/ igaro dan urte bi* dela.

BERMEOKO HIZKERAREN ZENBAIT
BEREZITASUN ETA EKARRI
XX. MENDEAN

Adolfo Arejita
Euskaltzaina
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

LABURPENA

Bermeoko hizkeraren zenbait berezitasun eta ekarri XX. mendean

Bermeoko euskereagaz zerikusia daben hainbat adar aztertu ditu egileak. Alde batetik, era batera edo bestera, hango berbetegaz zerikusia daukien idazleen barri emoten dau. Hizkuntzaren beste arlo batzuk be garantzen ditu, beste alde batetik: toponimia eta herri literatura, kasurako. Horrezaz gainera, Bermeoko berbetearen ezaugarri linguistikoak zerrendatzen dira: lexikoa, morfologia, loku-zinoak... Amaitzeko, beste leku batzuetako hizkerakaz daukazan kidetasun batzuei erreparetan deute.

Gako-hitzak: Bermeo, euskera, herri literatura, lexikografia.

RESUMEN

Particularidades y aportaciones del euskera de Bermeo del siglo XX

El autor del artículo realiza una investigación acerca del euskera de Bermeo, importante localidad pesquera de la costa vizcaína. Da a conocer los estudios de escritores que han trabajado la variedad dialectal de dicha villa marinera. También analiza y desgrana facetas del habla y toma en consideración la toponimia y la literatura popular. Hace una relación ordenada de aspectos lingüísticos como el léxico, la morfología, las locuciones... Estudia los parentescos con variantes lingüísticas de otros lugares.

Palabras clave: Bermeo, euskera, literatura popular, lexicografía.

RÉSUMÉ

Particularités dialectales et apport du basque de Bermeo du XXe siècle

L'auteur conduit une recherche poussée sur le basque parlé dans le port de pêche de Bermeo (Bizkaia). Il nous fait connaître des écrivains qui ont utilisé le basque de Bermeo dans leurs ouvres et des études linguistique sur cette variété dialectale. On analyse et examine aussi aspects de la langue, comme la toponymie et la littérature populaire. Le lexique, la morphologie, des expressions idiomatiques... y sont abordés aussi. Enfin, l'auteur étudie les parentés de ce dialecte avec d'autres variantes voisines.

Mots clés: Bermeo, basque, littérature populaire, lexicographie.

SUMMARY

Distinctive features and contribution of 20th century Bermeo Basque

The author examines the Basque dialect spoken in Bermeo (Bizkaia). He refers to writers who have used Bermeo Basque in their works and linguists who have carried out research on this dialectal variety. Likewise, he analyses and details aspects of the local speech such as place names and popular literature. Furthermore, we are provided with an account of local linguistic features including lexicon, morphology, idiomatic expressions, and so on. Last but not least, the author studies Bermeo Basque similarities with other Basque variants.

Keywords: Bermeo, Basque, popular literature, lexicography.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2014.05.28.

Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2014.06.20.

0. Sarrera.....	131
1. Bermeogaz loturea euki daben idazle batzuen barri, herriko seme edo hurreko.....	132
1.1. Jose Manuel Etxeita (1842-1915)	132
1.2. Robustiano Ortuzar (1883-1929)	133
1.3. Bitor Gaubeka (1894-1979)	135
1.4. 1970eko hamarkadatik aurrerako ekarpenak	135
2. Bermeoko toponimiaz.....	137
3. Bermeoko herri literatura.....	137
4. Bermeoko berbetearen ezaugarri batzuk	141
5. Lexikografia	146
5.1. Lexiko-sorkuntza	146
5.2. Hitzen morfologia	147
5.3. Lexiko berezia	147
5.3.1. Izenak.....	148
5.3.2. Izenondoak	148
5.3.3. Aditzondoak.....	149
5.3.4. Aditzak	149
5.3.5. Kantidade-izenak	150
5.4. Erregistroak.....	150
5.4.1. Arrantzaleen hizkerako berbak.....	150
5.4.2. Baserri giroko hiztegia.....	151
5.4.3. Euskera zaharra	151
5.5. Lokuzinoak	153
6. Bermeoko berbetearen kidetasun batzuk.....	154
7. Eranskinak.....	155
7.1. Ana Juanita I.....	155
7.2. Ana Juanita II.....	156
7.3. Marijesiak I.....	157
7.4. Marijesiak II	158
7.5. Marijesiak III	160

7.6. Lapur famatua	161
7.7. Ama Birjina Arantzazukoa	164
8. Bibliografia apur bat	165

0. SARRERA

Lan honen oinarrian, “Anton Ormazaren sasoia: 1922-2010” izenburupean 2013ko udan Bermeoko urian Ertzilla torrean garatu zan egitarau zabalaren barruan emon neban berbaldi laburra dago. Berbalditxo harek gogoeta egitera eroan ninduan, irakasle gisa, Labayru Ikastegian eta aspaldiko Derioko Udako Euskal Ikastaroaren gorabeheretan parte izan nazelako eta Bermeoko euskereagaz era batera edo bestera luzaroetan izan dodan esperientzia bilbatu gurean.



Bermeo

Anton Ormaza zanaren aitamen labur bat ezinbestekoa dot lan honen sartau-re gisa, ez Bermeoko euskerearen XX. mendeko ibilbidean eragile zuzena izan dalako, baina bai beraren politika eraginaren hegapean bermeotar jente asko murgildu zalako euskal hizkuntzaren alde, bermeotar eta euskaldun identidadea-ren ardatz sentitzen ebelako euskal hizkuntza.

Anton Ormazaren sasoi jarri zan begipean bertako egitarauan, ia mendea hartzen dauen aldikada luze horretan Bermeok ezagutu dauen gizarte aldaketa ikuspegi diferenteetatik aztertzeko, euskal hizkuntza eta jakintza be barru zirala. Zoriontzekoa da, eratzailleek euskerearen alderdi hori be aintzat hartu izana egi-tarauaren barruan.

1. BERMEOGAZ LOTUREA EUKI DABEN IDAZLE BATZUEN BARRI, HERRI-KO SEME EDO HURREKO

XIX. menderaino ez naz atzeratuko; XX. mendera mugatuko dot nire jarduna.

1.1. Jose Manuel Etxeita (1842-1915)

Etxeita mundakarragaz hasiko gara. Mundakako seme honek literatura lanen bidez jaso deusku Bermeoren oihartzuna. *Josetxo* elebarria, XX. mendearen hasie-ratsuan (1909) argitaratua, baserri, itsaso eta kale gizarteetan girotua da, eta Ber-meoren auzo dan Mundakako herria dau gertaleku nagusia, edo zehatzago esan-da, “Mundakatik Bermeoruntz, ordu laurengo bidean egoan Ondartza izena eban baso-etxe zahar, horma sendoakaz egina” (...). Eta etxe honetako semea, Josetxo, protagonista nagusia. Ondartza, itsasoak eta lehorrak, baserriak eta itsas giroak bat egiten daberen gunean kokatuta dago. Semea jaiokeran Txomin-txikik pozka-riazko bertso ahapaldi bat ondu eban, eta egileak dinoskunez “hau Txomin-txiki-ren abestiau ikasi eben Mundakan eta Bermeon, eta urte askotan abesauten zan, umeai lo eragiteko, nahi edozein ordutan eta lekutan”. Elaberriko gertaera eta pasadizu gorabeheratsuak Mundakan ez eze, itsas zabaletan edo Ameriketako lurretan kokatzen dira hainbat, baina behin eta barrero dogu Bermeoko auzo-uria-ren oihartzuna. Lehorrez eta itsasoz uri-herri bietako eta bertako auzo batzuetako bizimodua eta jentemodua agiri jaku jokoan. Gizarte beretsua edo alkarren har-tuemon handikoa erakusten jaku: Mundakarrak Bermeoko plazara, *zeiara*, sarri datoz, neska-mutil gazteen arteko adiskidetasun eta ezkontza asko egiten dira euren artean, itsas galarren eta ekatxaldiek sorrerazoteko dabezan ikara eta gale-rek be herri bietako jenteari ikara eragiten deutse. Toki-izenetan be Bermeoren oihartzunik ez da falta Etxeitaren elabarrian: *Bermeogane* eta batez be *Demiku* auzoa eta bertako erromeria aitatzen dira, eta bertako protagonista bat, *Mari Jesus Demi-kuko*.

1.2. Robustiano Ortuzar (1883-1929)

Bermeoko herri-berbetea idatziz ipinten eta argitaratzen gerra aurretik hasi ziran. Orduko denporan holakorik gutxi egiten zan gure artean. Dialektologiaren aldetik egozan ereduak be diferenteak ziran, euskalki literarioen morfologia ereditik hurragokoak. Aurreko mendera joanda, XIX. mendeko 50-70 hogeieteko barruan Bonapartek argitaratu zituan herri-ereduko testuek zerikusi gitxi daukie Ortuzarren herri-berbetea idatziagaz. Laudioko dotrinako eredia (1858) bertako ahozko berbete ereditik urruntxo dagoan moduan, beste hainbeste esan daiteke haren aginduz argitaratu ziran Markina, Bermeo, Arratia edo Otxandioko dotrina laburretako ereduez. Bonaparteren Bermeoko bertsinoaren hasierea holan dator: *Kristiñau fiel guztijak dagoz guztiz obligaurik deboziñua artutera euren bijotz guztitik Jesus gure argijaren kurutze santuagaz; bada an il gura izan eban gu ateratiarren pekatuaren mendetik ta averijo deungetatik*. Ez dago esan beharrik, aldi haretako bizkaiera literarioaren morfologia ereditik hur baino hurrago dagoala.

Mende barria hasi eta laster agiritatuko dan Azkueren hiztegia edo berandua-goko *Euskalerraren Yakintza* arakatzen baditugu, berehala dakusku harek be ez zituala tokian tokiko ipuin, esaunda, kantu edo errefracak entzundako modu-moduan transkribatzen, eredu jagiagoan baino. Ez hori bakarrik; herri hizkeraren biltzaile eta aztertzaile handia izanagaitik, ez eban begi onez ikusten berbatik harako eran testuak idatziz transkribatzea. Dialekto edo azpidialektoan bai, baina eredu jasoagoan, edozelan be. Bizkaiko partean salbuespen agiri bi ditugu hogei-ko hamarkadan aurreko eredu hori haustera datozanak: Ortuzar bermeotarra eta William Rollo holandarra, *The basque dialect of Marquina* (1925) liburuaren egilea, edo zehatzago esanda, honi herri tradizionoko testuak batu edo transkribatu eutsazan Juan Barquin abadea. Baina hau baino lehenago hasi zan Robustiano Ortuzar abadea, herri-herriko berbetan antzezlanak idazten, urian bertan antzezteko. Aurreko hamarkadan, hatan be. Haustura bat ekarren horrek herri-berbetako testuen idazkeran. Eta barritasuna izan zan, ez antzeztokian herri-berbakeran dialogoak errezzitatzea, ezpada idatziz halantxe argitaratzea. Egia esan, antzerki generoak gehiago laguntzen eutsan herri-eredu honi, beste edozein literatura generok baino, eta hori izan zan Ortuzarrek landu ebana. Halantxe argitaratu zituan 1925ean Gaubeka inprimatzaileak Ortuzar abadearen antzezlanak, *Oroigarriak* izenburuaz, eta azpiburutzat hau ebala: *Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiak*.¹ Eta kasu honetan Azkue handiaren onespenez, beronen hitzaurre labur-rrak erakusten dauenez. Rollo-ren ikerlanak Azkueren kritika zorrotza jaso eban legetxe, Ortuzarren antzezlanak eta honen bermeotar berbete zarratua ontzat jo zituan Azkuek, argudiotzat hau esanda: *Gaur egunean, gure erri au euskalzale egiteko,*

¹ Robustiano Ortuzar, *Oroigarriak*. Bermeo, Gaubeka, 1925.

*teatrua dala uste dot biderik laburrena eta errazena. Irakurri, gitxi irakurten dabe euskaldunak; eztakielako, askok; neketsu dabelako, geienak*². Bide-urrazailtzat joten dau, gainera, Ortuzarren antzerki bidea: *Betoz beste idazle batzuk Ortuzarren ondorik, baserritar ta nekazaleen oitura on nai galgarri mamintzat artuta, gatz ta erri-usaintxo gozoa daben antzerki asko egitera. Olgeta-benetan, ezarian-baidarian on andia ekin lekioe erriari*³.

Gogoratzekoa da, Barquin eta Ortuzar abadeen herri-hizkera eta herri-jakintza zaletasuna, ondoren etorriko ziran beste hainbat euskaltzalerenaren antzera (Ariztimuño, Domingo Zuluaga e.a.) Gasteizko Seminarioan J.M. Barandiaranek *-Eusko-Folklore. Materiales y cuestionarios-* eta Manuel Lekuonak *-Kardaberaz Bazkuna-* bertako apaizgaiakaz abian ipini eben mobimentuan dabela sorburua. Eta jakina danez, mobimentu hori Azkuez gerokoa da.

Ortuzar abadearen antzezlanen garrantzia bikotxa da: herriko jente askok euron barri hurragotik jakin eban. Antzezlanok, guztiok edo batzuk behintzat, argitaratu baino hainbat lehenago jokatu ziran. 1914an taularatu zan *Torronteruen* izenekoa (Erregenez eta Aratosteetan, S. Onaindiaren esanean)⁴. *Sorginkeri bako epaia* antzezlan be gitxienez birritan egin zan. Bermeoko karmeldarren ikastetxean antzezteko atondu ei eban obratxo hau, gero 1923an barriro agertu zana. *Torronteruen* da bere lanetan luzeena; beste guztiak, laburrak; batez be, bakarriketak eta alkarrizketak diranak.

Ortuzarren *Oroigarriak* liburuak, bertako berbeta-moduaren lekukotasun parebakoa emoten daben eranskin bi dakarz atzean. Lehenengoa, esamoduena, luze samarra (135-145). Izenburua: “Expresiones y modismos de la dicción bermeana”. Bigarren eranskinak berba-glosario labur bat zerrendatzen dau, obran agiri diran hainbat berba, entzuleentzat ezagunak ez diranena. Gaur “kultura-hitz” joko gendukezanak, hainbat, baina aranatar sasoikoak. Halan: *artezkari*: director edo *idazti*: libro.

Ortuzarren antzezlaneko balio erantsi ohargarria da herri kantuen. Herri tradizino hainbat kantu dagoz dialogo barruetan sarturik, eta euretariko hainbat *Bermeotarrak gara gu* (1998) eta *Kresaletan* (2000) kantu bilduma oraintsukoetan batu eta interpretatu dira. *Sorginkeri bako epaia* antzezlanean, guztiz ezaguna dan *Basatxoritxu musturluzia* (72). Eta atzenengoa dan *Txapuletsien* deritxonean txorta luzeago bat, gaztelaniazko tradizino kantu politak barru: *A la mar tiré un tiro* (107), *Din, don kandel* (129), adibidez. Euskerazkoetan baliotsuena, geure ustez, *Kose Mielen batera* (110-111) leloaz hasten dana, baina *Ana Juanita* erromantze zaharraren koplak txertaturik dakarzana.

² Op. cit. 7. or.

³ Op. cit. 7. or.

⁴ Santi Onaindia, *Euskal Literatura (IV)*, Bilbao 1975, 130. or.

Gazte samar (46 urtegaz) hil zan Robustiano Ortuzar, 1929an. Baina hamar bat urtean bermeotarren euskalduntasunari astindu ederra emon eutsan, batez be bere aldiko bermeotar gazteari euskalduntasunez eta kulturaz jantzi zedin hartu eban neke eta ardura handiari eskerrak.

1.3. Bitor Gaubeka (1894-1979)

Gudu aurreko belaunaldi horretakoa dogu Bitor Gaubeka bermeotarra be. Idazle lez baino gehiago kultura eragile lez merezi dau ohore eta aitamen betea gizon honek. Azken guduak itzali eban gizon honen ekimen bizia, batez be inprimatzaile legez Bermeoko uritik Bizkai osora eta Euskal Herri zabalera biztu eta garatu eban kulturgintza oparoa. Hogeiko hamarkadatik eragoion, edo euskerazko, edo euskeraren gaineko liburu, liburuska eta gainerakoak argitaratzen. Ortuzarren liburua ezeze, autore ezagunagoenak be argitaratu zituan. Halan: Kandido Basabe, Juan Bautista Eguzkitza, Paulo Zamarripa, Sebero Altube eta beste hainbatenak. Bermeoren historiari, bizimoduari eta kristautasunari guztiz loturik egon zan bere bizi osoan, baina eraginik handiena gerra aurrekoa da. Gerraostean isiltasunera zigortua gertatu zan, beste abertzale euskaltzale askoren antzera.

1.4. 1970eko hamarkadatik aurrerako ekarpenak

Jauzi handi bat egingo dogu 1970eko hamarkadara. Bermeoko berbetearren gaineko etnotestuak ugaritzen hasten dira aldi honetan. Batetik, Etniker Bizkaia inguruko ikertzaile gazteen aldetik, baina baita beste ingurune batzuetatik be. Etnikerren inguruan badira Busturialdeko ikertzaileak, Joseba Agirreazkuenaga busturiarra eta Anton Erkoreka, besteak beste. Bermeon eta inguru-herri batzuetan alkarrizketa sistematikoak egiten hasten dira inkesta etnografikoaren bidetik, eta horreen emaitzak, sarritan artikulua monografikoen bidez, argitaratzen hasten dira, *Etniker Bizkaia*, *Anuario de Eusko Folklore* eta beste aldizkari edo liburu berariazko batzuetan. Halan, esaterako, Anton Erkoreka dogu uri honetako hainbat sineskera, errito eta ohitura artikulua banangoetan argiratuko dituan ikertzaile ahalegintsu eta emonkorrenetarikoa. Begizkoenaren (*begizkune*) errittoa, *begizantarra* kentzeko.

Bermeo aldizkaria 1981ean plazaratu zan lehenengoz, urtekari izateko asmoaz, eta halantxe iraun eban hamarkada luze baten, ale bat urtero ateraten lehenengo aldikadan eta 1986tik aurrera urte birik baten. Bermeoko herri-berbetearren hainbeste lekukotasun jakingarri dagoz bertan jatorrik, ipuinak, kontu-pasadizuak, erri-tu-ohiturak, lexikoa eta beste. Horren gainera, Bermeoren historia, erakunde, langintza eta beste jakintza-adar batzuetan daukan eduki aberatsari ezer kendu barik. Berariaz aitatzekoa da 1. alean (1981), *Uetena* taldeak eginiko lan mardula: “*Bermeoko* arrantzaleen ohiturak, sineskerak eta sineskeriak” (263-349. or.).

Labayru Ikastegiak 1981ean atera eban *Idazkera. Ariketak* liburuskari Bizkaiko berbeta diferente-etako testuak jasotzen zituan atal bat gehitu geuntsan atzean, “Tokian tokiko euskera ereduak” izenburupean, berean Bermeoko bi zirala: *Andra sorgiña* eta *Aldeanue lapurretan*, Begoña Soto, orduan Derioko Irakasle Eskolan ikasle zanak irakasle nintzan honi Bermeon baturikoak⁵.

XX-XXI. mende bitarte horretan ondu eta argitaraturiko lan biren aitamena egitea bidezko eta arrazoizko da. Bata, 2002an argitaratua, Bermeoko berbetearen corpus garrantzitsu bat. Begoña Bilbaoren *Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak* bilduma, barru azalean beste izenburu hau dakarrena: *Bermeoko euskara. Lexikoa eta esamoldeak* (2002), aurrerantzean laburduraz *BBEK* izendatua. Euskal Filologiako ikasketak geure Deustuko Unibersidadean egin ondoren landutako bilketa-lan aberatsa: *berba eta esamolde kresaltsuak* bateatzen ditu egileak, hitzak eta lokuzinoak atal banatan dirala. Bilduma horretan balio gehienekoa, neuregango, berba-sarrera bakotxari eransten deutzan adibideak, ugariak eta bene-benetakoak. Horrek emoten deutso gantza eta mamina berba-lokuzinoren hazurdurari. Lanaren neurria ikusita, luzaroan txiri-txiri ekinaren frutua dirudi.

Orduantxe ingurukoa da errefrau eta lokuzinoz horniduriko *Itsosupeteko berbetie*. *Bermeoko esakerak* izeneko liburuskatxoa be (Bermeoko Udala, 2001), guztira ia ehun esakera. Mikel Ugaldek *Akatz* aldizkarian ateratako esakerak dira, Anton Olariagaren irudi atseginekin modu didaktikoan eskainita.

Metodologia aldetik gehitxoago landu izan balira, eskolarako be erabilgarriagoak izango ziran, dana dala, edukia hor dago eta aberatsa da alde guztietatik, batez be *berba eta esamolde kresaltsuak* bilduma.



⁵ *Idazkera. Ariketak*, Labayru Ikastegia, Udako Euskal Ikastaroa. Ariketak 4, Bilbao 1981, 94-95. or.

2. BERMEOKO TOPONIMIAZ

Bermeoren uri barru eta auzo guztietako toki-izenak <http://www.bermeo-euskaraz.com/cgi-bin/toponomia/topo.pl?fi=0429> helbidean datoz, erraz bilatzeko eran. Lan zabal hori, Irune Allika eta Bitor Uriartek egina, aurreratuta dauka Bermeok, beste uri eta herri askok baino zeheago eta zehatzago.

Toki-izenak zehe-zehe batzen diranean, etxe, kale, landa, solo, baso, zubi, bide, erreka eta enparauak barru dirala, hizkuntzearen alderdi ezkutuaq agiriratzten dira batzuetan, eta halan ohartu dot Bemeokoan be. Euskerearen morfologia eta sintaxiaren oinatz garbiak be bai euretariko batzuetan. *Arane* auzoko izen bi aitatzeko: *Urezandi* (lur-arlo baten izena) edo *Sartzailleku* (baserri-izena).

Urezandi horrek *urez beste aldea* adierazoten dau. Handik urrun barik, Gorlizen, badaukagu *Urezarantze* auzoa, berbarako. Baina *urez handi* edo *uraz handi* hondino be erabilia dogu berba ezaguna dogu eguneroko berbetan, kosta herrietan behintzat. Halan, Ibarrangelutarrek Laidaren beste alderdiari, Sukarrieta-Mundakak parteari, *urez handia* esaten izan deutse⁶.

Sartzailleku izenean *sartzaitte*, *sartzaiera* izenetan lez, *sartzai-* aditzizen zaharra daukagu, *sartzte*, *sarrera* hitzen bizkairazko arkaismoak, zelanbait esateko.

3. BERMEOKO HERRI LITERATURA

Bermeok, bai urian, bai inguruko auzoetan, beste lekutan nekez topau leitezkezan altxor edo bitxiak gorde izan ditu bizirik herri literaturaren barrutian: baladak, amodio kantuak, eleiz kantuak, ipuinak eta beste.

Bermeo uria izanda, aparteko balioa dauka tradizino zaharreko herri-literatura generoak edo horren ezpalak bizirik gordeteak, ze normalena holako genero zaharrak beste ezaugarri batzuetako gizariteetan irautea izaten da: nekazari gizaritean eta uri giroaz eta barrikuntza jazoten dan eremuen ikuturik gitxi baino igariten ez daben leku baztertuetan.

Baina Bizkaiko itsas uri batzuk aparteko gordailua zaindu dabe XX. mendean ondo sartu eta ostean be; Ondarroak, Lekeitiok eta batez be Bermeok, gehituko neuke: baladak, amodio kantuak, mitologi ipuinak, errefrauak, dantza koplak eta beste.


⁶ Domingo Zuluaga abade idazleak, *Ibarrangelu kantu eta kontu* liburuan (Labayru Ikastegia, 2009) holan dino hango kontu-pasadizu bitan: "Pasaieruak, bere txalupan Sukarrietara, Portuondo eta Mundakara jentea eroaten dau, ekarri bere bai. Hemendik Laidatik, *urez handira ez dago* beste biderik lurretik, itxasoan izan ezik." (54. or.)

"San Juan egunean baita, herriko alkatea, zinegotzi bigaz, Laidara joaten zan; hango pasaieruak, txaluperuak, bere ontzian eroan *urez handiko* herrien aurrera, eta ibaiaren erdi inguruan teila bat botaten eban uretara hauxe esanaz: *Ibarrangelua honaxe arte heltzen da.*" (102. or.)

Iturri diferenteetatik jaso ditugun gitxi batzuk aitatuکو ditugu hemen. Lehenengo, Labayru Ikastegiaren inguruan Bermeoko herri-literatura berreskuratzeko egin dan ahalegina. Eta ondoren, beste iturri batzuetatik jaso doguna.

Labayru Ikastegiaren inguruko ahalegina, Derioko Ikastaroan, Ikasturteetan edota Andra Mari Irakasle Eskolan aldi baten ikasle izan ziran bermeotar euskaldunen laguntzaz baturikoa da, hor 80-90 bitarteko hamarkadan. Beste iturrien artean, bermeotarrek bertakoen ekimenez euskal kantu zaharrak batu eta berrinterpretatzeko egindako ahalegina aitatuکو neuke: Josu Zabalondo, Lupe Fernandez eta Ana Tere Bengoetxeak atondu eta interpretaturik gizarteratu diran kantu bilduma bikainak, berariaz: *Bermeotarrak gara gu* (1998) eta *Kresaletan* (2000) izenekoak, hatan be. Iturri diferenteetako edukiak jaso dira bilduma bi horreetan.

Baladakaz hasiko gara. Bada herri-balada bat, gaur bertsino bizi gitxi ezagutzen jakozana, eta gehienbat itsas herrietan iraun eta bizi izan dana: *Ana Juanixe* edo *Ana Juanita* izenakaz ezagun egin dana, eta beronen amodio galduaren jazoera dramatikoa “Motriku herri onean” kokatua dauena. Ondarroako bertsino bat gerra aurrean Augustin Zubikaraik batu eban Kardaberaz Bazkunarentzat, gero Manuel Lekuonak argitaratu ebana⁷. Gehiago be atera dira 1980 inguruko urteetan jasoak. Baina Bermeokorik ez genduan artean ezagutzen, harik eta ikasle izan nituan Lutxi Larreategik (1981ean) eta Josu Penadese (1982an), Luzia Bilbao andreari, 1981eko abenduan, grabazioa egin orduan 71 urte zituanari, batu eutsen arte. Gure Ikastegiak argitaratzen dauen *Idatz & Mintz* aldizkariaren orrietan



⁷ Manuel Lekuona (1936): *Literatura oral euskerica*, Euskalzaleak, Donostia. Eta (1964): *Literatura oral vasca*. Auñamendi, San Sebastián.

argitaratu ziran aspaldi⁸. Bertsino honeen bereizgarri bat, lehenengo koplan aita-tzen dan *Santa Manterio* toki-izena: *Untzi bi agertu zirian / Santa Manterion parian. // Nere anaïdxia etorriko da / batian edo bestian.* (ikus 7.1., 7.2. eranskinak).

Neska ontziratua izeneko baladearen errastua be topau dogu, *Bermeotarrak gara gu* izenaz hondino denpora asko ez dala argitaraturiko kantu bilduma baten⁹. “Kose Mielen batela” lelo ezaguna izenburutzat daukan koplak txorteak iturri bitako lauhoak batzen ditu. Lehenengoak, baladeagaz zerikusirik ez dabenak, XX. mendearen lehen hogeiturtekoan emon eban ezagutzera Robustiano Ortuzar abade antzerkigileak, *Tsalupetsien* izeneko antzezlanean, geroak garrenera *Oroigarriak* liburuan argitaratuko ziranak.¹⁰ Bertso honeek berarenak be izan leitekez, edo arterago beste norbaitek onduak be bai, baina susmoa daukagu berak idatziak ez ete diran. Leloa, seguru antzean, lehenagokoa da, antzerki-idazleak beren-beregi koplak horreekaz batu dauena, estilo indar apartekoa emon gurarik, eta kanturako bizitasuna. Ortuzarren bertsinoa honangoa da:

(leloa)

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

Kose Mielen batera / txitxarrue ta berdela.

1

Itxasuntzidzek duazanian / beseguten itxosora

neskatillek hartuten dabe / tresna guztidxen ardura.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

2

Loidxetan gertatuten dire / karnada ta aparidxuek,

Bidxaramongo egunien / prest dana eduki daidxien.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

3

Loidxetako neskatilek / txalupak datozenien

Hasten dire goraberetan / otzara zarren atzien.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

Eta koplak horreen jarraikoak, *Neska ontziratua*ren baladeari jagokoz oso-osoan. Honangoak dira:

⁸ Adolfo Arejita: “Ana Juanita erromantzea” (1), *Idatz & Mintz*, 6 zb., 1983, Bilbao, Labayru Ikastegia, 16-17. or.

⁹ *Bermeotarrak gara gu*. CD, 1998. Interpretariak: Josu Zabalondu, Lupe Fernández, Ana Tere Bengoetxea.

¹⁰ Robustiano Ortuzar (1925): *Oroigarriak*, “Tsalupetsien”, 110-111. or.

4

-Mariñeltxoak belak aforra, / doaz untzidzek kanpora,
Zazpi urtien logra(d)u ezin dot / orain noa logratzera.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

5

-Kapitan jauna, kapitan jauna, / zenbat legua dauz herrira?
-Leguarik asko dau zure herrira, / zu dxaidxo ziñan herrira.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

6

-Kapitan jauna, kapitan jauna, / zer egingo dxako horrerri?
-Berak hil badau bere burue, / emon eiozu ureri.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

7

-Kapitan jauna, kapitan jauna, / zer egingo dxatso horrerri?
-Paternosterra erreza eta / emon eiozu ureri.

Kose Mielen batela / txitxarrue ta berdela.

Bertsino honek guztiz fidagarria dirudi morfologia zein fonetikaren aldetik; esan gura da, ahotik harako bertsinoa dala; entzun ahala transkribatua. Zehaztasun hau emoten dogu, zerren XX. mendearen lehen erdiko bertsinorik gehienak, ahozko iturrikoak izanagaitik, morfologia landuagoan transkribatuak izan dira orohar¹¹.

Marijesiak, gabon erromantzeak, zelanbait esateko, Gernika inguruko herrietan hain ezagunak diranak, Bermeon be izan dabe oihartzunik, eta lehenago ez makala be, gaur ahaztuxeago egon arren. Marijesien bertsino polit batzuk laro-geigarreneko lehen urteetan batuak dira. Euretariko bat, Luzia Bilbao, aitatu dogun lekuko berari 1982an, honek 72 urte zituala, Josu Penades orduan gure ikasle zanari batua. (Ikus 7.3., 7.4., 7.5. eranskinak).

Bertso narratiboak be jaso genduzan aldi beretsuan, orduko ikasle berbera biltzaile zala. *Lapur famatua* edo *Hamalau heriotzena* deritxonaren bertsino bat, beste batzuen artean. (Ikus 7.6. eranskina).

¹¹ Aitatu dogun *Ana Juanixe*-rena, Ondarroan batua, edo *Kanzuriano*, Ibarrangelun batua, edo Arizimuñoren bildumako beste batzuk testigu.

Balada erlijiosoak, Marijesiez aparte, lehenagotik be pitxi ederrak dagoz Bermeon baturik. Horreetarikoak da Arantzazuko *Romancero de Aranzazu* bilduman datorren bat, Demikun batua. (Ikus 7.7. eranskina).

Gorago aitatu dogun *Idazkera Ariketak* liburutxoan aitatu ditugun herri ipuinak be horren lekuko dira.

4. BERMEOKO BERBETEAREN EZAUGARRI BATZUK

Bermeoko euskerea, batez be kalekoa eta arrantzaleena, guztiz berezia da Bizkaiko beste parajeetakoaren ondoan. Berehala ezagutzen da berbetatik, urlia bermeotarra dala. Soinuan, fonetikan, berben ebakeran eta ez gitxi aditzetan.

Labur garanduko ditut, kanpotik ikusita bereizgarri egiten diran ezaugarrietariko gitxi batzuk:

- 4.1. *Fonetikaren* aldetik, *dxan*, *dxuen* ahoskerak, Gernikaldean entzuten diran *jan*, *joan/juen* erakoen ondoan, bereizgarri indartsuak dira, Mundaka eta Busturiraino ailegetan diranak Urdaibaiko erriean gora. Kostaldean, sortalderantz, Lekeitiorako heltzen da hots hori eta sartalderantz Bakioraino. Solluben beste alderditik Meñaka, Arrieta, Fruiz eta Morgaraino.
- 4.2. *Gramatika* arloko morfologian sarturik, izen eta adjektiboek mugatzailea hartukeran daben bokalen armonizazioari begiratuta, berehala ohartuko gara, *-o+a* eta *-o+e* bokal-alkartzeetan *-ue* egiten dabela: *astue*, *itxosue*, *lepuen*, *presidxuen*, *prozesiñue*, *tostartekuetan*... Mundakan, Busturian eta Muruetan zehar ia Gernikaren ateetaraino sartzen dan ebakerea. Errioz beste aldean be itsas inguruan, Ibarrangelun zehar, daukagun ebakera bardina. Lehorrean zenbat eta barrurago jo, *-oa* egiten da Gernika eta inguruko herrietan.
- 4.3. *Deklinabide-kasuetan*, gogoratzekoa da *-rean* ablatibo zaharreko atzizkiak Bermeon dauen bizitasun apurra (bertako eran, *-rien*). Halan entzuten dira: *arien* (*harean*), ‘apur bat’, edo *poparien* (*poparean*), ‘atzeko mandatik’: *poparean dator haxie* (itsasgintza-hizkera).
- 4.4. *Pertsona-izenak* batzu-batzuetan *-a* mugatzaileaz markaturik erabilten dira, Gernikaldean *Pedroa*, *Pabloa*, *Karmentoa* eta halakoak entzuten diran antzera. R. Ortuzarren *Torronteruen* antzezlanean bada andra-izen bat, *Asunsiona*, gaztelaniaz “la Asunción”.
- 4.5. *Pertsona-izenordainetan* beren-beregi aitatzekoa da *ene* lehen pertsonakoaren erabilera ugaria, *nire* barik, ingurune adierazkorretan, baina beste leku ba-

tzuetan baino sarriago eta ingurune zabalagoetan. Gizaki-izenen aurrean, hain zuzen. Sarritan, deikietan: *Merke, ene alabie!* (Oroig 19). Bestelakoetan: *Da ene atxuek esan zauen. (...) Erramuaz dxo zauen ta ene katuori dxun zan intzirike (Andra sorgiña ipuina*¹².)

4.6. Erakusleetan eta eurotatik eratorririko adberbioetan be badira bereizgarri interresgarriak.

Batetik, aurretik *a-* (*hara* aurkezlearen laburdura, aurrizki bihurturik) erakusleari eranstea, inguruetako berbetetan baino ugariago edo sarriago jazoten da. Halan entzuten da adberbioetan: denporazkoetan, *auntxe, ointxe* neutroaren orde; moduzkoetan: *aulan, holan* neutroaren orde; lekuzkoetan: *amen, aune, hemen* eta *hona* neutroen orde; kausazkoetan *aurreitxik* (aorregaitik), e.a. *Amen, aulan* ereduak Bizkai erdi zabalean entzuten dira, intentsidade bereziz erabilten diranean erakusleak, baina Bermeo inguruan kontestu zabalagoan eta ugariago, edozelan be.

Bide beretik erakusle arruntetan: *aunek* (honek), *auneri* (honeri), *auri* (hori). Adib.: *Auri da egidxe, Kose, ausi de errozoie* (Oroig 26).

Aurrizki edo erdi-aurrizki lez erabilten da *a-* hori giza izenakaz be, deiki edo bokatibok markatzeko. Halan: *Txo! Amorroi!* (Oroig 16). Ortuzarrek esapideen atze-eranskinen (Oroig 135) dinoan lez: “*A morroi!, A gixon!, A mutil! Úsanse para llamar*”.

Denpora-adberbio lez *hon, oin-en* ordaina, eta *hontxe* intentsiboa ohikoak dira.

Erakusledun izen sintagmak /*hau* + izen + *-au/* egiturakoak, *hau* da, erakuslea aurretik eta mugatzailea atzean erantsita daben izen sintagma egiturak bizkaiera osoan zabal dabilz, baina Bermeoko kasuan idatzizko erregistroan be ondo lekukotuta dagoz. R. Ortuzarrek, kasurako: *honek morroionek medikuek paño libro gehidxau jakozak!* (Oroig 24), *Zeitxik diñozu hori berbiori ba, Jose* (id. 26), *au herridxeu ein zen* (id. 27), *Hondiño handidxauek ikusko die honekaz enbra arraidxuokaz* (id. 37).

Hor etxien, hemen herridxen, han itxosuen erako egiturak, beste hainbeste, *etxe horretan, herri honetan, itxaso haretan* orokorragoen orde, nahiz bizkaieraren beste eremu askotan be indarrean egon. Bermeoko berbakeran ugariak dira guztiz horreetarikoak: *gau ta egun oten ezan die muerak indxe horretan pozu(e)tan*.

4.7. Determinatzaile zehaztugabeetan, *urlein* da aitagarri, gazt. ‘tal’. *Urlia* arauzkoren aldaera *hau*, giza-izenakaz ezeze, bizibakoakaz be bardin erabilten da, *hain, halako* erabilten diran ingurune berean: *zelan urlein lekuten Guardak berak esan dauen eurek desgustue naikue dakoiela alabiegaz* (Oroig 41).

¹² *Idazkera Ariketak*, Labayru Ikastegia, Udako Euskal Ikastaroa, Bilbao 1981, 94 or.

4.8. Aditz partizipioak

Maileguzko aditzak, lur barruan *-au* amaiera ohi dabenak, beste itsas herri batzuetan legetxe, *-a* ebaten dira Bermeon. Halan: *akorda, altza, amarra, agarra, atrapa, pentsa*.

Aditz batzuen partizipioak, maiztasun handikoak eurok, aldaera propio eta bereziak ditue. *Ezan* aldaera, *izan* orokorraren orde. *Ogon, on* aldaerak, *egon*-en partez. *Oki, okin* aldaerak, *euki* orokorrangoaren orde (*okikozu kontuen; ganarik oki barik*). *Omon, emon*-en partez (*Neuk omongo'tsut zuri*). *Otorri* edo *otor-, etorri* orokorraren orde.

Berez *-n* kontsonanterik amaieran ez daben partizipio batzuk analogiaz kontsonantedun bihurtu dira. Halan: *sartun (txalupie sartun dxaku ontxe), okin* eta beste batzuk.

4.9. *Aditzizenak*. Maileguzko aditz partizipioen (*-au* erakoen) aditzizenak *-ate(n)* amaitzen dira, lurbarruan *-eta(n)* ebaten diranak. Halan: *armaten, atrapatzen, engañateko, errezaten, gustaten, kantaten, konformaten, trankaten*. Hasi Ondarroan eta Uribe Kostaraino ebakera bardina da nagusi itsasalde osoan.

Aditzizenetan *-keran* atzizkia ugari erabili izatea da, Bermeoko berbetearena ez eze, gaur egungo bizkaierarik gehienaren ezaugarri agiri bat, sartalde bizkaieran *-keran* eta ekialdekoan *-eran*. Honen baliokideak edo hurbilak dira *-tean* eta *-terakoan* atzizkiak. Halan: *kosterie hasikeran, portora aillegakeran...* Bizkaieraren ekialderago *-eran* erabilten dan kontestu berean.

Aditz partizipioa *-ko* atzizkiak lotzerakoan, beste leku batzuetan *ekarritakoa* edo *ekarririkoa* egiten dana, Bermeon zuzen lotzen da: *ekarrikue*, Bizkaiaeren sartaldeko ezaugarria (Mungialdean be *ekarrikoa*).

4.10. *Aditzaren jokoaren* ezaugarri gitxi batzuk:

Lehenagoko jazoerak, iraganean gertaturikoak, oraineko adizkiakaz markatzea da bat, Bermeoko berbetearen ezaugarri bana-banakoa, inguru-herrietako berbetetan nekez entzuten dana. Bermeotarrez, iraganeko ekintzak oraineko aditzaz markatzen ditue hiltunek, ez beti, baina sarri be sarri. Halan: “atzo dxun nai hara, ta...”. “Aldeanue lapurretan” ipuinetik: “Ta andik billdotx ederrena, azidxena, atrapa zauen. Ta billdotxak eitze'zan'tzo: Beee!, beran murrusidzek. Da bestiek agarra'tzo...” (95). Arrantzaleak atunaz portura etozeneko pasadizua, askoz lehenagokoa, kontetako, dino kontalariak: “Atunegaz atunetatik etorten'zan danien, astebete *eztuie* itze'zan geidxau”¹³. “San Pedro santuari prozesinoa” konta-

¹³ Aritz Abaroa: “Portu eta fabrikie”. Deustuko Unibertsitaterako eginiko lana, 2006.

eran: “ta kosterie asikera mare ona okitxeko *ataten zan* santue prozesiñuen erri guztixik. Portora allegakeran erridxe *esaten zan'txo* santuri, ia mare ona okingo badauie. Eta orduen santue *eruten ezan dauienak itxen ezan daue* mobidu gorantx eta berantx, eta *pentzaten ezan dauie* baietz diñola beran mogimentugaz. Baie urte baten santue ondo zuzendu barik on da'lez, uretara *dxekusi dxakoie*.”¹⁴

Datiboagazko akordioa ez da beti edo sarritan beteten Bermeoko berbetan. *Idazkera Ariketak* liburuko ipuinetako adibide bi: “Auntxek in'got orreri benga-benga” (94). “Dxaubieri emon bi'zu, intentziñue okin'zunen dirue” (95).

Izena pluralez egon arren, aditz singularrez erabilteko joerea be badago. Halan: “Izan zan aldeanu bat, da oki zauen beran auzokuek billdotxak” (*Idazkera*, 94).

Izan aditzaren orainean *nai* entzungo dogu, handik urrun barik esaten dan *naz* barik. Eta *gariez*, lurbarruratxoago entzuten dan *gara* barik.

Izan aditza noriduna danean, beste leku batzuetan *dxako* / *yako* edo *dxake* / *dxakie* / *yake* esaten doguna, Bermeon *dxatso*, *dxatsoie* entzungo da; azken baten, *deutso*, *deutsoe* adizki iragankorren nori-atzizkiak *izan* aditz datibodunari erantsita.

Izan-edun transitiboaren jokoan, beste leku batzuetan *dabe*, *daurie*, *daude* edo *dere* esaten dana, Bermeon *dauie*. Eta iraganean, beste batzuek *eban/euen* eta *eben/ebien/euden* esaten dabena, Bermeon: *zauen* eta *zauien*.

Noridun adizkietan aitatzekoak dira 3. pertsona pluraleko adizkiak: *tsuei*, *tsoie*... Halan: “imitzen san tsuei; noixik-peñien zagidxeri be tietuko tsoei”.

Joan aditzaren oraineko adizkiak: *nue*, *hue*, *due*, *guez*, *zuez*, *duz*. Adib.: “Esan ontxe nuela” (*Oroig* 27).

Euki aditza be Busturialderik gehienaren beste era batera jokutzen dau. Oraineko jokoan, eredu jasoan *dauka* edo *dauko* dana, eta Bizkaiaren eremu zabal baten *deko* esaten dana, *dako* ebaten da bermeotarrez: *dakot*, *dako* (/ *eztako*), *dakoie* (/ *eztakoie*), *balekoie* (*baleukie*).

Tratamentu alokutiboaren erabilera ugariak berebiziko garrantzia dauka alkarriketan. *Izan* laguntzailearen alokutiboak zer-nori datibodunaz adierazoten dira, batetik; hau da: da > *jatzu*. Joera hori Bermeon agiri da beste inon baino nabaria-go. Halan: *pasa dira* solaskideari *pasa dxatzuz* esatea: “Millagrozkoko kontuek *pasa dxatzuz* Mikelan etzien” (*Oroig* 19). “Aiztie ta bidxek *hasarratu dxatzuz*, da ikusgarritzko berbak esan'tzue bata bestietxik” (id. 20). “-Inpolitxegaz *dxatzu* oin par-

¹⁴ *Bermeo* 1, 299.

te. -Zer ba? Hasarratu ein dxe Guardagaz ela? -Ez, hasarratu ez; baie *etxatzuz* ondo konponduten” (id. 35).

Edun laguntzailedunen alokutiboak zer-nori-nork datibodun joko hirukotxaz. Halan: *Mikelak oki'tsu komadien ganién zortzi perraitxik kinkallero bateri plazan erositse zerikusiko florero bat* (Oroig 20).

Aditz perifrasiá *nor-da* erako aditzaz eregia danean, barruan *behar* modu-aditza daroanean, laguntzailea *da* erakoa mantentzen da, Lekeitio eta beste itsas herri batzuetan legez. Halan: *Gixonak, neu dxuen biko nai etzerarte ur anpur bet erango badot* (Oroig 21), *porture dxuen bi'nai* (Oroig 27).

4.11. Atzizki gutxitzaile legez *-txi* aitatuko neuke, berariaz *alabatxi*, *alabatxie* berban, urrun bako herrietan *alabatxu* edo *alabatxue* entzuten danaren lekuan.

4.12. *Postposizino* batzuk be gogoan hartzekoak dira, Bermeoko berbakeran daben erabilereagaitik.

Ala, *-en ala*, norbaiten kontra ekiten edo txarto berbetan egotea adierazoteko: “Honek andra arraidxuok beti dakoie zeuzer bata bestieri esateko, edo iñon *ala oteko*” (Oroig 20).

Bille (bila), *zer bila* egitura modura erabilten da Bermeon, Mungialde eta Uribe Kosta aldean lez: “Ardaue *bille nue auna trabenara*” (Oroig 27).

Urtike, *urtika* hizkera landuan, ezaguna da honetariko batzuetan: *maldeziñurtike* (*maldezino urtika*) (BBEK 226).

4.13. *Menderakuntza* adierazoteko marka batzuk aitzatekotan:

– *Osagarri*-konpletiboetan, *ze* aurre-marka eta *-la* atzizkia batera agiri diran kontestuak ugariak dira berbaz. Halan: “Gure gixonak esan'tsu ze hobeto dala honetan gasta, botiketan baino” (Oroig 19).

– Ebidentzia esagurako aditz nagusien mendeko osagarriak *-na* atzizkiaz markatzea be guztiz agiria da. Berez sartaldeko euskera osoan dagoan joerea, eta aspaldi zaharrekoa, da hau, baina aditz nagusi batzukaz maiztasun handia dau bermeotarrez. Halan *seinalea da...* + *-na*: “Hori esan badau, seiñalie da egidxe dana” (Oroig 41). *Jakin* aditzaz erabilera askoz hedatuago dago: “Heuk dakiñe ondo, erru guztidxe berana neskatuena dana” (id. 41).

– *Zehar galderak*, bai-ez erakoak, egiteko *-nentz* atzizkia leku bakanetan baino ez dago bizirik gaur egun, Bermeo-Mundaka inguru horretan berariaz¹⁵. *Ia egidxe*

¹⁵ Neure irakasle jardueran, bermeotar ikasleen lekukotasunak baino ez ditut jaso *danentz* edo antzeko zehar-galdera adizkiak erabili edo entzun izanari buruz.

danentz! Euskera zahar eta klasikoan, eta modernoan be bai batzuen kasuan¹⁶, *-nez* atzizkia agiri da ia beti bizkaieraz, baina bizirik dagoan lekuetan, *-nentz* entzuten da, ostera. Idazle modernoen artean, Otxolua mundakarra dogu eredurik garbiena¹⁷. “Pregunte’iona, Belentzi, [diru] asko ataraten *dauienentz*” (Oroig 42).

– *Alegiazko baldintzak*, orohar gure artean *etorriko balitz* ereduaz eregiten diranak, bermeotarrez *etor balekizu* ereduaz entzuten dira; hau da, aoristoko **edin* adizkiaz eraikirik, baina zer-nori pertsona bikoaz. Adizlagun hau nork erako iragan-korretan be bardin erabilten da, zelanbait **edin-egin* laguntzaileen arteko neutralizazio prozesu baten bidez. Edozein kasutan, joera arkaizantea agiri da perifrasi egiturotan, gaur egun nagusitu diran *balitz-baleu* laguntzaile ereduaren aurka. Halan: “Da, *ikusiko balekixu* domekatan. Panparroiau dxueten da, panparroiau!” (Oroig 36). “Beren amak *entzun balekitzuz* horrek berbok!” (id. 41).

– *Kausazko* esaldiak adierazoteko *zeatxik ze* (zegaitik ze) aurre-marka ugaria da, beste leku batzuetako ikusian. “Euk dakiñe ondo, erru guttidxe berana neskaturtue-na dana ta; *zeitxik eze* zoro-zoro bat da” (Oroig 41).

5. LEXIKOGRAFIA

5.1. Lexiko-sorkuntza

Lexiko-sorkuntza arloan, eratorikuntzako atzizki batzuetan erreparatuko dogu, Bermeoko berbetek dituan bereizitasun batzuetan:

-dade maileguzko atzizkiari be Bermeoko berbetek etekin handia atera deuto. Halan entzuten dira: *artezidade*, *artezidadie* edota *erluzidade*, *erluzidadie*. (BBEK 67, 135).

-era atzizkia, neurri-adjektiboagaz, ezaguna da eratorri batzuetan leku askotan: *luzera*, *zabalera*, *lodiera*, *sakonera*... Baina *argalera*, *argalerie*, pertsona baten meheta-suna adierazoteko, Bermeon erabilten da. (BBEK, 56).

-ko atzizkia, balio hanpatzaileaz, *amako* hitzean erabilten da, *mutiko* ezagun-zabalagoak daukan baino balio hertsiazoaz; neskaiten artean agintariena dana izentatzeko: “Ez ibilli orrekaz, amakuek tiez da” (BBEK 39).

-kuntza atzizkiaren eratorri bat, *asarrakuntza*, *asarrakuntxie*, Bermeon entzun dot sarrien.

¹⁶ Urrunago joan barik, J. M. Etxeita mundakarrak bere elabarrietan (*Josetxo*) *-nez* marka zaharra darabil, ez *-nentz* berragoa.

¹⁷ Otxolua (1932): *Bertolda eta Bertoldin*. Bilbao. Berrargitaratua: Adolfo Arejitaren edizioa (1983), Labayru Ikastegia & Bizkaiko Aurrezki Kutxa.

-*te* atzizkia, euskera zabalean ‘aldi, denpora une’ esparruko eratorrietan eza-guna dana (*gerrate, gosete...*), arrantzu giroko *itsasote* eratorrian erabilten da: *Itsasotie*: itsasotea, itsasoan emoten dan aldia: *Itxasoterik ez... da hamaiketakue?* (Oroig 16).

-*za* atzizkia, zerbaiten ugaritasuna adierazoteko, beste leku batzuetan bakana-go entzuten dan eratorrietan entzuten da. Halan *axetza, haizetza* hizkera landuan, itsas eguraldiari lotuta sarri erabilten da. “Aixetza andidxe dau, eztauie itxosora urtengo” (BBEK 27).

-*zino* atzizkiaren eratorikuntza batzuk, *laguntzino, laguntzinue* esaterako, bertan entzuten da gehien.

-*zto* atzizki gaitzesgarria, Bizkai zabalean *zorritzto, lumazto* edo *sapazto* lako eratorrietan ezagunagoa dana, gitxi entzuten da Bermeotik kanpora *ardauzto* (*ardaozto* hizkera landuan) berban: “ardauztuekaz kopla gitxi” (BBEK 55).

5.2. Hitzen morfologia

Arlo honetan diran bereizgarri ugarien artean aitatzekoa da bat. Bizkairik gehienean *-u* amaiera daben berba askok, beste itsas herri batzuetan legez (Ondarroa kasu garbia da), *-o* egiten dabe bermeotar askok. Halan: *amo batzuk* (amu), *diro barik, a dirotxue* (diru), *dozena bete karretero* (karreteru), *leko* (leku), *trakero* (trakeru), *portora* (portura). Halanda be, *portu* eredu orokorra be erabilia da: *Porture otorri* (Oroig 15).

Hurrungo edo *hurrunguen*, ereduizko *hurrengo, hurrengoan* formen ordeiz, ohikoak dira Bermeon, baina baita beste bizkai paraje askotan be.

Igiri, edegi (idegi) aditzaren aldaera horko berbetearen ezaugarri agirienetari-koa da: *igiri'zu atie*.

Imie, lurbarrukoen *umie* eraren lekuan (*Onie imiok eztakoie errurik*).

Indxibabak (indibabak) esaten da, lurbarruan zabalago dabilzan *inddabak, indidxabak* ereduon ordeiz.

5.3. Lexiko berezia

Lexiko bereizgarri edo bakana adierazoten daben hitzak badira Bermeoko berbetan. Ez berbok bertan bakarrik erabiliak diralako, ezpada bertan ohikoak eta zabal dabilzanak izanik, handik kanpora bakan edo mehatsago entzuten diralako. Kategoriaka zerrendatuko ditugu batzuk.

5.3.1. Izenak

Alba, ‘goizaldea’ esateko, berba ezaguna izanik, hedadura handikoa da Bermeen. *Albatakue* (*albetakoa*) esaten jako albako kanpaiari: *albatakugaz batera arimek euren mundure dxuten diez* (BEEK 34). *Albako arraiñe* deritxo arrain mota bateri be. Urdaibaiko kostaldean errefrau ezagun baten ardatz da berba hau: *Alba gorri*, *aixe edo euri*, aspaldi zaharretik *Goiz gorri*, *arrats euri* danaren ordainez.

Andana, *andanada* eta *andanakorridxe*, ‘abiadura’ adierazoteko berbak dira, adizlagun modura sarriago erabilten dana: *andan*, *andan*, *andanakorridxen* (BBEK 45).

Atapostako atie, ‘portaleko atea’.

Baltzu, *baltzuen*, ‘aldran, batera, alkartasunean’ adieraz: *Baltzuen ibil gara*. Itsasaldeko herri batzuetan (Bermeo, Lekeitio) ugari erabilia. Gudu aurrean esanguraz erabarriturik ‘merkatal edo ekonomi alkartea’, gazt. ‘sociedad (mercantil)’ esangureaz bizibarritu zan eta halan erabili eben J.B. Eguzkitzak eta, oraintsuago E. Erkiagak legez. Berba honen esangura-barritzea ondo garatua izan dala esan daiteke, ondoren jarraierarik euki ez badau be.

Eguerdi, *eguerdidxe*, ‘bazkaria, eguerdiko jatordua’ adierazoteko erabilten da Bermeo-Busturia inguru horretan: *Mikolas, dxan da eguerdidxe (a)la?* (Oroig 26).

Gozo, *gozue*, ‘gozoki’ esangureaz: *Ez, enai dxuengo [eskolara], gozue ezpozu emoten* (Oroig 35).

Kikimera edo *kikumera* (*ein*): must, musuger (egin); “zambullirse de cabeza en el agua” (Oroig 139): *Ta [indxebabak] ondure dxeten badie be, kikimera eindxe atrako taz* (Oroig 25).

Manda, lurbarruan *alderdi* edo *parte* esaten danaren ordainez: *hango mandatik, beste mandatik, lagun bi handiko mandan*.

Matrailu, *mailu*-ren orde.

Proportzino, *proporzino ona*, ezkongai tratuetan ‘un buen partido’, gaur nekeza-go entzuten dana: *aur dakona proporzino ona alabientzat!* (Oroig 36).

Soidxe (soia), ‘calva’: *buruko soidxie agiridxen dauela* (Oroig 17). *Soidxe labana*: ‘calva’ (Oroig 143).

5.3.2. Izenondoak

Aistie, *aistiori!* Kokolo, lerdo edo buru gitxiko jenteari deitzeko.

Artekadu, lurbarruko *artega* eraren lekuan: “Gutziz *artekadu*, gixona etorteko desietan egon nai”.

Kondutebako (kondutabako), ‘portaera txarreko, ospe txarreko’: “desgustue naikue dakoiera alabiegaz, *kondute bako* mutillekaz dabillekako” (*Oroig* 41).

Mantar, zorri, txiki, ezerez: “ime *mantarrantzako* dakataz [arraiñek]” (*Oroig* 19).

Totolodi adjektibo konposatua, *totolo* + *lodi* sinonimoez osatua, Bermeon entzuten da: “gure imie *totolodixue* da”.

Zantar, bizibako izenei buruz, gizaki edo bizidun ez diranei: “Zelako amuek etxen’zak hik pe! (...) Zer ba, *zantarrak* dozak ela?” (*Oroig* 17).

5.3.3. Aditzondoak

Igalenien: igazlehenean: orain urte bi.

Kalinpan (*ibili*): ezer egin barik kalean ibili: *egun santo guztidxen dabil kalinpan* (B. Bilbao: Bermeo 195).

Korridxen: korrian, arrapaladan, arineketan.

5.3.4. Aditzak

Akometidu, ‘zerbaiten arrazoia edo atxakia ipini’, gazt. *alegar*, *objetar*.

Akorda, ‘izartu’ esangureaz, zabal dabil Bermeon ezeze, Gernikalde osoan. Halan: “Akorda naienen berandu ezan da” (*BBEK* 29).

Bidxortu (bihortu), ‘retorcer’, bizkaieraren erdialde osoan lez: “Hestiek pe *bidxortute* dakoaz” (*Oroig* 25).

Etxamon: ‘ez jaramon’, ‘kasurik egin ez’: “Baie... *etxamoidxok!*” (*Oroig* 25).

Igaro, “garraiatu” esangureaz ezaguna da oraindino be leku batzuetan, baina gero eta gitxiago entzuten da. Bermeon: “Atunek *igaro*, karrutan be bai karrete-ruek”.

Igiri, bizkaieraz ereduakoago diran *edegi*, *idegi*, *iregi* edo *irigi* barik.

Imiñi, *imindxe*, beste aldaera batzuk (*ipini*, *ifini*) barik.

Saka in, “sakatu, bultz egin” adierazoteko: “ia andraka, bajatu bera, oneri *saka ein* bi’dxatzo ta”.

Ten egin: tira egin.

Zatibitu esaten da, beste leku askotan *erdibitu* esaten dan zentzun berean: “Hori etzie *zatibitxute* dau, len bat ezan da dana” (*BBEK* 349).

5.3.5. *Kantidade-izenak*

Anpur, *apur* orokorragoaren orde: “erueik itzosora jakin anpur bet da obi zati bet bakarrik” (*Oroig* 15).

Tindi edo *tinditxu*, ‘apur, pitin, pixka’ esangurakoa, baina batez be edatekoak: “Bota ardao tinditxu bet. Ekarri salda tinditxu bet”.

5.4. Erregistroak

Erregistro diferenteak erabilten dira Bermeon. Bertako zaharrek hiru berbeta modu bereizten ditue bermeotarren euskeran, lehengo belaunaldietan behintzat: arrantzaleena, lehorrekoena eta baserritarrena, gaur egun, bizimodu aldakuntze-agaz, nahastauta eta zirriborrotuta badagoz be. Ez da ahaztu behar, itsasotik bizi izan diranak nagusi izan badira be, lehorrekoen gizartea be ugaria izan dala: den-daritzatik, kontserba-industriatik eta beste zerbitzuetatik bizi izan diranak. Eta hirugarrenik, nekazaritzatik bizi izan diran auzoek be inguru zabala hartzen dabe, hasi Mañutik eta Almikara, Busturigaz bat egiten daben auzune eta baserrietaraino.

5.4.1. *Arrantzaleen hizkerako berbak*

Itsas eta arrantzu esparruko berbak, arrantzale mundukoak, ugariak izan behar ezinbestean Bermeoko erregistroan, arrantzatik eta itsasotik bizi izan dan herria izanik. Ondorioz, zentzun figuratiboko hitzetan be itsas etorrikoak dira nagusi. Ere mu horretako berbak, Bermeon ezagunak diranak, beste itsas herrietan be antzera erabilten dira. Hasi Mundakatik, segidu Elantxobetik eta Lekeitio eta Ondarroara arte, Bizkaiko partean. Beste hitz batzuk, dana dala, bereziago eta bakana-goak; bermeotarren ezaugarri, zelanbait esateko. Batzuk-batzuk aitatuکو ditugu:

Abante: aurrera eta *abante egin*: aurrera egin, itsasotiko berbea izanik, eguneroko arlo eta testuingurueta hedatu da: “Kotxie abante dako” (BEEK 15).

Apaixo, *apaixue*, itsas arrantzu lanabesa. *Loidxa*, *loidxie*, itsas portuetako lonjea adierazoteko. “*Loidxetan* gertatuten dire / karnada ta *aparidxuek*, / bidxaramongo egunien / prest dana euki daidxien” (*Oroig* 111).

Enkalla: ‘encallarse’. “Haren lapikuen iñoiz be ez tie barbantzuek ondure dxueten; *enkalleta* oten die okela zatidxen ganien” (*Oroig* 25).

Tertzak (*bota*).

Txikota: “paparduri aulan burotik txikota sartun, da garrizik eskeitze etzerako”.

Ezta zertan gogoratu, berba honeatariko askok, euren lehen esangura zuzenaz gainera, zentzun figuratiboa be gorde ohi dabela, lexikoaren joera edo lege unibertsalei darraielatzen. Ez dira gitxi *arrain* hitzaz osaturiko alkarketa edo eratorakuntzak: *arrain baltza*, *arrain berdie*, *arrain gorridxe*, *arrain zuridxe*, *amu arraiñe*, *aretzako arraiñe*, *atzako/atxako arraiñe*, *bits arraiñe*, *erreka arraiñe*, *ondoko arraiñe*, *sare arraiñe* edo *terza arraiñe*. (cf. Leire/Jabier Arenal).

5.4.2. *Baserri giroko hiztegia*

Baserri edo *nekazari* giroko berbak be ugariak dira Bermeoko berbetan. Ez da ahaztu behar, portuaz eta uri barruko gizarteaz ganera, baserri-inguru zabala dauela Bermeok, Matxitxako inguruetatik hasi eta Solluberen ipar aldera arlo zabalak hartzen dituana. Bat edo beste aitatzeko:

Aidxen, *aidxena*, hizkera landuan *aihen*, *aihenak*, horrez landako eremuetan entzuten da: diru kontuan. *Aidxena bero dako horrek*, diru asko daukala esateko. (BBEK 23). Itsas munduan be bai, arrantzaleen artean be bai: portuan ontzia amarretako leku propioari be *aidxena* esaten jako: *Untxidxe aidxenin dau amarrata* (Leire Arenal¹⁸). *Zokil*, pertsona torpeari esateko erabilten da: *Zokille lez dxan*, *zokille lez ibilli*, *da zokille lez ilko da* (BBEK 354).

Eguraldiaren eremuko lexikoa da beste esparru aberatsetarikoa Bermeoko euskeran; bertako bizimoduan itsasoaren eta zeruaren hasarre-barealdien pentzuan bizi izan diralako arrantzaleak eta euren familiak.

Haize izen batzuk aitatzeko ditut: *aixe frankue*, popadako haizea, nabegateko ondo datorrena; *aixe freskue*, hozkirri antzekoa; *barruko aixie*, hegotik jotzen dauen haizea; *herriko aixie*, hegotik datorren haize beroa; *trabeseko aixie*, trabesetik datorren haizea (cf. Jabier Arenal).

Afrontue, ‘denpora zakar euritsua, haizeak gogor jotzen dauela’, Bermeon ez eze, inguru zabaletan be hitz ezaguna, *afruntu* aldaereagaz. Baina *afrontosue*, *afruntuari* jarki edo aurre egiteko kapaz dana, bapora edo pertsona, berbertako berbea da: *ez da kapaz arpeidxe emoteko afronturi*, *ez da afrontosue* (EBBK 20).

5.4.3. *Euskera zaharra*

Euskera zaharraren errastu batzuk be idoro ditugu bermeotarren berbetan. Harritzekoa dala pentsa leiteke, uri bateko berbetan, endemas uri nagusi bateko-

¹⁸ *Bermeoko arrantzaleen lexikoa* izeneko eskola-lana aurkeztu eustan orain dala urte batzuk Deustuko Unibertsidadeko Euskal Filologian ikasle nebala. Beronen informatzaile nagusia, aita izan eban: Jabier Arenal.

an, arkaismotzat jo leitekezan berbak edo esakerak entzutea. Baina Bermeoren kasuan agiri-agiriko ezaugarria da. Frogagarri gitxi batzuk garanduko ditugu.

Izen berezien artean, *Doneperi* eta *Doniene* aitaturko neukez. *Eneperi*, oinarrian *Doneperi* izen bera dogu, gerora *San Pedro* gaztelaniazkoak estaldu dauen euskal izen zaharra. Deustuko parroki-eleizea be *Jandone Peri* zan antxina, gaur *San Pedro* dana. Bermeon, fosilizaturik baino ez bada be, hitz zaharrrak bizirik iraun dau. Bagilaren 29ko ospakizun egunari *San Pedro egune* esaten deutse, dana dala. Gaztelugatxerako erromeri egunari *Doniene* esaten jako gaur egun be.


Akulekei, *akuleidxek* (akulekeria) entzuten da ‘atxakia, atxakiak’ esangureaz. *Beti zabilz zu akulekeidxetan*. / *Akulekeidxek takoz orrek, dauen lekotik ez altzateko* (BBEK 29). Bizkaiera klasikoan irakurten dan *akiakula* berba bera da, *-keria* atzizkiaz lagunduta.

Alamen, ‘burukomin, buruauste’ esangureaz Bermeo eta hurreko herrietan entzuten da. *Ala* berba zaharkitua dogu hor, *tripalak* edo *burukoala* konposatuetan behin edo behin entzuten dana. Kasu honetan *-men* atzizkiaz eratorririk: “Zelako alamena emon dost ba, neure kulpie ezan balkide lez” (BBEK 32).

Aldabatera, beste leku askotan *era batera* edo *batera* esaten dana adierazoteko, tradizioan ondo lekukotua dagoan adberbioa da; klasikotzat dagoan berbea, azken baten. “Indxarrak aldabatera emoten baduz, ariñau eingu” (BBEK 35).

Ordi eta *ordirik* berbak, ‘mozkorra’ eta ‘mozkortuta’ esangureaz erabiliak dira Bermeon¹⁹. Ama batek goizaldean etxeratzen dan semeari edo alabeari esatea, kasurako: *Ordixe dakozu zuk*. Edo: *Ordirik zatoz*. *Ordi* berbea ‘mozkorti’ esangureaz eta adjektibo kategoriaz agiri da batez be tradizio idatzian. Bermeoko berbakeran, edanda egoteari egozten jako berbea.

¹⁹ Andrazko bermeotar biri batu deusiet berba hau 2013ko irail-urrietan: Euskal Filologia ikasle dudana Nagore Garaioa Madariaga neskato ikasleari eta Abeliñe Erasquin andreari.



Zereñekidxen eta *zereñekidxon* be erregistratu dira (BBEK 351). Egitura izoztuon atzean, *zeri nakion* dogu; *ekin* aditzaren adizki jokatua lexikalizaturik: ‘zerbait egi-tearren lanean jardutea, konturatu barik zeozertan ekitea’ adiereaz: “Zereñekidxon zereñekidxon, dxan da dxan, da biberak akaba”. “Aiuntamientuen be alan oten diez, zereñekidxen biharrien”.

Zurtu, *zurtuta* (*egon*, *euki*), ‘gogortu’ (hotzaz) esangureaz: “Zurtute dakotaz [atzamarrak] hotzan pasiñuegaz” (Oroig 34).

5.5. Lokuzinoak

Lokuzinoen eremuan, era diferenteetakoak dira Bermeon be. Batzuk, orokor-ragoak, beste batzuk itsas girokoak. Daben adierazkortasun indarragaitik hautu ditudan gitxi batzuk.

Agoniko kanpaien bidien imini ‘heriotzarako puntuan’: “ostantzien (andrak, zeuek ezango zarie testigu) agoniko kanpaien bidien imingo zaitxut” (Oroig 46).

Ai ene kantsie!, ‘ze kantsauta nagoan’. *Kantsa* aditza adjektibo kategoriaz: *kant-sea*. (Oroig 39).

Aixarra, itsasoko harra berezko esanguraz, baina neskatila polit dotorea esateko.

Alabatxi!, *-txi* atzizki hipokoristikoaz osoturiko izen adierazkorra, dei-hitz legez erabilia.

Amatxarridxen semie! Harridura esaldi barruan irain modura erabilitako segida.

Agoniko kanpaien bidien imiñi: zigor gogor baten mehatxua egin (Oroig 135).

Artazidxek zorrozututen on: barriketa hotsean egon. “*Artazidxek zorroztu*: murmurar, criticar” (Oroig 136).

Auen kurtziegaz itxi. Beste leku batzuetako: *ago bete hazurregaz itxi* esamoduaren kidea.

Bestelako (suertie), ‘menuda (suerte)’. Bizkai erdialdean zabal dabilen harridura esapidea.

Burue atrapa. “Zentzuna galdu” adierazoteko.

Ederto sagardaue! Hau da, ‘Ez daukazu akordu makala!’ esapidearen baliokidea.

Hau da elorridxue! Hau da lorra, atsekabea, nahigabea. Mogelegan du lehenengo lekukotasuna esapide honek.²⁰

²⁰ J.A. Mogel, *Peru Abarka*: “Jakiten badeutsu atsuak, osatuten bada, ikusiko dituzu elorrijokuak”.

Operak ikusi, ‘inon diranak ikusi’ esapiderearen kidea: “Gure etsien operak ikusko die gaur ba!” (*Oroig* 37).

Itsas munduari lotutakoak ugariak dira ezinbestean. Adigarritzat, honakoa: *Atunzarra* (atun zaharra), lurbarrukoek *txakur zaharra* edo *azeri zaharra* esango leukiene, edo Mogelen berbaz *askojakina* adierazoteko: trikimailu guztiak dakizana. Bermeoko berbetan, arrain-izen baten gainean.

6. BERMEOKO BERBETEAREN KIDETASUN BATZUK

Dialektologiaren aldetik Bermeoko berbetea Urdaibai aldeko sistemearen barruan sartzen dala bat datoz, hasi Bonapartegandik eta ondoko dialektologo guztiak. Eguraldiaren inguruko berba batzuk lekuko: *iñetasidxe* (inetazia), *txindxorra* (txingorra), *truboie* (trumoia), *truxuek* (truxuak), *illuntxie* (iluntzea).

Gitxitan egiten dan oharpena da, ostera, Bermeoko berbeteak Sollubez beste aldekoagaz daukan kidesuna, Uribeko merindade zaharrekoagaz, hasi Emerandotik eta Meñaka, Larrauri, Mungia eta harago. Izan be, mendiak eta mendikateak ez dira gure artean muga edo harresi izan hainbestean, igaropide be izan dira, eta ondorioz alkartasun eta hartuemon bide; itsas herrien arteko hartuemonen eta kidesunetan itsasoa bera izan dan legetxe. Esan leiteke, ibaiek eurek baino gitxiago bereizi izan dituela herriak eta lurraldeak kasu askotan.

Bermeok Uribe aldeaz izan dauen hartuemonaspaldi zaharrekoa da, Sollubeko portutik atxina doan errepideari eskerrak, Bermeo Bilbogaz eta haragoko goi lautadeaz lotzen dauen errepideari eskerrak. Horren bitartez Mungialdeagaz, Txorierrigaz eta Bilbogaz aspaldiko hartuemonak euki dau Bermeok, arrainaren eta beste merkatalgai batzuen iragotea arrazoi dala.

Eta aldi berean itsasoz be jagon dau Txorierraren kostaldeagaz hartuemon hori, batez be Bakio, Armintza eta haren segiko herriakaz.

Edozein modutan be, hainbat berba eta esakera dira Bermeoko berbetan, Mungialderantz be erabilten diranak, baina Gernikalderantz nekez entzuten diranak. Dinogunaren erakusgarri sendoa da *asau* hitza, *asago* hizkera landuan, ‘urrun’ esateko: *Ez dxun asau, berandu da-ta!*. Berba hau Gernikaldean nekez entzuten da, baina Mungialde eta Uribekosta osoan ez da besterik erabili izan: *asao* eta *paraje*, ‘urrun’ eta ‘hur’ esateko. Berba esanguratsua, aldi bateko bermeotarren berba- eta osterantzeko hartuemon bideak argitzeko.

Abrozidu, ‘gogaitu, aspertu’ esangureaz Mungialdean legetxe esaten da Bermeon: *abrozidute nau hemen itxaroten*.

Dxusturie, *justuria* euskera landuan, esaten jako oinaztuari, Uribe Kosta aldean bardin esaten jakona.

7. ERANSKINAK

7.1. Ana Juanita I

Bermeo 1981

1

Untzi bi agertu zirian / Santa Manterion parian.
–Nere anadxia etorriko da / batian edo bestian.

2

–Nere anadxia, ze barri dezu / Motriku erri onian?
–Berriak onak, berriak txarrak / Ana Juanitan gainian.

3

Ana Juanita ezkonduzen da / amaren d'aitan bozian
amaren d'aitan bozian eta / bere desborondatian.

4

–Despedidako gabien bere / txorruetara gainian²¹,
urragorritzko dxodxia bere / imiñi notsan bularrarian.

5

Bateorrek agur, bestiorrek agur, / alan despedidu gainian.
Eguna bi'zan seiñaladua²², / Santa Luzia gabian.

6

–Galai gaztia, neiku al dezu / gab'onetako koplarik!
Nere senarra daukat entzuten / kuartoko bentanillatik.

7

Zure semia besuan daukat, / senarra aldamenian;
orain tertzio txarra d(o)u eta / erdu tertzio onian.

8

Orain il bere ein nozu eta / enterra naizu lurrian,
enterra naizu lurrian bere, / Birjiña Amaren aurrian.

²¹ *Txorruetara ginian*: iturrira, uretan (joan ginan).

²² *Bi'zan*. Esanguraz argiago: *be zan*.

9

Urragorritzko iru-lau letra / imin'idezu sepulturian.
arek letrak esango dio / zegaitik nagon ni lurrian.

7.2. Ana Juanita II

Bermeo 1982

1

Untzi bi agertu zirian / Santa Manterion parian.
Nere anadxia etorriko da / batian edo bestian.

2

-Neure anadxia, ze barri dezu / Motriku erri onian?
-Berriak onak, berriak txarrak / Ana Juanitan gaiñian.

3

Ana Juanita ezkonduzen da / amaren da aitaren bozian,
amaren da aitan bozian eta / bere desborondatian.

4

-Despedidako gabian bere / txorruetara giñian,
urragorritzko dxodxia bere / imini notzan bularrian.

5

Batiorrek agur, besteorrek agur, / alan despedidu giñian.
Eguna be zan seiñaladua, / Santa Luzidxa gabian.

6

-Galai gaztia, neiku al dezu / gab'onetako koplarik?
Nere senarra daukat entzuten / kuartoko bentanillati.

7

Zure semia besuan daukat, / senarra aldamenian;
orain tertzio txarra du eta, / erdu tertzidxo onian.

8

-Orain il bere ei'nozu eta / enterra naixu lurrian,
enterra naixu lurrian bere / Bitjiña Marian aurrian.

9

Urragorritzko iru-lau letra / imiñ'idezu sepulturian.
Arek letrak esango dio / zegaiti nagon ni lurrian.

Lekukoa: Luzia Bilbao. Bermeokoa. 71 urte (1981).

Biltzaileak: lehenengo bertsinoa, Lutxi Larreategi Erkorekak, 1981eko abenduan. Bigarrena, Josu Penadesek 1982. urtean.

Josuk aurretik be batuta eukan balada hau baina grabazinoz barik. Ha eta hemen jarri doguna konparatuta aldaketaren batzuk bada-goz. Hona hemen: 1. “- Galai ederra neiku al daukat / senarra aldamenian”. 2. Zortzigarren ahapaldiko “Orain il bere ein nozu eta / enterra naixu lurrian” lehenengo batualdikoa da. 3. “Birgiña Amaren aurrian”. 4. “Iru letra imingo dezu / sepulturako ganian”.

Bibliografia: Adolfo Arejita: “Ana Juanita erromantzea” (1), *Idatz & Mintz*, 6 zk., 1983, Bilbao, Labayru Ikastegia, 16-17. or.

7.3. Marijesiak I

Bermeo 1982

1

Nazareteko tenpluan deuku / dama eder bat jarririk,
ixena bere Maria dauko / graziaz adornaturik.

2

-Abe Maria graziaz betia, / Jauna da zeugaz andria²³,
andra guztijen artian bere / zara zeu bedeinkatia.

3

-Atiak eta zerraja(k) pere / barrutik daukadaz itxirik.
-Ez ikaratu, donzella ederra, / emen ez dator gizonik.

4

Aingeru San Grabiela dator / gizonen formaz jantzirik,
ixena bere Maria dauko, / graziaz adornaturik.

²³ Zeugaz: “zoiaz” entzuten da.

5

-Aingeru ederra, zeuzer daukazu / zerutik enbajadia?
-Barri au ona, berria txarra, / zerutik enbajadia.

Lekukoa: Luzia Bilbao. 72 urte (1982). Bermeokoa.
Biltzailea: Josu Penades.
Biltze-data: 1982ko apirila.

7.4. Marijesiak II

Bermeo, 1982

1

Abendua santua da ta / eldu da denporia
gustiyok adora deigun / Kristoren jaietzia.

Maria Jesus, Jesus Maria, Abe Maria. Amen, Amen, Jesus.

2

Gabonak dira eta / edegi idaxu atia,
geuk be ikusi daigun jaio dan infantia.

Abe Maria, Jesus Maria, Abe Maria. Amen, Amen, Jesus.

3

Gabeko amabietan / emoten daben orduan
geure salbagillia / etor da mundura.

Abe Maria ...

4

Belengo portalian / lastotxu biyan ganian
yaio da Jesus ume / ganado artian.

Abe Maria ...

5

Izar diratzillia / gabaren gaberdiyan
agertu zan zeruan / Jesus jaio zanian.

Abe Maria ...

6

Astua eta idia / daukaz aldaminian
Arnasa(z) berotzeko / otz dagoenian.

Abe Maria ...

7

Astuak arnasia, / idiak arnasia,
biak berotzen dabe / jaio dan seintxua.

Abe Maria ...

8

Oillarrak in daban / Belenian kukurruku
Kristo jaio zanian / gaberdi gaberdian.

Abe Maria ...

9

Gaberdi gaberdian / sortu da mirariya,
Belenengo estalpian / jaio da eguskija.

Abe Maria ...

10

Otzaran ikaraz dago / jaio dan umetxua,
aren amak dirautso:/ Ixi, neure semetxua.

Abe Maria ...

11

Ze u billoizik egon arren, / ez zara zeu pobria,
zeruan josirik dago / zeuretzako erropia.

Abe Maria ...

12

Nor ete da, zer ete da, / erropiaren joskillia,
Andra Santa Isabela, / santa joskillia.

Abe Maria ...

13

Maria Santiximia, / edigi idazu atia,
geu(k) be ikusi deigun / jaio dan infantia.

Abe Maria ...

14

Edegi dira zeruak, / ate urregorrikuak,
eta arekaz batera be / izar ditzarezkuak.

Abe Maria ...

15

Emoizu emongo baizu, / emongoizu nai badozu,
aixia be otza dago ta, / laguna be urritxu.

Abe Maria ...

16

Emen ezpadau ezer, / guazen beste batera,
Jaungoikua dagon lekuan / ezer ezta falta.

Abe Maria ...

17

Zeure emokaiagaitik / eskerrik asko, Jaunak,
ta gabon zoriontsuak / bemoskula Jaungoikuak.

Lekukoa: Madalen Arenaza, 43 urtekoa. Bermeon jaiio ta bizi.

Biltzailea: Arazeli Uriarte.

Biltze-data: 1982-1-27.

Oharra. Eskean joateko koplak dira.

7.5. Marijesiak III

Bermeo, 1982

1

-Abe Maria, graziaz betia, / Jauna da zugaz, andrea,
Andra gustien artian bere / zara zeu bedeinkatia.

2

Nazareteko tenpluan dago / donzella eder bat jarririk,
izena bere Maria dauko, / graziaz adornaturik.

3

Atiak eta zerraja(k)pere / barrotik daukoz itxirik,
- Ez ikaratu, donzella ederra, / emen ez dator gizonik.

4

Aingeru San Grabiela dator / gizonan formaz jantzirik,
Jaungoikoan ama izaterako, / badezu borondaterik?

5

- Borondatia badaukat baiña, / ez daukat merezimenturik.
- Merezimentu daukazulako / zakodaz eskojidurik.

6

- Aingeru ona zeuk zer dakazu / zerutik enbajadia?
- Umildadia, karidadia, / Jaunaren borondatia. (bis)

Lekukoa: Madalen Arenaza, 43 urtekoa. Bermion jaio ta bizi dana.

Biltzailea: Arazeli Uriarte.

Biltze-data: 1982-XII-27.

7.6. Lapur famatua

Bermeo, 1982

1

Berso berri batzuak / biar dodaz jarri
munduko kriaturen / eskrementugarri.

2

Tranze estu onetan / gustiz nago larri,
nere pasadizua / esan bier dot garbi.

3

Neskatxa bat motibo / izan da guztia,
amairu personari / kentzeko bizia.

4

Benganza orrekin, ba, / gau triste batian
puñel eta trabuko / artu nik aldian.²⁴

²⁴ *hartu nik*. Bersino zaharrean, beharbada: *harturik*.

5

Loturik nenguala / etxian kantoian,
derrepente gero sartun / beraren etzian.

6

Afaltzen an ziraden / senar-emaztiak,
ezkonberriak eta / ziraden gaztiak.

7

Ez ziaten ematen / penarik iltxiak,
suerte onan begira / zegozen tristiak.

8

Lelengo bos(t) puñalade / emanik berari,
ez Jesusik ez amen / juin zan mundutik.

9

Senar tristia zegoen / andreari begira,
baia nik ezin kendu / aukena erida.

10

Berari tira nion / petxuaren erdira,
orain zer pasatu zan, / esanda egia²⁵.

11

Senar eta emazte / sukaldian biak
an gelditu ziraden / derrepente illak.

12

Ez, izen baziraden / sano eta fiñak,
anima nola zer pasauten da / txarto dabillanak.

13

Aziñuau eginda / urten nion etxetik,
altoska justizie / aziñoan atzetik.

14

Tira eta tirtetu / nik berriz gogotik,
lau gizon tiro bategaz / an ziran edori.

²⁵ *Orain zer pasatu zan. Zentzua argiago legoke: Horra zer pasatu zan.*

15

Ainbeste eriotza / gau baten egiñik,
kristaun kaltien diena / norbera(k) jakiñik.

16

Ixan bazan sikan, / motiboa izan balu,
orregaitxikan orain / biok bear du galdu²⁶.

17

Neuri ezik eman ez da²⁷ / besteakin ezkondu,
orrexek ematen dost / biotzian damu.

18

Urtebete osuan / beti lapur egin,
batzuetan kamiñon, / bestietan mendin.

19

Ainbeste eriotza / gaiñera nik egin,
ez dakit oin zer pasa / ingo dan nirekin.

20

Luzifer laguna da, / zeruan azia,
pekatu bategaitxik / dauko infernua.

21

Niri au egin eta / gizi bat munduan²⁸
ez dakit niretzako / zer pagu daguan.

22

Zaldiraren ganian / gizon armatua,
abiatu naizela / lapur famatua.

23

Atzetikan banoia(n) / nok arrapatua,
baia eukitxen nion / nok ezkutatua.

²⁶ *Behar du: behar dogu.*

²⁷ *Neuri ezik eman ez da.* Esanguraz: *Neuri ezetz esan eta.*

²⁸ *Gizi bat: gezi bat, aldi labur bat; gezi baten, denpora apur baten.*

24

Aitak erabagi eustan / nere sententzia,
arrapatu ezkerro / kentzeko bizia.

25

Abisu au artunde / urrengo egunsentian
partidiak arrapa / nion ni erdian.

26

Lelengo neure guardiek / bi bakarrik ziran,
balerosoa izenaitxik / umildatu nitzan.

27

Bi balazo nituan / beso eta buruan,²⁹
odola bazigoan / iturri moduan.

28

Neure trabukuori / disparatu nuan,
bi soldadu gaiñera / eridu nituan.

29

Ailegatu naitzenian / neronen errira,
jentia bazan franku / neoneri begira.

30

Ia nere gogoko / lotsa ta larria
anima kaltean, zelan ein dodan / ainbet pikardia.

Lekukoa: biltzaileak ez dau zehaztu. Seguru antzean, Luzia Bilbao.

Biltzailea: Josu Penades.

Biltze-data: 1982.

7.7. Ama Birjina Arantzazukoa

Bermeo

1

Neure Ama Birjiñe / Arantzazukue,
Erredolek erre dotzu / zeure komentue.

²⁹ Balazo: "badezo" entzuten da.

2

Karlosek badauko / Bizkaiien teilarik,
Etzara zu egongo / komenturik barik.³⁰

.....

.....

3*

Opillek erreten dagoz / Erregiñarentzat,
Etza tremesik bere / Karlos Kintorentzat.

Lekukoa: Emeteria San Nikolas, 80 urtekoari entzunak. Demiku auzoa, Bermeo.

Iturria: «Romances euskéricos de Aranzazu». Archivo de Aranzazu XV-27, p. 71.

8. BIBLIOGRAFIA APUR BAT

ALKARLANEAN (1981): *Idazkera. Ariketak*. Udako Euskal Ikastaroa. Ariketak -4. Labayru Ikastegia. Bilbao.

Bermeo: udalerrri eta itsasoko gaiei buruzko aldizkaria. Bermeo: Bermeoko Udala, Kultur Batzordea.

BILBAO, Begoña (2002): *Bermeoko berba eta esamolde kresaltsuak*. Bermeoko Udala. Bermeo.

ORTUZAR, Robustiano (1925): *Oroigarriak. Ortuzar'tar R. abadeak Bermeoko Arrantzaleen Bizikeraz Eraturiko Antzerkiak*. Gaubeka irarkolea – imprenta. Bermeo.

³⁰ Bersino hau, kantatu eta batu izan zaneke berbetara ekarriarik dago: *Arantzazukue, erre dotzu...* 2. koplako azken bertsoa: *komenturik barik*, sortu izan zanean baleiteke beste honetara izatea: *komentu bagarik*.

LAS FUENTES VASCAS DE LA *IDEA*
DELL'UNIVERSO DE LORENZO HERVÁS

Josu M. Zulaika Hernández
Eusko Ikaskuntza

LABURPENA

Iturri euskaldunak Lorenzo Hervásen *Idea dell'Universo* obran

Jesusen Lagundia Espainiako Inperiotik egotzi zutenean 1767an, Aita Santuen Lurraldeetan elkartu ziren (euretariko hainbat misiolariak). Hala bada, Lorenzo Hervásék erraztxoago bildu ahal zituen erbesteratutako lagunengandik hizkuntza askotako datuak. Lortutako argibideekin, 1784-1787 urteetan, *Idea dell'Universo* lan entziklopedikoaren barnean bost hizkuntzalaritza aleak argitaratu zituen. Artikulu honetan Hervásék erabilitako iturri euskaldunak aztertzen ditugu, batez ere Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia eta erbestean bizi ziren eta izenez ezagutzen ez diran Lagundiko beste kide euskaldunen ekarpenak.

Gako-hitzak: euskara, Lorenzo Hervás, 1767ko Berrespen Pragmatikoa, Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia.

RESUMEN

Las fuentes vascas de la *Idea dell'Universo* de Lorenzo Hervás

La expulsión de los jesuitas (muchos de ellos misioneros) del Imperio español en 1767 y su consiguiente concentración en los Estados Pontificios, facilitó la tarea de Lorenzo Hervás de recabar de entre sus acompañantes en el destierro datos de muy diversas lenguas. Con los materiales recopilados, Hervás publicó entre 1784 y 1787 los cinco volúmenes lingüísticos de su obra enciclopédica *Idea dell'Universo*. En el trabajo que aquí presentamos estudiaremos las fuentes vascas de estas obras de Hervás, entre las que destacan especialmente las aportaciones de compañeros de hábito como Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia y otros jesuitas vascos extrañados cuya identidad no ha trascendido.

Palabras clave: euskera, Lorenzo Hervás, Pragmática Sanción de 1767, Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia.

RÉSUMÉ

Les sources basques dans l'*Idea dell'Universo* de Lorenzo Hervás

Le rassemblement des jésuites (en comptant des nombreux missionnaires) aux États Pontificaux s'en suivra à leur expulsion de l'Empire espagnol en 1767 et facilita ensuite la tâche de Lorenzo Hervás d'obtenir information sur plusieurs langues parmi ses camarades d'exil. L'information colligée été publiée entre 1784 et 1787 dans les cinq volumes de contenu linguistique de sa œuvre encyclopédique *Idea dell'Universo*. On étudie les sources basques dans le travail d'Hervás et on fait remarquer les apports des collègues religieux comme Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia puis d'autres jésuites basques exilés dont l'identité n'avait pas jamais vu le jour.

Mots clés: euskara, Lorenzo Hervás, Pragmatique Sanction de 1767, Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia.

SUMMARY

Basque sources in *Idea dell'Universo* by Lorenzo Hervás

When the Jesuits (many of them missionaries) were driven out of the Spanish Empire in 1767, they flocked to the Papal States. Lorenzo Hervás availed himself diligently of the exceptional opportunity thus afforded of gaining information about the very diverse languages spoken by fellow exiles. The collected material was published between 1784 and 1787 in the five volumes of linguistic content included in Hervás' huge treatise *Idea dell'Universo*. In this article we look at the Basque sources in Hervás' work amongst which we wish to underline the contributions of habit companions such as Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia and other Basque Jesuits in exile whose identity lies in oblivion.

Keywords: Euskara, Lorenzo Hervás, Suppression of the Society of Jesus in 1767, Juan Alustiza, Joseph Beovide, Juan Zuazagoitia.

Artikulua jaso / Fecha de recepción: 2014.05.12.

Artikulua onartu / Fecha de aceptación: 2014.06.05.

1. Introducción¹

1.1. *La Idea dell'Universo de Lorenzo Hervás*

Mediante la *Pragmática Sanción* de 1767, Carlos III decretó «el estrañamiento de todos mis dominios de España e Indias e Islas Filipinas y demás adjacentes, a los regulares de la Compañía [...] y a los novicios que quisieren seguirles» (Carlos III 1767: 2r). Esto implicó en la práctica el destierro de todos los jesuitas españoles, tanto de la metrópoli como de las colonias, a los Estados Pontificios. Antiguo

A nivel individual, esta penosa situación (que empeoraría cuando en 1773 se decretase la extinción de la Compañía) podía derivar fácilmente, y así sucedió en muchos casos, en la molicie provocada por una depresiva autocomplacencia. Pero también hubo quien, como Lorenzo Hervás y Panduro (Horcajo de Santiago, 1735 – Roma, 1809), optó por aprovechar la coyuntura dedicando al estudio y a la escritura el exceso de tiempo libre del que gozaban (o sufrían) los jesuitas desterrados. Hervás¹ comenzó en 1778 a escribir su *Idea dell'Universo*, vasta obra de pretensiones enciclopédicas que, a diferencia de la de Diderot y D'Alembert (y quizás por eso la escribió), pretendió basar en el saber pero siempre tratando de compatibilizarlo con la ortodoxia católica.

En 1783 empieza la tarea de recopilar materiales para la elaboración de la que será la parte lingüística de su *Idea dell'Universo*, precisamente la más valiosa y la que mejor ha resistido el paso del tiempo. Ese mismo año, Hervás (1783: 173) ya da una primera idea (todavía sumaria y provisional) del plan de su obra lingüística, detallándolo un poco más en los preliminares de su *Catalogo delle lingue* (Hervás 1784: Aviso):

¹ Queremos expresar nuestro más profundo y sincero agradecimiento a Olatz Berasategui (Loiolako Liburutegi eta Artxi- buak), Raúl González S. J. (Archivum Romanum Societatis Iesu), Brian Mac Cuarta S. J. (Archivum Romanum Societatis Iesu), José L. Narvaja S. J. y, de manera muy especial, a Josune Olabarria (Azkue Biblioteka). Sin su ayuda, el trabajo que ahora presentamos no habría sido posible. Por otro lado, avisamos al lector que hemos regularizado los signos de puntuación en los textos antiguos, tanto impresos como manuscritos, reproducidos en el presente artículo. También hemos actualizado el uso de las tildes en los textos del pasado escritos en español.

L'Autore, a compimento di ciò che in cotesto *Catalogo delle lingue* promette, pubblicherà immediatamente il Saggio de' loro elementi gramaticali [...] Insieme col detto saggio si stamperanno i Trattati dell'origine, meccanismo &c. delle lingue; de' numerali o della maniera di contare di 70 nazioni; un piccolo dizionario di 63 paroli usuali in 70 lingue; e l'Orazione Dominicale in 200 lingue almeno.

Y, salvo por lo que se refiere a los «elementi grammaticali»², Hervás cumplió su objetivo en el breve plazo de cuatro años, publicando entre 1784 y 1787 las siguientes obras (que conformarían los tomos 17 al 21 de la *Idea dell'Universo*):

1784: *Catalogo delle lingue conosciute e notizia della loro affinità e diversità.*

1785a: *Origine formazione, meccanismo ed armonia degl'idiomi.*

1785b: *Aritmetica delle nazioni e divisione del tempo fra l'orientali.*

1787a: *Vocabolario Poligloto con prolegomeni sopra più di CL. lingue.*

1787b: *Saggio Pratico delle lingue.*

Hervás no poseía especiales conocimientos lingüísticos, por lo que muchos de sus análisis y conclusiones no tenían otra base que la de la intuición, bien es cierto que lúcida y hasta brillante en no pocas ocasiones. Por otro lado, Hervás era jesuita y la necesidad de casar los resultados de sus investigaciones con los mitos de la Biblia lastró en cierta medida su trabajo. Pero todas estas rémoras no son exclusivas de la obra de Hervás, sino que son las propias de aquella su época. Donde realmente destaca la labor de Hervás es en lo relativo al impresionante caudal de datos lingüísticos contenidos tanto en sus obras impresas como en sus manuscritos; no en vano harían uso profusamente de los mismos autores tan reconocidos como Wilhem von Humboldt o Johann C. Adelung y su continuador Johann S. Vater. Como apunta Tovar (1986: 21), Hervás es «un precursor que se queda en el umbral de un gran descubrimiento, el de la lingüística histórica y comparada, descubrimiento que sin embargo ha sido preparado por sus ideas y trabajos».

1.2. *El sistema de fuentes de las obras lingüísticas de la Idea dell'Universo*

La citada expulsión de los jesuitas de los extensos dominios de la corona española y su destierro a los Estados Pontificios provocó que se concentraran allí centenares de religiosos. Muchos de ellos habían sido misioneros y eran los únicos occidentales que conocían algunas de las lenguas habladas en tierras ciertamente remotas³. Con una muy expresiva sentencia, Hervás (1787b: 55-56) decía que se encontraba «come in un'altra fabbrica di Babele». Y el jesuita manchego aprovechó «questa vantaggiosa occasione (cui non è stata nè facilmente sarà un'altra

² Tendremos ocasión de hablar de estas gramáticas manuscritas más adelante (*vid. inf.* § 5.1).

³ Y no solo por lo que se refiere a las colonias españolas, pues anteriormente también habían sido expulsados de sus respectivos imperios los jesuitas portugueses (1759) y los franceses (1762).

consimile)» para recabar «in pochi mesi» de sus «compagni Exgesuiti» datos de muy diversas lenguas (Hervás 1784: 9). De tal manera, y aunque Hervás también se valiese de las obras de algunos de los lingüistas que le precedieron⁴, es esta colaboración de sus compañeros de hábito la que realmente caracteriza y dota de un singular valor su sistema de fuentes.

El citado sistema es igualmente aplicable a sus fuentes vascas. Con respecto a las fuentes impresas, cuando entre 1783 y 1784 Hervás recopila el grueso de los materiales que después utilizará en sus obras lingüísticas, solo tenía a su disposición en Cesena, el que entonces era su destino en el destierro, la obra de Larramendi *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España* (1728). En el *Catalogo delle lingue* de 1784 hallamos un sinfín de etimologías vascas que Hervás (1784: 155-157, 203-204 y 207-233) toma claramente, al menos en parte⁵, de esta obra de Larramendi que, por otro lado, nombra expresamente: «Lo stesso Larramendi nel Libro sull'antichità ed universalità del Bascuenze o Cantabro nella Spagna, ha ben addimostrato che esso era l'antico linguaggio degli Spagnuoli» (Hervás 1784: 201).

En aquellos primeros años, 1783-1784, Hervás (1784: 201) también conocía la existencia de las otras obras impresas del jesuita de Andoain: «il dotto P. Larramendi, che piu di nessun altro ha illustrato l'idioma Cantabro pubblicandone grammatica e dizionario». Pero aún no disponía de las mismas. Esto resulta claro por lo que se refiere al *Diccionario Trilingue* (1745), ya que así lo reconoce el propio Hervás (1784: 201): «non avendo io nessun dizionario Bascuenze». Y, si aplicamos la lógica, debemos llegar a la misma conclusión con respecto del *Arte de la lengua Bascongada* (1729), pues Hervás no hubiera encargado a Beovide la elaboración de una gramática vasca si hubiese tenido a mano la de Larramendi. Creemos que solo tuvo acceso a estas obras cuando a finales de 1784 dejó Cesena para trasladar su residencia a Roma, mudanza que Hervás (1785a: 11) señala que fue precisamente motivada por su interés en acceder a las ricas bibliotecas romanas, «principalmente di quella del Collegio di Propaganda Fide». Pero para entonces Hervás ya tenía recopilados la mayor parte de los materiales lingüísticos vascos, por lo que la utilización de la gramática y del diccionario de Larramendi puede calificarse de anecdótica, haciendo únicamente uso de estos libros en las dos obras menores que publicó en 1785⁶. Así, Hervás (1785b: 116) toma del *Arte de la lengua Bascongada* los numerales vascos que utilizará en su obra *Aritmetica delle nazioni*⁷. Y

⁴ Hervás (1785a: 11) dice «aver esaminate e ponderate le produzioni d'insigni autori moderni, come del Postel, Teseo Ambrogio, Duret, Kircher, Scaligero, Leibnitz, Bayer, Gramaye, Megisero, Vossio, Pistorio, Schulze e molti altri».

⁵ Más adelante veremos que en algunos de estos casos también contó con la asistencia de Beovide (*vid. inf.* § 5.2).

⁶ Conviene apuntar que el orden en el que Hervás publicó sus obras podría no coincidir con el tiempo en el que fueron escritas, y que las dos obras aparecidas en 1787 (el *Vocabolario Poligloto* y el *Saggio Pratico*) fueron redactadas muy probablemente antes que las publicadas en 1785 (el *Origine* y la *Aritmetica*).

⁷ *Vid. inf.* § 2.1.

en cuanto al *Diccionario Trilingue*, parece probado que pudo hacer uso del mismo en el *Origine, formazione, meccanismo ed armonia degl'idiomi*, entre otras razones⁸ por el hecho de que Hervás (1785a: 47) emplease en esta obra la voz *sutumpatu*, que en principio solo pudo leer en el diccionario de Larramendi por ser un neologismo creado por él⁹.

Pero más allá de la puntual utilización de los libros de Larramendi como fuente de determinados pasajes de sus obras, lo realmente trascendente es que, de manera un tanto acrítica, Hervás hace suyo el ideario apologético-lingüístico del jesuita guipuzcoano¹⁰. Este ideario, que impregnará toda su obra, ya aparece concisamente recogido en el encabezamiento del extenso apartado que Hervás (1784: 200) dedica al euskera en el *Catalogo delle lingue*: «L'idioma Bascuenze o Cantabro fu linguaggio degli antichi Spagnuoli; è di bellissimo artificio; si parlò anticamente nell'Italia, e le lingue latina, Italiana, Spagnuola, Francese ed altre Europee hanno presso dal Bascuenze molte parole». Tal vez sea inevitable que alguien que no conoce la lengua vasca necesite adoptar los criterios de quien sí demuestra dominarla. Recordemos en este sentido que, aunque desde luego no al mismo nivel, algo parecido le ocurrió a Humboldt con algunas de las peculiares ideas sustentadas en torno al euskera por Pablo Pedro Astarloa.

Además de las obras de Larramendi, en ocasiones Hervás también hizo uso de alguna otra fuente escrita¹¹. Así, de las cinco versiones vascas del padrenuestro que recoge en el *Saggio Pratico delle lingue*, la que por error en la fecha aparece denominada como «Bascuenze dell'anno 1552», reconoció Hervás (1787b: 210-211) que estaba tomada del *Testamentu Berria* de Leizarraga (1571: 9v y 125v-126r). En cuanto a la perteneciente al que llamó «Dialecto Gascogno», Hervás (1787b: 210) no apunta su fuente, pero pensamos que la tomó de la recopilación de

⁸ Hallamos en esta obra de Hervás algunas descripciones del *Diccionario Trilingue* que solo parecen posibles habiéndolo tenido a la vista. Por ejemplo, cuando Hervás (1785a: 117) dice: «Il Larramendi nel prologo nel suo *Dizionario trilingue* mette in Cantabro l'iscrizione di una gran lamina di metallo trovata nella costa di Buena-vista sul Porto si Santa-Maria»; pasaje que cuadra casi literalmente con lo expresado por Larramendi (1745: I, LXXXI): «El monumento es una lámina o tabla de metal no conocido que se halló en la cuesta que llaman de Buena Vista, sobre el Puerto de Santa María».

⁹ El verbo *sutumpatu* aparece en efecto en Larramendi (1745: I, 12-13): «Acañonar, tirar cañonazos, *sutumpa*, *sutumpatzea* [...] Acañonaron la ciudad, *sutumpatu zuen hiria*». Previamente, Larramendi (1745: I, XLVII) había advertido lo siguiente: «Solas tres voces son de mi invención y de que estoy usando muchos años ha, y son *sutumpa* por cañón de artillería, *godaria* por chocolate y *surrautsa* por polvo de tabaco».

¹⁰ Y no sólo de él, sino también del de los apologistas que le precedieron: «Di questa ultima proposizione [che i Cantabri sieno stati i primi popolatori della Spagna e che però il linguaggio antico vi dovette essere il Cantabro] si hanno prove incontrastabili nell'opere di Echave, Poza, Garibai, Moret, Cortés, Henao e di altri autori» (Hervás 1784: 202).

¹¹ Hallamos menciones (casi siempre anecdóticas) a muy diversas obras como, por ejemplo, la de Lafiteau (1724: II, 473-474), de quien se hace eco Hervás (1784: 87) en los siguientes términos: «Il P. Lafiteau, informatissimo delle nazioni dell'America settentrionale, dice sugli Eskimesi: *Questi nella barba e nel colore somigliano gli Europei più di nessun'altra nazione Americana, ed hanno lingua simile alla Biscaglina (o Cantabra). Forse questa somiglianza proviene dal commercio che anticamente abbiano avuto cogli Eskimesi i Biscaglino, o gli antichi Spagnuoli*».

padrenuestrros de Chamberlayne (1715: I, 44), si bien con algunos cambios meramente formales que facilitaban su lectura¹².

Hay un tercer padrenuestro vasco escrito, según palabras de Hervás (1787b: 210), en «Dialecto Labortano o Navarro». Se trata en realidad de un *gure aita* alto-navarro que tiene evidentes paralelismos con el que en su día publicó Beriain (1626: 84r) y para el cual no hemos hallado fuente escrita, por lo que muy probablemente se lo comunicase a Hervás algún jesuita navarro expulsado. La idea de Hervás de la unidad de los dialectos labortano y navarro la había tomado de Larramendi (1729: 12): «el Bascuence tiene el dialecto Guipuzcoano, [el] del Señorío o Bizcaíno, y [el] Navarro o Labortano, que comúnmente es uno mismo aunque ay bastante mezcla de los demás dialectos».

Los otros padrenuestrros vascos del *Saggio*, los pertenecientes a los dialectos occidental y central, parecen tener su fuente en el auxilio de dos jesuitas vascos anónimos, como en su momento veremos¹³. Y lo mismo vale para otros materiales eusquéricos, al menos en lo que respecta a los cualitativamente más relevantes, que fueron conseguidos por Hervás de algunos jesuitas vascos «in pochi mesi», concretamente entre mayo de 1783 y el verano de 1784.

Tan pronto como en 1783, cuando, como ya apuntamos, comienza a recolectar materiales y expone por primera vez el plan de la que habría de ser la sección lingüística de la *Idea dell'Universo*, Hervás (1783: 173) se lamenta por haber dejado transcurrir tanto tiempo para escribir estas obras, ya que con el paso de los años muchos de los jesuitas extrañados habían pasado «a migliore vita» y otros tantos «per la loro somma vecchiaia non si trovano in istato di scriverli nè di dettarli, ed altri hanno dimenticato le lingue».

Hervás reiterará este lamento en diversas ocasiones a lo largo de los años. Y no sin razón. En cuanto al vasco, pensemos que, solo un año antes de que Hervás expresara por primera vez esta idea, había fallecido el jesuita Sebastián Mendiburu (Oiartzun, 1708 – Bolonia, 1782), notable escritor de obras religiosas en euskera. También murió en el destierro italiano Agustín Cardaberaz (Hernani, 1703 – Bolonia, 1770), escritor en lengua vasca como Mendiburu pero que, además de libros piadosos, había publicado en 1761 su obra lingüística *Eusqueraren berri onac*.

Si Hervás hubiese tenido la posibilidad de contar con el auxilio de quienes fueron dos de los más importantes autores vascos del siglo XVIII¹⁴, los resultados

¹² Aquí se deslizó un error de Chamberlayne y de su colaborador Wilkins, pues atribuyen esta versión al «Dominus Petrus d'Urte» y dicen que es la propia de «St. Johannis de Lutz» cuando, en realidad, se trata de un padrenuestro suletino (vid. Zulaika 2013: 40-41).

¹³ Vid. *inf.* § 2.2 (dialecto occidental) y §§ 3.1 y 4.1 (dialecto central).

¹⁴ Manuel Larramendi (Andoain, 1690 – Azpeitia, 1766) había fallecido en su Gipuzkoa natal muy poco antes de que se decretase la expulsión de los jesuitas.

de su obra en todo lo que concierne al euskera habrían sido sin duda aun más notables de lo que realmente fueron.

En cualquier caso, Hervás consiguió de los jesuitas vascos expulsos todos los materiales que necesitaba. Bien es cierto que teniendo que vencer no pocas dificultades para ello. La primera de ellas fue que el grueso de los jesuitas vascos estaba destinado en Bolonia y en Faenza, no encontrando Hervás compañeros de hábito euscaldunes en Cesena. Por ello recurrió en primera instancia a un jesuita castellano, José Petisco (y no fue el único jesuita castellanohablante al que hubo de acudir Hervás, pues también hizo lo propio con Joaquín Camaño y con Ignacio Montero). Y cuando al fin pudo contactar con un vascoparlante, Juan Alustiza, la respuesta que recibió de este fue un tanto desairada y desalentadora. Pero al menos le sugirió los nombres de varios jesuitas residentes en Bolonia que conocían bien «la lengua vizcayna como nativa», convirtiéndose finalmente uno de ellos, Joseph Beovide, en el más fiel colaborador eusquérico de Hervás. Poco más tarde, también encontraría el apoyo puntual y un tanto anecdótico del vasco-mexicano Juan Zuazagoitia. De todos estos jesuitas y de algunos otros cuyos nombres no han trascendido, trataremos en los siguientes apartados.

2. José Petisco y un jesuita vasco anónimo

La primera colaboración relativa a la lengua vasca de la que tenemos constancia aparece en una carta remitida desde Bolonia por José Miguel Petisco (Ledesma, 1724 – Ledesma, 1800) a Hervás el 22 de mayo de 1783¹⁵. Pese a no ser vasco, creemos que Hervás recurrió a Petisco por su reconocida competencia en el ámbito de las lenguas clásicas. Hablamos de unos momentos en los que el jesuita manchego inicia sus pesquisas lingüísticas y aun no ha podido contactar con ningún compañero de hábito de habla vasca. Pero Petisco, admirador de la obra de Hervás (de hecho era suscriptor de la misma¹⁶), colabora con él diciéndole que «aunque yo no entiendo bascuence, por servir a vuestra merced he acudido a un compañero mío apreciador de su persona y erudición, el qual pondra aquí debajo lo que vuestra merced desea».

Lo que el jesuita euscaldún (probablemente residente en Bolonia) escribió de su puño y letra «debajo» de la salutación de Petisco, fueron los números vascos y una versión del padrenuestro. Sorprende sobremanera que mientras que los

Lan baldintzak ez zitzaizkion JErri lagungarriak izan. Mandoz zein behorrez ibili behar izaten zuen, herri txiki isolatu batean, baserriz baserri, argirik gabe eta negu luzeetako elurrez estalita edota sarritan lokatzez labainkor zeuden baso bideetan barna¹³. Txarrena, haatik, Lehen Mundu Gerran etorri zitzaion (1914-1918), mediku-lanak lehen su-lerroan bete behar izan baitzituen. Ekintza gogor horretan erakutsitako jakite, zintotasun eta kuraiarengatik ohorezko aipamena eskuratu zuen gerrak maite ez zituen JEK¹⁴.

JE ez zen ohiko mediku-zerbitzu arruntekin konformatu: “Jaun-goikoa, begira gitzazu mediku, ehuntzi, deusik ez dakien, gezurtietarik!”¹⁵. Euskal esparruko higie-ne eta osasun-zerbitzuez kezkatuta, kazeta-artikulu mordo bat idatzi zuen irakurle xumeari zuzenduak, higie-ne ohitura onak bultzatuz eta aholku osasungarriak zabalduz¹⁶. Azpimarragarria zaigu artikulu horietan JEK erakusten dituen medikuaren sen fina eta erienganako ardura eta sentsibilitatea: “Beti danik Euskal-Herrian, sendatzalerik handienen herrunkan goretsiak dire, doidoia irakurtzen eta izkiribatzen zakiten barbar batzu, aziak, sorginak, bai eta, jakitearen eskasean, arabots hanitz darabilaten medikuak”¹⁷.

¹² LAFITTE, P. “Aintzin-solas”, o. c., 20 or. ALTONAGA, K. o. c., 179 or.: “Fernande Kamino (1893-1979) anderea 1923an esposatu zen Jean Etxeparearekin. Aldudeko medikuak irakurlesa bat irabazi zuen, baina, esamesen arabera Fernandek ez zuen ezkontza ona egin, senarrak ez baitzuen sosik: horixe omen zen haren familiaren ustea”.

¹³ LAFITTE, P. “Jean Etxepare jaun miriku zena” in CHARRITTON, P. *I Euskal gaiak*, o. c., II. or.: “Maiz iduri zuen non-bait galdua. Behor bat zuri-zuria bazuen erien ikustera joaiteko. Askotan eskapatzen zitzaion eta haren ondotik bazabilan orduan lasterka: ‘Honorine, Honorine!’ dei egiten ziola. Atxeman-eta polliki ziozkan erasiak frantsesez, beti ‘zu’-ka: ‘Voyons, Honorine, pourquoi me faites vous ça à moi? Vous savez que je ne suis pas méchant. Tenez, prenez moi ce sucre!’”. JE. *Kazetaritza (A)*, o. c., 211 or.: “Mandoz gabiltza guhaur, eta mandoz derabiltzagu gure puskak. Urte hits bat eraman dugu: bizia kario eta neke, arrotzik batere ez, harat-humat guziak bide eskasez bakanduak... Elurrak azpitik atxiki gitu zortzi egunez: hamar zentrimetra lodi plazan. Mendian belaunetaraino, horma hormareki darraizkiola. Ehortzia iduri zuen Aldudek”.

¹⁴ Ikus LAFITTE, P. “Aintzin-solas”, o. c., 14 or.: “Médecin-Aide-Major de 1re classe ETXEPARE Jean, du 172e Régiment d’Infanterie: Du 27 juin au 4 juillet 1916, a fait preuve de plus entier dévouement en prodiguant ses soins aux blessés, sous de violents bombardements.- Désigné, quelques tours avant, pour passer dans une ambulance de l’arrière, a demandé l’annulation de cette mutation, en faisant valoir qu’il ne voulait pas quitter son Régiment à la veille du danger”. Halaz ere, JE ez omen zen guduzale. ALTONAGA, K. o. c., 127 or.: “Gerlako gurutzea irabazi bazuen ere, badirudu gure Etxepare soldadu epela izan zela... Piarres Lafittek erantzi duenez, ez zuen eskuratu inoiz, hau da, ez zuen (gerlako gurutze izan zilar-urreztatuduna) ‘paparreratu’. “Lagun batzuek nahiko zuten ‘medalla’ ere eman zezakoten, eta harrituak zauden zertako ez bada ez zuen berak galdea egiten behar zen tokirat”.

¹⁵ ETXEPARE, J. *Mediku-solas*, o. c., 245 or. VILLASANTE, L. *Historia del la Literatura Vasca*, Aranzazu, 1979, 308 or.: “Estudiaba el alemán para seguir de cerca los últimos progresos de su profesión”.

¹⁶ Froga gisa, *II Mediku-solas* liburuan JErren 54 artikulu gehi *V Euskalerriko bizia (1932-1935)* liburukian hiru artikuluek, 205-211 or.

¹⁷ ETXEPARE, J. *Mediku-solas*, o. c., 248 or.

Eriak ikustera joaterakoan, esaterako, JEK ikustaldi laburrak eta neurritsuak gomendatzen zituen: “Hiltzera doala aditzen baduzu, ez zoakiola joan begien aitzinerat. Non ez zaizkon ahaide edo hurbilik atxikia. Atetik galdegin berriak edo sukaldean. Balin bazoazi barnago, egon zaizkio laburzki: adioek, izanik ere azkenak, ez dute luze behar, euskaldunen artean”; baita mediku-jargoia ekiditea ere, eta, hala bada, euskara erabiltzea ere bai: “Zer zozo bazka, hitz bitzi hok denak! Beldur bat sartzen du erderak labo-raia baitan: ez ote direnez bederen trufatzen hartaz? Gaitzak ezagutzen balituzte egiazki jaun horiek, berek dioten bezala, ez litazkea alabainan euskaraz mintza?”; eta “oroiz gaine-tik...-aholkatzen zuen- ez aipa eriarri aipatu dakoten eritasunaz bertzerik. Hura badu aski. Edo zoin sendagailu edo zoinek eman zakion, ez ar hunen ez haren kitzikan, aditzen zituelarik”¹⁸.

JE mediku-lanean botak jantzita hil zen, besteen osasuna berearen gainean ipi-niz azken-azkeneraino ere¹⁹: “Soldado batentzat ez da hain heriotze ederrrik nola harma eskuan etsaiari buruz hiltzea. Miriku batentzat ederragorik baditakeia, eri baten ohe-aldean bizia galtzea baino? Hala egin du bada Etxepare jaun mirikuak. 1935-ko urtarrilaren 9-a zen. Arratsean eri baten ganat izan zuen galdea. Doi-doia sartua zen bertze eri baten ganik eta biziki nekatua! Ahaide batek nahi izan zuen lagundu; baina ezetz erranik, bakarrik joan zen ahal bezain laster. Eriaren etxerat-eta, bere xapela dilindan ezartzerat egin zuen, eta huna non bet-betan erortzen den: aldixar delakoan, bere baitarazi nahi dute. Zorigaitzez, ez da probetxurik: bihotza gelditua du, hila da” (1935eko urtarrilaren 6a)²⁰.

1.2. Kazetari

JEren bigarren zeregina kazetaritza izan zen, urte luzez eta, seguru asko, *musu truk*. JEK gustuko zuen kazetaritza-lana: “On peut deduire que l’écriture est devenue très tôt une passion dans la vie de Jean Etxepare”²¹. Piarres Charrittonek JEren 232 artiku-lu inguru bildu ditu bost liburukitan²², ia 1700 orrialde, zeintzuei gehitu behar-ko zaizkien *Buruxkaken* idazleak aukeratu eta argitaratu zituen 26 artikulua.

JEK lehen artikulua, hogeita bost/sei urte berri zituela, argitaratu zuen *Eskualduna* astekarian eta azkena(?), han bertan, hil baino sei egun lehentxeago²³.

¹⁸ *Ibidem*, 248, 284, 293 or.

¹⁹ JE ez omen zen osasun onekoa. ALTONAGA, K. *Etxepare Aldudeko medikua*, Euskaltzaindia-EHU, 2006, 239 or.: “Ezin dugu ahaztu Jean Etxepare osasunez nahiko makal ibili zela 1928tik aurrera, eta bihotzokoak jo zuela 1929ko bedatsean”.

²⁰ LAFITTE, P. “Aitzin- solas”, o.c., 20 or.

²¹ CASENAVE, J. o.c., 64 or. JE III. *Kazetaritza (A)*, o.c., 419 or.: “Batzutan oherat joan baino lehen, izkirioz ezartzen ditut zerek ere jo baitauzkitet begiak eta hek. Bitxikeria, gizon batek ukan dezan jaidura hori, bainan nor ez ditu bereak”.

²² Artikulu luze batzuk opuskuluak ziren, egun baten baino gehiagotan argitaratu beharrekoak.


²³ JEK “Gure bihotza” artikulua argitaratu zuen *Euskalduna* astekarian 1935ko urtarrilaren 4an, eta bost egun beranduago hil zen bihotzokoak jota. CASENAVE, J. o.c., 46-51 or.: “Il n’est pas aisé de dater avec précision le début de la collaboration du jeune de Mendionde (hots, JE) à l’*Euskalduna*. P. Lafitte indique l’année 1902 dans sa présentation biographique mais cette affirmation est invérifiable à cause du caractère anonyme de la plupart des articles. On pourrait d’ailleurs émettre quelques hypothèses sur une participation plus précoce encore, mais sans pouvoir apporter une quelconque preuve”.

Artikulu horiez gain, JEK, bere anaia Pierre apezarekin, 1905-1914 urteen bitartean, urteroko *Euskaldun laborarien adiskidea eta conseilaria, presuna suerte guzientzat on dena. EGUNKARIA* edo *ALMANACA Eliça-ofizioetaco aurki-bidea* argitaratu eta zuzendu zuen²⁴. Almanaka horretan agertu ziren izenik gabeko *Medikuaren erranak* zirelako artikulu guztiak JEren lumari egotzi diezazkiokegu dudarik gabe.

Eskualduna vs. Réveil Basque

JEren kazeta-lan ia guztiak Louis Etcheberri politika hautagai ‘xuri’ak 1887an sortutako *Eskualduna* (*Eskualdun Ona*²⁵) astekari kontserbadore katolikoan argitaratu zituen. Aldizkari horren zuzendari izan ziren Larresoroko seminarioan JEK irakasle ezagutu zituen Jean Hiriart-Urruti, Gracian Adema *Zaldubi* eta Jean Saint-Pierre apez-kalonjeak²⁶. *Eskualduna* gain, JEK artikulu ugari argitaratu zituen *Gure Herria* (bi) hilabetekarian, non, 1930az geroztik, bera buru orde eta idazkari nagusia ere izan zen.

JEK mundu zabalera ireki nahi izan zuen euskal kultura, baita mundu zabaleko kultura Euskal Herrira ekarri ere. *Gure Herria* birplanteatu zuenean, JEK ale bat erdaraz eta bestea euskaraz argitaratzea proposatu zuen. Erdarazko aleetan: “*Récits d'événements contemporains, Récits de événements anciens, Vie des Basque hors de leur Pays, Biographies de personnages célèbres, Histoire documentaire, Notions de géologie, d'archéologie, d'épigraphie... Sciences, arts, littérature, critique littéraire, médecine, pédagogie, sociologie, etc... Petites études sur les mouvements religieux, les législations anciennes et modernes. Les assurances. Questions économiques et financières; linguistique. Extraits de livres anciens; contes; récits de voyage. Musique et poésie. Jeux. Agricultuire, chasse et pêche, etc.*” landu nahi izan zituen. Euskarazko aleetan, bestalde, euskalki guztietako artikuluak bil-



Gure Herria aldizkarian hainbat artikulu atera zituen Etxeparek.

²⁴ Pierre Etchepare (1880-1932), Donamartiri-Arberoue-ko parrokoa. Ezkontzari buruzko 23 omilia eta 13 hitzaldi idatzi omen zituen euskaraz.

²⁵ *Eskualduna* (1887-1903) *Eskualdun ona* (1903-1907) *Eskualduna* (1908-1944) *Herria* (1944-...). *Réveil Basque* (1886-1894) *Pays Basque-Euskal-Herria* (1898-1914).

²⁶ Jean Saint-Pierre, 1930az geroztik, Gordus-ko gotzaina izan zen.

du nahi izan zuen: “*Nous ferons ce que nous pourrons dans l'état actuel de notre langue, nous efforçant de la faire progresser*”²⁷.

JEren kazeta-artikuluak lau multzo handitan bildu ditu P. Charrittonek: 1.a, *Kazetaritza edo Berriak*²⁸, 2.a, *Euskal gaiak*; 3.a, *Euskal Herriko bizia* eta 4.a, *Mediku-solasa*: “*Chronique américaine, chronique locale, études médicales, politiques, économiques, littéraires, contes, M. Etchepare essaya tous les genres et y réussit ; plus plain que M. Iriart-Urruti, moins dur que M. Abadie, il avait l'aimable fantaisie du premier, la syntaxe audacieuse et un peu tourmentée du second et l'emportait sur tous par la richesse rare de son vocabulaire*”²⁹.

Eskualduna eliztar astekariak bazuen, muturrez mutur, (Le) *Réveil Basque* astekari errepublikanoa: *Biba Frantzia! Biba Eskualdunak!* (Pau, 1886-VII-11; 1894-XII-30)³⁰. XIX. eta XX. mendeen arteko bueltan, kazetak garrantzi handiko eztabaida guneak izan ziren eta astekari bion inguruan bildu ziren hainbat eztabaida sutsu Ipar Euskal Herriko erlijioaz ez ezik, gizarte eta politikaz ere³¹. Oro har, eta xehetasunak xehetasun, *Eskualduna* katolikoaren astekaria izan zen³² (etxeparetarren etxeko ohiko aldizkaria³³); (Le) *Réveil Basque*, haatik, eta geroko *Pays Basque-Eskual-Herria* (1898-1914?), alderantziz, aldizkari “*apez-jalea(k)*” izan omen z(ir)en³⁴.

JEk, zientzia-arloetan moderno eta aurrerakoia izanik ere, ez zion muzinik egin *Eskualduna* apeztiar astekari kontserbadorean idazteari eta hantxe zintzo iraun zuen, urte luzeetan, nahiz, astekari horren argitalpen-lerroarekin guztiz ados egon ez izanagatik, behin baino gehiagotan mihia bridatu behar izan omen zuen.

Zintzotasun hori ez zitzaion JEri meritu makala izan, euskaltasunarengatik miretsi zituen apez burukideak³⁵, oro har, atzerakoiak izan baitziren zientzia-, filosofia- eta erlijio- (teologia-)arloetan. Apezek, bestalde, jakin zuten JEren noiz-behinkako leherketak gobernatzen, nahiz, geroxeago ikusiko dugunez, ‘iskanbila’

²⁷ ETXEPARE, J. in “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio Urquijo'*. Gehigarriak, XIV, 30.XI.03, 598 or.

²⁸ Lekornetik, Aldudetik, Gerla-tokitik, Kanbotik...

²⁹ LAFITTE, P. *Notre Maître : M. le Dr. Etchepare*, o. a., 259 or.

³⁰ ALTZIBAR, X. “Réveil Basque astekari errepublikano elebiduna (1886-1894)” in *Jean Haritschelhar-i omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, Iker 21, 27 or.: “Réveil Errepublikaren eta haren legeen defentsari, errepublikanoen alderdiari eta bereziki Berdolyren kanpainari lotua egon zen beti. Erregetiar, bonapartiar eta boulangertiarak zituen etsai eta bereziki L. Etxeberriren *Eskualduna*”.

³¹ ALTZIBAR, X. o.c., 20-21 or.: “1887ko urtarrilean, 600 harpidedunek hartzen dute (*Le Réveil*). CASENAVE, J. o.c., 53 or.: *Eskualdun Onak* “1.700 exemplaires vendus en janvier 1904... 5.000 à la fin du mois de décembre. 7.000 en janvier 1908”.

³² ETXEBERRY, L. *Euskalduna* astekariaren sortzailea (1887.03.15): “Notre journal est fait par des Basques pour des Basques. C'est dire ce qu'il sera. Il sera avant tout le défenseur passionné de toutes les vieilles traditions du pays desquelles nous plaçons son invincible attachement à la religion catholique sincèrement pratiquée”.

³³ ETXEPARE, J. *I Euskal gaia*, o.c., 227 or.: “Guztiz bertzeak laborari-semeak baikin, eta laborari gehienak harpidetuak baitziren *Eskualduna* deitu astekariari, hau irakurtzearekin ginen berriz larresorotar bilakatzen gogoz, egunean eguneko edestieren ikasle”.

³⁴ Honelaxe P. Lafittek. Ikus ALTZIBAR, X. o.c., 17 or.

³⁵ ETXEPARE, J. in “Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)”, o.c., 596-7 or.: “Hiriart Urruti ou Abbadié -plutôt par ce dernier- maîtres éminents, pour lesquels j'ai conservé une profonde vénération”.

haiek gehiago izaten ziren ‘apezen’ hertsikeriagatik, kazetari laikoaren gehiegikeriagatik baino³⁶.

Azpimarratzekoa dugu, bestalde, kazetaritza-arloan JEK izan zuen gogo zabaleko lankidetzak. Aldudeko medikuak literatura maite zuen eta, behin baino gehiagotan frogatua zuen gaitasuna bazuela literaturan aritzeko³⁷. Hala eta guzti, *Eskualdunaren* arduradunen premiei erantzun iraunkor eta egokia emateko, JEK literatura lan pertsonalak alboratu behar izan zituen, besteen hutsuneak betetzeko: “*Oi! Ahalik banu, bertze halako batzuen idazteko! Zahartu bainiz, ordean, eta lores gabetu bethierekotz!*”³⁸.

1.3. Euskal prosalari distiratsu eta sakrifikatua

JEK literatura maite zuen; euskal literatura, batik bat. Euskal idazle klasikoak irakurri ohi zituen: Etxepare, Axular, Oihenart, Garibai...; garaikideak ere bai: Duvoisin, Azkue, D. Agirre, Elurmendi... Autore horien lanak argitaratu bezain pronto, JE eskuratu, irakurri eta zabaltzen saiatzen zen³⁹. JEK gustura ematen zuen denbora euskal idazleen irakurketan: “*Haren mintza gozoa!*” esaten zuen Jean Hiriart-Urrutiren euskaraz, eta Axularren esaera ere miretsi zuen: “*Nola erran hobeki. Nori bururatu zitzakoten. Gauza berarentzat, hizkuntza bat hoin aberatsa, hoin egokia, hoin sarkorra, hoin gozoa*”⁴⁰.

JEK Frantziako literatura ere biziki maite eta ezagutu zuen: “*Le jeune écrivain (JE) connaissait bien la poésie française classique mais aussi la production des périodes romantique et symboliste. Dans Beribitez, une allusion au Spleen de Paris (‘L’étranger’ et ‘La soupe et les nuages’ dans les Petits poèmes en prose) laisse entrevoir toute son admiration pour Charles Baudelaire. En laissant percer ses doutes, peut-être exprime-t-il sa déception de n’avoir pas encore lu en langue basque l’équivalent des Contemplations (1852) de Victor Hugo ou des Fleurs du Mal (1861) du même Baudelaire*”⁴¹.

³⁶ Erakusgarri gisa. “Donapaleoko Phestak” artikuluan, JEK “évoque ‘l’irrintzina’... pour le comparer dans un élan au lyrisme douteux à ‘l’effrayant mugissement joyeux de la femme violée et de la bête sauvage’. Ce transport... provoque, cela va sans dire, l’indignation du rédacteur en chef du périodique (J. Hiriart-Urruti apezka). Celui-ci lui adresse immédiatement reproches et conseils par le biais d’une missive que l’expéditeur qualifie lui-même de mesurée”.

³⁷ Adibide gisa, CASENAVE, J. *De l’article de presse à l’essai littéraire: Buruxhak (1910) de Jean Etxepare*, UNED ediciones, Madrid, 2002, 285 or.: “*Buruxhak* fourmille d’exemples qui indiquent une recherche en matière de sonorités ou de rythme”.

³⁸ ETXEPARE, J. P. Lafitteri gutuna, 12.X.31.

³⁹ ETXEPARE, J. I. *Euskal gaiak*, o.c., 171-175 or.: “Jean Hiriart-Urruti kalonjea (1859-1915)”; 177-181 or.: “Arnaud Abbadie kalonjea (1843-1916)”; 183-185 or.: “Piarres Broussain medikua (1859-1910)”. 187-203 or.: “Resurrección María Azkue euskaltzainburu, 1920”; 205-209 or.: “Severo Altube euskaltzain, 1921”; 211-214 or.: “Aita Intza euskaltzain, 1921”; 215-223 or.: “Georges Lacombe euskaltzain, 1921”; 225-233, or.: “Jean Blaise Adéma (1861-1936)”; 235-247 or.: “Axular (1556-1644)”; 249-253 or.: “Jean Baptiste Duvoisin kapitaina (1810-1891)”; 329-331 or.: “Euskarazko liburu eder bat, 1906 (Duvoisin-en Ebanjelio Saindua)”; 332-335 or.: “Bizkarkin: *La Euskaria*, 1912”; 336-337 or.: “H. Gavel-en *Eléments de phonétique basque*, 1921”; 339-351 or.: “Larrazkenaren ondotik negua: irakurgaiak”; 353-369 or.: “Iritzi eta kititza, 1919”; *V Euskalerriko bizia (1932-1935)*, o.c., 139-168 or.: “Txomin Agirre-ren GAROA”; 169-170 or.: “Hiru liburu xume”...

⁴⁰ ETXEPARE, J. “Axular (1556-1644)”, *I Euskal gaiak*, o.c., 235-247 or.

⁴¹ CASENAVE, J. o.c., 275-6 or.

Euskal literaturaren mugak aitortu arren: “*Damurik oraiko gazteek guti dituzte maite eskuarazko liburuak! Damurik, bertzalde, gira eskualdunak hoin ezazol eta hoin zozo, gure arbasoen mintzaiaren alderat.*”⁴², JEk uste zuen euskarak bazituela errekurto nahikoak giza pentsamendu, sentimendu eta esperientzia guztiak adierazteko: “*Ele gutiz, holaxet, gure eskuara xaharrak baderatsa gizonak dazkitzaten eta jakin ditzazketenak oro: Eskualerrian, guziz jende xehearen mintzaia balin bada, jakintsunek ez dute hoberik beharrenaren elgarrekin ihardukitzeko: gauzen zolaraino hel dezakelakotz, eta laburzki, bere hizkuntzaren argia*”⁴³.

JE buru-belarri ahalegindu zen euskal literaturaren mugak gainditzen. JE *Euskaltzaleen Biltzarraren* buru aukeratu eta berehala, euskal idazleen oroimenezko jardunaldiak eta umeentzako sariak antolatu zituen, euskarazko idazkiak bultzatzeko helburuz: “*Euskaltzaleek erakutsi dakogu azkartzeko, zalutzeko, hedatzeko bidia. Dezagun atxik behinik behin guhauk bide hortan, ahal guziez mintzatu zeta apainduz gure lumaz, erakutsiz gure haurrer, gure menikoen ganik entzun nahiz. Ez baikira hemen girenak betiereko, bil ditzagun gu ganat ahal bezenbat gazte argitu, langile on, mintzazale garbi eta izkiriazale kartsu*”⁴⁴.

Euskararen bultzada horretan JE horren sutsu aritzen zen ze ez omen zuen bere demaren ordaina ondo neurtu. Euskarazko kazetagitza finkatzeko JEreren ahaleginengatik, baliteke euskaldunok literato bikaina galdu izana (hobeto esanda, JE berak bere burua eskaini izana sakrifizio horretan).

JE ezagutu zuten denek aitortzen dute literaturarako gaitasun handiak zituela. “*Prosista de la talla de Orixe y de Lizardi*” dio Mitxelenak JEz⁴⁵ eta Lafittek: “*Laster ohartu ziren bazterretan, bazela sorturik izkiriatzaile edo idazlari bat gaitza, hedadura handiko bezain hizkuntza gurbil, xuxen eta aberatsekoa... eskualdun izkiriatzaileen nagusitzat baginaukala... Non eta iparralde honetan bederen gure idazle nagusia*”⁴⁶. Iritzi berekoa dugu JEreren anaia Pierre ere: “*Egun batez -gogoratzen digu P. Lafittek- hauxe ateratu zaukun dudamuda izpirik gabe: ‘Monsieur mon frère est le Barrès du Pays Basque’. Galde baiginion zer zen Barrès, ihardetsi zaukun: ‘Maurice Barrès est l’écrivain le plus fin, le plus délicat et le plus musical de la littérature contemporaine*”⁴⁷.

⁴² JE. *Beribilez*, X, “Itsasoa kukulauka”.

⁴³ JE. *Buruxkak*, “Eskuaren ikasteko”, o.c., 165 or.

⁴⁴ JE. Baigorri-ko bilkuran buruzagi lehenaren mintzaldia, (*Euskaltzaleen Biltzarra*, 1923), *I Eukal gaia*. o.c., 91 or.

⁴⁵ MITXELENA, K. *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, 155 or.


⁴⁶ LAFITTE, P. “Aitzin solasa”, o.c., 13 eta 20; *Le Basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Librairie Le Livre, Bayonne, 1941: “Él ha creado un vasco nuevo, que yo llamaría un vasco aristocrático, tan atrevido y más rico que el de Abbadie, menos flexible y menos bailarín que el de Hiriart-Urruti, un vasco capaz de traducir noblemente todos los matices del sentimiento o del pensamiento”.

⁴⁷ LAFITTE, P. “Jean Etchepare jaun mirikua zuena”, o.c., I or. WIKIPEDIA. “Auguste-Maurice Barrès, escritor, político y publicista francés. Nace el 19 de agosto de 1862 en Charmes-sur-Moselle y muere el 4 de diciembre de 1923 en Neuilly-sur-Seine. Analista sutil y de elevado lirismo. Exponente del zoísmo y el nacionalismo, gran estudioso de la cultura española”.

Baina literatura idatzari denbora eman beharrean, euskararen egunero-ko premiaren premiaz, JEK *Eskualduna*, *Egunaria* edo *Almanaka*, *Gure Herriako* lan aspergarriari eman zion arnasa: “*Mon éloignement aussi bien que ma situation ne me permettent point de faire autre chose que se que je fais, à savoir d’écrire de loin en loin quinze pauvres lignes dans l’Eskualduna; que par suite il m’est interdit de prendre part à quelques mouvement régionaliste que se que soit que de coeur et vous comprenez, ce qu’il y a ensemble d’inacceptable et de grotesque dans cette nomination à la vice-présidence dont on s’est plu à m’honorer. Veuillez, je vous prie faire entendre à vos généreux amis ce que leur hommage a d’illégitime et d’accablant et leur assurer que pour n’être pas des leurs, je n’en tiendrai pas moins à servir ardemment leur cause dans la mesure de mes faibles moyens*”⁴⁸.

JEK bi aldiz bakarrik ekin zion espresuki literatura lanari. *Buruxkako* liburuari, 1909. urtean eta *Beribilez* bidaia-liburuari, 1931. urtean. Baina, bigarren liburu hori idatzi zuenean, JE zaharregi (edota eguneroko euskararen aldeko ahaleginetan hustuta) sentitu omen zen literaturari ekiteko: “*Astia non ginuke bertzalde? Urthe idorrek erori zaizkigu bizkarerat: egiteko hanitz edo guttiegi, irabaziak xuhur, gogo bethi artegua*”⁴⁹.

Eta halaz ere, JERen kazetaritza-artikuluetan, ez zaizkigu falta, balio handiko literatur testuak. Gutxi batzuk aipatuz gero, nik, esateko, *Buruxkako* “Ameriketako oroitzapenak” artikulua aukeratuko nuke, baita *Beribilezean* Kantauriko uhinei buruzko deskribapena ere: “*Ohartu ziretea uhin haier? Ehun metratik ehun metrara, bizpahiru altxatzen ziren batean, kukuruska gora. Orroaz eta haguna burrustan zariola, bat-bedera xutitzen zen bertan pareta zabal baten irudirat, eta, erho bat bezala oldartua, zipoteka aitzinatzen leihorrari buruz. Beharrik jainkoaren eskuak zapatzen zun bere aikatze sorjesean! Laster, goitika izigarri batzuez barnetik hustuz zoan. Sabela ethentzen zitzaion,*



⁴⁸ ETXEPARE, J. “Les lettres du Dr Jean Etxepare à Georges Lacombe”, o.c., 17-IX-17.

⁴⁹ ETXEPARE, J. *Beribilez*, Klasikoak, Euskal Editoreen Elkarte, 1987, 31 or..

*hausten gerruntze konkortua, mustupiltzen bere aurpegi oiesa, burbutzika zartatzen bere soin aberea. Azkenekotz, lehertzetik ahuldua, izurrak izurraren ondotik mehatua, hats-bizi, legartzaren gainerat hura bera zen milika txar batean ahospez hedatzen. Eta zarraizkion guziak berdin, bakotxa bere aldian*⁵⁰.

Lastima! zeren “*otarre bat egin duenak, egin ditzake ehun ere*”, denborarik eman ez gero.

1.4. Gizartearekin konprometitua

JErri kazetaritza ohiko lanak abagune hobezina izan zitzaizkion euskal gizarteari eragiten zioten arazoei buruz aritzeko, baita euskal herrikoen ohiko kulturazterapenari irteera egoki eta modernoak proposatzeko ere.

JE kazetari orokorra izan zen eta orori buruz idatzi behar/nahi izan zuen: politikaz, kirolaz, folkloreak, ekonomiaz: kontsumorako prezioen indizeaz, kanbiontasaz, zergaz, hipotekez, burtsaz, herri-aurrekontuez, nekazaritza egoeraz, fruituarbolez, meaz, industria-enpresez, herri eta tren bidez, emigrazioaz, 1914-18 bitarteko munduko gerraz, Frantziako Koloniez, hauteskondeez, herriko iturriez, onddoez... JEK, latin idazleak bezala, *Homo sum; nihil humani a me alienum puto* idatzi zezakeen arrazoi osoz⁵¹. Paleontologiaren ere interesatua izan omen zen⁵².

Elkarren artean erabat ezberdinak diren gai ugari horietaz aritzean, JEK gizon modernoak zela adierazten du, gai horiek guztiak sakontasunez landu nahi izaten baitzituen, baita modu pedagogikoan ere. Horrek argiro agertzen digu Aldudeko medikua herriko jendearenganako maitasuna ere. JEK kazeta lanak ez zituen arrakasta pertsonalerako aukeratzen, herriko jende xumearen bizitza hobetzeko baizik.

Zenbat artikulu Nafarroa Behereko Kintoko artzain-laborarien eskubideen defentsan (“Beti Kintoaz”)⁵³, zenbat ahalegin Aldudetik Baigorriako errepedea zabaltzeko edota Iruñetik Baigorriara burdinbidea bukatu zezaten...!

Kazeta errebindikazioez gain, JEK hainbat gizarte inizatiba onuragarri bultzatu zituen, iparraldeko herri txikietan modernitateaz eta industria-aldaketaz mesfidati samarrak ziren laborarien onerako⁵⁴. (Familia) mediku-mutualitate bat antolatu

⁵⁰ *Ibidem*, 10. atala.

⁵¹ Publio Terentzio Afrikarra, X. a. 165, *Heauton Timoroumenos*.

⁵² G. LACOMBERI 22.08.19ko JErren eskutitza: “Je serais très heureux de feuilleter le livre de Marcellin Boule (paléontologue, 1861-1942)”.

⁵³ ETXEPARE, J. *Kazetaritza (A)*, o.c., 114-115 or.

⁵⁴ CASENAVE, J. o.c., 201 or.: “L’auteur y dépeint les avantages d’une société rurale que s’ouvre à l’industrialisation d’une façon raisonnable, tout en développant des formes de solidarité utiles à la collectivité (exemples donnés par l’auteur: caisse de retraite pour la vieillesse, caisse de secours mutuels, caisses d’assurances mutuelles contre les accidents et privilégiant la justice sociale). Sa démonstration vise bien sûr à rendre enviable la transposition d’une telle organisation au Pays basque”.

nahi izan zuen⁵⁵ edota Estatu osoari begira zeuden seguru-konpainien ordezeko “*sua-
ren kontrako (euskal) lagungo*” bat⁵⁶, pentsio-fondoak, herri kooperatibak, elektrizitate
zerbitzuak zabaltzeko herri-eiherak⁵⁷ eta abar...: “*Ez deguia bada noizbeit ikasiko guhauk
gure artean guharen laguntzen, arrotzari gure burua larruarazi gabe?*”⁵⁸.

1.5. Euskaltzale

“*Euskalduntasunaren urguluak airatzen*” zuen JErri euskal kultura eta hizkuntza
ardura nagusietakoak izan zitzaizkion: “*Ziin eta ene xederik minena da euskarea bizi
dadin. Zer diot! Gernikako arbolaren idurirat, sortu lurrari itzal dezan bere hazia, eta
lurrak dirauano hazi hunek har dezaon uztartzeko indarra*”⁵⁹.

JEk argi zeukan Euskal Herria gizalde berezia zela: “*Euskaldunek egiten dugu gizal-
de bat bertzetarik berezia, ez bakarrik bizi giren tokiaz, itsas bazterrean bortuen bi aldetarik
egoitatzat hautatu ginduen xoko guziz maitagarriaz; ez bakarrik gure ohitzez, artaingo eta
laborantzako aztura, herriaren amodio, urrungo leihorren ezagutzeko tirria, pilota, dantza-
jauzi, makila, mus, irritzina, eztei, pesta-berri, tobera-muntra, bizitegi nasai eta garbi, zuhur-
tzia, zuzentasun, gure buruaren jabego. Arrotzetarik begiratze, familiako atxikimendu; ez baka-
rrik gure haindirareteko sinestez, hok odolean bezala, aitatik semera, baiterakarzagu; ez bakarrik,
hitz batez erran dezadan, gure baitarikako olde hoitaz; baina oraino gure hizkuntza zahar,
guhaik baino gehiago orobat auzoek miresten duten eskuara ederraz*”⁶⁰.

JEk euskal ‘dena’ maite zuen: euskal tipoak (Lekornek Camille⁶¹, Arrokkiko
Kattin; Agerreko i(l)tze-egilea...⁶²), euskal ohiturak, dantzak⁶³, kantak⁶⁴, ‘pes-

⁵⁵ ETXEPARE, J. *II Medikusolas*, o.c., 317-318 or.: “Hitzeman bezala, medikiak finkatu du harekilako abonamendietako erreglamendu berria. Aitzinekoaz ezien jendiak erranguraterik; jasaitako arinagorik etzitaken. Esperantza du oraiokari begitarte on eginen dakola, bere ustez ezin gehiago zuzenki ezarria dielakotz”. CASENAVE, J. o.c., 201 or.: “Il est à noter que J. Etchepare lui-même a créé aux Aldudes un système de cotisation payable en début d’année que permettait à ses patients, même les plus modestes, de bénéficier d’un crédit à valoir sur les futures consultations”.

⁵⁶ ETXEPARE, J. *III Kazetaritza (A)*, o.c., 147-168 or.

⁵⁷ JE. *III Kazetaritza (A)*, o.c., 173 or.: “Atseginekin jakin dugu bertze Aldudako eiherraz-nausi batzu ere lan beraren eginarazteko xedetan daudezkola. Elektrikak emeki emeki hartu behar dauzkigu bazter guziak”.

⁵⁸ JE. *III Kazetaritza (A)*, o.c., 91 or.: “Ni, ene biziko larrazkenean harat noa. Baditeke ez dutan ikusiko osatzen Aldudan, hainbertze urte huntan derabilatan amets hori. Baina sustatzen zituztela, zuek gazteak, oharzateko epea balin banu, aski laktia-
ket; familia handi bat bezala biltzeko xedetan jar baladi Alduda, itzal nintake bozik”; 147-168 or.: 1911-I.6 eta 11, II-3, 17 eta 24; III-3 eta 31, IV-21, VII, 21, VVV-14, 1912-I-19.

⁵⁹ ETXEPARE, J. “Baigorriko Bilkuran (1923). Buruzagi lehenaren mintzaldia”, *I Euskal gaiak*, o.c., 73-74 or.

⁶⁰ ETXEPARE, J. *Buruzkaka*, “Eskuararen ikasteko”, o.c., 163 or.

⁶¹ CASENAVE, J. o.c., 74 or.: “N’etaint no pratiquant ni même croyant en matière de religion”.

⁶² Martin Tipula; Karlos Mutxuridin... ETXEPARE, J. G. Lacomberri eskutitza, 12.02.07: “Je suis, hélas! trop talonné par la ‘matérielle’ pour faire autre chose que ce que je fais, c’est à dire de menus articles d’ordre pratique à la usage de nos bons compatriotes de la classe paysanne, pour lesquels j’ai d’ailleurs une prédilection”.

⁶³ Besterik ezean, JErri aipuak CHARRITTON, P. *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, Elkar, Donostia, 1984 liburukietatik egiten ditut. JE. *I Euskal gaiak*, 19-20 or.: “Berehala plaza hartu dute Xuberotar dantzariak. Poneta apaindua, maipulisa gorriekin, galtzak labur, oinetako mehe arin batzuekin, ez zauzken. Eta ttunttuna hasi zielarik xirularekin, pentsa emazu! Dezadan haatik erran orai beretik, Parisen ‘Opera’ deitzen den teatre-nausian ez da agertzen hek baino dantzari hobirik. Satanak baino zaluago eta debruagoak dira... dantzan”.

⁶⁴ ETXEPARE, J. *I Euskal gaiak*, o.c., 317-326 or.: “Tobera-muntra, kabalkada, pastoralak”.

tak'⁶⁵, mendiak, arbolak⁶⁶, iturriak⁶⁷..., eta, batik bat, euskara eta pilota: “*Euskalerrian ez baitago ederragorik*”⁶⁸.

JE euskal kulturari zegozkion gauza guztiaz arduratzen zen; euskararekin zerikusia zuten gaiez, batez ere: euskal fonetikaz (Gavel⁶⁹), etimologiaz, ortografiatzaz eta gramatikaz (S. Altube), euskararen batasunaz⁷⁰, euskal literaturaz... JEek harri-garriki egin zuen lana erdi galdurik zeuden euskal hitzak berreskuratzeko ahaleginetan: “*Bai miriku on eta artatsua egiten zuen, baina bitzia. Euskal izenketa zabilan: Heldu zitzaitzun egiten lore batekin edo belar-ondo batekin, edo harri muger batekin, jakin nahiz nola Adudarrek emaiten zioten izena*”⁷¹. Euskal lexiko eta adieren bilketa (mapa eta guztiz) izan zen JEreren G. Lacomberetikiko gutunen gairik errepikakorrena⁷².

Hala eta guzti, euskal kulturaren eremuan, JE ez zen erromantiko hutsala, proiektu zail bezain bizigarri baten eraikitzaile zintzo eta nekaezina baizik, eta horrelakoxeak nahi izan zituen euskaltzaleak: ohi baino bihotz-buru bero eta argiagoak: “*Je me convaincs de plus en plus que les Basques n’attachent aucune importance à leur langue; ils l’affectionnent seulement beaucoup d’instinct*”⁷³.

Bordeleko Unibertsitatean mediku-karrera bukatu eta hurrengo urtean (1902), JEek parte hartu zuen Hondarribian ospatutako *Euskaltzaleen Biltzarren* sortze-bileran. Handik urte batzuetara, JE *Euskaltzaleen Biltzarren* buru orde aukeratu zuten (1914-1922), baita, 1922-1926 bitartean, buru-lehen ere: “*Dugun*

⁶⁵ *Ibidem*, 15-21 or.: “Donapaleoko euskal-pestak”; *Kazetaritza (A)*, Aldude-tik “Pesta-Berri”, 61 or.; “Pestak heldu”, “Pestak joan”, 108, 110 or.; *Buruxkak*: “Euskaldun Pestak Baigorriin 1905ean”, “Pestak hor 137 or. ...

⁶⁶ JA, III *Kazetaritza (A)*, 141 or.: “Oihaneztatzeaz”; 169 or.: “Zuhar”...

⁶⁷ Zenbat bider goraiatzaren duen Harpeko gure ur xirripa maitea eta herriko iturriak. Ikus JE. III *Kazetaritza (A)*, o.c., 140 or.: “Errege-bidearen petik zilatu behar baitu ur-errekak, gaude zer bilakatuko den *Harpeko gure ur xirripa* maitea. Barreatuko ote denetz?”.

⁶⁸ JE, I. *Euskal gaiak*, 18. eta 73-74 or.

⁶⁹ G. LACOMBERI 21.05.24ko eskutitza: “Lu – un peu vite – le livre de Gavel (*Éléments de Phonétique Basque*, Paris Champion, 1920). Admire sa finesse d’observation; je n’ai pu relever qu’une ou deux erreurs, d’ailleurs négligeables. Je compte m’y remettre incessamment, à tête reposée”; 21.06.27: “J’ai entre les mains un petit livre de phonétique et de morphologie élémentaire du français par Clésar, de Lyon...de telles minuties demandent trop de temps et une attention trop exclusive, je reviendrai cependant sur certains pages de Gavel”.

⁷⁰ ETXEPARE, J. “Euskararen batasunaz”, I *Euskal gaiak*, o.c., , 291-302 or. CASENAVE, J. o.c., 485-6 or.: “Jean Etchepare consacre lui aussi une longue contribution au même sujet (euskararen batasuna) dans *Gure Herria* en 1922 (“Euskararen batasunaz”, p. 347 à 354) et revient sur ce thème à de nombreuses reprises au cours de ces mêmes années”. Euskalkien batasunaz: “Celui de l’ou souletin. Ici, il faudra matcher avec une prudence d’Indien. Les Chuberotars étant d’une susceptibilité et d’un entêtement quasi hystériques”. H-ren erabilera, kasu: “A mon avis, il est juste de restreindre son emploi, sans le supprimer entièrement, ce que constituerait d’ailleurs une tentative vaine”. Ikus in CHARRITTON, P. et CASENAVE, J., “Les lettres du Dr Jean Etchepare à Georges Lacombe”, o.c., 82 [34] or.

⁷¹

⁷² ETXEPARE, J. ikus in CHARRITTON, P. et CASENAVE, J., “Les lettres du Dr Jean Etchepare à Georges Lacombe”, n^o 29, 30, 31, 34, 35...122, 123... Beste eskutitz askoren artean, 26.04.29koa: “Je me suis amusé ces temps derniers à recueillir un certain nombre de locutions de la bouche d’une femme de St. Jean-le-Vieux (sans qu’elle s’en doutât, bien entendu)”.

⁷³ ETXEPARE, J. ikus in CHARRITTON, P. et CASENAVE, J., “Les lettres du Dr Jean Etchepare à Georges Lacombe”, n^o 64.

*altxa bakarrik Etxepare jauna buru eman zutelarik, ez zela lo egon, bazterrak harrotu zituela*⁷⁴.

Euskal ortografiari buruz, 1901-1902an Hendaian eta Hondarribian egindako bileretan sortutako eztabaida konponezina zela ikusirik, iparraldeko euskaltzale batzuek *Cercle d'études littéraires basques* eratu zuten (Baiona, 1911), non JE partaide eraginkorra izan zen eta bera izan zen taldearen frantsesezko izena inork erabili ez zezan, euskarazko izena asmatu zuena: *Euskararien bilkura*⁷⁵: “*Hamalu jarri ziren laster; hetan barne bi apez (Danranatz eta Léon). Hilabetean behin bilduko zirela egin zuten; beren arteko solasak ager-araziko zituztela ere ba, noiztenka, ‘Revue Internationale des Etudes Basques’ deitu egunarian*”⁷⁶.

JEk *Eusko Ikaskuntzan* ere hartu zuen parte aktiboa, Euskal Unibertsitatea (herri- eta herrikoia) sorrarazteko helburuz: “*Hortakotz zaiku iduri Universidad delakoa behar dela lehenik erdietsi, eraiki, alharazi urte andana batez. Esku-lan guzien jakitate egiazkoa, errotikoago, bai eta datxikon euskarazko hizkuntza heda lehenik jende xehearen artean, eta gero ikus*”⁷⁷.

Euskal kulturaren aldeko ekintza guztiotan, JEk ez solik protagonismoa, maisu-funtzioa ere bete egin ohi zuen, gaitasunez ez ezik, samurtasunez ere bai: “*O zoin laket zuen Baionako edo Donostihiriko buruzagien bilkura ttipietan. Denboraren buruan... iduri zait ikusten dudala oraino, zigarreta erien punttan, begiak erdi-hetsirik, erran guziera beha, ixil-ixila egoki: Elissaldek bere ditxoez Oxobi-ri ximiko; hunek mendia bezalako ihardespina, bumb!; Jaureguiberri-k Afrikako ixtorio xahar ikaragarri bat konda; M. Souberbielle zenak, serio-seriosa, alegia deus-ez, kitzika pollit bat bota; Dufaut-k bere xokotik nasai-nasaia botaren erreferea; Mendizabal liburu berri erakusten ari; Eizaguirre-k kantu, Mattinek edo Ligueix-ek kobla, Dassance ororen hotsemaile, -eta gure Etxepare, xortua iduri, deneri irriz, irri goxo ezti batez arraitua! Bainan bera hasten zena bada mintzatzzen, argitzen zaizkion begiak, kasik biribiltzen, eta arrazoinak ateratzen zauzkitzun, bildubilduak, lerro-lerro, xuxen eta garbi, mintzaira gurbil eta apaindu batean. Ahopaldiak bata bertzearen ondotik metatzen zituen; oso, eder, harri pikatua bezala lanturik, harri pikatua bezain azkar eta xorrotx. Berak bazauden, pisuak elgarri ahotuak eta juntatuak zauzkala, bertze lokarririk gabe. Handi emaiten zuten, Erromanoen jauregiek ere handi emaiten duten bezala; bainan bazaukaten halako arin-eskas eta lagun-eskas aire bat; hitz batez erraiteko,*

⁷⁴ LAFFITE, P. “Aitzin- solas”, o.c., 17 or.

⁷⁵ ETXEPARE, J. I. *Euskal gaiak*, 27 or.: “Euskaraz izendatzea ahantzi baizitzaen arabez, euskaraz honela deritzo ausartzia hartu nakoten: *Euskararien bilkura*, Hartu nakoten... eta beti daukat”.

⁷⁶ *Ibidem*, 27-28 or.

⁷⁷ JE, *Euskal gaiak*, o.c., 58 or. CASENAVE, J. *De l'article...*, o.c., 480 or.: “Un long développement serait nécessaire pour exploiter le grand nombre de pages qu’il a consacrées entre 1910 et 1929 (de *Buruchkak* a *Beribilez*) aux mesures à prendre pour assurer la promotion de la langue basque et réaliser les transformations indispensables à son adaptation à la vie de xxe siècle (voir *Euskal Gaiak* quasiment dans sa totalité, plus de 360 pages bien denses). Quatre années durant, il a eu la possibilité de mettre en oeuvre ses idées à la tête d’une association culturelle”.

*bere mintzairia biziki jauna zuen, beti xut-xuta, beti munttoa, artoski orraztatua, eta ezpain-lore*⁷⁸.

JEk, 1919an sortutako Euskaltzaindian, euskaltzain osoa izateko meritu asko eta sobera izan zuen⁷⁹. Euskaltzaindiak JE euskaltzain urgazle hartu zuen hasieratik bertatik (1919), “*gehixego egin zukeelarik, segur eta halere*”⁸⁰. Zergatik ez zen JE euskaltzain oso? Bada, 1920an eskaini zioten aulkiari uko egin ziolako, Aldudetik Bilbora-edo hileroko bileretara joateko oztopo larregi gaintitu behar izango zituela esanez⁸¹.

Abagune horretan, haatik, argi geratu zen euskal adituek estimu handitan zeukatela Aldudeko medikua. Euskaltzainburua zen Resurreccion M. Azkuek eskaintza kitzikagarri bat egin zion JErri. Lehenik, Madrilera joatea, “*Menendez Pidal izkeltzain andiarekin*” sei bat hilabetez, *Phonétique expérimentale* nola erabili bere *Centro de Estudios Históricos*-en ikas zezan, eta jarraian Bilbora etortzea Euskaltzaindian lan egiteko, akademiko gisa. Bitarte hartan, Euskaltzaindiaren buruak JErri bizibide duin bat eskaintzeko ahaleginak egingo zituen “*eta yoaan-etorri ta hoteletako txanpon (gastu) guziak Euskaltzaindiaren gainera izango dira*”⁸². Hala eta guztiz, JE ezetz erantzun zion, Bilbora etortzeak (“*Donostian jarri izan bazinete bederen*”⁸³) bizi-aldaketa handiegiak exijitzen zizkiolako.

1930ean, Martin Landerretxe euskaltzaina hil zenean, bai George Lacombe, bai postu horretarako Azkueren hautagaia zen J. B. Daranatz apezak ere JE proposatu zuten Euskaltzaindiaren aulkirako: “*Etchepare... arras trebe da mintzayan eta bethi eskuaraz ageri da Euskalduna-ren orrialdetan... bere gustuko lana egiteko emaiten badiosue lagun horri (Etchepareri), barrutik lothiko zaiola eta guziari atsegin oso emanen dautzuela*”. Azkenean, Azkuek Jean Elizalde *Zerbitzari* aukeratu zuen euskaltzain oso, aulki horretan lapurtar garbi bat nahi izan zuelako.

Euskaltzain osoa ez bazen, JE bitziza osoan aritu zen jo eta ke euskararen mesederako gauzak burutzen: “*Noiz eginen ote dugu euskaldun ahaldun guziek, orok batean euskararen alde indar*”. Hegoaldeko *Euskalzaleak* taldeak bezala, JE, batzuetan bere kabuz, beste batzuetan partaide zuten *Euskararien Bilkura* eta *Euskal-zaleen Biltzarra* elkarten bitartez, euskaraz idatzitako lanetarako sariak antolatu zituen, liburuak

⁷⁸ LAFFITE, P. “Aitzin-solas”, o.c., 17-18 or.

⁷⁹ ALTONAGA, K. o.c., 147 or. “Jean Elizalde *Zerbitzari*, 1927an, eta Maurice Sorberbiellek, 1932an, haserre antzean aipatu zuten ezin zutela ulertu Etxeparerentzako aulkirik ez egotea: *N’y a-t-il pas encore un fauteuil à l’Académie de Don Ascué?*”

⁸⁰ LAFFITE, P. “Aintzain-solas”, o.c., 17 or.

⁸¹ ALTONAGA, K. o.c., 147 or. “Louis Dazantzak *Herria* astekarian argitaratu zuen, Jean Etxeparek berak egin ziola uko aukera horri: “*Pierre Broussain*’en orde Euskaltzain jar zadin Bilbaotik galdea-izan zuenean, ez zuen hori onhetsi, ez zutelakotz uste karga hori behar bezala bethe zezakela”.

⁸² Azkuek JErri Madriden “bizibide egokiren bat (vuelque emploi digne) ediren... eta inguru auetan (Bilbon, alegia) sendalarigo (mediku-plaza) izan... Euskaltzainez besteak bezala izanen duzu zuk ere: batzaldi (*séance*) bakoitzeko 25 peseta”.


⁸³ ETXEPARE, J. Azkueri gutuna, 31-VII-20.

banatu, euskara eskoletara eramateko ahaleginak egin⁸⁴, eskolako euskal liburuaz arduratu (horretarako liburuak zatika euskaraz eta zatika frantsesez argitaratu beharra onartu arren⁸⁵), eskola-emaile euskaldunak erreklamatu, euskararako itzultzaileak bildu⁸⁶, katixima-irakastea euskaraz egiteko bultzatu: “*Ez uste ukan hargatik katiximan ez ditzakela ikas erligioneko egia eta sinesteak baizik; behar den bezala delarik egina, han da hobekienik haurra argitzen, gizondu denean erabiltzeko dituzken urrats guzietan*”⁸⁷, euskarazko hitzaldiak egin, Axularren (Etxeparearen, Leizarragaren) eguna prestatu...⁸⁸.

1.6. Abertzale

JE euskal nazionalismoa gauzatzen hasi zen urteetan jaio zen eta bere lagunik minenen artean, batzuk, Pierre Buruzain eta Albert Constantin medikuak kasu, euskal nazionalistak ziren.

JE Lehen Mundu Gerraren ondorengo urteetan bizi izan zen noiz Frantziaren aldeko “abertzaletasun demasekoa” piztu zen. JE fideltasun bion artean mugitu zen, euskal aberrirantz makurtu(ago)-edo: “*Erromanoek bazuten beren latin mintzaian*



⁸⁴ JE, *I Euskal Gaiak*, 72 or.: “BERRI HANDIA. Gutartean hainitzek galdatzen zuten, aspalditik, euskara erakatsia izan zedin gure eskola guzietan. Hortarat heltzea ez zen lan errea. Bainan, huma non ate zenbeit ideki zaizkon. Eta nork ideki diozka? Gure jaun apespikuak. Ezen nahi du, eta goraki erran ere, euskararen erakaspenean zerebit emana izan dadin Semenario handian, Belokeko semenario ttikian, Mauleko eta Azparneko eskola handietan, eta ahalik lasterrena, herrietako eskola girstinoetan... Berri handia da ori guretzat”.

⁸⁵ *Ibidem*, 93 or., “Norat urratsa (1924)”: “Gauza bat orai eskas: euskeraz eta frantsesez zatika eginak litazken liburuño batzen haur ttipien eskuetan ezartzea. Badugu uste, Eskaltzaleen Biltzarraren laguntzarekin batean, sortuko diren epe laburrik barne. Onlitzake, gure irudiko, hanitz erakastunentzat nola haurren berentzat”.

⁸⁶ *Ibidem*, 97 or. “1924-eko sariketak; itzulpenak”.

⁸⁷ *Ibidem*, 313 or.: “Hiru gizon dira ezen, herri batean, herritarren goiti-behitia eskutik derabilatenak, hirur: mera, ertora eta errieta. Erdikoa, nor bera delarik, bertzebiez hanitzez nagusi”.

⁸⁸ ETCHEPARE, J. G. Lacomberri eskutitzean (1925-VII-8): “J’ai commencé ma petite campagne en faveur de la commémoration d’Axular, mais je suis pauvre en documents intéressants”. CASENAVE, J. “Jean Etxepare idazle ausarta, gizon argitua”, *Maiatz*, 32 – 1999.eko azaroan, 53 or.: “Bistan dena, handienentzat egin zituen omenaldiak hala nola Detchepare edo Leizarragarentzat eta, nola ez, Saran berean 1925-ean Axular famatuarentzat”. I, *Euskal gaiak*, 94, 65 or.: “Apez geiek Euskara hobeki eta errexiago ikas dezaten, jaun apezpikuaren baimenarekin, liburu batzuek emanen zaizkote noizetik noizerat irakur dezaten: *Axular, Duvoisin, Haraneder, Xurio* bederen”.

hitz hau: patria, erran nahi baita, arbasoen toki, arbasoak bizi izan, arbasoek maitatu eta beren umeer utzi lurra. Hitz hortarik ateraia da patrie frantsez hitza, erran nahi baita, frantsesentzat Frantziako lurra. Guk euskaldunek badugu gure mintzaian ikur bereko hitz bat. Hitz hori da aberria, erran bahi baita, arbasoen lurra. Arbasoen lurra guretzat lehenik Euskal Herria; bainan Euskal-herria. Bere ñimiñoan eratzikia izan denaz geroz, eta aspalditik, Frantziari, gure aberria hedatzen da Euskal-herriko zedarrietarik harat, hartzen diela Frantzia garaitikoaren eremia. Euskaldun gira, eta orozbat frantses. Euskal Herriari zor balin badakogu gehienik gure bizipidia, Frantziari dakogu guziz zor gure adimenduko argia, gure bizitzia errestasuna, gure bihotzian dukegun aneitasun goxoa, gure ahalen handia ere ba, erran nahi dut gure indarra. Ohore egia horiek, ttipi danik, azkar eta argi, atxikiak zituzten gure herritar maitier!”⁸⁹.

Kepa Altonagak ohartarazten duenez, JEreren nazionalitate bikoitza nahiko berezia (abertzaleagoa?) izan zen Euskal Herriko (Iparraldeko) euskaltzale batzuen artean (Jean Barbierrek, esateko, Euskal Herria “*xoko bat Frantzian*” besterik ez zela defenditu zuen bere istorio liluragarrietan).

1.7. Politikari

JEk politikan ere ardura eta protagonismo nabarmena bereganatu zuen. Aldudeko auzapez-lagun izan zen, 1921-1925 bitartean. Horrez gain, kazetaritzaren laguntzaz, politika kanpainetan parte eraginkorra hartu ohi zuen⁹⁰.

Politika-arloan, ez dakigu JE zein alderditakoa zen. Ez omen zen muturrekoa izan, moderatua baizik, ez eskuindarra, ez ezkertiarra (sozialista, komunista, anarkista):

“Gorri-beltzek ez dute Frantzia ez Urepel ontzen, bainan bai urterik urtera behartzen, husten, galtzen”⁹¹; irizpide propioko kontserbadorea omen. Zenbait arlotan, tradiziozalea: familia-gaietan, esaterako; beste zenbaitetan, liberala: ekonomia-etzabai-detan, kasu. Jarrerarik deserosoena nonbait. Ikusi besterik ez dago nola tratatu zuten behin Euskal-Herrian (Errepublikaren aldeko Baionako egunkaria): “Nor-eta Nork (JEK) laudatu ondoan yaun errieta bai ‘Semanean’ (La Semaine de Bayonne), bai Euskaldunear horra non, orai, yaun haren kontra mintzo den. Zer dira holako gizonak, egun churi eta bihar gorri diren horiek? Ez deusik arradorik: lehenago ikasi du (sic), hola-koak deitzen direla ‘girouette’ edo hobeki oraino ‘linotte’”⁹².

⁸⁹ ALTONAGA, K. o.c., 127 or.

⁹⁰ CASENAVE, Jonen arabera, JE 1919-1925 bitartean “occupe le poste d’adjoint au maire de la commune”. P. Lafitteren arabera, 1921-1925 bitartean.

⁹¹ ETXEPARE, J. *Kazetaritza (A)*, o.c., 107 or.

⁹² *Euskal-Herria* (1903.05.02).

JEk bizi izan zen urteetan, Nafarroa Behereko eta Aldudeko politika egoera nahasi samarra izan omen zen. Nafarroa Beherekoek Parisko parlamenturako diputatu zuriak aukeratzen omen zituzten. Alduden, haatik, ‘gorriek’ irabazten omen zuten. Dena dela, JEk ez omen zuen iritzi positiborik izaten politikari profesionali buruz. JEri gehien arduratzen zitzaizkion arazoak herriko jendeari zegozkionak izaten ziren, *Kintoko* goiti-behitia, kasu, eta horretaz ez Léon Pradet-ek (zuria), ez Felix Larrek (‘radikal’⁹³) ez omen zekiten deus⁹⁴.

JEk bazuen herriko xumeen aldeko halako joera positiboa eta gizon praktikoa zen. Zergez eta herri-tituluen errentaz arduratzen zen: gorri-beltzek bultzatzen zuten zergen igoeraren kontrakoa eta errepublikano zuzenek (moderatu zein kontserbadoreek?) babesten zuten aurrezkien interesen suspertzearen aldekoa. Kintoko historia-eskubideez zirela eta, JE Nafarroa Garaiko artzainen eta Madrilgo agintarien kontra aritu zen, Nafarroa Behereko artzain eta laborarien eskubi-deen alde.

JEk ez zituen gogoko ez enpresa publikoak: “*Frantziako gizon zuzen eta argitu guzien ondotik, ginion, hemen berean, gure buruzagiek behar zituzkeela, ontsalaz, saldu, edo etxetiarretan eman, gobernamentuak bere eskuetan dauzkan negozio eta industriak. Bide hortaz dirutze ederra bildu zeken ondoko egunetan*”; ezta herri txikien propietate komunalak Parisko gobernuaren esku gera zitezen ere: “*Aintzinean bezala, Frantziako komunak ere, beren atzaparretan gelditu dituzte: oihan, mia, urbide eta holako; diren guztiak, beren mutilez, galtzetan ibilaraziz. Zer diot! Epe laburrik barne, gure gizonak, beren manerat bildu nahi lituzke segurantza mota guziak. Orotaz jabe dadila gobernamentua! Ez derasate bertzerik sozialistek eta heien kideko diren gorri beltzek. Ospitalean ere begi gaiztoz ikusten dituzte, diren serora bakarrak. Elizaren alderdia daukaten eskolak poxolu baitituzte halaber, hetsaraz lezazkete gogotik, ahal balute, bihar berean. Bazter orotan, zer guztietan, gobernamentua eta gobernamentuko gizonak, jabe te nauzi; jende onak aldiz, azkarki bihurtzen: hortarik dugu egungo eguneko gudu izigarria*”⁹⁵.

⁹³ Wikipedia: “Partido Radical y Radical Socialista (en francés *Parti Républicain Radical et Radical-Socialiste*) fue un partido político de centro francés fundado en 1901. Llamado indiferentemente partido radical o radical-socialista. Fue el principal partido de la III República francesa (1871-1940) y de la IV República francesa (1945-1958)... las bases comunes de su programa están en el Programa de Belleville (1869) propuesto por León Gambetta y en posteriores eventos partidarios a partir de 1901. Estas son: Sufragio universal, Responsabilidad ministerial ante el parlamento, Servicio militar obligatorio y de corta duración, Separación de la Iglesia y del Estado, Instrucción gratuita, obligatoria y laica, Impuesto a la renta, Liberalismo económico, aunque algunas fracciones eran partidarias de mayores derechos sociales a las clases trabajadoras. Otros rasgos eran un anticlericalismo y profunda fe en los avances científicos positivismo”.

⁹⁴ P. Xarritonek argitzen digu: “1900eko martxoaren 11az geroz Bexenabarre eta Ziberoa aldeko deputatu hautatua Prade-Balade, Leon izan zen 1902, 1906 eta orai azkenik 1910ko apirilaren hauteskundeetan. Louis Barthou biarnes ‘gorria’-ren adiskidetak izanagatik usuean ‘xuri’-ekin eman ohi zuen botza Parisen. Horren gatik Pariseko gobernuak haren aurka atara zuen deputatu-gei Larre Maulekoa. Baina oraiko aldian ere 15.767 hautesletarik 8.084 botz bildu zituen Pradet-ek eta 4.765 bakarrik Larre-k... Izatiaz apirilko hauteskundeetan Urepeleko herriak 80 botz eman zizkion Larre gorriari eta 30 bakarrik Pradet xuriari”. Ikus JE, *III Kazetaritza (A)*, o.c., 121 or.

⁹⁵ ETXEPARE, J. *IV Kazetaritza (B)*, o.c., 313-314 or.

1.8. Herrikoia

JEk, bere eginkizun eta portaeretan, halako (euskal) herrikoitasun bat erakusten zuen. Umea zela, zer eta “i(l)tze-egile” izan nahi izan zuen. Inoiz ez omen zuen galdu Argentinan Panpetako paradisuaren umezaroko nostalgia: “*O haurreko egun berriz jinen etzaretanak, zuetarik dut bihotzean nere bizi apurrak eman daukedan gozori hobereña*”⁹⁶.

JEk gustukoa zuen modernoa eta herrikoia izatea, biak ala biak batera. Izate bikoitz hori argi geratu zen doktore-tesiaren gaia aukeratzeko orduan, “*Euskal-Herriari eskatu zion gaia: Quelques remarques sur le Joueur de Pelote. Horra lanaren izena: pilotariaren gorputz-aldarteaz eta eritasun berezietz xehetasun ederrik ematen du*”⁹⁷.

JEk euskara unibertsitatean nahi izan zuen⁹⁸, baina ez zuen erreparorik bat ere izan baserri ibiltzeko euskararen urrezko bitxiak bildu eta langile urria zen Georges Lacomberi bere izerdiaren fruituak emateko musu truk⁹⁹.

Gaitzei buruz idatzi zituen artikulua ugarietan batzuen batzuk zientifikoak-edo izaten ziren¹⁰⁰; gehienak, haatik, herriko lagunei behin-behineko aholku praktikoak ematekoak¹⁰¹.

1.9. Filosofiaren zalea

Filosofari, hots, (g)izakiari (Izakiari?) buruzko oinarrizko galderei grinatsu lotu zitzaion JE, gazte-gaztetatik: “*Otso gazte baten gosearekin ausikian lotu zitzaion filosofiari: ilunbe guztiak argituren zituelako lillurarekin*”¹⁰². Filosofiak, haatik, ez zion JERI eskaini, beronek bilatzen zuena eta sinesmen-dudez bizi behar izan zuen bizitza osoan.

Larresoron seminarioko azken urtean, filosofia eskolastikaren erantzunek ez zizkieten JERI sinesmen ilunpeak argitu eta, bere buruarekin, hots, bere duda zein kezkekin zintzoa zelarik, JE modan zeuden filosofoengana abiatu zen erantzun

⁹⁶ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o.c., 25 or.

⁹⁷ LAFITTE, P. o.c., 10 or.

⁹⁸ ETXEPARE, J. “Euzko Ikaskuntza-ren Gernikako biltzarra (1922)”, *I Euskal Gaiak*, o.c., 55 or.: “Hitzartu ere dira nola egin euskarari eta Euskal-Herriari doazkoten goiti-beheitiez alha liteken ikastetxe handi bat, *Université Basque* deitua litekena”.

⁹⁹ JK Azkueri 20.VII.31ko eskutitza: “Langile hurria, nahi baduzu, bainan zoin zorrotz, argi eta zudur onekoa! Ikus ALTONAGA, K. o. a., 152 or. Harrotxoa ere bai? Azkueri 20.VI.18ko eskutitza: “Urquijo m’informe que la vacance du fauteil de le pauvre Broussain est déclarée. Croyant avoir fair quelque chose pour le basque en France et à l’étranger depuis 25 ans, je vous prie de vouloir bien faire savoir à vos collègues de l’Académie que je me porte candidat. Cette candidature est approuvée d’ailleurs par mes amis les linguistes de Paris, qui seraient d’ailleurs heureux, le cas échéant, de contribuer indirectement à la prospérité de l’Académie”.

¹⁰⁰ “Haurren paralesia”, “Gaitz eta sendagailu berri”, “Koch”, “Tuberkulosa aberetan”, “Eri-burukoa”, “Hezur chuchentzen”, “Ebakia haurretan”, “Bizkar makurrak”, “Ahoa eta ahokoak”...;

¹⁰¹ “Jende Chaharrentzat”, “Frantziako Hospitaleak”, “Erien ikustera joaitez”, “Eriaren gela”, “Kontsultaz”...

¹⁰² LAFITTE, P. “Aitzin-solas”, o.c., 8 or.

bila, Bordeleko Unibertsitateko urteetan: eboluzionistak eta ateoak izan ziren Friedrich W. Nietzsche-rengana eta Ernst Haeckel-engana omen, eta, seguru antzean, soziologo estrukturalista, positibista izandako Emile Durkheim-engana ere bai¹⁰³.

Urteak aurrea joan hala, JE neopositibista logikoen (Hans Reichenbach-en¹⁰⁴, Stuart Mill-en(?¹⁰⁵)) teoretara hurbildu zen. Autore horiek, haatik, ez zioten erantzun ziurrik eman, markatu, ostera, bai, markatu egin zuten, barru-barritik, Aldudeko mediku kezkatia.

Alduden eta Kanbon emandako urte luzeetan, Georges Lacomberen (eta inguruko zenbait apezken) bultzadaz¹⁰⁶, JE arrazoi edota espirituari eragin handiagoa ematen zioten filosofoekin aritu zen: Immanuel Kant-ekin eta, batez ere, Henri Bergson-ekin, alegia. Autoreok, haatik, ez zuten lortu JEK filosofo positibisten eraginetik alde egiterik¹⁰⁷.

Halaz ere, gai guztiez idaztea gogoko zuen JEK ez zuen filosofiari edo teologiari buruzko ezer idatzi, gutun gutxi batzuk izan ezik. Zer zela eta? Lotsatia, belduria? “*Quoqu’il fût -dio P. Lafittek- en général fort discret sur ce chapitre*”¹⁰⁸. Baliteke *Buruxkak* liburuko artikulu batzuekin izan zuen esperientzia txarrak gai sakon horietaz berriz ez aritzera bultzatu izana¹⁰⁹.

2. JEAN ETXEPAREREN ERLIJO-ESPERIENTZIA

Erljioak JEn bizitza baldintzatu (balizatu) zuen: kontzientzia-kezkak, familia-erlazioak, lana... Familia tradizionalak, ikasketa eta irakurketa sarri, ireki eta sakonek, zorrozkeriaz kutsatutako herri-erlijioak, Frantziako politika agintariak jo eta fue-

¹⁰³ CASENAVE, J. o.c., 206-207 or.: “Pierre Charriton avance l’hypothèse que le jeun écrivain aurait fait siennes quelques-unes des démarches et des idées de la sociologie naissante du début du siècle et, notamment de son chef de file Émile Durkheim... Jean Etxepare entame ses études de médecine à Bordeaux à la rentrée universitaire de l’année 1894. Il suit donc les cours qui sont dispensés à la faculté de médecine située Place de la Victoire. Non loin de là, à une dizaine de minutes à pied très exactement, se trouvent les bâtiments qui abritent les facultés généralistes sur le Cours Pasteur. Les disciplines des Sciences et des Lettres y sont réunies. Il est donc tout à fait possible que le jeune étudiant en médecine, ouvert à toutes les formes de connaissances ait pu suivre les cours de Émile Durkheim”.

¹⁰⁴ LAFITTE, P. in *I Euskal gaiak*, o.c., IV: “Gaztean Haeckel eta Nietzsche-n erranek burxoratu bazuten ere, laster itzuli zen Reichenbach-en filosofi analitikoari buruz eta *als ob* erran nahi baita *alegia-eta (comme si)* bizi-moldera jautsi zen”.

¹⁰⁵ G. LACOMBERI 28.03.09ko JEn eskuiztza. “L’idée de distance y est rendue à la manière primitive analysée maintes fois par les philosophes, notamment – si je me souviens bien – par Stuart Mill”.

¹⁰⁶ G. Lacombe Pariseko Société Française de Philosophie partaide izan zen.

¹⁰⁷ CHARRITTON, Pk eta CASENAVE Jk argitaratutako eskuiztzen oharretan argitzen digute JEK (berr)irakurri zituen Bergsonen liburuak hauek direla: *L’Evolution Créatrice* (1907), *L’Essai sur les Données Immédiates de la Conscience* (1889) et *Matière et Mémoire* (1896).

¹⁰⁸ LAFITTE, P. “Les courants du pensée...”, o.c., 785 or.

¹⁰⁹ ETCHEPARE, J. “Jean Etxepare jaun mirikuak...”, o.c., 600 or.

go indarturiko laikotasunak...¹¹⁰. JEreren erlijio-esperientzia taxutu zuten. Zelan erre-akzionatu zuen eragin horien guztien aurrean iritzi-independentzia, zientzia-positi-bismoa, gizarte askatasuna eta solidaritatea maite zituen Aldudeko mediku gazteak?

2.1 Familia

JE euskal familia bateko lehen seme jaio zen, Argentinako Panpetako “*etxe luze apa!*” batean, 1877ko urriaren 30ean. Arrantxo hura oso leku isolatu batean zegoen: “*Begiz ikus ahal urrun hedatzen zen zelaia, belarrez musker gizen, han hemenka bizkitartean pentoka larrutuño batzuen titatua... Non nahi burua goiti zindezan, erdiz erdi aurkitzen zinuen iguzkia, zabal, xuri, dixtirantarekin lillugarri, xipliltzeko sapa zarioala*”¹¹¹.

JE umea bakarti bizi izan omen zen sei urtez, lagunik gabe eta etxeako lanari, artzaintzari batik bat, guztiz emanda¹¹². *Kuanzito* deitzen zioten umeak bere kabuz antolatu behar izan zituen jolasak eta joan-etorriak. Biziera horrek independentziarako joera, arriskuekiko ausardia, inizatiba edota iritzi propioak, lan edo esfortzurako zaletasuna indartu zizkion JEreri: “*Goizarekin ateratzen nintzan bada egun guzietz, eta joaiten etxetik urrun... Ihizirat nindoan... nehoi (ez amari ere) erran gabe hargatik... orduz geroztik nindaukan betierekotz hartua ihiziko arrabiak... Aitaren zakurretarik bat nerekin hartzen nuen. Nire buruari gogor eginez, lotzen nintzan bizkitartean lanari*”¹¹³.

Aitaren portaerak, jo eta su, markatu zuen JE, hola famili edota gizarte erla-zioetan, nola, ziur asko, erlijio-esperientzian ere bai. JEreren aita, kristau katolikoa zen, baina kalbinistek bultzaturiko Jainkoaren irudi zorrotzarekin antzekotasun handia izan omen zuen eta semearengan beldurraren, esfortzuaren eta zigorraren presentzia sorrarazi zuen. Kalbinisten eragina sakonki zabaldua zen, XVII. mendetik, etxeparetarrak sortu eta bizi izan ziren Iparraldeko euskal herrietan, ahai-de katolikoaren artean ere bai¹¹⁴.

¹¹⁰ Laikotasunaren eta laizismoaren arteko bereiztea ez da erraza izaten. Are zailagoa XVIII-XX. mendeen arteko epe istitsu eta luzeaz aritzen bagara. Batzuek laikoatasuna (laicidad) eta laizismoa gauza bera direla aldeztuten dute. Gehienek, haatik, termino bion artean bereizketa hobesten dute. Azken kasu horietan, laikotasunak eliz eta gobernu-kompetentzien arteko bereizketa defenditzen du eta bioi dagozkien arloetan *lankidetz*a edota begirunea ere bai. Laizismoak, haatik, elizen eta Gobernuen arteko axolagabatasuna edota bioi dagozkien arloetan erlazio aurkako edota beligerantea adierazten du (G. Peces Barba). Beligerantzia instituzio biotatik datorke. Guk, hemendik aurrera, ez dugu bereizketa/lankidetzari dagozkion ala beligerantziari.

¹¹¹ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o.c., 26-27 or. ALTONAGA, K., o.c., 16. or: “Hemeretzigarren mendeko amaieran Mar Chiquita-ko Partiduak 4.500 biztanle zituen, 3.118 km karratutan banatuta, baina lurralde osoan ez zegoen herririk”.

¹¹² JE jaio eta hiru urtera Pierre anaia jaio zen eta handik bi urtera arreba Gratianna. Baina ez zuten Mar Chiquitan elkarrekin jolasteko denborarik izan, 1883an. JEK sei urte zituela, Etchepare familia osoa Euskal Herriratu baitzen.

¹¹³ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o.c., 28-31 or.

¹¹⁴ PASTOR, L. *Historia de los Papas*: “De Dios (‘sin corazón’) hace la nueva doctrina un tirano, que da preceptos, luego no ofrece a la mayor parte de los hombres la más ligera posibilidad para su cumplimiento”. VINSON, J. *Les Basques et Le Pays Basque*, Librairie Léopold Cerf, Paris, 1882, 113 or.: “Les Basques ont été plus accessibles aux idées jansénistes”. LHANDÉ, P. “Dieu est avant tout, pour le Basque, le Maître absolu, le Chef suprême qui a tout pouvoir de commander et toute puissance d’exécuter... ¿Serait-il exagéré de dire qu’il (le basque) le craint (à Dieu) plus qu’il ne l’aime? Je ne le pense pas.”

JEren aita autoritate handikoa zen. Ezkondu zenean 35 urte zituen eta ama Gratiannek 19¹¹⁵. JEK berak azpimarratzen digu aitak beragan sortarazitako begirune eta beldur ezohikoa: “*Jendeez bezenbatean, gehienik oroit nizona, beti eta beti gogotan baitaukat: aita. Eta bizkitartean etzaut bururat heldu behinere nehon ikusia dutala, ez baitezaket erran nolakoa zen begitartez ala trakaz. Ardunenik lanean ari zen nunbait, bere aneia eta sehiekin. Haren beldur gaitza nuen. Arras goizik aditua bide nakon haurrer dago la ixilik egoitea jende larrien aitzinean, guziz jateko tenoretan; ezen, urrunerat hautemaiten nuen ber, ixilik jartzen nintzan, erdi ahalge, erdi izitua. Behatzera ere ez nintzoken ausarta. Hain barna sartua ukan dut zainetan, ttipi danik, aitaren alderateko beldur hori non, gizondu ta, jarraiki baitzaut, halako uzkur edo zer nahitarat abia nindadien, huts egiteko ikara bat jauzarazten zaundala...*”¹¹⁶.

Ama Gratiannek, senarraren prestigioari eutsi nahian edo, aitaren zuzentasun eta zuhurtzi zorrotz(egi)a goraipatzen zion seme nagusiari. Alferrrik omen, Kuanzito semeak aita, batez ere, zigortzailatzat ikusten baitzuen: “*Aipatu dutan herabe harritua huntarik naukan gehienik: ama hanitzetan mintzatua baitzitzautan hartaz, goretziz, bera baino biziki gorago jarritz. Errana zaundan etzuela lana baizik maite, zuzentasunez ala zuhurtziaz ez zitakola nehor hurbiltzen herrian, orok jauspen ekartzen zakotela, guziz artzainek, etzuelarik bizkitartean haukiekin elerik batere. Banekien oraino, amak erranik, gauzak ikusi arau zerabilala gogo; lausenguz etzitakela bil; huts xehe lerroarentzat garratzago zela, ezin ez handi bakar batentzat, buruan hartuz geroz, etzezakala barka. Behakoa urrun heltzen zuelarik bizkitartean, ezen harek behin tzarrarendako bazterrerat utzi artzainetarik ez omen zen bihirik geroan oneratzen. Amaren aneia gazte bat holaxet bazuen sei hilabeteren buruko kanporat emana, ordutik deus behar bezalakorik ez baitzuen egiten nehon dohakabeak. Amari aditua nakon, bertzalde, berdin gogorra zela zakurrentzat, hotarik baitzaukan andana hilik, alferrak zirelakotz edo hatzemanik izanak ardi en ausikika meskaratzen. Etzetik igo nindezan osaba artzain hura bezala edo, zer dakit?... zakur gaixtoer jazarri zen araberan lot zakitan niri ere, holako zerbeitetarik sortua bide zen aitarendako naukan delako beldur izigarria*”¹¹⁷.

Amak, aitzitik, gozotasuna biltzen zuen: “*O zenbat urrikari ukan ditudan amarik gabe ttipi danik gelditu diren haurrak! Ene ama maite, ene haurtasuneko argi eta gozo bakarra, beti ikusten dut etxe sahetsean xutik goizarekin, xuhailez jauntzia, besoak ukondoraino egerian, eskuen artean oihal marruskatzen ari, aitzinean bi heraitz sardekadunen*

¹¹⁵ ALTONAGA, K. o.c., 16 or.: “Iturri dokumentalak ez datoz bat amaren adinaz, eta horrela, Piarres Lafittek argitaratutako bataio-agiriaren arabera 23 urtekoa zen, baina Jon Casenavek erakutsi jaiotza-heriotza urteak zuzenak badira, Gratianne Bidegorrik 19 urte zeuzkan”.

¹¹⁶ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o.c., 27 or. Eguneroko familia-bilkuretako edariak, hauxe diosku JEK in *Buruxkak*, o. c., 84 or.: “Eskualdun ohiturak ginauzkan: aitak edan lehenik, gero semeek, adin arau, lerroan, gero alabek, azkenik amak, bazterrik ere baitzagon arduura, zerbitzari”.

¹¹⁷ *Ibidem*, 27-28 or.

gainean zaukan aska baten barnerat ixurkina erotzerat uzten zuela”¹¹⁸; eta erlijio-praktika eta esperientzia zaintzen ere bai. Jon Casenavek azaltzen digun bezala: “*elle assure la transmission de la pratique religieuse*”: “Amak belaunikarazten ohi ninduen -noiz, non, ez nakike- eta, bi eskuak ahurraz elgarri ezarririk, erranarazten zaudan hitzez hitz otoitz hau, oraindo aditzen baitut: ‘Jinko maitia, egizu nitarik mutiko perestu bat.’”¹¹⁹.

Jainkoaren irudi-egiturarekin zerikusi handia duen aita-amekiko erlazio horretaz, JE umeak esperientzia pertsonal adierazgarri (erdiragarri) bat gorde zigun.

Kuanzitok ehiza-txakur bat zeukan Mar Chiquitan, biziki maite zuena: Garibaldi. “*Ez dut ahantziko bizi naizeno –azaldu zigun idazleak-: arratsalde apala zen; ama etxe sahetsean jarria, itzalean; ni, haren inguruan ari josteta. Horra non ikusten dugun aita gure ganat heldu, begitarte mokorrarekin arabez, ezen berehala amaren altzorat ihez egin nuen. –Bada berriagorik, Joannes? –Zakur madarikatu horiek berriz ere ardier ohar-tiak... Bortzpasei hunki daizkiatzie barda. Jainko Jauna! Ez dauzkitzute balinba ito? –Bizkarrerat jauzi eginik, handik ausiki. Ez dituzu hilen naski, baina xahaturik utzi tizie gaixoak... Denek Garibaldi dela ziozie. Izen hori aditzearekin, ene zakur eta ihiziko lagun maitatearen izena. Izialdurak inarrosi ninduen amaren belaunen artean. (Amak) Hauteman bide zuen, ezen erran zakon aitari. –Ezin sinetsia da. Aspaldi du etzinuela holako zakur onik eskuratu. Bi urte huntan gurekin baita, etzuen bada oraino holako gaitxakeriarik eginik!’. Aita ixil ixila. Ama, berriz. –Haur gaixo honek (gure Kuanzitok) ere hainbertze maite zuen! Hunen gatik, aldi huntako bederen, otoi barka zakozu’. Aitak hitzik... Ez nuen begirik hetsi gau hartan... Biharamun goizean... horra non (aitak) ateratzen duen sakeletik, dirdir, revolverra... Ageri zitzautan ba orai zertarat jalgia zen, baina nik deus ezin egin! Ah! Jainkoa! Aditu nakon oihi hau, labur eta gora: Garibaldi! Agertu zen handik hara-txago zakur gaizoa, eta lasterka abiatu bere nauari buruz, beharri, buztanak higitzen zituela, bere begi ederrak dena amodio. Ximixta bezala iragan ziren denak: aitaren beso agertzea, tiroa, zakurraren erortzea sahetsaren gainerat, sabela zilaturik. Bizia ordu berean nihauk galtzen nuela iduritu zizautan.”¹²⁰.*

Ez dezagun pentsa, haatik, etxeparetarren etxean, batez ere Mar Chiquitako bakardade eta laztura utzi eta gero, ez zela samurtasunerako espaziorik geratzen. JErren gogoan gordeta zirauten behin betiko familia bilduak kantuka eta dantzan ematen zituen Mendiondeko Erlandeneko arrats gaualdiek: “*Aldi batez bizkitartean –beti gogoan daukat, ene haurtasuneko oroitzapenik hunkigarriena baita– etzuten luzaz utzi biritxiek aita... Beha egon ginintzeietzen xoraturik, hain baitziren pollitak eta maita-*

¹¹⁸ *Ibidem*, 28 or. CASENAVE, J. o.c., 193 or.: “Les parents y apparaissent comme les garants d’un ordre donné comme immuable : la mere règle les questions relevant de l’intérieur de la maison et de l’intimité. Douce et silencieuse, elle protège l’enfant des foudres paternelles. Travailleuse infatigable, de surcroît excellente cuisinière, elle agence les nourritures matérielles eta...”.

¹¹⁹ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o.c., 36 or.

¹²⁰ ETXEPARE, J. “Ameriketako oroitzapenak”, o. c, 34 or.

garri beren zango ñimiñoen gainean harat-hunat ibilki, adinez, begitartez, mintzoz berdintsu... harik eta, guztiz nekatuak, kadera ttipi bederaren gainean jarri, guri beha tente... Ahantzi genintuen xoko hartan, gutarteko jarraikitzen ginelarik. Epe luzea iragan zen. Bat-batean horra non aitak, itzulerik haier buruz eta eriaz erakusten zauzkularik, ohartarantzen gituen, erranez: –Beha, beha... Gaixoak! Nigarra begirat jin zitzakon, bihotza tanpez beraturik”¹²¹.

Etxepareneko erlijio-giroa, zorrotza gehienetan, samurra noizbehinka, hazkuntza-likido emankorra izan zen. Erlandeneako zazpi seme-alabetatik seme bat (Pierre) apez izan zen, alaba bat (Julie) Gurutzeko alaben erlijio-ordenako moja eta berorren bikia izandako Émile anaia “*erudit autodidacte croyant conveincu*”¹²².

Datu zehatzik ez badugu ere, egoki pentsa dezakegu 16 urteen inguruan JErI sortu zitzaion sinesmen-krisian aitaren irudi zorrotzak eragina izan zuela: “*Le père, le maître de maison, représente la loi. Les enfants ne prennent la parole qu’avec son autorisation. En l’absence des grands-parents, c’est lui qui transmet aux enfants le patrimoine culturel à la veillée. À l’extérieur, il règne sans partage et le travail apparaît comme la valeur la plus importante à ses yeux. Cette figure paternelle austère et lointaine, empreinte même d’une certaine brutalité, peut être considérée comme assez répandue, à défaut d’être courante puisque le voisin fabricant de clous semble aussi bourru et violent que le père de l’écrivain. Cependant ces deux hommes sévères peuvent, en certaines occasions laisser transparaître une sensibilité d’ordinaire cachée*”¹²³.

Erljio-psikologia sakonaren hipotesi hori kontuan hartzekoa dugu, are gehiago ohartzen bagara aitaren (Jainkoaren?) gerizpea JErI luze zabaldu zitzaiola bizitzan (ia osoan) zehar. JErEn aita 1932an hil zen, 90 urte zituela, JEK 55 (handik 3 urtera hil zen). JErEn (erlijio) esperientziaren alde biguna irudikatzen zuen ama, ostera, gazte hil zen 1914an, JEK 37 urte zituela.

2.2. Eskola

JErEn aita Jeanek (aitaren gerizpea luzea da) semeek ikas zezaten nahi zuen; eliz eskoletan, hain zuzen (bazegoen besterik Lekorne inguruan?). Horregatik etorri omen ziren Ameriketatik seme nagusia sei urte bete berritan. Lekorneko herri-eskolara bidaltzeaz gain, aitak herriko apezengana ere bidali zituen semeak, aparteko ikasketak jaso zitzaizkien. JEK 12 urte bete eta berehala, gurasoek Larresoroko seminariora bidali zuten. “*Urte haietan Larresoroko seminarioaren eragin handia*

¹²¹ ETXEPARE, J. “Birixiak”, *Buruxkak*, o.c., 86-87 or.

¹²² CASENAVE, J. o.c., 60 or.

¹²³ CASENAVE, J. o.c., 193 or. FREUD, S. *El porvenir de una ilusión*: “Los sentimientos de ‘amor y temor de dios’ no tienen su origen en dios, sino en los seres humanos. Son sentimientos de frustración dirigidos por el hombre a un ser imaginario que pretende sea su padre”.

eduki zuen *Ipar Euskal Herrian, bertako ikastetxe nagusia izan baitzen*¹²⁴. 1894ko azaroan JE Bordelera joan zen mediuntza ikastera.

Erljio aldetik, hiru eskola horien eragina ezberdina izan zitzaion JE gazteari. Zein baino zein erabakigarriagoa?

2.2.1. Herri-eskola

Mar Chiquitatik bueltatu eta jarraian, ordura arte eskolatu gabeko JE haurra herri-eskolara bidali zuten. “*Haurra, diosku P. Lafittek, ernea zen, deneri ohartua, oro jakin-nahia*”. Pierre Detsessarri izan zuen lehen ‘errieta’ eta J. L. Dibar bigarre-na¹²⁵. Erljioa eta latina, haatik, JEk Etxegaray apezarengandik ikasi zuen. Bederatzi urte zituela, JEK lehendabiziko komunioa egin zuen, 1887ko maiatzaren 15ean. Urte haietan, arretatsu eta hunkibera zen Kuanzitori apez izateko bokazioa-edo piztu omen zitzaion, baita ‘iltze-egile’ izatekoa ere: “*Itzegile edo apez, hau ere ofizio goxoa baitzitzautan*”¹²⁶.

2.2.2. Larresoroko Seminarioa

12 urte betetzear zegoenean, gurasoek Kuanzito Larresoroko Seminarioa bidali zuten: “*Larresoroko ikasle ohiak ziren sasoi horietako eliteak. Larresoroko Seminarioaren eragina euskal letretaraino iritsi zen, eta sarritan ‘Larresoroko eskola’ aipatzen da, sorta horretan hainbat idazle bildurik, hala nola Arnaud Abadia, Manex Hiriart-Urruti, Blaise Adema, Jean Barbier, Jean Etxepare, Jean Sait-Pierre Antxuberro, Jules Moulrier Oxobi, Laurent Apeztegi eta Jean Elizalde Zerbitzari*”¹²⁷.

JE laugarren kurtsuan hasi zen eta bost ikasturte egin zituen Larresoroko seminarioan, non gai guztietako iralaskiak apezak ziren: “*eskualde guziko jaunik argitsuenak... jainkotiar kartsuak, bainan deus hertsitasunik gabekoak*”¹²⁸.

JERI Larresoroko esperientzia gazi-geza gertatu zitzaion. Apez-irakasleak oso onak izaten ziren hizkuntza eta literatura-arloetan¹²⁹. Erljio edo sinesmenarekin

¹²⁴ ALTONAGA, K. o.c., 57 or.

¹²⁵ ETXEPARE, J. in LAFITTE, P. “Jean Etxepare, Jaun mirikua”, o.c., 6 or.: “Les leçons que vous m’avez données étant enfant sont les plus présentes à ma mémoire”.

¹²⁶ ETXEPARE, J. “Itze-egilearen zakurra”, o.c., 66 or.

¹²⁷ ALTONAGA, K. o.c., 57 or.; baita J. Duvoisin (1810-1891) ere, “donde dejó más bien fama de alumno indisciplinado”, in VILLASANTE, L. *Historia de la Literatura Vasca*, Arantzazu, 1979, 187 or.

¹²⁸ LAFITTE, P. “Jean Etxepare, Jaun mirikua”, o. c, 8 or.

¹²⁹ ETCHEPARE, J. ikus in CHARRITTON, P. et CASENAVE, J., “Les lettres du Dr Jean Etchepare à Georges Lacombe”, *Bulletin du Musée Basque*, o.c., 35: “J’ai fait des progrès appréciables tant en biscayen qu’en guipuzcoan. Ni l’un ni l’autre de ces dialectes ne me paraissent valoir, en précision et en harmonie, la belle langue d’Hirart-Urruti et d’Abbadie. Dans la conjugaison du verbe biscayen, j’ai admiré comme ne se lassait de le faire autrefois Broussain, la simplicité de la formation du pluriel. Certaines pages d’Aguirre et d’Azkue son prises sur le vif, et je les ai beaucoup goûtées”.

erlazio zuzen zein zeharkakoa zuten zientzia- edo filosofia-gaietan, haatik, apez-irakasleak ez ohi ziren horren zorrotz eta jantziak izan.

JE ikasle eredugarria izan zen, langile eta elizkoia: “*Lehen urtean bi sari ukan zituen: lanekoa eta anglesekoa; bigarren urtean, lanekoa eta hiru aipamen; hirugarren urtean bi sari eta lau aipamen; laugarren urtean, bortz sari eta sei aipamen... Xehetasun horiek erakusterat emaiten dute zer langile zaila zitaken eta aztaparkaria; beti ari eta beti goiti, arno ona bezala beti ontuz... Jakite guztietara aise jarri zen, bainan oroz gainetik mintzairer arrotzetarat, izan zadien latina ala anglesa. Hori betiko izanen du, eta bere bi ondar urtean ez ditake erran zoin ontsa ikasi zuen alemana, lehenentxago, hogoita-hamar urtetan espāñola hartu zen bezala. Haren eskola-emailek eta lagunek gauza bera diote, hiru amodio baizik ez zituela Larresoron: lana, pilota eta otoitza. Hirueri osoki emana zen eta jarraikia, eta ez ‘norat haize, harat aise’ ibiltzale hetarik. Bere buruaren jabe egon nahi zen eta bere aburuen nagusi, Halako jite batek badu alde onik, gizona ez baitu ‘beti bertzen meneko’ ezartzen. Baduke txarrik ere, bertzen laguntza ez baitio aski preza-razten. Zer nahi den, biziki ontsa ikusia zen eta nehor ez zen harritu 1893an, ‘bakalorea’-ko haitada gainez-gain iragan zuelarik, gazte-gaztea, hamasei urterat gabe, hiru hilabeteren barkamenduarekin”¹³⁰.*

Azken ikasturtean, haatik, hots: 1893-94an, filosofia ikastea egokitu zitzaionean, lehendabiziko erlijio-krisia piztu zitzaion ikasle gazteari. Bidegurutze erabakigarri horretan, apez aholkulariek, borondate onez, ez zuten JE ondo bideratu, giza oinarriko galderak desbideratu edota ito ere nahi izan baitzizkioten.

2.2.3. Bordeleko Unibertsitateko Medikuntza-Fakultatean

17 urte bete berriko zen JE sinesmen-kezkaz beteta zegoen eta Bordeleko Unibertsitatera joan zen medikuntza ikastera, guraso eta apezzen babesetik (gerizpetik) libre(ago) lehenengoz!¹³¹. Giro ireki (nahasi?) horretan, sinesmena iluntzen hasi zitzaion JErri, harik eta, apurka-apurka, (gutziz?) ilundu arte. JEK, haatik, ez omen zuen kristau bizieraren lotura guztiz pikatu: “*Bitxi bada bitxi, beti atxikia ego-na zitzaion Jesu Kristoren Imitazioneari, nahiz liburu hori ez zuen erlisionezko bezala hartzen, bainan bai zuhurtziazko esku-liburu bat balitza*”¹³².

¹³⁰ LAFITTE, P. “Jean Etxepare, Jaun mirikua”, o.c., 7 or.

¹³¹ Etxera gustura itzultzen bazen ere. ETXEPARE, J. “Biritxiak”, *Buruxkak*, o.c., 83 or.: “Eskoletan nindabilalarik, gogotik uzten nuen eguerrietan hiria, zenbait egunetz etxeaz, etxekoez, sor-herrinoez gozatzeko”. Larresoroko ala Bordeleko urteez ari da JE testu horretan?

¹³² LAFITTE, J. “Aitzin-solasa”, o, c, IV.

2.3. Gizarte laikoa

2.3.1. Egoera bortitza eta aldakorra

JE bizi izan zen bitartean, Frantziako egoera politiko eta erlijiosoa latza izan zen. JE Frantziako III. Errepublikaren menpean bizi izan zen (1870/75¹³³-1940) bizitza osoan. Epe horretan, batik bat 1880-1905 urteen bitartean, Frantziar laikotasuna zabaldu, instituzionalizatu eta kontsolidatu egin zen. Hori zela eta, Eliza Katolikoaren eta Frantziako Gobernuaren arteko liskarrak gogorrak izan ziren, gogorrenetariakoak omen historian zehar; ‘laizismo oldarkorrekoak’, alegia¹³⁴: *Le clericalisme voilà l'ennemi* (Alphonse Peyrat, 1877)¹³⁵. Hori gutxi balitz, 1914-18 urteen bitartean, JE, 37-41 urte zituela, Lehen Mundu Gerran parte hartu behar izan zuen¹³⁶.

JE bizi zelarik, Frantziar ugariak izandako alderdi politikoak multzo bitan banan ditzakegu: xuriak kontserbadoreak eta gorriak edo laikoak. Lehen multzoan, errege-tiarrak: legitimistak zein orleanistak eta inperiozale edo bonapartistak sartzen ziren; bigarrenean, errepublikarrak: zirela zuzenak edo erdi-zuzenak (demokratikoak), zirela gorri-beltzak, hots: erradikalak, sozialistak eta komunistak¹³⁷.

Horrez gain, urte haietan Frantziako egoera politiko guztiz aldakorra ezagutu zuen. JE bizi izan zen urte apurretan (57 urte), 13 presidente eta 69 lehen ministro edo gobernu ezagutu zituen (bataz beste, urtebetera iritsi ez zirenak) eta 1879az geroztik ia lehen ministro guztiak errepublikar ezkerrekoak izan ziren: erradikalak gehienetan, demokratikoak gutxitan.

2.3.2. Errepublikanoa. Zein alderditakoa?

Zein alderditarantz makurtu zen Aldudeko medikua? Ez dugu gai horretaz erreferentzia zuzenik. JE ez omen zen napoleonzale edo bonapartista izan: “*Ba-*

¹³³ GAUCHER, G. *Santa Teresa de Lisieux. La biografía*, Monte Carmelo, Burgos, 2012, 437-8 or.: “La enmienda Wallon’ (Henri Wallon, biógrafo de Juana de Arco [Los francmasones intentan apropiarse de la heroína francesa y desacralizarla...] se hizo célebre porque gracias a él se adoptaron, con un voto de diferencia, las leyes que instauraban la IIIª república, el 30 de enero de 1875 (353 votos contra 352)”. Para los anticlericales –los ataques anticristianos siguen siendo intensos– Juana de Arco es considerada una liberadora de la patria, una librepensadora quemada por la Iglesia.

¹³⁴ GAUCHER, G., o.c., 570 or.: “El segundo ministerio Bourgeois (octubre de 1895-21 de abril de 1896), bajo la presidencia de Felix Faure, es más anticlerical: de sus doce miembros, nueve son francmasones”. MACIAS, E. “La laicidad reguladora del principio de laicidad en la escuela francesa”, *Anales de derecho*, Universidad de Murcia, n. 26, 2008, 624 or.: “Entre 1880 y 1905 se llevó a cabo el proceso de laicización que culminó con la Ley de 9 de diciembre de 1905, de separación de la Iglesia y el Estado. Los contenidos de esta Ley aparecen inspirados en el denominado ‘laicismo agresivo’, doctrina política destinada a eliminar la influencia religiosa en la esfera pública”.

¹³⁵ LALOUE, J. “El anticlericalismo en Francia, 1877-1914”. La fórmula, que se hizo célebre, pertenece a la antología francesa de frases históricas, junto con ‘París bien vale una misa’ o ‘El Estado soy yo’. Según *Le XIXe Siècle* del 4 de enero de 1891, las palabras exactas de Alphonse Peyrat habían sido: ‘El catolicismo, éste es el enemigo’, citado por Louis Capéran, *Histoire contemporaine de la laïcité française. La crise du seize mai et la revanche républicaine*, Paris, Marcel Hiviere, 1957, p. 63”.

¹³⁶ Bigarren Mundu Gerra JE hil eta bi urte eta erdira (1937) piztu zen.

¹³⁷ Ikus JE, *Kazetaritza (A)*, o.c., “Politika-solas”, errepublikar biren arteko elkarrizketa.

tzuen ustea da (ez berea omen), ororen buru jarriko zaukula laster, gizon estu azkarreko bat: un dictateur”¹³⁸; ezta erregetiarra ere: “Bertze batzuek nahi lukete errege bat. Bere familiararen ona bezala. Frantziaren ona beira lezakena, bere odolekoen ondoriotasuna gatik”¹³⁹. JE, bestalde, JE ez zen gorri-beltzekoa izan¹⁴⁰: anarkista, sozialista edota komunista: “Gorri-beltzen gobernamentua. Bai eta errege tzar batena. Ez hunek, ez hek ez dute zuzentatzen”. Talde politikoren bat aukeratu beharrean, JE errepublikanoa zen, baina ‘atipikoa’¹⁴¹ (alderdi zein talderik gabea?: *Zendako gitzuke bada hola bipiltzen? Boza aldi bakotx haien alde guk eman eta, ez ginuke bada holakorik merezi... Ez dugu gehiago, eta hori gure faltaz, errepublikano zuzenik gai hartan. Beren buruaren gizontzeaz baizik ez dute axolarik. Hainbertze zerga motetarik biltzen daukuten dirua eskuratu duten ber baderamagute berentzat*)¹⁴². Botoa nori emateko aholkatzean, JE adjektibo (alderdi?) berri bat asmatu beharrean izan omen zen: “Errepublikano garbier dezagun botoa eman. Orain dugu errepublika Estados-Unidos- etakoaren itzal bat da”¹⁴³.

Frantziako errepublikanoen artean bazeuden tendentzia, alderdi edota elkarre askotakoak: *Bloc national*, *Cartel des Gauches*, *Alliance [Republicaine] Democratique*, *Front populaire*...: oportunistak, ezkerrekoak, erradikalak, demokratikoak, sozialistak, komunistak, independenteak. Batzuk xuriak, gehienak, gorriak eta gorri-beltzak ere bai. JE, Errepublikaz desengainatu samarra izan omen zen.

Guztien gainetik, ‘jende langile zuhurren’ aldekoa izan zen: “*Jendea, geroago gehiago bi andanetan ari da jartzen Frantzian: alde batetik gobernamentuko gizonak eta haien ganik urin zerbait ahora jiten zakotenak; bertze aldetik jende langile zuhur. Beren familiarrentzat zerbait egin eta utzi nahi luketenak. Orain dugun errepublikak, egunetik egunera bere errespetua galtzen ari da. Behar den bezalako gizon guziak, beren buruari ‘zu’ errarazten dakotenak, berexten hasiak zaizko. Ameriketara ere bada errepublika, baina esku azkarretan dago oraino. Ez da gurearen irudira beste sehien menerat eroria*”.

Eta herriz herriko antolakuntza eta instituzioen deszentralizazioaren aldekoa ere bai. Hori zela eta, Frantzia osora begirako alderdi ofizialekin mesfidatia zen horrek ez zion ukorik egin Aldudeko udaletxeko auzapez-lagun izateari, 1919-25

¹³⁸ ETXEPARE, J. *Kazetaritza (B)*, o.c., 289-90. WIKIPEDIA: “Considerado por algunos un ‘monarca iluminado’ debido a su extraordinario talento y capacidad de trabajo. Otros, sin embargo, lo estiman un dictador tiránico cuyas guerras causaron la muerte de millones de personas, así como uno de los personajes más megalómanos y nefastos de todos los tiempos. Se le juzga como el personaje clave que marcó el inicio del siglo XIX y la posterior evolución de la Europa contemporánea. Sus soldados lo llamaban el *Pequeño Cabo (le Petit Caporal)*, en tanto que los ingleses se referían a él con el despectivo *Boney* y las monarquías europeas como el *tirano Bonaparte*, el *Ogro de Ajaccio* o el *Usurpador Universal*. Ikus Johnson, Paul (2002): *Napoleon: A Penguin Life* N.Y.

¹³⁹ ETXEPARE, J. *Kazetaritza (B)*, o.c., 290 or.

¹⁴⁰ ETXEPARE, J. *Kazetaritza (A)*, o.c., 108 or.: “Gorri-beltzak errankizun huni dira jarraikitzen bakarrik: ‘Tout pour nous; rien pour les autres’. Heldu baita euskaraz: ‘Oro guretako; besteentzat deus’.

¹⁴¹ ITÇAINA, X. *Euskaldun fededun. Errepublikaren oroimen urratuak*, Elkar, Baiona, 2012, 23 or.: “Xurien artean Etxepare mirikua bezalako figura atipiko zenbait izanen ziren”.

¹⁴² JE, *Kazetaritza (A)*, o.c., 105 or.

¹⁴³ JE, *Kazetaritza (A)*, o.c., 106 or.

bitartean. Baigorriko kantonamenduarekiko Estatu Zentralaren utzikeria zela eta, kexu agertzen ziren enpleatuei: “*C’est que, en Espagne, les provinces son quasi indépendantes, tandis qu’en France c’est Paris qui commande*”, euskal herrikoek honelaxe ihardetsi zieziaieketen, JEreren ustez: “*‘C’est una explicacion, ce n’est une excuse’. Euskaraz aitor dezagun, azken hitz, ahalgeti behar dela askotan, egiazki, frantses izateaz*”¹⁴⁴.

2.3.3. Kontserbadorea? Aurrerakoia?

Politika ikuspuntutik JE aurrerakoia, atzerakoia ala zentrista izan zen? Erantzuna ez da erraza, besteak beste, gaur egungo politika-bereizketaren ikuspuntua XX. mendearen hasierako ikuspuntu bera ez delako. JEreren idazkietan, ez dut gai horretaz erantzun zehatzik aurkitu. Zeharkako informazioa, haatik, bai, eta horren arabera, JE errepublikano kontserbadorea-edo izan omen zen edota berak erabilitako hitzez baliatuz errepublikano zuzena edo garbia (xuria?) zela esango nuke (baina zuzena eta garbia ez dira politika kategoriak; demokratikoak ote?).

Ekonomia-arloan, JE herriko lagunen *iniziatiba pribatua* defenditzen zuen: *merkatu askearen* aldekoa izan zen, baita tokian tokiko elkartearen kontrolpearen aldekoa ere. JE gogor lan egin eta gero errentaduna bihurtutako aita baten seme nagusia izan zen¹⁴⁵ eta, errenta-tituluen etekinei ematen zien ardurarengatik, bera ere errentaduna zela deritzot. Hezkuntza-arloan, hizkuntza minorizatuen aldekoa agertu zuen bere burua, guztiz frantsesaren aldekoa zen/den Frantziako Estatutan.

2.3.4. Laikotasunaren aldekoa

Frantziako Errepublikaren eta Eliza Katolikoaren arteko erlazioetan, JE laikotasun lagunkoiaren aldekoa izan zen: “*Iduritzen zauku ara horrek kalte baino on gehiago eman dakola, bai erresumari, bai Elizari*”¹⁴⁶. Jarrera hori ez zen Frantziako askorena eta are gutxiago katoliko gehienena. Hori zela eta, JE sarri izan zituen tirabirak *Eskualdunaren* zuzendaria izandako J. Hiriat-Urruti apezarekin. Adibideren batzuk:

- 1910ean Parisko Parlamenturako hauteskundeak zirela eta, Léon Pradet politikari xuriak, Zuberoa eta Nafarroa Beherekoen botoen bila, ‘*sainduago*’-edo agertu omen zen mitinetan: “*Aldi huntan erlisionea zuen ahoan, berehala*

¹⁴⁴ JE, *Kazetaritza (A)*, o.c., 212 or.

¹⁴⁵ ALTONAGA, K. o.c., 46 or.: “Dirudienez, errentez bizi denaren bizimodu astindua egin zuten, artzaintza edota laborantza, oroitzapenen kutxan ondo gordeta”.

¹⁴⁶ ETXEPARE, J. “Nor eskola-emaile, zer irakats”, *Buruxkak*, o.c., 62 or. JEreren iritzi hori hezkuntzari dagokio zuzen, baina elizaren eta Gobernuaren arteko erlazio guztietara zabal dezakegula uste dut”.

hitzemaiten zaungularik bere ahal guziaz bermatuko zela Parisen gure fedezko eginbi-deen betetzera utz ginditzaten zoin guhauaren xokoetan”. “Aldudar zenbeit, haatik, lasterka joanak zitzaikion herriarentzat zerbeit languntza galdez”: Kintoko goiti-behe-tia, esateko. Baina politikariek, ez xuriak, ezta erradikalak ere, “ez omen zekien deus” ‘affaire’ horretaz. JE irrigarri utzi nahi izan zuen, gizarte arazoez ez, ‘erlisioneaz’ arduratzen zen kandidatu zuriaren jarrera. Berorrek –idatzi zuen– “erhiaz erakutsi omen die (aldudarrei) zerua, ahapetik zeresalarik, apezek predikuan hain ardurua ohitu egiten daukutena: ‘Porro unum est necessarium...’ Non erran behar zuen hoin sineste handikoa ginuela Pradet”¹⁴⁷. Ez omen zitzaion Hiriart-Urrutiri ondo iruditu Eliza Katolikoaren ‘eskubideak’ defenditzen zituen politikari zuriari JEk egindako ‘trufa-edo’ eta berehala erantzun zion, diputatu batek gizarte arazoez gain, erlisioneaz ere, honetaz batez bat, arduratu behar duela defendituz: “Jaun hori (Pradet) gure ganat den bezala itzulia ikusteak ez dauku guri horren saindutasunaz irri egiteko demendreen gutiziarik emaiten. Ez dira solasak, are gutiago egunak, irri egitekoak. Erlisionearen alde edo kontra da, guk nahi ala ez, oraiko politikaren ez-bai guzia, edo bederen handiena. Lehenik hori, gero gaineratikoez ahal duguna egin, ez ahantz, ez utz bazterrerat gaineratikoak, ahalik hobekiena eta gizonkienik antola oro. Bainan orotako lehen erlisioneaz”¹⁴⁸.

- Elizaren eta Gobernuaren arteko banaketari buruzko JErren jarrera argi geratu zen, 1923an ere, Lehen Mundu Gerran hildakoen oroimenezko “*eskulanezko oroitmen bat, egiazki baliosa*” Alduden eraikitzeke orduan. Urte hartan, JE auzapez-laguna zen eta eztabaida bat planteatu zitzaien oroitaria non kokatu eztabaidatzeko unean. Herriko batzuek hilerrian nahi izaten zuten –elizaren lurrian, beraz–; besteren batzuek, ostera, –JE tartekoa–, herriko zubiaren ondoko xokoa hobetsi zuten. Azpimarratzekoa zaigu hautaketa hori egiteko JEk eman zuen arrazoi laikoa: “*Odol hotzian egon da jendia, bakar zombait kexu izana gatik. Gehienek ikusten dugu alainan, zer eta nola behar dien izan, holako obra publiko batek. Gehienak ohartiak dira ondarreko gerla etzela ‘une croissade’, ez eta ere ‘une guerre de religion’. Badakite harriaren gainian non dagoken zuzenki elizako kurutzia, non gerlako kurutzia. Biak izanen dira, baina bakotxa bere toki zuzenian. Ez direa bestalde bat bestia ahide*”¹⁴⁹.

¹⁴⁷ Lk 10, 42.

¹⁴⁸ “Pradet-Larre”, *Eskualduna*, 1910.04.13, 2 or.

¹⁴⁹ ETXEPARE, J. *Kazetaritza* (B), o.c., 256, 247, or. Hala ere liskarra berdinduta-edo bukatu omen zen. Errekaren ondoan dagoen oroitari zibilaz gain, hogeita hamar metrora, eliz-arkupeeko horman ere marmorezko harlauza bat dago (zein baino zein antzinagokoa?), non 1914-18 bitarteko gerran hildakoen izenak (oroitarri zibileko izen berberak) agertzen diren (diferentzia txiki batekin: oroitarri zibilean hamasei izen daude; elizakoenean, hamabost). Eztabaidak eztabaida, zelakoak izan ziren Aldudeko ‘miriku’aren eta apezaren arteko erlazioak? JE Alduden bizi izan zen bitartean, apeza Martin Uharriet izan zen (1840-1934).

- Ekainaren 26an, igandean –hain istilutsuak izango zitzaizkion *Buruxkak* liburu-ruko artikulua argitaratu eta urte gutxira (urtebetera?)–, Urepeleri zegokion arrondizamenduko kontseilariak izateko aurkeztutako gazte biren alde idatzi zuen JEK, eta aldekotasun hori defenditzeko ekarri zituen arrazoiak, honako hauek izan ziren: batetik, “*adin ederreko gazteak, gazte bipilak*” izatea eta, bestetik, “*erlijionearen aldea daukatena, ahalgerik gabe*”. Iritzi berberari eutsi zion abuztuaren 8an beste artikulua luze mamitsu batean¹⁵⁰.

2.3.5. Elizaren eta Gobernuaren arteko istiluak. Hezkuntza

Eliza Katolikoaren eta Frantziako Gobernuaren arteko istiluak, batik bat, bi arlotan gaiztotu ziren: hezkuntzan eta Elizaren eta Estatuaren arteko erlazioetan¹⁵¹.

Hezkuntza-arloan, Jules Ferryren “ezin ukituzko” 1880ko legeek eskola doako, nahitaezko eta laikoa ekarri zuten, baita aldakuntza nabarmenak ere irakasleen heziketan eta titulazioan. Lehen mailako irakaskuntzan aritzeko, Gobernuak gaitasun-titulu ofiziala exijitu zuen eta gotzainei kendu egin zieten titulurik gabeko lekaideei klaseak emateko baimena banatzeko ahalmena.

1882ko martxoaren 28ko legeak lehen mailako ikastetxe publiko zein pribatu-tuetako ikustapen, kontrol eta zuzendaritza-eskubidea Elizari kendu zion eta, gutxi balitz, 1886ko urriaren 30koak lekaideei eskola publikoetan klaseak emateko ahalbidea debekatu zien. Eskola publikoetan irakasleek laikoak izan beharko zuten, derrigorrez (Goblet legea). Kontestu horretan, baliteke JEK gerotxoago komentatu dudana “Nor eskola-emaile. Zer irakats” artikulua idatzi izana.

Gauzak are gogorragoak jarri ziren 1905eko abenduaren 9ko legearekin “*concernant la separation des Églises et de l'État*”, zeinetan Gobernuak 1801ean Vatikanolari inposaturiko konkordatu apurtzeaz gain, subsidioak eta eraikinak kendu egin zizkion Elizari, baita kontzientzia eta kultu askatasuna finkatu ere. Kultu-erabilera Elizaren esku geratu zen, baina elizarenak ziren tenpluen eta beste edozein mota-

¹⁵⁰ JE. *Eskualduna* (1910.07.07) eta 1910.08.05. Kotselari gaiak hauek izan ziren: Louis Etcheverry, Ortziazekoa eta Jean-Baptiste Erreca, Aldudekoa: “Alduden zen igandean, *Louis Etcheverry, Laratepe* Azkaratekoarekin, *Heguy* Ortziazekoarekin. Iku-si dituzte hemen *Jean Baptiste Erreca, Mocoçain*, jaun mera eta *Chabagno* bi anaiak. Alabainan gazteak gazte; gaztek zaharren laguntza, kontseilu gider onak behar”.

¹⁵¹ GUEVARA, H. *Concordatos: Tratados del Vaticano y el Estado*. Francia: “En 1850 la educación fue declarada libre y luego en la Tercera Republica, la de los “abogados” y “literatos” adoptó un ambiente anticlerical cuando, al comienzo del presente siglo, el público se dio cuenta del escandaloso papel que, al lado de altos militares y del antisemitismo, ciertos elementos del clero habían jugado en el asunto “Dreyfus” (El caso Dreyfus tuvo como origen un error judicial, [1] [2] sobre un trasfondo de espionaje y antisemitismo, en el que la víctima fue el capitán Alfred Dreyfus (1859-1935), de origen judío-alsaciano, y que durante doce años, de 1894 a 1906, conmocionó a la sociedad francesa de la época, marcando un hito en la historia del antisemitismo.), un descubrimiento que desencadenó una oleada de anticlericalismo”.

tako erakinen jabetza: hilerriak, ikastetxeak, ospitaleak..., Larresoroko seminarioa, kasu, Estatuaren eskuetara pasatu ziren.

Aspaldidanik oldartzen ari ziren bi bloke tektonikoen arteko talka Frantziatik Europan zehar zabaldu zen¹⁵²: alde batean, (Frantziako) Estatu(ar)en laikotasuna zegoen, eta bestean, Elizaren hierarkia, batez ere, Vatikanokoa, bere mehatxu batera osoarekin¹⁵³: *Syllabus*arekin, esateko (1864), zeinetan Pio IX.ak (1846-1878) kultu eta kontzientzia askatasuna kondenuatu egin zituen. Hala eta guztiz, urteak aurrera joan ahala¹⁵⁴, Lehen Mundu Gerraz geroztik, batez ere, katoliko batzuek, Leon XIII.aren (1878-1903) eta, Baionan jaiotako Ch. M. Lavigerie Kardinalaren (1882-1892) bultzadaz, (Frantziako) Errepublikarekiko jarrera bigunagoa onartu zuten¹⁵⁵.

Hezkuntza-arloan hasitako desadostasunak eremu askotara zabaldu ziren. 1881an Frantziako gobernuak hilerriak sekularizatu zituen, eta pixka bat geroxeago, osasun publikoa ere bai: kapilauak kanporatuak izan ziren ospitaleetatik, baita mojak ere, erizain diplomatuek ordezkatuak. Prozesioak murriztuak izan ziren kultu-lekutik at eta kalean apezak sotanaz jantzita ibiltzea debekatu izan zen. 1883an, Gobernuak eliz barruko ohore militarrek debekatu zituen. 1884az geroztik ezkontza zibilak besterik ez ziren onartu eta dibortzioa erregulatua izan zen. 1889etik aurrera kleroa soldadutzara joatera behartu zuten¹⁵⁶.

¹⁵² 1789ko Giza Eskubideen Deklarazioa: "Nul ne doit être inquieté pour ses opinions, même religieuses, pourvu que leur manifestations ne troublent pas l'ordre public établi par la loi". Daunou Legeak (1795.10.05) Hezkuntza programa finkatu zuen: Irakurketa, idazkera, kalkulu eta errepublikar moralak- 1833.06.28ko Guizot Legeak: 500 biztanle baino gehiagoko herrialdeetan lehen mailako eskola bat eraiki beharra inposatu zuen soilik mutikoentzat (neskatoek, nahi izanez gero, moja kongregazioen eskoletan ikasi beharko). Irakasleen formazioa eta titulazioak unibertsitateei zegokiela, eta eskola guztietan publiko zein pribatuetan, honako gai hauek ikasi beharra: irakurri, idatzi, frantses hizkuntza, kalkulu, pisu eta neurri lege sistema, eta moral eta erlijio heziketa. 1865.06.21ko Duruy Legeak 500 biztanle baino gehiagoko herrialdeetan neskentzako eskolak eraikitzea agindu zuen. GAUCHER, G. *Santa Teresa de Lisieux. La Biografía*, o.c., 133 or.: "Entre las oraciones, no debe olvidar a 'nuestra pobre Francia tan enferma donde la religión está tan ultrajada... Unos días más tarde, los Jesuitas serán disueltos y comenzará el éxodo de las congregaciones religiosas que no hayan conseguido el reconocimiento legal".

¹⁵³ Iritzi orokorrekin izaten duten sinplekeriaz ikus CORDOBA, J. "La opinión nacionalista y antisemita, la derecha, la liga de Patriotas, intelectuales nacionalistas como Barrés, Maurras y los hombres de Acción francesa (creada en 1899), la Francia católica -y sobre todo, el arzobispo de París, Veuillot y el periódico *La Croix*- asumieron la defensa de los valores de la Francia eterna. Y a la inversa, los dreyfusards, esto es, la opinión republicana y de izquierda, los socialistas, la masonería, la liga de los Derechos del Hombre, intelectuales como Lucien Herr, Emile Zola, O. Mirabeau, Péguy, Anatole Frances, André Gide, Marcel Proust, Albert Sorel, Jean Jaurés y muchos otros vieron detrás del affaire una conspiración contra la libertad y la justicia urdida por la Francia reaccionaria, clerical, militarista y antirrepublicana".

¹⁵⁴ Batik bat, Lehen Mundu Gerra bukatuz geroztik.

¹⁵⁵ GAUCHER, G. o.c., 406 or.: Lisieuxko Santa Teresitaren senitateak errepublikaren kontrakoak ziren: (Isidoro Guerin, Teresitaren amaren aldetiko osaba) "cristiano conservador, monárquico... no puede, sin embargo, hacer caso omiso de las exhortaciones de León XIII (encíclica *Inter innumeras sollicitudines*, 20.02.1892) a favor de la unión con la república: En *Le Normand* escribirá: 'Aceptad francamente, lealmente y sin reservas, la forma de gobierno establecida, pero combatid, por todos los medios legales, la legislación anticristiana'. GOYHENETCHE, M. *Biltzarreko liburuan*, 183 or.: "*Le Patriote* kazetako Batzorde babeslean agertzeak (kazeta hori 1896ko apirilaren katoliko apez eta laiko gazte batzuek sortu baitzuten Errepublikaren aldeko ideien hedatzeko) asmatzera utz dezake Errepublikari buruz emeki lerratzen hasi dela Leon XIIIren ildotik. Ikuspegi horrekin, ikertu behar litzateke zer harreman ukan zuen Mgr Jauffret Baionako apezpiku errepublikano eta konkordatuzaletarekin, baita baionar etorriko Mgr Lavigerie, Aljerer Errepublikari topa eginez famatuarekin" in DAVANT, JL. *Antoine d'Abbadie, Abbadiak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2012, 78 or.

¹⁵⁶ GAUCHER, G. o.c., 517 or.: "Esta ley se conoció con el nombre 'los curas con la mochila a la espalda'. Lege hau 1889ko utzailaren 9an bozkatu izan zen, Sadi Carnot Errepublikaren lehendakaria izan zelarik.

